







ANDRE-DENA

MARIAREN

ILHABETHEA.

BAYONAN,

CLUZEAU alharguna, **Liburuegile** eta **Saltçailearen** baithan; **Catedraleco** plazan, **13^{en}** numeroan.

CAUSITZEN DIRA SEGIDACO OBRAC :

Andre-Dena Mariaren ilhabethea, edo Maithatz.
Jaincoaren Amaren loriacotz contsecratua.

Egun Ona.

Gudu Izpirituala.

Jesu-Cristoren Imitazionea.

Exerzizio Izpirituala.

Eucolochia Ttipia.

Jesusen Bihotz Sacratuaren Debozitionearen alde-
raco Exerzizio Izpiritualac.

Uscara Libria.

Cantica Izpiritualac.

Andre-Dena Mariaren Imitazionea Jesu-Cristoren
Imitazionearen gainean moldatua.

Alphabet latin handia eta ttipia.

Bada orobat han berean Elizaco eta
educacioneco liburuzco assortimendu com-
plet bat, bai eta ere buruetaco paper eta
fornitura suerte guziac.



PERMISSION.

PAR le rapport qui nous a été fait par M. HARAMBOURE, supérieur du Séminaire de Larressore, que ce livre de piété qui a pour titre : *Andre-dena Mariaren ilhabethea, edo maihatza, Jaincoaren amaren loriacotz contsecratua; ilhabethearen egun bakhotcheco Meditazionearekin, othoitz eta exenplu edificagarriekin*, était propre à inspirer la dévotion envers la Sainte-Vierge, nous avons autorisé et autorisons par les présentes, M^e veuve CLUZEAU, Imprimeur-Libraire, à Bayonne, à en faire l'impression et la publication pour être offert à la piété des Fidèles dans le Diocèse.

Donnée à Bayonne, le 26 Décembre 1837.

BOUTOEY, *vicaire général,*

ANDRE - DENA
MARIAREN

ILHABETHEA,

EDO

MAIHATZA JAINCOAREN AMAREN
LORACOTZ CONTSECRATUA;

ILHABETHEAREN EGUN BAKHOTCHECO MEDI-
TAZIONEAREKIN, OTHOITZ ETA EXEMPLEU
EDIFICAGARRIEKIN.

Arima zuzenec maite zaituzte. (Cant. 1.)



BAYONAN,

CLUZEAU, Liburu eta paper Marchantaren baithau,
Catedraleco Plazan, 43 numeroan.

—
1842.

ABISUA

IRACURTZELEARI.

LIBURU huntan, Escuaraz iracurtzea errechtea gatic : 1º Letra C eta K, biac boz berean ezarriac dire, hitz hautan bezala : *Curaja, Carga, Khutsua, Kharra, etc.* Pronontziatuco duzu beraz C bethi gogorki, K balitz bezala, salbu H ondotic duenean, molde huntara : *cha, che, chi, cho, chu, ach, ech, ich, och, uch*; ezen orduan C ezti *bustia* deithua bilhacatzen da, hitz hautan bezala : *Chehea, Chichaila, Choilki, Churia, Errech da, Arrachcua, etc.*

2º C *estia* deithua denaren orde bethi Z emana da, hala nol hitz hautan : *Zuzena, Zare, Zato, Zohaz, etc.*, begiec bethi letra bea ikhus dezaten gatic pronontziacione berarentzat ;

3º Letra G bethi *gogorra* da, izan gabe U

ondotie haren *gogortzeco*. Pronontziatueo duzu beraz gogorki *ga, ge, gi, go, gu, baltz* bezala frantsesean *gua, gue, gui, guo, gou*. Hortaracotz ere deith zazu letra hori *ga* eta ez frantsesez bezala *ge*.

Hobeki segurta zaitezentzat zeroni orthografa hunen abantailez, iracur zaitzu behe-rago eginac diren opserbazioneac.



OPSERBAZIONEAC.

Escuara orthografaren edo Escuararen izkiribatzeo moldearen gainean, lengoaja huntan izkiribatzea eta iracurtzea egin daiteken bezen errech, chinple eta natural bihurtzeo.

Hemen ezartzen dut opserbazione haujen araberako orthografa.

Nihork ezin sinhetsia da zoin guti den Eskualdunen artean bere lengoajan trebeki irakurtzen dakienik. Iduriluke hori hel-du dela irakurtzeo duten usaja eskasetik, bainan baldin gauza hubil danik examinatzen bada, ezagutuko da errechki hor-

ren kausa berezia dela zeren, orae arlean, Eskuaras izkiribatu duten Autor guziek, salbu batek, segitu baitute lengoaja huntan frantses orthografa, asko hitzen izkiribatzeo moldean. Hortik heldu da maiz asmuka hari behar baita irakurtzailea, eta ardura dudazka bezala, eta bethi uzkurta-sunekin eta herabeki; non ez den jadanik usaja handi bat hartua. Ordulaiteke, Escualdunentzat arruntean on den bezala izkiribatu nahi duenak, begiak idek ditzan gauza hunen gainean, eta chinple eta natural ezar dezan eskuara orthografa : Ez da lengoaja bat zeaintan chinpleaco eta naturalago ezar baititake nola gureau. Ez bedi ekhar estakurutzat orai artinoko usaja; usaja bat klarki gutiz gehienentzat kaltekor denean, utzi behar da guzientzat klarki ona denaren hartzeco. Ez erran galduko dela orai artinoko orthografa eskuarak, orthografa frantses eta latinarekin duen aria, eta bi lengoaja hautan irakurtzea ez laitekela hain errech Eskualdunentzat; hori hala balitz ere, zer egiten luke Eskualdunentzat; hori hala balitz ere, zer egiten luke Ezkuaraz baizen irakurtzen ez du-

tenentzat; bainan ez, aria horri ez lezoke, askok uste duten bezenbat, hobe ekhar, zeren eskuara orthografa naturalak ez baitu bertzerik egiten, baizen ere; beretzat on ez dituen letrak barterrerat ustea, eta atchikitzea on detuenak, hauk enplegatzan dituelarik latinak eta frantsesak, lengoaja hautarik baxhotchak berari dohakon bezala, emaiten dioten *bozean*. Choilki uzten ditu bi letra hauk C eta G, baxhotcha *boz* edo *soinu* batekin, eman gabe bi edo hiru *soinu* suerte, bi lengoaja horiek egiten duten bezala. Arkenaz goiti, ez da erran behar begia ezin egin daitekela ardura K eta Z ikhusteari; letra horiek gaitzikorago begientzat, eta hobeago izanen da, zeren gehiago lothuco baitire izpirituari; bertze alde laster egingen dire horietarat begiac.

Urrun da hemen ene chedea baita orthografa berri baten kreatzaile jartzea, bainan nahi nuke gauza hunen gainerat erakharri examina serio baten egiteko gai diren gizonen atentziona. Nik, hemen begien aintzina emanen dut ortografaz jeneralean zer pentzatu duten lengoajetako eta letretako jakitatean izan diren gizonik ar-

gituenek. Hekien arabera, lengoaja batean, daiteken bezen errech eta natural bilhakatzekeo bai irkiribatzea, bai eta irakurtzea, hartako orthografak zerratu behar ditu segidako Erregelak : (*Beauz, Gir. Teren. Leil. Amir. Bourn. Vall. Volt. Rous. Darrig. Calm. Gebe, etc.*)

- 1º « Lengoaja batean ortografak ez du behar zerratu lengoaja hartaco hitzetan aurkhitzen ez den *soinua* edo *boza* dakharken letrarik. »

Erregela hunen arabera eskuara orthografatik khendu behar laitezke bi letra hauk V eta Y, ezdu ezen Eskuarak hitz bat letra horriek duten *boza* dakharkenik.

- 2º « Ez laiteke izan behar *soinua* edo *boz* bakhotcharentzat letra bat bera baizen. »

Ezkuaraz izkiribatu duten Autor gehienetan aurkhitzen dire hiru letra *boz* bera dakharketanak Q, C *gogorra* eta K. Azkeneko hau aski laiteke, eta hunek behar luke preferentzia bertze bien gainean, zeren hau baita bakharra bi garen Erregela

bethe dezakena; ezen *soinu* hori behar duten hitz guzietan enplega daiteke eta bertze biak ez, hala nola hitz hautan : *Khentzea*, *Kharra*, *Khoroa*, etc. Ez daiteke ezen eman *Chentzea*, *Charra*, *Choroa*, etc. , zeren C, ondotic H duenean, *eztibustia* deitzen dena jartzen baita, hitz hautan bezala : *Chicharia* *Churia*, etc, gutiago ezar daiteke *Qhentzea*, *Qharra*, *Qhoroa*, etc. Zeren ez baita Q zerbitzitzen, non ez duen U ondotic; eta nola Eskuaraz U, frantsesez OU balitz bezala pronontziatzen baita, klar da ez daitekela Q sar hitz horietan. Bertzalde, bi letra horiek elharekin ere ez dezakete eman *soinu* choil hau baiden QU (*balitz bezala frantsesez YOU*), eta nola *boz* horren izaiteko ere bethi abantaillekin ezarriko baita YU, hobe da Q ez dadin behin ere ager eskuara orthografan.

Autor beretan aurkhitzen dire oraino bertze bi letra *soinu* bat bera dakharketenak, C *estia* eta Z, askeneko hau behar da preferatu, zeren *soinu* hori galdegiten duten hitz guzietan sar baititake eta bertzea ez, hala nola hitz hautan : *Aztia*, *ezpaina*, *izpiritua*, ez, etc., ez daiteke ezen ezar

Actia, Ecpaina, Icpiritua, ec, etc., hortice ere gaineko erregela hau begiratzekotz Z behar da bethi ezarri *C eztiaren* orde. Bertzalde beheko erregelak ere gauza bera galdegiten du.

3º « Oraino gutiago behar lai-

« teke zerbitzatu letra bera

« *soinu* edo *bos* diferentziat. »

Orai artean, Eskuaran frantsesean bezen ongi, Autor guzietz utzi dute letra C hiru *boz* suerterekin, eman diote C *gogorrarena*, Y balitz bezala, hala nola hitz hautan : *Carga* (*Karga*), *Cortea* (*Kortea*), etc. ; C *estiarena*, Z balitz bezala, hala nola hitz hautan : *Certako* (*Zertako*), *Cerua* (*Zerua*), etc. ; C *ezti bustiarena*, hitz hautan bezala : *Churia Chicharia*, etc. (Azkeneko *soinu* suerte hau ez daiteke ardiets letra hunen bidez baizen, enganatu da beraz Autor baterran duenean C khen daitekela eskuerra alfabetetik, zeren eman baititeke horren orde K, *soinu gogorra* behar duenan, eta Z, *soinu eztiaren* ezarria denean ; Gauza segura da Eskuarak ardura galdegiten dituela bere hitzetan *boz* suerte hauk : *cha, che, chi, cho, chu, ach, ech, ich, och,*

uch; bada *soinu* suerte hauk ez deteske izan *C esti bustia* gabe).

Asko Autorrec *C gogorra* bihur arazten dute *esti*, azpian ezarriz tilde bat, hitz huntan bezala : *Çato* (zato); hori da letra bera lau gisetara enplegatzea, eta irakurtzaile trebe ez direnentzat, letra beraren gainean, lau difikultate sor araztea. Hala da ere, letra hori da gehienik trabatzen duena zalhuki irakurtzeco, zeren hori heldu baita hitz gehienetan begietara, *soinu* differentetako enplegatua. Hiru garren erregela hau segitzekotz, behar laiteke ezarri bethi *C gogorraren* orde *K*, *C eztiaren* orde *Z*, eta atchiki *C*, ondotik *H* dueneko, erran nahi da *C esti bustiarentzat*. Molde hortan Ezkuaraz izkiribatzeari eta irakurtzeari khen lakiokete hiru edo lau difikultate, letra horrek emaiten dioskatena.

Bada oraino bertze letra bat egiten duena irakurtzailearentzat difikultate bat ez guziagokoa; hura da *G*. Ezin contzebitua da nola lengoaja huntan izkiribatu duten Autorrek, salbu Murde Duhaldek, ez duten goardia eman Eskuaran *G* bethi *gogarra* dela, eta ez Frantsesean eta Latinean

bezala batean *gogorra* eta bertzean *eztia*; etzajola beraz eman behar U ondotik harren gogor arazteko, bi lengoaja horietan egiten den bezala: zeren, 1º U Horri alferretan baitu, dioen bezala Murde Darrigol, autor estimagarriak, « gure lengoajak ezen « ez du uzten G hartzera U ondotik duen « nan, I edo E ondotik duenan ez duen « *soinuric* »;

2º Zeren U horrec behar ez den *soinua* emaiten baitio, hala nola hitz hautan: *gizona*, *guero*, etc. Emaiten dio ezen frantseseko *soinu* hau *gouizona*, *gouero*, etc. Autor berak dioen bezala, « U hori kaltekor ere du, ezen horrek manatzen du pronontziatzea frantsesean *gouizona gouero* balitz bezala. » (*Ez da galdu behar gogotic Escuaran U, Frantsesean OU balitz bezala dela*). Horra zerk presiski enbrazutan emaitan duen irakurtzailea, ez jakinez nola pronontziat; batzuetan ezen U hori behar da frantsesez OU bezala pronontziatu, eta bertzetan ez da baliatzen G *gogortzeko* baizen, hala nola bi hitz hautan: *aguintza*, (*promesse*) *higuintza* (*haine*); lehen hitzean U ez da baliatzen G *gogortzeko* bai-

zen eta GUI pronontziatzen da Frantsesez bezala, eta bigarrenetan lengoaja berean GOU balitz bezala. Bertze hainitz hitzetan ere orobat daiteke, eta horrela bethi asmuka hari behar eda eta Erregelarik gabe. Difikultate guzia altchatua da G, bere naz Eskuaran den bezala, bethi *gogorra* eginez, hala nola hitz hautan: *agintza*, *higuintzea*. Hortaracotz behar da bethi pronontziatu, *ga*, *ge*, *gi*, *go*, *gu*, balitz bezala Frantsesean *gua*, *gue*, *gui*, *guo*, *gou*.

Gaineco opserbazione hautarik naturalki heldu dena da: ezkuara orthografa arras natural ezartzeko eta azken chinpleziara ekhartzeko, eta hortie Escuaraz izkiribatzea eta irakurtzea egin daitoken bezen errech bihurtzeko, behar laitekela segitu izkiribatzeo molde hau:

- 1º C *Gogorraren* orde eman bethi K;
- 2º C *Eztiaren* orde ezar bethi Z;
- 3º C *Ezti bustiarentzat*, erran nahi da: ondolik H dueneko, atchik choilki C;
- 4º G bethi *gogorra* egin, hortarakotz ondolik U eman gabe;
- 5º Bazterrerat utz hiru letra hauk V, Q, Y, hautaz zerbitzatu gabe;

6º Hitz batez erraiteko, segi eskuara orthografan behereko alfabet hau :

ESCUARA ALFABET NATURALA.

Letren izenarekin.

A, B, Z, CH, D, E, F, G,
 a, be, zeta, che, de, e, ef, ga,
 H, I, J, K, L, LL, M, N, Ñ,
 ach, i, ji, ka, el, ell, em, en, enn,
 O, P, R, S, T, TT, U, X.
 o, pe, er, es, te, tte, ou, ets.

Alfabet hunekin Eskuarako hitzkuntzetan diren *soinu* suerte guziek balukete, baxhotchak bere letra berezia, letra berak es luke *soinu* bat baizen, eta Eskuarak ez dituen *soinuak* dakhartsketen letrak khen-duac laitezke. Horrela, gure lengoajan izkiribatzea, nola irakurtzea, den errechenak bihur laitezke, eta eskuara orthografa jar laiteke den naturalena eta chinple-ena.

Erran diezaketet zertaco bada ez dudan segitu neronek orthografa hau liburu hun-

tan eta bertzetan ? Ihardesten dut hori ene gogoaren kontra egin dudala, eta nitas bertzek izan dezaketen arrazoinak direla kausa. Biskitartean baldin ongi goardia emaitan bada, ikhusiko da gaineko erregelek galdegiten dituzten bertze kondizio-ne guziak bethe ditudala, saldu hau : C *gogorra* eta K, bi letra hauk utzi ditu *soinu* berarekin. Ene ondotik ethorriko direnek, esperantza dut, khenduko dutela oraino arras C *gogorra* eta *soinu* horrentzat, be-thi K ezarrico dutela ; orduan izanen dire betheac osoki gaineco Erregelen condizio-neac.



AURKHITEGIA.

Plamac.

BIRGINA Sainduari liburu hunen contsecrat-
zeco acta.

Aprobazionea liburu hunen inprimatzeco.

Abisua iracurtzaileari liburu huntaco ortho-
grafaren gainean.

Opserbazioneac escuara orthografaz.

San Bernaten othoitzza latinez, *Memora-
re*, etc.

Irakhaspena Mariaren ilhabetearen ethorkiaz
eta pratikez..... 1

Mariaren ilhabetheco pratikez..... 10

Mariaren ilhabetheco deboziona, bat bede-
rac bere etchean, bakharric edo familiare-
kin, egiteco moldea..... 11

Mariaren ilhabetheco deboziona ac galdegiten
dituen exercizioac, Elizan publicoki po-
puluarekin batean, egiteco moldea..... 14

Pratica berri batzu arima Jaincotiarrac, Ma-
riaren ilhabetheco debozionetic, probet-
chu handiac atheratzen laguntzecotzat... 18

Lehen pratica	19
Bigarren pratica	20
Hiru garren pratica	21
Maximac Mariaren ilhabethecotzat	25
Birjina Sainduaren lithaniac latinez	38
Lithaniac berac Escuara	41
San Bernaten othoitzaz Escuaraz	43
Meza Saiuduco othoitzaz	45
Meditazionearen aintzineco actac	61
Meditazionearen ondoco actac	62
Maihatzaren lehenaren bezperan considera- ziona	64
Lehen eguna	77
Bigarren eguna	83
Hiru garren eguna	92
Lau garren eguna	101
Bortz garren eguna	108
Seigarren eguna	115
Zazpi garren eguna	124
Zortzi garren eguna	131
Bederatzi garren eguna	139
Hamar garren eguna	148
Hameica garren eguna	158
Hamabi garren eguna	166
Hamahiru garren eguna	173
Hamalau garren eguna	181

Hamabortz garren egua	189
Hamasei garren eguna	196
Hamazazpi garren eguna	203
Hemezortzi garren eguna	212
Hemeretzi garren eguna	218
Hogoi garren eguna	227
Hogoi eta bat garren eguna	233
Hogoi eta bi garren eguna	242
Hogoi eta hiru garren eguna	249
Hogoi eta lau garren eguna	256
Hogoi eta bortz garren eguna	265
Hogoi eta sei garren eguna	272
Hogoi eta zazpi garren eguna	280
Hogoi eta zortzi garren eguna	287
Hogoi eta bederatzi garren eguna	295
Hogoi eta hamar garren eguna	305
Hogoi eta hameica garren eguna	312
Contsecrazionea Birjina guziz Sainduari	322



IMPRIMERIACO HUTSAC.

Plama. Lerroa.

Iracur zazu.

7	12	oraz	oroz.
12	19	Nngi	Ongi.
18	20	diren zoin gai	zoin diren gai.
74	1	nmtzen	nintzen.
111	11	noizbat	noizbeit.
122	6	urrundu da	urrun da.
129	28	ehar	ekhar.
134	5	idurihitzeo	idurikitzeo.
147	26	lazaheriaz	lazakeriaz.
162	6	dezahedan	dezakedan.
163	11	azhenari	azkenari.
164	28	gauzaren	ganaren.
165	7	hartu	hartua.
165	13	besarhatzen	besarcatzen.
167	8	abantailehin	abantailekin.
171	26	seinaleehin	seinaleekin.
180	24	zaeen	zareen.
185	6	khartsuhi	khartsuki.
186	14	eege	errege.
195	18	khanbazatic	khanbaratic.
206	28	debinoarentzat	dibinoarentzat.
208	11	kohazconac	zohazconac.
213	10	hur	hura.
215	24	bekala	bezala.
218	15	izpirituan	izpiritura.
238	8	ero insira	ere inspira.
242	24	bore	bere.



BIRJINA MARIA

*Guziz garbi eta notharic izan gabeari,
Jaincoaren Ama guziz gai denari,
Aingeruen eta Sainduen Erregina,
bekhatorosen Arartecoari.*

BIRJINA SAINDUA,


ASPALDI danic bihotzean nakharken zure ohoretan zerbeit egitea, ene Ama on bezala, enetzat izan dituzun ontasun guziez zuri eskerrac bihurtzecotzat. Ah! emana balitzaut oratant adi araztea zoin den handia zure ontosuna eta zoin diren miragarriac zure misericordiaren efetuac ! Zure calitate maitagarrien aiphamenac erakhar litzazke justuac geroago eta gehiago zure benedictzera eta laudatzera, eta, zure amultsutasunaren bichtan, bekhatorosecided litzakete bere bihotzac confientziari eta zure besoetarac laster egin lezakete. Ene

Ama guziz ona, bederen, ene ahalaz nahi nautzuke seinala ene amodioa eta ene eza-gutza. Hortaracotz, ofritzen dautzut obra chume hau, zeina zeronec, ene ustearen arabera, inspiratu beitautzut zure loriacotz. Baldin benedicatzen baduzu, baliatuco da Escual Herrietan, urthean ilhabethe bat zuri contsecratzeco usaja debot eta salbagarriaren hedatzecotzat. Birjina saindua, egizu zure zerbitzari lejal guziac bihotzez eta chedez elgarrekin bat jar ditant, molde berri huntaz, lekhu guzietan, santificatzeco primaberaren hastapena, eta ilhabetheric ederrenaz egiteco inozentziacoco eta kharrezco denbora bat, zure ohoratzecotzat guzia contsecratua. Ochala? Maria dibinoa, baldin obra chume hunec laguntzen balu, benediczionezko ilhabethe huntan, Elizaco Artzainen eta Girichitino egiascoen debozionea; eta hau iracurtzen duten guziec huntaric atheratzen baliuzte bere buruen santificatzeco lehia biziago bat, eta amodio bat samurragoa Jesusentzat eta zuretzat.

O *amodio ederraren* Ama, egizu Jesusen, zure eta Josepe zure Esposaren alderaco

amodioac harrapa ditzan hainbertzetaraino gure bihotzac, non, amodio sacratu hortaz osoki hartuac gure bizian, heriotzeco orenean gure ezpainetaric atheraco diren azken bihotzcarazco hitzac izanen baitire izen gozo, izen maitagarri hauc.

JESUS ! MARIA ! JOSEPE !



SAN BERNATEN OTHOITZA

BIRJINA SAINDUARI LATINEZ.

MEMORARE, o Piissima Virgo Maria, non esse auditum à sæculo, quemquam ad tua currentem præsidia, tua, imploranten auxilia, tua petentem suffragia, esse derelictum. Ego, tali animatus confidentiâ, ad te, Virgo Virginum Mater curro, ad te venio, coràm te gemens, peccator, assisto: noli, Mater verbi, verba mea despicerere, sed audi propitia, et exaudi.



IRAKHASPENA

Mariaren ilhabethearen ethorkiaz eta pratikez.

BIRJINA guziz sainduaren alderat Girichtinoec duten deboziona hartzeco eta sustatzeco diren pratica guzietan, ez da, behar bada, bat contsolagariagoric, eta dembora berean solidoagoric, nola baita *Mariaren ilhabethearen* izena dakharken deboziona. Hamazazpi garren mendearen akhabantzian abiatua Erruman, Italia guzian laster hedatu zen, eta handie mende berean pasatu Frantziarat. Hainitz lehiarekin errezibitua izan zen zembait presuna jaincotiarrez. Printzesa bat, Andre Luisa frantziacoa, San Deniseco Carmeliten Priorea, izan zen lehena Birjina Maria, Frantziaco Patroinaren ohoratzeco molde berri hau onhetsi zuena, haren exemplu ederraz erakharriac eta curajastatuac, hainitz presuna khartsu laster deboziona huni lothu ziren; eta iduri gu-

zien arabera, aspaldi izanen zen jeneralean orotorat hedatua, baldin trabatu ez balute, casic ordu beretic abiatu ziren Erresumaco nahasdurec. Tulubiozco egun deithoragarriac iragan ziren bezen laster, arima lejalac ikhusi izan dire khar berri batekin emaiten debozione huni : bereziki zembait urthe huntan, Eliza gizon batzuen arthari eta zeloari esker, hedatzen harida, auzotic auzora bezala, eta esperantza izaiteco da, dembora laburric artean, herri guzietan ezagutuco direla hunen abantailac. Ezen, nola izan daiteke bertzela, baizic ere, *Mariaren ihabethearen* aiphamenac, ideac, chede eta pratikec hunkitzea eta harrapatzea, egiazco debozione samur bat Andre-dena Mariarentzat duten Girichtinoen bihotzac? Zer daiteke justuagoric, gure Salbatzaile dibinoaren Amari ohore berezi bat bihurtzecotzat, zembait asteren contsecratzea baino? Zer da progotchosagoric arimentzat, nola Ama samur haren fagoreac irabaz araz detzozketen exercizioen zembait egunetaco segida? Azkenecotz, Zer da errechagoric, bakhotchac bakharrean familiarekin bezala, etchean Elizan bezen ongi pratica dezaken debozionea

baino? Hortaracotz ere, debozione hau ongi comprenitua izan den lekhu guzietan, *Mariaren ilhabethea* bilhacatu da benediczionezco ilhabethe bat. Arimac ikhusten dire graziarat bihurtzen, emaiten debozioneari, eta fedeac, bihotz guzietan sustatua, lekhu cotasun bihurtzen dio, urthe oroz, behin ere alferretan oihu egiten ez diogun Ama dibinoaren puchantziari.

Bainan, erranen da, zertaco ordean contsecra ilhabethe oso bat pratica saindu horientzat? eta bertze alde, zertaco hauta maihatza bertze edo zoin ilhabethe baino lehen? erech da emaiteco arrapostua, huna zertaco: zeren Mariaren zerbitzariac, egunean hiru aldiz, eta aste guziez, egun oso batez, Zeruco Ama haren ohoratzeri ekharri dituen sendimendu berac juja arazi baitiote orobat progotchos izanen zitza jotela urthean ilhabethe baten hautatzea haren handitasunen eta berthuteen ongi zelebratzecotzat: eta zeren, ofrenda barentzat, dio Aita Lalomiac, hartu behar baita bethi gauzaric hoberena eta agradagarriena, hortaracotz hautatu dute maihatza urtheco ilhabetheric ederrena eta agradosena bezala. Hala da ezen,

ilhabethe horrec, naturaleza erreberrituz, lurra estaliz lorez, iduri du arima gonbidatzen duela graziarat sortzera, eta egiazco debozionearen homajez egitera khorobat, berthute guzien Erreginari hainitz agradagarri zajoena.

Bertze motio bat ilhabethe hori hautatzean izan dena da, primaberaco egun ederretan, Italiatan bertze tokietan bezala, naturalezac hartzen duen alegeratasunean, libertizione eta plazer lanjerosetaraco irrirtsaren itzul araztea debozionearen bozcario eta alegrantzia ezti eta inozenten sendimenduetarat. Asco lekhitan, esperantza guziez goragocoa izan da efetua. Barriamenduac hide egin dio debozioneari; Italia guziac, ilhabethe huntan, ihardesten du Zeruco Erreginaren laudoriozco cantuez. Eguneco oren eta memento guziez ikhusten dire adin eta estatu guzietaco presunac Jaincoaren Amari bihurtzen bere amodioaren eta bere ezagutzaren homajac. Nekhez egin daiteke idea justu bat hirietan, herririttipienetan bezen ongi, erreginatzen duen alegrantziaz, kharraz, bai eta beitharte guzietan agertzen den contentamendu izpiritualaz. Erran daiteke ilhabethe hau

guzia dela Jesusen bizte loriosac, bazcoetan, bihotz guzietan ezartzen duen loria eta alegeratasun inozentaren continazio-nea. Jaincoaren ontasunari esker, badire jadanic gure Erresuman diosesa frango ikhuspen contsolagarri bera ofritzen duterac, eta esperantza izaiteco da, denbora laburric artean, gauza bera ikhusico dela Escualdun Herrietan; hortaracotz ere, ene chede guzia da, lerro hauc izkiribatzean, liburu hunen bidez, lasterrago eta errechkiago debozione maitagarri hau ezagut araztea, eta Escualdunac erakhartzea hunen besarcätzerat lehia gehiagorekin.

Azkenecotz, erremarcatua izan da urtheco ilhabethe bakhotchac Andre-dena Mariaren besta bat dakharken denboran, maihatza zela choilki fagore hortaz gabetua; eta Elizac Birjina sainduaren lorificatzeco chedetan, eta gutienic fagoratuac ziren egunac grazia gehiagoz bethe zitan amorea gatic, nahi izan du ilhabethe hau osoa izan zadin ilhabethe pribiliatu bat, zeintan tresor izpiritualac egonen baitziren idekiac Mariaren zerbitzari lejalen fagoretan.

Hortaracotz ere, Pio zazpi garrenac, orthoitzapen zori onezco Aita Sainduac,

martchoaren hogoi eta batean, mila zor-
 tzi ehun eta hamabortzean eman bulaz,
 acordatu diote Girichtino lejal guziei, zei-
 « nec, bakhartasunean, edo bertzerekin
 « baltsan, maihatzeco ilhabethean, egun
 « oroz, ohoratuco baitute bere homajez,
 « bere othoitzez edo bertze zerbeit berthu-
 « tezco actez Birjina guziz saindua, ilhabe-
 « teco egun guzietan hirur ehun egunen
 « induljentzia, eta ilhabethean behin in-
 « duljentzia osoa, cofesatzen eta come-
 « niatzen den egunean, othoitz egiten
 « delaric Elizaco beharrentzat eta Aita
 « Sainduaren chedetara; induljentzia
 « hauc oro aplica daitezke Purgatarioe-
 « tao arimei.»

Jaincoaren bihotzcaraco Eliza gizon
 eta egiazco Artzainei ongi lohatcoten gau-
 za bat laiteke, Elizaren eta Aita Saindua-
 ren chedetan sartzea, eta Birjina guziz
 saindua ilhabethe huntan manera berezi
 batez ohoratua izan dadintzat, Erlichio-
 nezco dei hunen laguntzea: hortaracotz,
 ezagut arazten dutelarric bere azpico fi-
 delei debozione bat hoin salbagarria eta
 hoin progotchosa, gonbidatzen dituzte-
 larric bil daitezen elgarrekin, goiz edo
 arrats, Mariaren aldarearen oinetara,

huni bere homajen bihurtzera ; eta bera
 aurkhitzen delaric exercizio saindu hetan
 jadanic praticatzen den bezala hainitz
 edificazionerekin asco herritan. Oh ! norc
 dezake erran zer graziazco tresorac jauts
 araz litzazketen bilkhua hejec Artzaina-
 ren eta arthaldearen gainerat, bene-
 diczionezco ilhabethe huntan ! Ez ezin
 daitekena da Mariari ez agradatzea debo-
 zione bat zeinac bil arazten baititu haren
 oinetara , ilhabethe oso batez, hanbertze
 Girichtino khartsu, han egun oraz haren
 laudorioen zelebrazecotzat. Baldin zen-
 beit obra on chumeentzat, hala nola ba-
 rur batentzat, amuina batentzat, haren
 ohoretan erran arrosario batentzat, mise-
 ricordiazco Erregina harrec ardietsi ba-
 diote, zenbeit aldiz, bekhatorosic gogor-
 tuenei bere conbertsionea eta bere sal-
 bamendua, zer benediczione ez du galde-
 ginen bere seme dibinoari haren loria-
 cotz contsecratuac diren debozionezco
 acten saritan, bai Artzain dignoarentzat
 zeinac ezarri baituke debozione hau bere
 herrian, bai eta fidelentzat zeinac cons-
 tanki eta kharrekin jarriki izan baititazke
 hunen pratica sainduei. Zenbat herri ez
 da, zeinetan, fedea abantzu iraungia, Jain-

coaren Ama ez baita casic ezagutua ere hainitzez, eta gehienez abandonatua baita! Zer ontasunekin, eta erran ere daiteke, zer ezagutzarekin Ama samur harrec ez ditu errezibituco Girichtino lejalen homajac, zeinec egin ahal guzia egiten baitute, bere kharraz eta bere amodioaz erreparatzecotzat hainbertze bihotz esker gabecoen ez acholakeria eta mesprezioa! Dudaric gabe haujen gainerat jauts arazico ditu bertzeentzat preparatuac ziren grazia baliosac, zeinac hain indignoki errefusatu baitiuzte.

Bainan, nahi bezen iraungia daiteken fedea, ez da herriric hain abandonaturic zeinetan ez baitire aurkhitzen zenbeit arima lejal, zenbeit bihotz samur, debozionari harrapatzerat uzten direnac, eta zeinec ez baitute bere baithan causitzen Ametan den hoberenarentzat confientziazco eta amodiozco zerbeit sendimendu. Baldin ez baditazke oraino zenbeit Elizetan publicoki egin *Mariaren ilhabetheco* exercizio sainduac, ez othe daitezke bederen erakhar presuna debotac hejen egiterat particularrean, erakhusten zazcotelariac hetaric athera ditzazketen abantailac bere santificazionearentzat,

eta bertze, ongi atchikitzen dioten, arimen salbamenduarentzat, zeinac, behar bada, arras urrunduac baitaude Jaincoaganic aspaldi handian? Helas! arima urricalgarrri hec erosiac Jesu-Christoren odal preziatuaz, osteca galtzen dire zorigaitzezco denbora hautan. Zer da pharadezakegunic zori gaitz izigarri horren contra? Ah! Mariaren arartecotasuna, Mariaren alderaco confientzia bizia, egiazcoa eta fermua. Hura da bekhatoreen ihes lekhua, hura da Girichtinoen socorria, hura da flacoen salbamendua. Haren izen sainduac bethi ikharatu du Ifernua, eta Elizaco istorioac milaca emaiten dauzcu exenpluac haren puchantziaz salbamenduco etsaien contra. Obra chume hunen segidan erakharriac diren hainitz tretuc clarki frogatzen dute zoin den segura haren arartecotasuna, Jaincoaren ganic ardiestecotzat bekhatorosic handien eta desesperatuenen conbertsionea. Hortaracotz ere, zerbeit khar eta zelo arimen salbamenduarentzat bere baithan oraino senditzen duten guziac, behar dire ekharriac izan *Mariaren ilhabetheco* practica sainduen besarcaterat lehiarekin, bai eta ere hejen bertzeribesarca arazterat.

« Egia da , dio , Muzareli debotac , de-
« bozione hau ez dela egin daiteken gu-
« zia , garen denbora hautan , gizonen
« salbamenduarentzat guti da , aithortzen
« dut ; bainan bizkitartean , bada zerbeit ;
« pentsatzen ere dut hainitz dela , hun-
« taric , Jaincoaren Amaren bidez , iduri-
« kitzen ditudan benediczioneac direla-
« cotz , huni kharrekin lotzen direnen
« fagoretan . »

Mariaren ilhabetheco praticaz.

Mariaren ilhabetheco deboziona ez da deboziona bat gaitza ez eta ere penagarria ; contrarat , ikhusi ondoan huntacotzat eginac diren exercizioen hautza , erran daitezke , Birjina , guziz sainduaren ohoratzeco contsecratzen diren pratike-tan , ez dela bat , behar bada , errecha-goric , ez gozoagoric , ez eta ere agrada-garriagoric , nola baita deboziona maita-garri hau . Liburu huntan ezarriac diren meditazioneac eta eginen diren iracurtze izpiritualac baliatuco dire Birjina Maria-ren alderat , egun guziez , debozionezco motio eta sendimendu berriac izaiten laguntzecotzat . Mariaren ilhabetheco e-xercizioac egin daitezke , bai ethean ,

bakhotchac berac bere bakhartasunean, edo laguekin bere familian; bai Elizan, publicoki populuarekin batean.

Mariaren ilhabetheco debozionea, batberac bere etchean, bakharric edo familiarekin, egiteco moldea.

Lehen bizicoric. Bezperatic arranjatzen da propiki, etchean den khanbara edo lekharic bilduenean; mahain bat, aldare chume bat balitz bezala, zeinaren gainean ezartzen baita ohoreski Ama Birjinaren potret bat gosturekin arrimatua. Potret haren ingurunetan ezarrico dire zenbeit buketa sasoineco lorez eginac; arthazanenda lore hejen erreberritzeco zenbeit egunetarie.

Aita amec ongi eginen dute lore hejen bil araztea bere haur chumei, erraiten diotelarie bil dezaten Ama Birjinaren aldareco buketa. Haur inozenten lore floca hainitz agradatuco zajo Zeruco Erreginari, eta artifizio suerte hortaz, inozentziaco urthetarie beretarie haurren bihotz samurretan sor arazico da Mariaren alderaco amodioa eta debozionea. Ezin sinhetsia da zenbat baliatzen diren canpoco aphaindura horiee, exercizio

saindu horien denboran, deboziona ins-
piratzecotzat eta kharra sustengatzecotzat.
Andre-dena Mariaren imachina aphain-
duric ezarria dagon kharbarari behatuko
zajo Jaincoaren Amari contsecratua den
lekhuari bezala.

Bi garrenecoric. Egun oroz, kharbara
hartan, bakhotchac bakharric, edo con-
peinian familiarekin, bihurtuko diozca
Maria dibinoari bere homajac. hortara-
cotz egiten dioelari egunean behin be-
deren bisita bat, haren aintzinean errai-
teco Arrosarioa eta Ama Birjinaren litha-
niac, edo bertze zerbeit othoitz, bat be-
derac bere debozionaeren arabera. Ira-
curtzen dakitenec progotchu handia athe-
raco dute liburu huntan diren medita-
zionaec, egunean egunecoa, iracurtzetic.
Nngi laiteke oraino Birjina sainduaren
potret haren aintzinean egitea bere goiz
arratsetaco othoitzac.

Maihatzaren lehenaren bezperan, Ma-
riaren ilhabethea etchean elgarrekin egin
nahi duten presuna guziac, erran lek-
hura bildu ondoan, abiatuko dire Birjina
sainduaren lithaniac erraitetic. Gero,
bilkhuaco Zaharrenac edo Buruzagiac ira-
cortuco du Mariaren ilhabethearen ethor-

kiaz eta praticaz liburu hunen hastean den *irakhaspena*, bilduac diren presunaguziec ongi ezagut dezatentzat *pratica* saindu hunen chedea eta izpiritua eta, huntaz fruiturekin baliatzeco moldea.

Baldin Elizan establitua bada Mariaren ilhabetheco debozionea, comeniago da debozione huni behatzen zaizcon exercizio sainduac egin ditan Elizan, bertze fidelekin baltsan; ezen bethi khar gehiagorekin eginen dire Birjina sainduaren aldarearen oinetan, othoitzecotzat contsecratua den Jaincoaren etchean. Bizkitartean Elizaco exercizio publicoetarac erabiltzeac ez du behar gibelatu bat bedera, bere etchean, gorago errana den bezala, lekhuric bilduenean, Ama Birjinaren potreta mahain baten gainean ohorezki ezartzetic, hari, egunean behin bederen, bisita bat egiteco, ez halitz ere *agur Maria* bat erraitecotzat baizen.

Hiru garrenecoric. Izan behar da chedea irabazteco Pio Zazpi garrenac, Mariaren ilhabethea deboki eginen duten Girichtinoen fagoretan, maihatzeco egunguzietacotzat eman dituen hiru ehun egunen induljentziac; behar da izan oraino artha berezi bat ilhabethe huntan sacra-

menduetarat hurbitzeco irabaz dadintzat ,
ilhabethe berean behin, cofesatzen eta co-
meniatzen den eguneco , Aita Saindu be-
rac acordatu duen induljentzia osoa.

*Mariaren ilhabetheco debozioneac galde-
giten dituen exercizioac , Elizan pu-
blicoki populuairekin batean , egiteco
moldea.*

Lehenbizicoric. Maihatzaren lehenaren
bezpera arratsean eginen da aldare chu-
me bat , zeinaren gainean ezarrico baita
Birjina sainduaren potret bat ahal bezen
ederki aphaindua : aldare chume hura
ezarrico da lekhu idekian , ahal bezen
hurbil mahain saindutie , baldin ez ba-
ditake arras mahain sainduz canpoan ezar,
bere debozioneac Mariaren oinetarat
egun guziez erakharrico dituen presunec
izan dezatentzat axegina hartaric ahal be-
zenbat hurbiltzeco.

Bi garrenecoric. Egun guciez, populua-
rentzat hobekiena dohan oren hartuan ,
eginen da exercizio izpiritual bat aldare
chume haren oinetan , molde huntara :
phistuco dire bederen bi tortcha Birjina
sainduaren aintzinean, eta Jaun Erretora
edo Jaun Bicariora ethorric da, surpeliza

jauntziric eta estolarekin, aldarearen oinetara. Han erranen du, populuac ihardesten duelaric, Arrosario saindua, eta Birjina sainduaren lithaniac. Haujen ondotic iracurtzen dire egunean eguneco contsiderazioneac pausuki eta astiki, phondu baxhotcharen ondoan tricatzen delaric zenbeit memento, bat bederac egin ahal ditzan amoreac gatic bere erreflezioneac iracurtuac zaizcon egien gainean, eta libra dadin gatic haujec bihotzean sor arazi behar diozcaten sendimenduetarat. Contsiderazione hejen ondotic iracurtzen da othoitza, exenplua, pratica izpirituala eta bihotz altchatzea, zeintaz orhoitu behar bailiteke, zenbeit aldiz egunean, haren erreberritzecotzat. Comeni laiteke cantatzea bederen zenbeit bertsu, Andre-dena Mariaren ohoretan eginac diren cantiketaric. Aldizcatzeczatzat, canta daiteke oraino Birjina sainduaren antifonetaric bat, hala nola *sub tuum praesidium, salve Regina, inviolata*, edo bertze zerbeit Jaun Erretoraren hautzara. Choilki goardia eman behar da ez luzegi izaiteco, bereziki haurretaric eta langile nekhatzaletaric direnean bilkhuaco jendeac. Gorago errana den, egunean ega-

neco contsiderazioneen iracurtzea , erreplaza dezake Jun Erretorac edo Jaun Bicarioac , berac erranez zerbeit hitz edificagarri beharraren arabera. Exerzizioaren akhabantzian , Jaun Aphezac erranen diote Elizan diren presunci : *egun... edo aste huntan , entsejatuco zarete praticatzerá ama Birjinaren hunelaco N. berthuthea*, humilitatea edo pazientzia edo etc.

Exerzizio hau egin daiteke goizetan edo arratsetan , herrietaco parada edo errechtasuparen arabera ; enganioa da uste izaitea , herri batecotzat abantail laiteken bezala , debozione hunen establitzecotz , behar laitekela esperantza izan populuaren pharte handi bat bederen ethorrico dela Elizara egun guziez ; ez balitz ere hogoi , hogoi eta hamar , edo berrogoi presuna baizic aurkhitzen exerzizio huntan , jadanic hainitz laiteke , eta asco grazia eta benediczione jauts laitezke herriaren gainerat , arima on hejec Zeruco Erreginari bihur lezoketen ohore eta homajen saritzat. Bertze alde , Elizan egiten direlaco exerzizioen ideac eta orhoitzapenac erakharrico ditu Elizara ethorrico ez direnac berac ere , bederen , zoin bere etchetan , Mariaren ilhabetheco

debozioneari jarrikitzera, eta bere orhoitzapenaren eta amodioaren zerbeit marca berezi, bere othoitzetan, Zeruco Ama hari emaitera.

Egun gehienez meza cantatuac diren Elizetan ez da deus difficultateric, ahacujaco jendeac berac aski dire exercizio haujen egitecotzat. Orduan askico da meza eta otsokien ondotic, Ama Birjina ohorezki ezarria dagon aldare chumearen oinetan, haren lithaniac choilki erraitea.

Azkenecotz, baldin balitz herriric, zeintan nihor guti baita astelegunetan Elizara ethortzen denic, lekhu hetan beretan ere ez da negliatzeco Mariaren ilhabetheco debozionea; maihatzeco igandecac contsecra daitezke Elizan debozione hunentzat, eta hortaracotz askico da erraitea, bezperen ondotic, Arrosarioa eta Ama Birjinaren lithaniac, ilhabethe huntacôtz Andre-dena Mariaren ohoretan eginden aldarechumearen oinetan. Choilki, ez da ahanzi behar populuaren gonbidatzea debozione hunen segitzera, aste guzian, bat bederac bere bakhartasunean edo bere familiarekin batean, gorago errana den bezala.

Hiru garrenecoric. Ongi laiteke Mariaren ilhabetheco exercizioac idekitzea mezaco sacrificio sainduaz eta akhabatzea. Ama Birjinaren prosesioea egiten delaric. Bi egun horietacotz ardiets daiteke Jaun Aphez picua ganic Sacramendu sainduaren benediczioea emaiteco ahala. Grazia bera ardiets daiteke oraino Maihatzeco lagun bat guzietacotz, baldin, egun hetan, aski oste handian heldu bada populua Elizara. Maihatzaren lehen eta azken egunetaco exercizioac eman daitezke Maihatzeco lehen eta azken igandetara.

*Pratica berezi batzu arima Jaincotiar-
rac, Mariaren ilhabetheco debozione-
tic, probetchu handiac atheratzen la-
guntzecotzat.*

Ez da nihor ikhusten ez duenic Mariaren ilhabetheco exercizio saindu, gorago aiphatuac, diren zoin gai debozio-
nearen sustatzeco, eta haujei lejalki jarri-
kitzen direnen gainerat jauts arazteco
Jaincoaren Amaren laguntza eta ararte-
cotasun berezia. Bainan baldin hautaric
athera nahi badire huniei eratchikiac
diren abantail izpiritual guziac, on da
haukiei eratchkitzea oraino segidaco pra-

ticac, zeinac hain baitire baliosac eta premiazcoac, nola baitire errechac atchikitzeo.

Lehen practica.

1º Juntatzea intentzionez Girichtino lejal guziei, zeinec ohoratzen baitute Maria ilhabethe huntan manera berezi batez. 2º Ofritzea egun guziez Jesusen eta Mariaren loriacotz, bere othoitzac, aczioaneac, lanac, penitentziac, eta nahi gabe suerte guziac. 3º Orhoitzea ardura meditazione bakhotcharen akhabantzan errandena den practica izpiritualaz, eta eguna ez uztea pasatzera, haren gainean egin gabe zenbeit acta, zeinez eginen baita usain onezco buketa agradagarri bat, sainduen Erreginari ofrituco zajoena. 4º Hastea ilhabethea eta akhabatzea sacramendu etarrat hurbiltzen delaric, hetarat hurbilduz oraino, cofesoraren abisuen arabera, igandetan eta bestetan, ahal daiteken dispozicioneric hoberenekin. 5º Ilhabethe huni guziari behatzea Jaincoaren Amari contsecratua den denborari bezala, eta egoitea bere gainean hain atzarria, non ez baitu deusic eginen hari damu egin dezokenic. 6º Aplicatzea bereziki bere

pasione nausiaren guducatezra, eta hortaracotz galdegitea, egun oroz, Birjina guziz sainduaren laguntza.

Bigarren practica.

Hainitz progotchos laiteke, asco congregazionetan usaja salbagarria emanda bezala, familietan ere, chorthean atheratuz, emaita behe-rago aurkhitzen diren maximetari-zenbeit, zeinetan cauzitzen baitire marcatuac zenbeit berthutezco acta, ilhabethean praticatzecoac Birjina Mariaren ohoretan, familiaco buruzagiac presentatzen diozcate orari maximac, bakhotchac berea athera dezan amoreagatic. *Hortaracotz harturic behe-rago diren maximetari-zenbeit, familiaco presunen nombrearen arabera, ezarrico dire izkiribaturic paper cherra pochi batzuetan, eta paper cherra hec khurubilcatuco dire, bakhotchac berea itsura hardezantzat. Izkiribatze-co penaric hartu gabe egin daitekena da oraino, galdegitea zenbat garren maxima nahi den hartu liburuan direnetaric; hori gatic dire ezarriac liburu huntan, erran behe-ragoco maximac, numero-ca: molde huntan ezen, izkiribatzen ez dakiten presunec*

berac ere segi dezakete practica saindu hau. Bat bederac chorthean erori zajon, edo itsura berac hartu duen maxima atchiki behar du, eta Zeruco Ama dibinoaren ganic errezibitu balu bezala, han marcatua duen berthutea egun oroz practatzerat entsejatuco da. Ordinariozki maxima bera zerbitzatzen da ilhabethe guzicotz; bainan ikhusiz zoin sanjacorra den naturalki gure bihotza, hobekiago laitekela iduri luke zenbeit aldiz maximen erreberritzea. Hortaracotz hauta daitezke ilhabethearen hamarra eta hogoia, edo hetaric igande hurbilenac; gisa hortan egun hec balia laitezke ucbozioniczco kharraren erreberritzecotzat. *Practica saindu hau, congregazionetan eta fami-lietan bezen ongi, bakhotchac bere bakhartasunean hanbertze abantailekin segi dezake.*

Hiru garren practica.

Mariaren ilhabetheco practica diferent haujei, eratchic dezake, bakhotchac berac bere particularrean, *lore izpiritualaren exercizioa.* Hau hainitz contseilatzen du Aita Muzarrellic, Birjina sainduari agradagarrienetarik bezala, eta probet-

chosena bezala guretzat ilhabethe huntan. Exerzizio hau ez da deus bertzeric baizen ere examina particularra, San Ignazio Lohiolacoaren moldearen arabera, eta San Frantsez Salesecoac Filotean errecomendatzen duen practica debota, *buket izpiritualaren* izenaren azpian. Ez da dudaric egiteco gizon handi hauc santificatu ditozten practicac, ez direla izanen guretzat hejentzat baino gutiago salbagarri, baldin egiten baditugu hauc sustatuac ziren fede chiuple eta debozione samurra-ekin. Huna zertan datzan exerzizio hau.

Jadanic erran dugu maihatzaren lehenan, eta ilhabethe berean bertze bi eguez, phartitzen direla maximac zeinetan marcatuac baitire berthutezco acta diferentac, zeinen pratican emaitera entsejatu behar baita baxhotcha, Birjina sainduaren ohoretan eta haren imitazio-nera. Hortaz bertze alde, egun baxhotcheco meditazionearen akhabantzian marcatua da deboz ionezco practica bat edo *lore izpirituala*, zeinaren biltzeco artha handi bat hartu behar baita egunean; ezen lejaltasun hortaric doha printzipalki Mariaren ilhabegetic athera behar den fruitu guzia. Bainan gure izpirituari hain

natural zajon arintasun eta inconstant-
ziaren contra gure buruen begiratzecot-
zat, hobekiago da paper baten gainean
marcatzea egunean eguneco berthutezco
acta hec, titulu hunekin :

« *Girlanda egina nic, naizen bezalaco*
« *bekhatoros ez deusac, bildu lore izpi-*
« *ritualez, huntaz Maria, ene Ama dibi-*
« *noari homaja egiteco.* »

Gero izkiribatuco dituzu, baldin izkiri-
batzen badakizu, paper haren gainean
ilhabetheco egun guziac, molde huntan :

- 1^{hen} eguna,
- 2^{en} eguna,
- 3 eguna, etc. etc.

Examinatuco zare arratsean eia praticatu
ditazun gorago erran bi berthuteac, edo
eia egin dituzun, marcatuac zaitzun bi
berthuten gainean, zenbeit acta, lore iz-
piritualac deitzen ditugunac; erran na-
hi da, eia praticatu duzun chorthean
erori zauntzun ilhabethean edo hamar
egunetan praticatzeco berthutea, eta goi-
zean egun hartacotz, zure meditazionea-
ren ondotic, emana zautzun bertze ber-
thutea. Baldin izan baduzu zori ona bi
berthute hejen praticatzecotzat, marca

zaitzu, zaren egunean, bi gurutzez; ezba-
dituzu praticatu, emaitzu bi O, agintzen
diazularic zure buruari lejalago izanen
zarela biharamunean. Baldin berthute
hetaric bat praticatu baduzu eta ez bert-
zea, emazkitzu gurutze bat eta O bat;
azkenecotz, baldin berthute beraren gai-
nean acta bat baino gehiago egin baduzu,
marca detzaketzu hainbertze gurutzez.

EXENPLUA: 1^{hen} eguna, ††, edo OO,
edo † O, edo finean †††. etc.

Izkiribatzen ez dakiten presunec ere
marca detzakete bere berthutezco actac
molde berean egun oroz, eta gisa hortan,
pratica saindu hau, bertzec bezen ongi,
obretan eman dezakete.

Hunela eratchikiz egun guziez zenbeit
lore izpiritual, bat bertzearen gainera,
oste on bat aurkhituco duzu ilhabethea-
ren akhabantzian. Azken egunean, edo
zure contsecrazionearen egiteco hautatuco
duzun egunean, comunione khartsu
baten ondotic, presentatuco diozu Ma-
riari lore izpiritualezco girlanda hori,
arregatua bere Seme dibinoaren odol pre-
ziatuaz; eta confientzia ongi izaiteco du-
zu misericordiazco Ama hari agradatuco

zajola dohain chume hori, eta ardietsico dautzkitzula ordainez graziarie nasajenac.

Gizon gazte berthutos batec, zeinac lejalki praticatzen baitzuen debozione hau, erakhatsi izan ditu bere sendimenduac hitz hautaz: « Birjina saindua, ez
« dut egun bat iragaitera utzico zenbeit
« lore izpiritual bildu gabe, hetaz zure
« buruaren ornatzecotzat; ala gogotic
« iragan bainezake ene bizia arrantze eta
« elhorrien erdian, baldin hetarie sort-
« hu behar diren loreac agradagari izai-
« ten ahal balitzaitzu! O Maria, badut espe-
« rantza gozoa, ofrituco ahal dautzuketan
« khoroz ez deus hunentzat, ardietsico
« diozula zure zerbitzari indignoari bertze
« bat behin ere galduco ez duena. »

MAXIMAC

Mariaren ilhabethecotzat.

Errana da Berkmanz debotac heriotzeco momentoan bere lagunengaldeari, eia zer debozionezco practica behar zioten ofritu Birjina sainduari, hari agradagariago izaithecotzat eta ardiestecotzat haren arartecotasua: gauzarie chume-

nac, *ihardetsi* zuela constantziarekin egiten direlaric. *Ez da beraz nesesario hemen marcatzen ditugun pratica guzien besarcátzea Mariaren ohoretan; beharre-na da hautatuco direnen begiratzea fidel-ki eta iraupenekin azkeneraino.* « Oh!
« zenbat arima ez da orai Ifernuan, dio
« Ligorrio dohatsuac, salbatuco zirenac
« continatu balute Mariari bilhurtzen,
« abiatu ziren bezala, beren homajac!
« bertze zenbat contrarat, zor diotenac
« bere zori on eternala Maria dibinoaren
« alderaco debozitionean izan duten per-
« tseberentziari! »

1. *Jaincoaren amodioa.*

« Maitatuco duzu zure Jainco Jauna
« zure bihotz guziaz, zure arima guziaz,
« eta zure ahal guziez; hori da lehen
« manamendua eta handiena. »

Othoitz zazu Mariaren bihotza, Jaincoaren amodioz guzia sutan dagona, erakhats dezazun Jaincoaren maitatzen.

2. *Kharra.*

« Othoitz khartsua, isentsuaren pare,
« Zeruetarat alchatzen da. »

Zure othoitz guzietan hartzazu modeltatzat Mariaren khar miragarria.

3. *Chede garbia.*

« Zure chedea garbi bada, zure egi-
« nec lorificatuco dute Jaincoa. »

Mariaren exenplura, guziac, egitzu,
Jaincoaren loriaric handienecotz.

4. *Perfezionearentzateco zeloa.*

« Perfezioneraco lehia saindua, da
« graziazco estatuan dela marcaric se-
« gurena. »

Mirets zazu Birjina sainduac zuen le-
hia handia, epheric gabe, egunetic egu-
nera, perfezionean abantzaten trabai-
latzeco, eta zure ahalac egitzu haren ur-
hatsetan ibilzeczatzat.

5. *Humiltasuna.*

« Humiltasuna gabe deus ez dire bertze
« berthute guziac; humiliatzen dena go-
« ratua izanen da, eta supherra apha-
« dua. »

Maria humilaren exenplura, izan
zaitzu bethi zure buruaz sendimendu
aphalac.

6. *Bekhatuaren beldura.*

« Sugearen ahotic bezala ihes egiozu
« bekhatuari: bekhatuan erortzea; zori
« gaitzetan den izigarriena da. »

Ardura errozu Mariari nahiago dozula hil, ezen ez haren Semearen disgraziara erori bekhatu mortalaz.

7. *Ihesa hutsic chumeenei.*

« Huts chumeac mespretchatzen dituena, laster errorico da handietan. »

Egun guzietz othoitz zazu Maria, bere notha gabeco contzebitzearen berthutez, begira zaitzala bekhatuaren notha den mendreenetarie.

8. *Pazientzia.*

« Pazientziaz oro bentzutzen dire, eta Jaincoaren begietan hainitz irabasten da. »

Zure pena guzietan orhoitzaite Birjina sainduaren exenpluaz gurutzearen oinetan.

9. *Fidelitatea graziari.*

« Ihardets zozu graziari eta grazia graziari jarrikico zajo; laster aberastuco zare Zeruco dohainez. »

Othoitz zazu Birjina saindua ardiets dezazun usaja on baten egitea Jaincoaren ontasunetic egun oroz errezibitzen dituzun grazietz.

10. *Jesu-Christoren imitazionea.*

« Nahi duenac Zeruco bide segura at-

« chiki , ibil bedi Jesu-Christoren urhat-
« setan, eta bere ahalac egin beitzá haren
« idurico izaitecotzat. »

Oihu egiozu Mariaren bihotz sainduari
zeina baita Jesusen bihotz sacratuaren
iduri perfeta.

11. *Caritatea.*

« Caritatea gabe berthute guziac histen
« dire eta ez dute fruituric ekhartzen. »

Ohora zazu eta imita Mariaren bihotz
guziz sainduac duen caritate samurra.

12. *Atentziona othoitzean.*

« Goardia emozu nori mintzo zaren,
« eta jakinen duzu zer atentziona ekharri
« behar duzun zure othoitzean. »

Galdegiozu ardura Birjina sainduari
erakhats dezazun othoitz egiten , eta er-
rozu urrun ditzan zure izpiritutic bar-
riamendu guziac.

13. *Denbora ongi iragaitea.*

« Denbora dohain baliosenetic da ;
« memento galdua ez da behin ere erre-
« paratzen. »

Ohora eta imita zazu Maria , zeinaren
bizi guzia contsecratua izan baita obra
onetaco pratiketan.

14. *Lanari jarrikitzea.*

« Debruac harrapa baitzitza bethi ocu-
« patua , ez dezan aurkhi mementoric
« zure tentatzeco. »

Junta zaitzu egun bakhotchuan zure
lanac eta aczioneac Jesusen , Mariaren
eta Josepen lanei eta aczionei.

15. *Estatuco eginbidetan fidelitatea.*

« Nahi duenac izan agradagarri Jain-
« coaren begietan , izan behar du lejal
« bere estatuco eginbideen bethetze-
« ootzat. »

Aplica zaite , Mariaren amorea gatic,
ongi bethetzen zure estatuco eginbideac.

16. *Obedientzia.*

« Obedientzia , merezimenduz , bertze
« zure sacrificio guziez goragocoa da. »

Adora zazu eta imita Jesus , Mariari
eta Josepi sumetitua eta osoki obedientia
hejen alderat.

17. *Jaincoaren borondatera egoitea.*

« Nahi baduzu egiazco soseguan jarri,
« zaude gauza guzietan Jaunaren boron-
« datera. »

Hartzazu modeltzat Mariaren bihotza, osoki sumetitua gauza guzietan Jaincoaren borondateari.

18. *Penitentziarentzateco amodioa.*

« Penitentziaco izpiritua ez duena, se-
« gurki galtzeco bidean dabila. »

Egizu egun oroz zerbeit mortificazione Jaincoaren Amaren ohoretan.

19. *Mariaren alderaco confientzia.*

« Eman zaite Mariaren debozionarioari,
« borthiztuko zare salbatzeco esperan-
« tzan. »

Orhoit zaite bethi zure izpiritualeco eta temporaleco behar guzietan Birjina sãindua ganat ihes egitecotzat, haur battec bere amaren ganat egiten duen bezala.

20. *Birjina Sainduaren imitazionea.*

« Egiazco Mariaren alderaco debo-
« zionea, haren berthuteen imitatzean
« datza. »

Egitzu zure aczione guziac Mariaren bihotzeco sendimeudu beretan.

21. *Othoitzaren amodioa.*

« Galdegizu ongi eta ardietsico duzu,
« deus etzatzu errefusatuco. »

Junta zaiztu zure othoitz guziac Birjina sainduaren othoitzekin.

22. *Bihotzezco batasuna.*

« Caritateac egiten du bihotzen egiazco
« batasuna. »

Mirets zaitzu eta imita familia sainduan, Jesusen Mariaren eta Josepen artean erreginatzen zuten caritate samurra, bakea eta unioea.

23. *Lagun proximoaren jasan gaitzac jasaitea.*

« Elgar jasanez, baxhotcharen zortha
« ontzen du caritateac. »

Mariaren ohoretan jasan zaitzu pazienki lagun proximoaren hutsac, eta artharekin begirautzu nihori penaric egin.

24. *Mortificazionea.*

« Gurutzezco biziari ihes ibiltzea, Zeruari ukho egitea da. »

Imita zazu familia sainduaç, Jesusec, Mariac eta Josepec Nazareten zaramaten bizi penitent, pobre eta nekhagarria.

25. *Modestia.*

« Zure Modestiaz errespeta araz zazu
« zure burua. »

Hartzazu modeltzat, zure bizi molde guzian, Birjina sainduaren modestia edificagarria.

26. *Bildutasuna.*

« Maita zazu ichiltasuna eta bakhartasuna, asco bekhatuetaric zure burua begiratuco duzu. »

Ohora zazu eta imita Jesusec, Mariac eta Josepec Nazareten zaucaten ichiltasuna eta bizi gordea.

27. *Bihotza lacho atchikitzea creaturetaric.*

« Bihotza creaturetaric lacho ez daucana etzajo Jaincozco gauzei libroki lothuco. »

Mariaren exenplura, etzaitzezela esteca behere huntaco gauzei, eta bihotza contse-cra zozu, guzia osoa, Jainco choilari.

28. *Bihotzeco garbitasuna.*

« Zori on, bihotza garbi daucanarentzat, hainac ikhusico du Jaincoa bere lorian.

Egun guziez othoitz zazu Jaincoaren Ama, guziz garbi eta notha gabecoa, ardiets dezazun bihotzeco garbitasun handi bat.

29. *Ukho bere buruari egitea.*

« Zure buruari ukho eginen duzunaren
« arabera abantzatuco zare berthutean. »

Mariaren exenplura eta haren amorea
gatic, aplica zaite zure buruaren bentzu-
tzen, eta ukho egiten zure gustu eta jau-
dura biziatur.

30. *Eztitasuna.*

« Nahi zare izan maitatua Jaincoaz eta
« gizonez? Izan zaite bihotzez ezti eta
« amultsu. »

Zure bizitasunari contra egiozu, eta,
egun oroz, Jesusen eta Mariaren ganic
ikhas zazu bihotzez ezti et humil izaiten.

31. *Exenplu ona.*

« Exenplu ona manuric gabe ere ho-
« beago da, manu guziac exenpluric gabe
« beino. »

Entseia zaite, Birjina saindua bezala,
erakhartzera mundu guzia Jaincoa ganat,
zure eginbidetaraco jarrikitasunaz eta
zure exenplu onez.

32. *Gurutzetaraco amodioa.*

« Zeruco bidea arrantzez bethea da,
« lorian sartzecotz, asco tribulazioneen
« erditic behar da iragan. »

Ohora zazu Mariaren bihotza , estecatu bere seme dibinoaren gurutzeari, eta ardura oihu egiozu zure pena eta zure afliczioneen artetic hel zaizkizula.

33. *Bere buruarentzateco fidantzia escasa.*

« Zoroac bere baithan du fidantzia, zu-
« hurrac contrarat guti khondatzen du
« bere ahalen gainean. »

Beldur zaite zure flakeziarentzat ; esperantza guziac eman zaitzu zure Ama dibinoaren laguntzetan.

34. *Egiazco deboziona.*

« Jaunac egin ditu gauza guziac , eta
« eman diote zuhurtzia deboziona hu-
« milean bizi direnei. »

Othoitz zazu egun guzietz Maria, pharte eman dezazun haren bihotza bethi sustatua zaucaten debozinezco sendimendu samurretan.

35. *Jaincoaren presentzia.*

« Ibil zaite Jaunaren aintzinean , eta
« perfet bilhakatuco zare. »

Maiz alcha zazu zure bihotza Jaincoari Birjina sainduac bezala , zeina bethi ocupatua baitzen haren presentzia dibinoaz.

36. *Esker onezco ezagutza.*

« Esker gabetasunac hersten ditu bi-
« hotzac , ezagutzac zabal arazten. »

Egun oroz eskerrac bihur zoitzu Jaincoari, Mariaren merezimenduen bidez, emaiten daitzun grazia guziez.

37. *Jaincoaren beldurtasuna.*

« Emazu zure loria Jaincoaren beldur
« izaitean : beldurtasun harrec emanen
« datzu confientzia handi bat heriotzeco
« orenean.»

Othoitz zazu Maria sar araz dezan zure bihotzean Jaincoaren beldurtasuna, ez dezazuntzat nihoiz ere cosentinendua eman bekhatuari.

38. *Erlichionearentzateco kharra.*

« Erlichioneaz dohanean , girichtinoac
« ez du jakin behar hiltzen baizen. »

Arrekeri zazu egun guziez Birjina Saindua, fedearen contserbazionearen eta emendazionearentzat.

39. *Zeloa arimen salbamenduarentzat.*

« Zure anaja leze eternalerat erortzera
« doha eta ez diozu escua hedatuco ! sal-
« batzean haren arima , zurea salbatuco
« dazuz. »

Ardura othoitz zazu Maria dibinoa behatorosen conbertsionearentzat, eta bereziki zeronec escandalisatzeco zori gaitza izan duzuentzat.

40. *Debozionea purgatorioco arimentzat.*

« Ez ditzatzula ahantz purgatorioco arimac, nahi ez baduzu zeroni ahantzia izan, egun batez, leze izigarri hetan. »

Egizu othoitz egun guzietz sofriarioetan dauden arima urricalgarrari hejentzat, eta bereziki Birjina sainduaren alderat debotenac izan direnentzat.

41. *Pertseberentzia.*

« Azkeneraino guduan irauten duenac, harrec eramanen du bitorioa. »

Ardura eta khartsuki galdegiozu Birjina Sainduari, ardiets dezazun pertseberentziaren dohaina.

42. *Zeruraco lehia.*

« Jaincoa ongi maite bazinu, Zeruraco lehia bethi bihotzean eta izpirituan zinu nuke. »

Arrekeri zazu Birjina Saindua lagun zaitzan heriotzeco orenean, eta idec daitzatzun Zeruco borthac.

N. *Maxima* hauc inprima arazten badire, artha beharda izan sepharatuki egin arazteco, errechki pharti ahal ditzen amorea gatic, Mariaren ilhabethea elgarrekin eginen duten presunec, bakhotchac bat izanen duen moldean. Ez bada inprimaturic, izkiriba daitezke paper cherra pochi batzuen gainean, artha delaric hautatzeco, maxima haujen, edo bertze zoin nahi liburutan causituco direnen artean, hobeki comenitzen direnac ilhabethe hau elgarrekin baltsan egiten duten presunentzat.



BIRJINA SAINDUAREN LITHANIAC.

Kyrie, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de cœlis Deus, miserere nobis.

Fili redemptor mundi, Deus, miserere nobis.

Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.

Sancta Maria,

Sancta Dei genitrix,

Sancta Virgo Virginum,

Mater Christi,

Mater divinæ gratiæ ,
Mater purissima ,
Mater Castissima ,
Mater inviolata ,
Mater intemerata ,
Mater amabilis ,
Mater admirabilis ,
Mater Creatoris ,
Mater Salvatoris ,
Virgo prudentissima ,
Virgo veneranda ,
Virgo predicanda ,
Virgo potens ,
Virgo Clemens ,
Virgo fidelis ,
Speculum justitiæ ,
Sedes Sapientiæ ,
Causa nostræ lætitiæ ,
Vas spirituale ,
Vas honorabile ,
Vas insigne devotionis ,
Rosa mystica ,
Turris davidica ,
Turris eburnea ,
Domus aurea ,
Fœderis archa ,
Janna cœli ,
Stella matutina ,
Salus infirmorum ,
Refugium peccatorum ,
Consolatrix afflictorum ,
Auxilium Christianorum ,

Ora pro nobis.

Regina Angelorum ,
Regina patriarcharum ,
Regina Prophetarum ,
Regina Apostolorum ,
Regina Martyrum ,
Regina Confessorum ,
Regina Virginum ,
Regina Sanctorum omnium ,
Agnus Dei , qui tollis peccata mundi ,
parce nobis , Domine ,
Agnus Dei , qui tollis peccata mundi ,
exaudi nos , Domine ,
Agnus Dei , qui tollis peccata mundi ,
miserere nobis .

Christe audi nos .

Christe exaudi nos .

℣ . Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix ,
℞ . Ut digni efficiamur promissionibus Christi .
℣ , Dignare me laudare te Virgo sacrata :
℞ . Da mihi virtutem contra hostes tuos .

OREMUS :

Concede ; misericors Deus , fragilitati
nostræ præsidium ; ut qui sanctæ Dei ge-
nitricis memoriam agimus , intercessionis
ejus auxilio à nostris iniquitatibus resur-
gamus . Per eundem Dominum , etc.
Amen .



LITHANIA BERAC ESCUARAZ.

- Jauna , urrical gaizkitzu.
Jesu-Cristo , urrical gaizkitzu.
Jauna , urrical gaizkitzu.
Jesu-Cristo , adi gaitzatzu.
Jesu-Cristo , entzun gaitzatzu.
Jainco Aita Zeruetan zaudena , urrical gaizkitzu.
Jainco Seme , munduaren erostailea , urrical
gaizkitzu.
Jainco Izpiritu Saindua , urrical gaizkitzu.
Trinitate Saindu , Jainco bakhar bat zarena , ur-
rical gaizkitzu.
Maria Saindua , egizu othoitz guretzat.
Jaincoaren Ama Saindua , egizu othoitz guretzat.
Birjinen Birjina Saindua , egizu othoitz gu-
retzat.
Jesu-Cristoren Ama , egizu othoitz guretzat.
Graziaren autorraren Ama , egizu othoitz gu-
retzat.
Ama guziz garbia , egizu othoitz guretzat.
Ama guziz phurua.
Ama bethi Birjina.
Ama notha gabecoa ,
Ama maitagarria ,
Ama miretsagarria .
Creatzailearen Ama ,
Salbatzailearen Ama ,
Birjina guziz prudenta ,
Birjina errespetagarria ,

Birjina guziz laudagarria,
Birjina guziz puchanta,
Birjina guziz oua,
Birjina lejala,
Justiziaren miraila,
Zuhurtzia dibinoaren tenploa,
Gure bozcarioaren ithurburua,
Izpiritu Sainduaren egoitza.
Debozionaeren modela,
Hautzazco basoa,
Arrosa misterioscoa,
Dabiten etheco loria,
Garbitasunaren modela,
Caritatearen etheca,
Alientziazco arkha,
Zeruco bortha,
Goizeco izarra,
Flaccen erresurtsa,
Bekhatorosen ihes lekhua,
Affliituen contsolazionea,
Girichtinoen socorria,
Aingeruen Erregina,
Patriarkhen Erregina,
Profeten Erregina,
Apostoluen Erregina,
Martiren Erregina,
Confesoren Erregina,
Birjinen Erregina,
Saindu guzien Erregina,
Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khent-
zen dituzuna, barkha diezaguzu, Jauna,
Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khent-
zen dituzuna, entzun gaitzatzu, Jauna,

Jaincoaren bildotsa, munduco bekhatuac khentzen dituzuna, urricai gaizkitzu.

Jesu-Cristo, adi gaitzatzu.

Jesu-Cristo entzun gaitzatzu.

γ. Egizu othoitz guretzat, Jaincoaren Ama guziz Saindua,

η. Jesu-Cristoren agintzetan pharte izaitea merezi dezagun amorea gatic.

γ. Egizu lauda zitzadan, Birjina sacratua:

η. Eman diezadazu inçarra zure etsajen contra.

OTHOITZA.

Jainco guziz ona; emoitzu gure flakeziari zure graziaren laguntzac; eta egizu zure semearen Ama Sainduaren arartecotasunaz, zeinaren orhoitzapena ohoratzen baitugu, altcha ahal gaitezen gure bekhatuetaric, arrekeritzen zaitugu Jesu-Cristo gure Jaunaz. Hala-biz.

SAN BERNATEN OTHOITZA
BIRJINA SAINDUARI.


Clode Bernat, aphez pobrea deithuac, othoitz huni eratchikitzen ziozcan Zerutic ardiesten zituen fagore berezi guziaz.

Orhoit zaite, o Birjina Maria guziz amultsua, ez dela egundeino aditu, nihor zure gerizera ihes egiten duenic, zure

laguntza galdatzen duenic, zure arartecotasunaren eske dabilanic, zutaz utzia izan dela. Nic ere, horrelaco confientziaz sustatua, zu ganat, Birjinen Birjina, ene Ama ona, laster egiten dut; zu ganat heldu naiz; zure oinetan nago auhinetan, ni bekhatorosa: ez ditzatzula, Jainco semearen Ama, ene othoitzac mespresa, bainan adi zaitzu amultsuki, eta entzun zaitzu.


Experientzia zori onezco batec erakhat si du, othoitz hau hain agradagarri zajaola Birjina Sainduari, non ez baita egundeino fruituric gabe izan, debozioneekin eta confientziarekin erran duenarentzat. Badire ehun egunen induljentziac othoitz hau egiten den aldi bakhotchecotz, eta induljentzia osoa, ilhabethe bakhotcharen azken egunean, baldin ilhabethean egun oroz erran bada.





MEZA SAINDUKO

OTROTTZAG.



*Meza behar bezala entzuteko prepara-
ziona.*

Zure aldare Sainduaren oinetan ahus-
pez emanic, adoratzan zaitut, Jainco
bothere guziac dituzuna; fermuki sinhes-
ten dut entzuterat nohan meza dela, Jesu-
Cristo zure seme Jaincoaren gorphutz
eta odolaren Sacrifizioa; ofritzeco manera
halaberecoa ez izan arren, hanc berac
Calbarioco mendian gizon guzientzat ofri-
tu zuen Sacrifizio hura bera. Egidazu gra-
zia sartzeco, o ene Jaincoa! Aphezaren
escuz, hau zuri digneki ofritzeco behar
ditudan disposizionetan. Ofritzen deraut-
zut, 1^{oric} bat egiten naizelari Jesu-Cris-
toren eta haren Elizaren intentzioneekin,
zure majestate dibinoari zor zäjon homaja
eta ohore soberanoa bihurtzeco; 2^{oric}
Egin darozkigutzun on eta ongi guziez
3..

eskerrac emaiteco ; 3^{oric} munduco bekhatu guzientzat eta hereziki eneentzat zuri satisfacione egiteco. Finean , arimaco salbamenduarentzat eta gorphutzeo biziarentzat behar ditudan laguntzac eta socorriac zure ganic uste ditut , Jesu-Cristo zure semearen merezimenduen bidez , zeinac nahi baitu berac izan Sacrifizio adoragarri hunen Apheza eta Bitima.

Mezaren hastean , eta Aphezac Confiteor erraitéan.

Ene bekhatuen jakiteco eta ezagutzeco , o ene Jaincoa ! behar ez duzun arren ene aithorric eta cofesioric , eta ene bihotzean iracurtzen dituzun arren guziac zeronec , cofesatzen darozkitzuthalaric ere, Zeruarren eta Lurraren aintzinean ; aithortzen dut ofentsatu zaitudala gogoz , hitzez eta obraz. Ene bekhatuac handiac dire , baina zure misericordiecinurriric ez dute ; Urrical nakizu , o ene Jaincoa ! Orhoitzaite zure haurra , zure escuco obra , zure odolaren prezioa naizela.

Birjina Saindua , Zeruco Aingeruac , Parabisuco Saindu eta Saindac , guretzat othoitz egizue , eta , nigarrezco eta misc-

riazco haran huntan , dolhamenetan gauden orduetan , grazia ezca zazue guretzat , eta ardiets diezaguzue bekhatuen barkhamendua.

Introitetan.

Jauna zure Patriarkhei eta Profetei inspiratu diotzotzute , zure Seme bakhotcha lurrerat jausten ikhusteco hain desira khartsuac , indazu hejen khar saindu tic pharte bat , eta egizu , bizitze hilcor hunen enbrazuen erdian , ene baitban sendi dezadan zurekin bat izaiteco lehia saindu bat.

Kyrie eleisonetan.

Dolhamen eta suspira doblatuez , o ene Jaincoa ! arrekitzen zaitut ; egidazu misericordia , eta memento guziez , hizi naitzeno , erran banizazu : *Jauna nauzun urricari* ; ez laiteke oraino aski ene bekhatuen nombrearentzat eta handitasunarentzat.

Gloria in excelsisean.

Hunen ordain erran daiteke hiru Gloria Patri , etc.

Gloria in excelsis Deo , et in terrâ pax hominibus bonæ voluntatis , laudamus te ,

benedicimus te, adoramus te, glorificamus te. Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam. Domine Deus, Rex cœlestis, Deus Pater omnipotens, Domine fili unigenite Jesu-Christe, Domine Deus, Agnus Dei, filius Patris, qui tollis peccata mundi, miserere nobis, qui tollis peccata mundi, suseipe deprecationem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis, quoniam tu solus sanctus, tu solus Dominus, tu solus altissimus, Jesu-Christe, cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. Amen.

Oremusetan edo orazionetan.

Agrada bekizkitzu, Jauna, guretzat egiten zaizkitzun othoitzac; igutzu, Eliza zure Esposac, Aphezaren ahoz, gure fagoretan galdegiten darozkitzun graziac eta berthuteac; ez dugu merezitzen, halada, entzunac izaitea; bainan considera zazu grazia horiec escatzen darozkitzugula, Jesu-Cristo, zure Semearen bidez, zeina zurekin bizi baita eta zurekin erreginatzen baitu mendeen mende guzietan. Hala-biz.

Epistolan.

Epistola huni begiratzen diot, ene Jain-

coa, zure borondateac irakbasteco igortzen derautazun guthun edo letra bati bezala; othoi, indazu manatzen dautazunaren conplitzeco indarra. Zeronec, Jauna, Profetei eta Apostoluei inspiratu diotzatzute izkiribunz utzi darozkiguten egia: hejen argietaric pharte indazu, phitz zazu ene bihotzean, hec erretzen zituen su sacratu hura, maita zaitzadan eta zerbitza, hejec bezala, ene bizi guzian.

Ebanjelioan chutituric.

Chutitzen naiz, lege egile Soberanoa, zuri marcatzeco Ebanjelio Sainduan diren egia handiac ene odolaz zigilatzerat prest naizela. Egia horiec ene bihotzean zero nec, othoi, Jauna, barneraino sar zaitzu, eta han, zizailaz harrian bezala, marca. Horiec beitzate eregela ene gogoetac, ene hitzac eta ene obrac. Ez dut gehiago segitu nahi zure maximez bertzeric: mintza zaite, Jauna, huna non aditzen zaitudan, sehi baten sumetimendu oso batekin. Indazu zure erranen conplitzeco hanbat indar, nola baitut fermutasun hejen sinhesteco.

Credoan.

Hunen ordain erran daiteke sinhesten dut, etc.

Credo in unum Deum, Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium. Et in unum Dominum Jesum-Christum, filium Dei unigenitum. Et ex Patre natum ante omnia sæcula. Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero. Genitum, non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt. Qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis; et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Mariâ Virgine: et homo factus est. Crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus et sepultus est. Et resurrexit tertiâ die secundum scripturas. Et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris. Et iterum venturus est cum gloriâ judicare vivos et mortuos, cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum Dominum, et vivificantem; qui ex Patre filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur; qui locutus est per Profetas. Et unam, Sanctam,

Catholicam et Apostolicam Ecclesiam.
Confiteor unum baptisma in remissionem
peccatorum. Et expecto resurrectionem
mortuorum, et vitam venturi sæculi.
Amen.

Ofertorioan.

Creatura hilcor eta bekhatuz cargatu bat
baizen ez naizen arren, ofritzen daroz-
kitzut, Aphezaren escuz, egiazco Jainco
bizi eta eternala, ogi hori eta arno hori,
zeinec izan behar baitute khanbiatuac
zure Seme Jesu-Cristoren gorphutzerat
eta odolerat; errezibi zazu, Jauna, ezin
erranezco Sacrifizio hau amultsuki eta
gozoki; eta sofri zazu ofrenda Saindu
horri junta diozodan, ene gorphutzaz,
arimaz, onthasunez, biziaz eta ditudan
guziez egiten dautzudan Sacrifizioa. Egizu
nitaz, o ene Jaincoa! Creatura berri bat;
ogi hori eta arno hori zure bothereaz
khanbiatzerat zohazin bezala.

Aphezac bere erhiac garbitzean.

Garbi nazazu, Jauna, sacrificatua, eta
ofritua izaitera dohatzun Bildotsaren odo-
lean; notha guzietaric chahutua zure
graziaren espos arropaz bestitua, zu-
re ganat escu garbi eta bekhatu gabeac

altcha detzadantzat, eta esperantza izan
egun batez errezibitua izaiteco zure hau-
tetsiei Zeruan preparatu diozuten banket
sacratuan.

*Ichilic Aphezac erraiten dituen othoitze-
tan.*

Agrada bekizu, ene Jaincoa, zure izen
Sainduaren ohoretan eta loriarentzat,
gure abantailetan eta zure Eliza Saindua-
renetan, ofritzen zaitzun Sacrifizioa, ha-
ren chede beretan sartkuric, huna non
galdetzen darozkitzudan, Elizac, orai,
Aphezaren bidez, escatzen darozkitzun
grazia guziac; hortaracotz bat egiten
naiz Aphezarekin, acorda dietzagutzun
amorea gatic Jesu-Cristo gure Jaunaren
bidez eta izenean.

Prefazioan.

Ordu da, ene arima, altcha gaitezen
behere huntaco gauza guziez gorago. Tira
zaitzu, Jauna, tira zaitzu gure bihotzac
zure ganat; sofri zazu, zor zaizkitzun
audarioac eta eskerrac bihurtzeco, jun-
ta detzagun gure boz flacoac, izpiritue
lohatsuen alegrantziazco eta estasiaczco
aire zerutarrarekin, eta desterruco le-
chu huntan erran diezazugun hejec lo-

riaco egoitzan cantatzen darotzutena :
Saindua, Saindua, Saindua da arma-
detaco Jainco Jauna: izan bedi lorifica-
tua Zeruetaco gorenean.

Sanctus erran ondoan.

Aita bethierecoa, Artzainetaco Artzain Soberanoa, zure Eliza contserba eta goberna zazu, finca zazu eta heda Lurraren bazter guzietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emozute Cristau guziei. Benedica zaitzu gure Aita Saindua, gure Aphezpiena, gure Errege, gure Erretora, eta zure Elizaren sinhestean bizi diren guziac.

Lehenbizico mementoan.

Jauna, orai zure Erresuman zarena, orhoit zaite nitaz zure misericordian; eta Sacrificio Saindu hunen merezimenduz indatzu nesesario ditudan berthute guziac. Eta batec bertzearentzat othoitz egitea manatu darocuzunaz geroz; Jauna, othoi, adi zaitzu eta entzun humilki eta confientziarekin egiten darozkitzudan othoitzac ene ahaideentzat, adichki-deentzat, arimaco eta gorphutzeco ongi egilentzat. Ene bihotz guziaz halaber gomendatzen darozkitzut ene etsajac eta

tratamendu gaichto zenbeit egin ahal
dautaten guziac : ahantz beikizkitzu hejen
bekhatuac eta eneac : ene bihotzetic khen
zaitzu khirestasun , huduri eta gaitzirizco
guziac , eta desira araz diezadazut eta
ardiets araz hejen amodioa. Mundu gu-
ziac sendi beza Sacrifizio hunen ona. O
ene Jaincoa ! Iguzu guziei bake egiazco
bat , zeinac , elkharrekin unionean at-
chikitzen gaituelaric , bethicotz baikaitu
unionean emanen Birjina Amarekin , zure
Apostoluekin , Marthirekin ; Saindu eta
Sainda guziekin , eta finean Eternitate
guzian zurekin.

*Aphezac calitzaren eta ostiaren gainean
escuac zabalduac dauzcan.*

Heda zazu , Jauna , ene gainerat zure
escu dibinoa , jabetzeco ene bihotzaz eta
ene sentsuez ; ene baïthan correitzeco
zure contra den guzia , ni contsecratzeco
zure Aita Jaincoari , zure baïthan eta zu-
taz ; eta nibide hortaz libratzeco debrua-
ren escuetaric eta damnazione eternaletic.

Ostia Saindua altchatzean.

O Jesus ene Salbatzailea , egiazco Jain-
co eta egiazco gizona ! sinhesten dut zi-
nez eta fermuki ostia Sainduan errejalki

hor zarella; adoratzen zaitut hor, ene Jauna eta ene Jaincoa zarena. Iguzu niri eta hemen garen guziei; misterio adoragarri huntan zor darotzugun deboziona, amodioa eta ezagutza.

Calitza altchatzean.

Adoratzen dut calitz hortan, o ene Jesus dibinoa! ene erospenaren prezioa, eta gizon guziena. Odol adoragarri hortaric chorta bat jausterat utzazu ene arimaren gainerat, izan dadintzat garbitua bekhatu guzietaric, eta sustatua zure amodioaren khar. sacratuaz.

Jaun handia altchatu ondoan.

Ez darotzugu gehiago ogia eta arnoa ofritzen, bainan bai Jesu-Cristo zure Semearen gorphutz adoragarria, o ene Jaincoa! Haren pasionearen, biztearen eta Zezurat igaitearen orhoitzapenetan, gure escutic, Jauna, errezibi zazu, eta bethe gaitzatzu zure graziez.

Bigarren mementoan.

Orhoit zaite halaber, Jauna, Purgatorioetan diren arima gaichoez: dohatsuki zureac dire eta zure esposac ere dire. Bereziki gomendatzen darozkitzut ene

ahaideenac , adichkideenac , arimaco eta gorphutzeco ongi egileenac eta othoitzen beharra gehien dutenenac.

Nobis quoque peccatoribus *erraitéan*.

Guzia bekhatorea naizelarik , ausartatzen naiz galdetzerat grazia bera enetzat, erran nahi da , o ene salbatzailea ! Zure lorian pharte pochi bat. Mila bekhatuz hango zuzena galdu dudala ikhusten dut eta aithortzen , zure presentzian , o ene Jaincoa ! ene merezimenduei begiratzen badiozute : ez duket esperantzarié plaza-tua izaiteco Erresuma hartan , zeinetarat Apostoluec marthirec , eta Birjina Sainduec ezin ardietsi baitute heltzéa , bethi sofrituz eta berthute girichtinozeco guziac pratican emanéz baizen. Nola beraz ausarta ere othe naiteke , Jauna , esperantza izaiterat ? Zure odolac egiten du ene fidantzia guzia , barkha dietzazkidatzu ene faltac , eta penitentzia egiazco batez gai bihur nezazu hartarat heltzeco.

Pater erraitéan.

Creatura ez deus eta dohacabe bat baizen ez naizen arren , halere , Jainco handia , ausartatzen naiz zu ene Aita deitzerat , zeren hola nahi duzun. Egidazu

grazia , o ene Jaincoa ! Ez dezadan nihoiz ere gal zure umearen calitatea. Izan bedi zure izena santificatua Zeru Lurretan. Erregina zazu orai beretic zure graziaz ene bihotzean , zurekin erregina dezadantzat eternitatean zure lorian ; eta zure borondateac conpli detzadantzat Lurrean , sainduac conplitzen dituzten bezala Zeruan. Ene Aita zare , indazu beraz , othoi , Zeruco ogi hura , zeintaz neurritzen baitituzu zure haurrac. Barkhamendua acorda diezadazu , nic zure amoreac gatic , bihotz onez , ofentsatu nautenei acordatzen diotedan bezala , eta ez nezazula utz nihoiz tentamendu battec ere garhaitzera , aitzitic zure graziaz lagunduric , egizu bentzu ditzadan ene salbamenduaren etsai guziac.

Agnus Dei erraitean.

Jaincoaren bildotsa , munduco bekhatuez cargatu nahi izan zarena , garbi zaitzu eta borrhac ene guziac zure odolean , hain khario erosi duzun bakea izaiteco gai ezar nezazuntzat. Indazu bake hura zurekin , bake hura ene buruarekin ; inspiratzen dautazudalaric humiltasunic osoena ; eta ene baithan ithotzen dituzularic mendecuzco desira guziac.

Domine non sum dignus erraitean.

Ah! Jauna, sobera baizen ezda egia, ez dudala merezi zure errezibitzea; indigno bihurtu naiz osoki ene bekhatuez: guziez urriki dut eta dolore, zeren damustatu baitzaituzte eta zure ganic urundu bainaute. Zure hitz bakhar batec senda dezake ene arima: ez nezazula abandona, o ene Jaincoa! eta zure escutic atchic nezazu.

Aphezaren Comunionean, norc berac comuniatzen ez duenean errejalki.

O ene Jesus maitagarria! egun zure haragi sainduaz hazia izaiteco zori ona ez badut, sofri zazu errezibi zaitzadan bederen izpirituz eta bihotzez, eta zurekin bat egin nadin fedeaz, esperantzaz eta caritateaz. Sinhesten dut zure baithan; zure baithan dut ene esperantza, eta maite zaitut ene bihotz guziaz.

Ala dobatsu bainindeke ene salbatzaile maitea, zure ganat hurbiltzeco, zure mahain sainduan presentatzeco, zure gorphutz sacratua errezibitzeco, eta zure odola edateco estatuan banintz. Ah! zer frankia, zer contsolazione, zenbat gra-

zia ez diozute emaiten hetaz hazten edo neurritzen dituzunei!

† *Norc berac comuniatzen duenean, horren orde egin behar ditu comunionecko actac.*

Ostia papurrac aphezac biltzean.

Jauna, zure graziaric mendreena hain gehiagoki baliosa da, jadanic erran dut: ez dut merezi zure mahainean, zure haurren herruncan jatea; bainan utz nezazu biltzera bederen erortzen diren papurrac, Cananearrac galdetzen zuen bezala. Egizu ez dezadan zure inspirazionetaric bat ere neglia, ezen neglijentzia horrec obliga zaitzazke neri guziez escas egiterat.

Post comunionean.

Contsumitu dire guziac, o Jauna! ene begien aintzinean sacrificaturic zatoz. O ene Jaincoa! ez naiz nihoiz geldituco zuri laudoriozco Sacrifizioa bihurtzetic, eta guziz bihotz zu ofentsatuaz doloratu, zaurthu eta humiliatu baten Sacrifizioa ofritzetic.

Azkeneco orazionetan.

Nahi duzu, Jauna, arteric utzi gabe

gure othoitzac adreza dietzatzugun, zeren dugun bethi zure grazien beharra ; ichur zaitzu gure gainerat nasaiki eta iguzu othoitzaren izpiritua, zeina baita humil-tasunezco, confientziazco eta amodiozco izpiritu bat : hortaz arrekeritzen zaitugu Jesu-Cristo zure semeaz, zeinac zurekin erreginatzen baitu lorian.

Benediczionearen aintzinean.

Trinitate guziz saindu eta adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, Jainco choil eta bakhar bat zarena, zutaz Sacrifizio hau hasi dugu, zutaz finitzen dugu : agrada beikizu, eta ez gaitzatzula egor zure benediczionea gabetaric.

Azkeneco Ebanjelioa erraitean.

Berbo eternala, gauza guzien egilea, denborac bethe zirenean gure gatic gizon eginic, Sacrifizio miragarri hau establitu duzuna, eskerrac humilki bihurtzen dauzkitzugu, zeren egin deraucuzun grazia hunen entzuteco ; hunen efetu salbagarriac errezibi detzaguntzat. Aingeru eta Saindu guziec hortaz lauda beitzaitzate bethi Zeruan, eta gu has gaitezen zu hortaz benedictzen Lurrean, comportatzen garelaric egungo eguncan zure legea-

ren arabera. Barkha dietzadazu, o ene Jaincoa! ene izpiritaco barriamendua eta ene bihotzeco hotzetasuna, zutaz ocupatua et zuretzat sustatua izan behar zuten memento hortan. Ahantz beikizkitzu, Jauna, ene bekhatuac, zeinentzat Jesu-Cristo zure Semea aldare hunen gainean imolaturic heldu baita, eta ez dezazula utz aski ondicozcoa izan nadin, zu hemendic harat ofentsatzeco; bainan egizu, zuzenki conportatzen naizelarik, bethi begira diezazudan ene gogoeten, ene hitzen eta ene obren erregelari eta azken finari bezala. Hala-biz.

Meditazionearen aintzineco actac.

Jaincoaren aintzinean naiz; ikhusten nau, aditzen nau, ene arimaren barnearaino sartzen da. Ikhusten ditu ene pentsamendu eta afeczionetan diren secreturic minenac.... Helas! nola jasan saindutasuna hera den Jaincoaren behatzeac? naizen bekhatoros herbaila, pentsatzen dudanean ene oste gabeco bekhatuetarat, ene creatzailearen contra hartu ditudan atrebentzietarat, heldurrac eta contzientziaco harrac osoki hertchatzen naute, eta ez naiz gehiago Zeruetarat begien alchatzera ere casic ausartatzen. 4.

O Maria Dibinoa, zu ganat heldu naiz; orotan aditzen dut guziec deitzen zaituztela bekhatorosen ihes lekhua, afliituen contsolazionea, misericordiazco Ama; izan zaite beraz ene ihes lekhua, ene esperantza, ene Ama; eta ardiets diezadazut grazia zure seme adoragarriaren aintzinean.

Ama guziz urricalmendutsua, ezagutzen duzu ene deus ez jakitea eta ene herbailtasuna; graziaren laguntza gabe ez naiz gai deus onic egitecotzat; ez dezaket eta izan pentsamendu on bat ere, ez eta ere susta araz ene ariman sendimendu bakhar bat onic. Zeronec erakhats diezadazut othoitz egiten; urrun zaitzu eneganic izpirituco barriamendu guziac; urth araz zazu ene bihotzeco horma, inspira diezadazut atentziona, bildutasuna eta kharra meditazione hau ongi egitecotzat.

Meditazionearen ondooo actac.

Izan zaite benedicatua, o ene Jaincoa! meditazione huntan egitetie heldu zaizkidan graziez, eman daitazudan argi eta pentsamendu onez, ene bihotza hunkitudun inpresione sainduiez, inspiratu daitazudan erresoluzione salbagarriez. Barkha ditzadazut hobendun jarri naizen dis-


traczioneac, negligentziac, epheltasuna
eta graziari ihardeste escasac.

Birjina, Saindua ene Ama onetasamura,
heldu naiz zure besoetarat confientzia oso
batekin, zure bihotzean causi dezadant-
zat ihes lekhu segura, izan dezakedan
irriscu guzien contra. Har nezazu zure
arartecotasunaren azpian; begira nezazu;
orhoit araz nezazu ardura ene erresolu-
zioneez, eta ardiets diezadazut grazia,
lejalki hejen pratican emaiteco.

Bertze othoitzza.

Zure arartecotasunera ihes egiten dugu,
o Jaincoaren Ama Saindua, ez ditzatzula
mespresa gure othoitzac gure beharretan,
bainan begira gaitzatzu bethi irriscu gu-
zietaric, o Birjina loriosa eta benedica-
tua!






ANDRE-DENA

MARIAREN

ILHABETHEA.



Maihatzaren lehenaren bezperan.



CONTSIDERAZIONEA

*Mariaren ilhabetheco exerzizioei khar-
suki jarrikitzerat erakharri behar gai-
tuzten motiboen gainean.*

- 1º Mariaren ezin gehiagoco goratasuna ;
- 2º Sainduen exenplua ; oro debotac izan dire
Mariaren alderat ;
- 3º Mariaren alderaco debozionearen aban-
tailac.

I PHONDUA. Maria miragarriac bere bai-
than dakharzke gradoric gorenean , guri
haren alderat errespetic handienaren
inspiratzeco gehienic gai diren calitate

guziac. Creatura guzietan den sainduena da, Jaincoaren escuco obraric perfetena, Zeru Lurren Erregina, Girichtinoen arartecoa eta Ama, grazia guzien phartitzaillea; eta gizonaren endelguaz gorago dena Jaincoaren Ama da, haren ganic da sortua Jesu-Cristo adoragarria. Pribilio ezin erranezco haujec altchatzen dute Aingeru eta Saindu guziez gorago, eta emaiten diozcate ezin ukhatuzco dretchoac gure bihotzen gainean. Dugun beraz izan bethi Ama Dibino harentzat egiazco errespetua, amodio samurra eta confientzia osoa. « Maita dezagun Jaincoaren Ama, dio San Bernatec, dugun maita gure bihotzaren hedadura guziaz, eta gure amodioaren samurtasun guziaz; bihur diotzogun Amatasun Dibinoari dohazcon ohore guziac.» Orhoitgaiten choilki Jaunaren neskatoa dela, bainan ez gaiten izan beldur gure errespetuaren seinale handiegiac eman, secular ez dugu aski eginen ohoratzecotzat, Jaincoac berac hanbertze ohoratu duena. Ah! bederen, dugun contsecra ilhabethe hau, osoa, haren loriacotz, eta ez dezagun, egun choil batez cre, huts egin ethortzea haren aldarearen oinetara, han,

haren laudorioen egiteco eta ofritzeco zor diozkigun ezagutza eta amodioa.

II PHONDUA. Jaincoaren Amaren alde-raco debozioneac egin izan du, mende guzietan, sainduric handienen gozotasuna. Nihor ezda hejen artean Ama Dibino hura maitatu ez duenic samurki eta othoiztu confientzia errespetagarri batekin. Ezin errana laiteke kharrac zer inspiratu dioten Birjina Saindu haren ohoretan; zer ez duten egin, zer ez duten erran, zer ez duten izkiribatu, zelebrazeco haren loria, hedatzeco mundu guzian haren alde-raco debozionea. Hortic ere oraino hanbertze debozinezco pratica saindu establituac Mariaren ohoretan, hanbertze confrario eta congregazione, hanbertze fraide eta seroren ordena suerte altchatuac; eta horiec oro haren zerbitzari lejalen ostea emendatzecotzat, hari bihotz guzien irabaztecotzat. Mariaren alderaco debozionearen bidez, eta haren arartecotasunaren laguntzarekin batean, saindutu diren oste gabeco dohatsuen exenpluec erakhar beikitzate gure bihotzetan sustatzerat, Ama on hari zor diotzogun, errespetuzco, confientziazco eta amodiozco sendimenduac. Dugun har chede zina il-

habethe hunen iragaiteco haren zerbitzuan, ahal bezen ongi, eta egun oroz bihurtzen diotzigularic gure homajac khar saildu batekin.

III PHONDUA. Ardura erraiten da, eta behin ere ezin sobera erranen da, Birjina Sainduaren alderaco debozionea dela, Dotor Sainduen arabera, grazia nasaienen ithurburua, saindutasun egiazcoaren itchura eta iduripen zori onezcoa, eta be-thiereco dohatsutasunera heltzecoetaric delaco seinaleric segurena. Ama Dibino hura ez da behin ere baratzen artha izaitetic othoizten dutenensalbamenduaz; ardiesten diozcate escaz ditusten laguntza guziac. « Zerueta Lurra lehenago
« galduco dire, dio Bloaseco Luis debo-
« tac, ezen ez huts eginen baitu confient-
« ziarekin eta zinez othoiztuco dutenen
« laguntzea. » Eta San Anselme ez da beldur erraiteco eta segurtatzeco Maria-
ren egiazco zerbitzari lejala ezin galdaitekela. Lejalkibethetzen baditugu beraz ilhabethe huntan emanac zaizcun pratica sailduac, fagoreric handienac eta berezienac idurikitze-co ditugu, Ama soberano eta ontasunez bethe haren aldetic. Bainan ez dezagun ahantz haren arartecotasuna-

ren ardiesteco hideric hoberena, dela bakhotchac bere ahalen egitea, haren urhatsetan ibiltzeco, eta haren exenpluac imitatzeo. Chedea har dezagun ilhabethe hau hain sainduki iragaiteco, non gure bizia izanen baita Ama miragarri haren biziaren iduricoa, eta ikhus ditzagun aintzinetic zein diren praticatu nahi ditugun berthuteac, hari axegin egitecotzat.

Othoitza.

Zeru Lurren Erregina, Maria, ene Jainco eta jabe soberanoaren Ama; nahi bezen guti gai naizen zure aintzinean agertzeco, heldu naiz ahuspez zure oinetan emaitera, contsecratua zautzun ilhabethe dohatsuaren hastapena zuri ofritzecotzat. Ah! enē Ama guziz saindu eta guziz maitagarria, zure loriaren tronu goratic utz zazu ene gainerat erortzera zure amultsutasunaren behatze ezti hetaric bat, zeinec egiten baitute Zeruco bozcarioa. Adi araz zozu ene bihotzari salbamenduco hitz hetaric bat, ceinen gozotasun loriagarriac alegeratzen baititu, zure boza entzuten dutenen bihotzac. Ama guziz misericordiosa, zure zerbitzarietarie azkena naiz; bainan guziare-

kin ere, nahi naiz izan haina hetaric bat, zeinac ethorrico baitire lejalkienic eta artharic gehienarekin zure oinetara, benediczionezco eta graziazco ilhabethe huntan. Bai, ene Ama ona, ibilico nautzu ahal bezen ardura, zuri ene homajen bihurtzera; ethorrieo naiz egun guziez zure aldareen oinetara, zure beneditcatzera, zure othoiztera, zure laudatzera, zuri ene amodioaren lekhucotasuna emaitera. Esperantza dut zure amazco bihotza, bihotz hoin on, hoin samur, hoin urrikalmendutsu hori utzico dela huntatzera, zuretzat egitea lehiarekin gutiziatzen nukenez, eta emanen dautazulala, ilhabethe huntan, ene bizian, eta bereziki ene heriotzeco orenean, zure arartecotasun guziz puchantaren laguntza.

EXENPLUA.

Mortuco penitenta.

Benediczionezco ilhabethe hau hastean, ez dezakegu ekhar exenplu bat contsolagarriagoric, nola baita Echiptoco Maria Sainduarena. Erakhusten daucu nolacoden, girichtinotasuneco lehen mendetaric, Elizaren confientzia Jaincoaren Ama baithan, eta zoin den handia Mariaren

ontasuna bekhatoros urricalgarrien alde-
rat. Huna nola penitent handi harrec
khondatu zioen Zozima deitzen zen fraide
saindu bati bere conbertsionearen isto-
ria.

Zozima Saindua mortuan barna zoha-
laric penitentzia egiterat, hogoi egunen
bidearen ondotic akhitua, eguerdi inguru-
nan, tricatua zagolaric descantsatzecot-
zat, ohartu zen munstro iduri bati, zeina
ihesari eman baitzen hunen aintzinean;
nahiz adin handia zuen, halaric ere, jar-
riki zitzajon lasterca, eta ustez zenbeit
mortuartar zen, egin zioen oihu bara za-
din eta eman zezon bere benediczionea.
Ah! Zozima, ihardetsi zioen, aurdic
diezadazut zure capa, hortaz ingura eta
estal nadin: zu Apheza zare, ni bekhatore
errumes bat, zuri dautzu ene benedicat-
zea. Fraide Saindua espantitua bere ize-
naz deithua izaiteaz, egin zuen galdatua
izan zajona, eta othoiztu eta arrekeritu
zuen, Jesu-Cristoren izenean, erran ze-
zon nor zen, eta noiz danic bizi zen mortu
hartan. Huna ihardetsi zioen:

Ahalkez urthu eta hil behar nindake
zuri erraitean nor naizen eta zer naizen.
Ene bizi moldearen khondera choilac

hanbertzetaraino laztuco zaitu eta harrituco, non ene ondotic ihes eginen baituzu suge baten aintzinetik bezala. Khondatuco dantzut bizkitartean ene biziaren istorio deithoragarria, galdegin ondoan zure othoitzen laguntza, misericordia egin diezadantzat Jaincoac, jujamenduco egunean.

Echiptoan sorthua naiz. Hamabi urthetan utzi nituen aita amac, eta hejen nahiaren contra Joan nintzen Alexandriaco hirira: han bizi izan naiz, hamaazapi urthez, bekhatu suerte guzietan pulunpatua. Udaco egun batez, ikhusiric jende oste bat zohala itsas basterrera, galdegin nuen norat zohazin jende hec guziac; eta ihardetsi zaundaten Jerusalemera zohazila beilaz, gurutze Sainduaren exaltationeco besta zelebratzera. SARTHU nintzen ni ere bertzeekin untzian, ez gurutzearen adoratzeco debozionez, bainan bai curiosasunez eta besta hartan ongi libertitzeco chedetan. Piajaco denbora guzia eramán nuen bekhatuic ahalkegarrienetan hondatua. Ethorri zenean gurutzearen adoratzeco eguna, banindohan ni ere, bertzeekin baltsan, ikhustera Girichtinoen debozioneari agertzen zioten

Salbatzailearen gurutze sacratua ; baina ezin nihola ere sarthu nintzen Elizan : bortha alhartzea hunkitu bezen laster, baratua senditu nintzen , indar gorde eta ezin bentzutu batez. Hirur edo lau aldiz ihardoki nahi izan nuen ikhusten ez nuen indarraren contra , eta ene egin ahal guziengatic ere , bihurriki gibelerat botatua izan nintzen. Guzia ahalgetua , bazerterrat egin nuen : eman nioen gogoarizer othe zitaken bada ni ene Salbatzailearen gurutzea ikhustetic gibelatzen ninduena. Gogoeta hortan nindagolaric, Jaunaren misericordiac laster ideki zaindan ene arimaco begiac , eta geroztic ez nuen batere dudatu ene bizi galdu eta izigarriaren gatic nuela hertsia Eliza hartaco bortha. Erreflezione horrec bihotza hunkitu zaundan eta nigarrari eman nintzen. Hatsbeherapenic minenetan nindagolaric , ene bulharrei joca , altchatu nituen begiac Zerurat , eta ohartu nintzen , ene buruaren gainean , paret batetan aurkhitzen zen ene Jaincoaren Ama, Birjina Sainduaren imachina bati. Jarri nintzen hari beha , begiac nigarretan urthuac , eta erran nioen : Birjina Saindua ene Jaincoaren Ama , badakit ene bizia

lohitu duten izigarrikerieci, ez daute-
dala zilhegi uzten zure potretaren gai-
nean ene begiac atchikitzea, Birjina bat
zare guziz garbia eta notharic izan gabea,
zure garbitasunac aborritua behar du
izan enea bezalaco arima lohi bat. Bizki-
tarteian entzuna izan dut, zure errai gar-
bietan ekharri duzun Jaincoa, ez dela
gizon bilhacatu bekhatosen penitent-
ziarat erakhar arazteco baizen. Arreke-
ritzen zaitut, naizen estatuan, urricai
beinakizu. Ardiets diezadazut Elizan sar-
tzeco grazia; Zeruco Erregina, egizu,
nahi bezen guti naizen gai, egizu arre-
keritzen zaitut, ikhus dezadan Gurutze
sacratu hura, zeinaren gainean zure Seme
dibinoac ichuri baitu bere odola ene sal-
batzecotzat. Hitz emaiten dautzut, Sal-
batzaile adoragarriaren izenean, etzau-
tala secularn gehiago gerthatuco ene lohi-
keria izigarrietan erortzea; baina gu-
rutzea adoratu dudan bezen laster oro-
utzico ditut, zuc nahico duzun lekhurat
joatecotzat, o Birjina Saindua, zu ene
bermea eta ene ihes lekhua zarena.

Ene othoitza akhabatu nuenecotzat bi-
hotzeco descantsu handi bat aurkhitu
nuen, eta berriz Elizaco borthara bihurtu

nintzen eta sarthu errechki trabaric causu gabe; heldu ahal ere izan nintzen aldarearen oinetaraino. Han, izan nuen zori ona adoratzeco Gurutze baliosa, zeinac eman baitio gizonari bizia. Hunkitua Jaincoaren ezin gehiagoco misericordiaz, ahuspez Lurrari contra jarria, nigarrezco ithurri batez galtzara arregatu nuen. Lekhu Saindu hartaco Lurrari musu eman ondoan, atheratu nintzen Elizatic eta bihurtu Birjina Sainduaren potretaren aintzina, zeina othoitztu bainuen sar zadila ene agintzen berme; haren oinetan ezarri nintzen belhaunica eta erran nioen: Jaincoaren Ama guziz misericordiosa, erakutsi daitazut ongi zure ontasun miragarriaren efetuac, entzunic ene othoitzza, ene ez gai izaiteari behatu gabe. Ordu da, Birjina Saindua, bethe dezadan, zure laguntzarekin batean, egin dautzudan agintza. Nahi dazun tokirat egor nezazu, izan zaite ene gidari salbamenduco eta penitentziaco bidean. Honbertzenarekin entzun nuen boz bat erraiten zaundana: *Jurdaingo hibajaz bertze alderat iragaiten bahaz, aurkhituco dun descantsua, enetzat errantzat hartu nituen hitz horieci, eta ni-*

garrez nindagolaric, begiac Birjina Sainduaren imachina haren gainean landatuac, oihu egin nioen : Zeru Lurren Erregina, zu zeinaren bidez ethorri baitzacote gizonei salbamendua, arrekeritzen zaitut, ez nezazula abandona. Hitz hautan, altchatu nintzen, eta lasterca nindohalaric, ezagutzen ez nuen presunabatec escura eman zaindan hiru dirupeza, zioelaric : *har zaitzu hauc*. Hetaz erosi nituen hirur ogi, eta hartu nuen Jurdaingo hibajarat zaraman bidea. Egun guzia bidean eman nuen, nigarrez urtzen hari nintzelaric. Ethorri nintzenean Jaun Doni Joaniren Elizara, zeina baita hibajaren bazterrean, han, eginic ene cofesioa, izan nuen zori ona ene Salbatzailearen Gorphutz sacratua errezibitzezotzat. Iragan nintzen gero Jurdaingo hibajaz bertze alderat, eta berriz galdegin ondoan Birjina Sainduari izan zadin bethi ene gidaria, sarthu nintzen Mortu huntan barna. Hemen nago goaitan, noiz ethorrico zautan oreua, agertzeco ene Jainco, Juje Soberanoaren aintzinean, zeinac salbatzen baititu handiac eta chumeac, itzultzen direnean haren ganat.

Khondera horren ondoan, fraide sain-
duac galdatu zioen noiz danic bizi zen
Mortu hartan, zertaz hazi izan zen, eta eja
izan zuen zonbeit tentazione, hain bizi
khanbio handian. Hunela ihardetsi zioen :
badu herrogoi urthe hemen naizela ; ene
janhariaz bezenbatean, banituen ene hi-
rur ogiac, zeinac denbora laburric artean
harria bezen gogor bilhacatu baitziren ;
zonbeit urthez hetaric pochi bat egunean
jaten nuen, ororen buruan, gizona ez
da ogiz choilki bizitzen. Lazten naiz oraino
ere jasaiteco izan ditudan tentazioneen
orhoitzapenean. Hamazazpi urthez gudu-
catu naiz mila gutizia muthirien, eta
gaizkiraco jaudura izigarri baten contra.
Guducatzte hejen guzien erdian, ene bul-
harrei joca jartzen nintzen eta emaiten
nigarrari ; orhoitzen nintzen eman nuen
agintzaz, eta gogorat ekhartzen nuen
bertze orduzco Jaincoaren Amaren ima-
china hura, zeinaren arartecotasunaren
azpian jarri bainintzen ; Ama ona ! oi hu
egiten nioen, urrun zaitzu ni ganic ene
arima zaurtzen duten gogoeta izigarriac.
Orduan ikhusten nuen argi gozo bat alde
guzietaric inguratzen ninduena, eta ene
izpiritua sartzen zen descantsu oso batean,

Hunela altchatzen nioen ene bihotza Birjina notha gabeari, ene gudu guzietan, behin ere ez nau utzi lagundu gabe. (*Mortuco aiten bizian.*)

PRATICA.

Adreza gaizcon Mariari ilhabethe zori onezco hunen hastetic, eta othoitz dezagun ardiesteaz gure bekhatuen barkhamendua.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Quibus te laudibus efferam nescio.
(*Orat. Eccl.*)

O Jaincoaren Ama! Ezdakit zer laudorioz altcha zure handitasunac.

LEHEN EGUNA.

Birjina Sainduaren predestinazioneaz.

- 1º Maria predestinatua izan da dignitateric goreneco;
- 2º Saindutasunic konplieneco;
- 3º Lorianic handieneco.

I PRONDUA. Jaincoac eternitate guzitic hartu duenean chedea, incarnationeco misterio handiaren bidez, munduaren salbatzeco, hautatu du Maria, Adamen

bertze haur guzien artean, bere Semearen Ama egitecotzat. Hautza lorios hortaz, creatura zori onezco hura dohatua da izan daiteken dignitateric gorenecotz. Zeruan eta Lurrean diren gauzaric handienac, deusic ez dire dignitate ezin gehiagoco horren aldean. Maria Berbo incarnatuaren Ama bilhacatuco da, eta calitate hortan izanen da Girichtinoen Ama, Aingeruen Erregina, Jaincoaren aintzinean gizonen arartecoa. Milaca ditzogun eskerrac bihur Jaincoari, zeren altchatu duen gure Ama maitagarria goratasun miresteco hortara, eta zeren, guretateco amodioz, ezarri duen hoin herrunca goran. Ahuspez eman gaiten Erregina guziz errespetagarri haren tronuaren oinetan, bihur diotzogun haren banditasunari dohazcon homajac.

II PHONDUA. Contzebi dezagun, ahal badukegu, nolacoa izan behar den Jaincoaren Semeac bere Amatzat hautatu duen creaturaren saindutasuna, eta zoin perfeczionezco gradotara altchatua behar den izan emazte guzien artean benedicatua den emazte hura, zeina izanen baita, egun batez, Lurrean Jaincotasunaren egoitza Saindu bizia. Seculan ez

da izanen hura baithan , ez bekhatu-
 ric , ez hutsic , ez den mendreneco imperfec-
 zioneric . Izanen ditu berthute suerte gu-
 ziac , bakhotcha gradoric gorenean ; ha-
 ren arima aberastuco eta birriginduco
 duen grazia saindutzecoac ichituco ditu
 gizon eta Aingeru guziac saindutzen di-
 tuen grazia . Izanen dituen grazia actua-
 lec , eta grazia hejen laguntzarekin ba-
 tean ardietsico dituen merezimenduec ,
 ez dute egundeino izan ez izanen secular
 deus here pareric . Galdegin dezogun
 Jaincoari pharte eman dizagun Saindu-
 tasun miragarri hartaric ; hortaracotz
 praticatzera egin dezagun lehiarekin ,
 gure herbailtasunari dohacon bezenba-
 tean , Mariac eman daizcun berthutezco
 exenplu ederrac .

III PHONDUA. Jaincoac predestinatu
 du Maria Creatura batec Zeruan izan de-
 zaken loriaric goreneco . Ezarria izanen
 da Aingeruen bederatzi corteez gorago ,
 tronu distirant baten gainean , here Seme
 Jaincoaren escuinean : Jainco ez den gu-
 zia Mariaren azpico izanen da , izen sa-
 cratu haren aiphamenera guziac belhau-
 nicatuco dire Zeruan , Lurrean eta Ifer-
 nuan . Bethiereco mendetan errezibituco

ditu Saindu eta izpiritu dohatsu guzien homajac eta errespetuac. Dezogun seinala gure axegina dituen oste gabeco handitasunez. Lehia gaiten merezitzera Erregina guzien gaineco haren arartecotasun puchanta. Zer ez dugu idurikitzeo haren laguntzatic, baldin guretzat baliatu nahi bada! Eta segur da baliatu nahico dela gure fagoretan, baldin lejalki ohoratzen, maitatzen eta confientziarekin othoizten badugu.

OTHOITZA.

Jesusen Ama Dibinoa, ikharatzen naiz gogora erakhartzen dudan aldi guzietz Predestinazioneco misterio ezin zundatua, eta iracartzen dudanean Ebanjelioac dioena hautetsien oste chumeaz. Bainan gauza batec segurtatzen nau eta gozoki descantsatzen; hura da, Dotor Sainduen lekucotasunaren arabera, zure alderaco debozione zin eta samur bat baita salbamenduco berme casic segura, eta predestinatua izaiteco seinaleric gutien dudatzecoa dena. Ene Ama guziz ona, iduritzen zaut maite zaitudala. Zu baithaco confientzia handi bat badudala, senditzen dudala ene baithan egiazco nahi bat zure zerbitzatzeco, eta zure ohoratzeco,

ahal dukedan bide guziez. Zeronec ene bihotzean ezarri dituzun sendimendu debotac dire beraz, enetzat, ene bethiereco zori onaren esperantzazco seinaleac; eta baldin lejal izaiten banaiz, eta irauten badut sendimendu beretan, esperantza izaiteco dut hautetsietaric izanen naizela eta, zure arartecotasunaren laguntzarekin batean, helduco naizela Zeruco Erresumara, zeintaco izan bainaiz creatua. Bainan, hélas! Zeronec ezagutzen duzu nolacoa den ene flakezia eta ene khabiacortasuna; ez ditzatzula utz seculan iraungitzera orai ene bihotzac zuretzat dituen amodiozco sendimenduac. Egizu izan natzaitzun bethi lejal, eta, biziaren azken hatseraino, ez nadin bara zure ohoratzetic, zure zerbitzatzetic, zure othoiztetic, zure maitatzetic, izan nadintzat zurekin, bethi mendetaco mendetan.

EXENPLUA.

Salbatzailearen agintzac.

Santa Mekhtilda, iracurtzen hari zelaric, egun batez, Salbatzailearen heriotze-co hitz Dibino hauc, bere Ama Sainduari erraiten zihozcanac: *Emaztea, horra zure*
5..

semea, inspiratua senditu zen Jesu-Cristori galdatzeco egin zezon Jaun Doni joaniri egin zioen grazia, eta berriz ere oraino erran zezon Birjina Sainduari, hunen fagoretan : *Emaztea, horra zure alaba*. Egin zuen bezen laster othoitz hau, entzuna izan zen; aditu zuen Salbatzaile adoragarria erraiten bere Ama Sainduari : *Ama, huna zure alaba, zeina bere botuetan egin daitan agintzen bidez, ene espos bilhacatu baita, hunentzat ichuri dudan odolaren eta jasan dudan heriotzearen contsiderazionetara, huntaz artha izan dezazun galdegiten dautzut*. Mekhtilda Saindua errecomendazione haren ondotic bozcariotan jarri zen, eta confientziaz bethea, ausartatu zen, berriz ere, galde beraren egiterat Jesus Jaunari, grazia bera galdeginen zutenen fagoretan. Salbatzaile Dibinoac adi arazi zioen, secular etzioela errefusatuco fagore hori khartsuki eta lehia- rekin galdeginen zioenari. Dugun beraz galda grazia balios hori, eta othoitz dezagun Jesu-Cristo gure Jauna, eman gaitzon Mariari bere haurtzat, geronec hautatzen dugularic Birjina Saindua gure amatzat. (*Birj. alder. debo.*)

PRATICA.

Zurekin erabil zazu Mariaren imachina bat, ekhartzen duzularic soinean haren medaila chume bat : zenbeit aldiz zapha zazu medaila hura zure bihotzari contra, eta errazu : *nahi dut, o Maria Saindua, bihotz hau zurea izan dadin.*

BIHOITZ ALTCHATZEA.

Dominare nostri tu, et filius tuus.

O Maria, zuc eta zure semeac erregina zazue gure gainean.

BIGARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren contzebitze notha gabecoaz.

1º Mariari contzebitua izaitean emana izan zajon grazia ;

2º Mariac zenbat estimatu zuen grazia hura ;

3º Mariac zer egin zuen grazia haren begiratze.

I PHONDUA. Birjina Sainduac Jaincoaren jenerostasunetic izan duen fagoreric baliosena, datza garbi eta notha gabe contzebitua izaitean. Hari bakharric emana izan zajon pribilioaz, Jaincoac begiratu

du bekhatu orichinaletic. Bethi danic dohatua zen Jaincoaren Ama izaiteco, eta calitate guziz gora horrec galdegiten zuen harentzat fagore berezi hori. Saindutasun guziaren Jaincoa mundura eman behar zuen creatura, Jaincoac bere conplesentziazco norhabetzat hautatu zuen nescatcha, Ifernuco Suge zabarraren burua lehertu behar zuen emazte borthitza, izan othe zaiteken, istant bat ere, Debruaren esclabo, Jaincoaren etzai, colerazco haur galdu bat? Ez, ez lohake hori Jaincoaren zuhurtziari ez eta ere haren saindutasunari. Hortaracoltz ere, egiazco Girichitino lejal guziac seguratuac dire Maria izan dela garbi, Saindu eta notha gabe, contzebitua izan den lehen mementotic. Haren arima ederra, ordu beretic, betha izan zen benediczionez eta graziaz, aberastua berthute suerte guziez. Haren bihotza, dohatua Jaincoaren egoitza Saindu izaitecotzat, ez da behin ere histua izan bekhatuaren hats pozoatuaz. Alegera gaiten Elizarekin, Mariari emana izan zajon pribilio berezi horren bichtan: agin dezogun sinheste debot hori atchikico eta sustengatuco dugula heriotzeraino. Fedezco egien ondotic, ez

da egia bat girichtinotasunean seguragoric, ez hobeki frogaturic, nola baita Birjina maitagarri haren contzebitze notha gabecoa.

II PHONDUA. Birjina Saindua Jaincoaren Ama zen, gizonen eta Aingeruen Erregina, Zeru Lurren Andre Soberanoa; baina *contzebitze notha gabecoaren* calitatea bertze guzien gainetic prezatzen zuen, zeren calitate horrec agradagarriago bihurtzen baitzuen Jaincoarentzat. Goraki diote Dotor Sainduac, eta ez dute beldurric seguratzecotzat, baldin Birjina Mariac izan balu hautza, lehenago hautatuco zuela bekhatu orichinaletic begiratu izaiteco zori ona, ezen ez Jaincoaren Ama bilhacatzeco ohore ezin gehiagocoa. Dignitateric gorena etzajon gai idurituco comparatzecotzat, istant batez ere, Jaincoaren etsaigoan izana causitzeco zori gaitzarekin. Helas! Ala bertzelacoac baitire gure sendimenduac! Zenbat aldiz ez ditugu iragan egunac, ilhabetheac, urthe osoac hain estatu deithoratzecoan! ikhas dezagun gure Ama Saindua ganic, egun, bekhatua dela beldurtzeco dugun gauza bakharra; eta gure estimua eta amodioa merezi dituzten gau-

zac , ez direla ez gorphutzeco , ez izpirituco , ez sortzeco calitateac ; bainan bai Jaincoaren grazia , berthutea , Saindutasuna , bihotzeco inozentzia.

III PHONDUA. Nahiz Birjina Saindua begiratua zen flakezia guzietaric , eta gaizkiraco jauduraric gabe zen ; nahiz contzebitua izan zen inozentziaren pribilio guziekin , eta probidentzia berezi batez , grazian confirmatua , beldur zen bizkitartean bekhatuarentzat , occasione-ric chumeenei ihes egiten zioten , bethi atzartasunic handienez zagon bere sentsu guzien gainean ; bizi nekhatu bat zaraman , bizi bat penitenta , mortificatua ; egun oroz entseju berriac egiten zituen perfeczionean aintzinzatzeco. Zer exemplua guretzat , zeinac , urrun baita hortzituac baicare grazian , contrarat , bekhatuan sortuac baicare , eta gaizkiraco jaudura muthiriarekin ; guretzat , zeinac betheac baicare habitura gaichtoez , eta berthutean hain flaco eta hain herbailac ! espantitzeco othe da egin ditzagun erorico usuac , eta hobendun izan gaiten , hain guti atzarriac gaudenaz geroz bekhatutic begiratzeco , eta , ardura iduri ere dugunaz geroz , bideric hobeneren ondotic

gabiltzala gure pasioneen hirritatzecotzat.

OTHOITZA.

Jesusen Ama guziz maitagarria, alimuz bethea aurkhitzen naiz ikhusten dudanean, zure contzebitze notha gabecoaren bidez, debrua zure oinen azpian ezarria. Zu zare munduaren hastapenetic aiphatu Emazte borthitz hura, zeinac behar baitzioen lehertu burua Ifernuco Suge zahar-rari. Osticatu duzu etsai manduel hura zure biziaren lehen mementotic, eta be-thi ihardoki duzu haren dardo colpeen contra. Maria guziz misericordiosa, aur-dic zaitzu ene gainerat zure urricalmenduzco behatze eztiac; etsai izigarri har-ree ene arimari egin diozcan zauriac ikhus zaitzu. Ah! baldin arthatsuago izan banintz zure laguntzaren galdegitecotzat, ez nituen hanbertze colpe hilcor errezibituco, hemendic harat, zuri egi-nen dut oihu ene tentazionetan, confient-zia humil batekin, eta esperantza dut nitaz urricalduco zarela, hedatuco dautazudala zure escu misericordiosa, ar-dietsico dautazudala ene etsaien bentzutzeko indarra, eta hejen gainean eramandondoa bitoria, behere huntan, ethor-

rico naizela Zeruro Erresumara, hor, zure escuetaric errezibitzera, lejalki guducatzan direnei agindua den bethiereco khoroa.

EXENPLUA.

Contzebitze notha gabecoaren alderaco debozionea.

Seinalatzeco da, bereziki zenbeit mende huntan, Mariaren egiazco Zerbitzariec, haren contzebitze notha gabecoaren pribilio loriosa sustentgatzeco, agertzen duten khar handia. Birjina miragarriac, bere aldetic, ontasun berezi bat erakhutsi du, misterio hori ohoratzen dutenen alderat, eta mila ocasionetan sendi arazi diozcate bere arartecotasun puchantaren efetuac. Hitz hauc choilki : *Maria bekhaturic gabē izan da Contzebitua*, erranac fidantzia oso batekin, aski izan dire Ama amultsu haren ontasunetic ardiesteco fagoreric berezienac. Huna exenplu bat, ekharria Piarres Furrier Dohatsuaren bizian. Gizon Saindu hura Lorreneco hiri batetic iragaiten zelaric, aurkhitu zuen populu guzia laztua eta harritua, izurrite izigarri baten bichtan, zeinac bardin baitzaramitzan gizonac eta

arimaleac , oro baltsan. Andre dena Ma-
 riaren congregazioneco Serorec , zeinen
 Aita eta Buruzagia baitzen, haren baithan
 bilhatu zuten zerbeit contsolazione. Jau-
 naren Zerbitzari handi harrec erran izan
 zioten oihu egin zezotela Birjina Maria ,
 damutan direnen contsolatzaileari, segur-
 tatzen zituelaric , baldin izkiribatzen
 baziuzten , hainintz paper pochitan , hitz
 maitagarri hauc : *Maria bekhaturic gabe*
izan da contzebitua , fidantziarekin heta-
 ric berekin erabilico ziuztenec ardietsico
 zutela zerbeit soleimendu. Debozione
 hori ezagutua izan zen bezen laster, auzo
 guziac hartara , ihes lekhura bezala , le-
 hiatu ziren. Hiri harrec debozione hortan
 aurkhitu zuen onac egin zuen, denbora
 laburric artean , hedatu baitzen bertze
 hainintz hiritarat , zeintan oraino efetu-
 ric miragarrienac izan baitzituen. Bai-
 nan bereziki Nemurreco hirian izan da
 frogatua zer indar baliosac dituen pra-
 tica Saindu horrec erauntsia eta zori
 gaitz publicoetan. Berria hedatu zen hi-
 ria largatua izaitera zohala soldadoen bo-
 fondatera, arrobatua izaitekotzat ; ikhara
 cantoin guzietarat berduratu zen , etzen
 marrascaric eta deihadaric baizen adit-

zen. Lastima jeneral haren erdian, hainitz comentuetaco Fraide eta Serorec, eta bertze hainitz Girichtino khartsuc, miraculuac ardiesten dituen fede bizi batez sustatuac, oi hu egin zioten Birjina Sainduari, ezarri ziuzten etheco borthen gainean, canpotic, hitz hauc : *Maria bekhatuic gabe izan da contzebitua.* Hori izan zen Nemurreco hiriarentzat, bertze orduz, Israeltarrentzat, Aingeru funditzailearen ezpataren contra, beren borthen gainean ezarri zuten bildotsaren odolozco seinalea bezala. Hiriaren arrotatzeco manua gibelatua izan zen, eta gero khendua; gogoan mendecuric bai zen etzabilaten soldadoec hartu ziuzten sendimendu eztiagoac eta gizoncarazcoagoac. Khanbiamendu hoin espantagarria Birjina Sainduaren arartecotasunari izan zen eratchikia; eta etzen guti baliatu debozione handi baten inspiratzeco haren contzebitze notha gabecoaren alderat. Hortic heldu da hainitz Congregationetan ezarria den usantza guziz laudagarria, lephotic erabiltzeco medaila chume bat, zeintan aurkhitzen baitire Jaincoaren Amarentzat hain lorios diren hitz hauc : *Maria bekhatuic gabe*

izan da contzebitua, eta zeinec orhoit arazten baicaituzte haren pribilioric ederrenaz.

Gauza bera gerthatu da Parisan, Serora batzuen comentuan, mila zortzi ehun eta hogoi eta hamarreco uztail egunetan; miraculu hori ez da guti baliatu pratica Saindu horren hedatzeco Frantzia guzian: memento hartaric hunat bertze hainitz miraculu obratuac izan dire debozione beraren bidez, gure Erresumaco asco bazterretan. Hortic ere ikhusten da, orai, herrunca guzietaco Girichtino khartsuetaric oste handiari ohore zajola soinean ekhartzea medaila chume hetaric bat, Birjina Mariaren arartecotasunaren bahitzat bezala, irriscu guzien contra.

PRATICA.

Hartzazu debozione samur bat Mariaren contzebitze notha gabecoaren alde-
rat.

BIHOTZ ALECHATZEA.

Per sanctissimam virginitatem et immaculatam conceptionem tuam, purissima Virgo, emunda cor meum et carnem meam.

Zure Bizjinitate Sainduaz eta contze-

bitze notha gabecoaz, Birjina guziz garbia, garbi ditzagutzu gure bihotza et gure gorphutza.

HIRUR GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren sortzea.

- 1º Mariaren sortzeac bozcariotan ezarri du Zerua;
- 2º Esperantza ekharri dio Lurrari;
- 3º Ikharatu du Ifernua.

I PHONDUA. Birjina Mariaren sortzean, ordu beretic, Trinitate guziz Sainduac axegin gozoequin behatu zioen haur maitagarri hari, bere escuco obraric ederenari bezala. Jainco Aitac behatu zioen bere Alaba ongi maiteari bezala, bere begicoric samurrenari bezala. Jainco Semec contsideratu zuen bere Ama bezala, egun batez egoitzatzat izan behar zuen tenplo bizia bezala. Izpiritu Sainduac maitatu zuen bere Espos maiteena bezala, eta zaindu zioen bere graziaric balioesen nasaitasun guzia. Zeruco Izpiritu dohatsuec ezagutu zuten bere Erreginatatzat; lehiatu ziren egitera haren sortzeco besta, eta hari bere errespetuaren eta

amodioaren homajac bihurtzera. Benedica ditzagun eta adora Trinitate guziz gorac Mariaren fagoretan dituen chede ezin zundatuac. Junta gaiten Izpiritu dohatsuei, eta hejekin alegera gaiten, ikhusiz Birjina maitagarriari, bere sortzeco mementoan, Zeruac emaiten diozcan grazia bereziac. Arrekeri dezagun haur dibino hura har gaitzan bere arartecotasunaren azpian, orai danic, gure bizi guzicotz.

II PHONDUA. Lau mila urthe hartan munduac idurikitzen zuen lehiarekin agindua zitzajon Salbatzailea. Azkenecotz mementoa hurbiltzen da, Lurrean agertzera doha gizonac libratu behar dituen bekhatuac ezarri dituen esclabotasun urrical garritic. Hala nola argi izarrac aintzintzen baitu iruzkia, eta hunen ethortzea, Lurraren argitzeco eta berotzeco, seinalatzen baitu, orobat, Mariaren sortzeac seinalatzen du justiziaren egiazco iruzkiaren ethortze hurbila, benediczionezco eta graziazco iruzki harena, zeinac behar baititu argitu gizon guziac, itsa araziz hejen izpirituetic inorantziaren eta bekhatuaren ilhunbeac, eta hejen gainerat hedatuz Zeruco

grazien indarra eta nasaitasuna. Zer lehiarekin ez dugu laster egin behar Birjina maitagarri haren aintzina, hari gure bihotzeco sendimenduen seinalatze-co, hari gure Andre soberanoari bezala gure errespetuen ofritzeco, hari contsecratzeco gure buruac, gure Amari bezala, haren laguntza galdegiteco eta haren ganat ihes egiteco, gure Arartecoaren eta Abocataren besoetarac bezala!

III PHONDUA. Nolacoa etzen izan Debruaren errebiamentua, lehen aldicotz ikhusi zuenean Emazte borthitz hura, jakina, munduaren hastapenetic, hunec behar zioela lehertu burua! Zer begi bekhaizcorrez etzituen ikhusi hunen arima aberasten et birrigintzen zuten grazia miragarriac eta pribilio bereziac! Etsai izigarri harrec, bere maltzurkeria gaichtoaz, aurdiki zuen gizona zori gaitzetan den handienerac, eta gathibo zaucan bere puchantzia lazgarriaren aztaparretan: Bainen huna non heldu den Libratzaile Dibinoa mundura eman behar duen haur baliosa, huna Debruari jazarri behar dioen, eta hura bentzutu behar duen Emazte hazcar eta borthitza. Milaca bihurtitzogun eskerrac Jaincoari zeren eman

daucun Maria, hunen laguntzarekin batean, lurrerat aurdikitzeo gure etsaiguziac. Goazin confientziarekin Ararteco puchant haren gana, othoitz dezagun kharrekin, bereziki tentazioneco denboran; ihes emanen ditu Debru guziac.

OTHOITZA.

Haur maitagarria, Maria Dibinoa, emaiten naiz ahuspez zure ohacoaren aintzinean errespetic handienarekin. Egiten dautzut ene agurra zure sortze zori onecoaren mementoan, justiziazco iruzkiaren atheratzea seinalatzen deraucun argi hasteari bezala, eta othoizten zaitut, agrada beikizu, zure bizi hilcorraren lehen istantean, ene bihotzaren erditic egiten dautzudan ofrenda. Sortzen zare gure zori onecotz, heldu zare Lurraren gainera, izaiteco afliituen contsolazionea, flacoen sustengua, bekhatoren esperantza, zori gaitzean diren guzien ihes lekhua. Har nezazu zure arartecotasunaren azpian, balia zaizkit Jau-naren aintzinean, athera nezan amoreagatic ene bekhatuen carga dorphearen azpitic. Galdegiozu Jaincoari ezesta ditzan ene izpirituco ilhunbeac, casa ditzan

ene bihotzeco gutizia eta sendimendu behar ez bezalaco guziac, eta ene etsajen egin ahalac oro suntsi ditzan, horrela lagundua izan ondoan haren graziaz, molda dezadan ene bizia hunelaco gisaz non, haren laguntzarekin batean, eta zure arartecotasunaren azpian, helduco ahal bainaiz bethiereco bizitzearen portu zori onezcora.

EXENPLUA.

Otso bildots bilhacatua.

Denbora guzietan Birjina Sainduaren arartecotasuna graziazco eta benediczio- nezco ithurburua izan da, Ama on haren alderat debotac izan diren guzientzat. San Andre Corsini, gauza horren frogetarie bat da, bertze miliunen artean. Saindu hau sorthu baino lehen, hunen Aita Amec Jaincoari agindu zioten beren ezcontzaco lehen fruitua; bainan Andrec etzuen berehala ihardetsi hejen chede debotari; zonbeit gazte lagun galduen hantatzeac bizioan barna sar arazi zuen. Jocoac, harriamenduac, sentsucarazco bizi batec laster itho ziuzten hunen baitan, hastetic hanbertze hartu zuten debozionezco sendimenduac. Andre gal-

duenetic bilhacatu zen; eta nola comuzki bizi gaizki eramanc molde gaizten baitu, mespresiorekin baizic etzituen errezibitzen bere Ama onaren abisu salbagarriac. Bere semearen bizi molde tzarrac ezartzen zuen desolazionean; emazte Jaincotiar harrec etzuen aurkhitzen erresurtsic Birjina Sainduaren arartecotasunean baizen: haren beraren bidez ardietsia zuen Jaincoa ganic haur hura, eta berari, bere zerbitzuc, contsecratua zioen sortzetic beretic. Hoin iraupenezco fidantzia etzaukejen fruituric gabe. Egun batez, Andre, axeginezco partia batera joiteco, arrimatzen hari zelaric, ohartu zen Ama nigarrez urtzen hari zitzajola; bihotza hautsi zajon berari, eta lehiarekin galdegin zioen eja zer zuen hanbertze nigar egitecotzat. Nigarrez nago, semea, ihardesten dio Ama berthutos harrec, zeren sobera baizic ez baitazu eracusterat emaiten egia dela zure sortzearen aintzineco gabean izan nuen ametsaren lehen phartea. Iduritu zaundan emaiten nuela mundura otsocume bat, egia da, ikhusi nuela bildots bilhacatua Carmesetaco Aiten Elizan sarthu zen bezen laster. Uste izan ginuen

6.

zure Aitac eta nic, gibelatuco ginuela, hoin iduripen izigarriaren efetua. Zu Birjina Sainduari contsecraturic; bainan gure egin ahal guziac ez dire baliatu, bazic ere zure bizi moldea guretzat damugarriagoa bihurtzeco. Zure bizi gaichtoac ez daut, zori gaitzean, sobera baizen frogatzen ene itchurapena ametsez bertzeric zela. Ochala! bederen, baldin hil baino lehen, ikhus ahal baneza otso-cume hura bildotserat khanbiatua. Hitz hauc erranac hainitz nigarrekin, eta berthuteac eta Ama baten bihotzeco samurtasunac inspiraturicaco aire hatekin aski izan ziren gizon gazte haren hunkitzeco eta biziz aldatzeco, espantituzen Amac izan zuen ametsaz, eta oraino gehiago zena, amets harrec haren biziarekin zuen iduri berberecoaz. Graziac mugituzioen hondoraiuo bihotza, eta betetan eman zen onerat.

Ez, etzare hilen, Ama ona, erraiten dio Andrec, izan gabe contsolazionea otso-cume hura bildots bilhacatua ikhustecotzat. Sobera denboraz baizen ez naiz izan arimale hastiagarri harrec seinalatzen duena, oren beretic bazohazi ikhustera zure ametsa osoki bethetzen. Ofritu

nauzu, diozu, Jaincoaren Amari; zuzen da contsecra nadin haren zerbitzucotz. Contsola zaite, Ama maitea, zure othoitzac eta zure nigarrac ez dire alferretan eta fruituric gabe izanen. Barkha ditza datzu nic eman nahi gabeac, ahantz zaitzu ene gogortasunac eta esker gabetasunac; eta zure othoitzez ardiets diezadazut ene bekhatuen barkhamendua.

Etzen hain laster mintzatzetic baratu non, utzi gabe epheric Amari, hain guti idurikitzen zuen bet betaco khanbiamendua aurdiki zuen espantitze agradagarritic atheratzeco, baitoha Carmesetaco Aita errespetagarren Elizara; han, Birjina Sainduaren aldarearen oinetan, ahuspezemana, nigarretan urtzen hari delaric, ofritzen zajo Jaincoari eta Maria Dibinoari, sortzetic contsecratua izana zitzajoten bitima bat bezala, bainan zeina, aspaldi danic, munduac bere gathetan beitzaucan. Haren ofrenda onhetzia izan zen. Andrec, betbetan, senditu zituen bere bekhatuen lokharriac urratzen. Bertze izpiritu batez sustatua, alimu berri batez bethea, memento beretic hartu zuen Fraide bilhacatzeco chedea, eta sarthu zen Carmesetaco orde-

nan , Zeinaren ornament ederreneric bat bihurtu baitzen denbora laburric artean. Ezagutzaz bethea Jaincoaren Amaren alderat , zeinari baitzioen zor bere khanbiamendua, izan zuen bethi harentzat debozione handi bat , eta etzuen behin ere nahi izan bertze calitateric, bairzen ere Mariaren zerbitzariarena. (*Godescar ait. bizi.*)


PRATICA.

Ohetic jaikitzean eta etzatean , itzul zaite Birjina Sainduaren potret baten alderat , eta galdegiozu bere benediczio-nea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Ave, Filia Dei Patris ; ave, Mater Dei filii, ave, Sponsa Dei Spiritus Sancti ; ave Templum totius Trinitatis.

Agur, Jainco Aitaren Alaba ; agur, Jainco Semearen Ama ; agur, Jainco Izpiritu Sainduaren Esposa ; agur Trinitate guziz Sainduaren Tenploa.



LAU GARREN EGUNA.

Mariaren izen miragarriaz.

1º Izen salbagarria ;

2º Izen loriosa ;

3º Izen errespetagarria.

I PHONDUA. Jaincoaren Amac , zioen San Bernatec, ezin izan zezaken izen bat hobeki zohaconic Mariaren izena baino, ez eta hobekiago seinalatzen zuenic haren gaziez gaineco handitasuna eta haren dignitate oroz goragocoa. Izen misterioz horrec erran nahi du Hebroco lengoajan *itsasoco izarra*. Hala da ezen, Maria gure izarra da , gure argia , gure gidaria mundu huntaco itsaso lanjero-sean. « O gizona , nor nahi zaren , dio « Aita berac , nahi zare begiratu costa « tristeki joitetic ? Itzul zaitzu begiac « Mariaren alderat , bara zaitzu zure behatzeac izar maitagarri haren gainean. « Zure tentazionetan , zure irriscuetan , « beha zozu izarrari , Mariari oihu egiozu. Baldin nahasia bazare urgailuzco , « anbizionezco , medisentziazco , jelo- « siazco auhin muthiriez , beha zozu « izarrari , Mariari oihu egiozu. Beldur

6.

« guzietan , zori gaitz guzietan , bizico
 « beharric hertsienetan eta penagarriene-
 « tan , Maria gogora^s erakartzazu , Ma-
 « riari oihu egizu. Haren izen Saindua
 « izan bedi bethi zure ahoan , izan bedi
 « bethi zure bihotzean. Hura segituz ,
 « etzare errebelatuko , hura othoiztuz ,
 « etzare , desesperatuko sustengatzen bazai-
 « tu , etzare erorico ; begiratzen bazaitu ,
 « ez duzu deus izanen beldurtzecoric ;
 « baldin zure fagore baduzu , helduco
 « zare salbamenduco portura. »

II PHONDUA. Mariaren izenac erran
 nahi du oraino *Andre soberanoa* , Zeru
 Lurren Erregina da , Aingeruen eta gizo-
 nen Andre soberanoa , eta ororen gaine-
 ticaco pribilio berezi batez , gurea. Sent-
 su huntan deitzen dute , arruntean , po-
 pulu guziec *gure Andrea*. Orotan Maria-
 ren izen loriosac dakharke handitasuna-
 ren seinale bera , eta erakhesten du gu-
 ziei haren puchantzia eta haren loria.
 Bethe bedi , Maria Dibinoa , bethe bedi ,
 molde guziez , zure izenaren hedadura
 guzia : izan zaite ohoratua Zeruetan , er-
 respetatua Lurrean , ikhara zaitzu^s guziac
 Ifernuan. Erregina zazu , Jaincoaren on-
 dotic , Jaincoaz beheretic diren gauza

guzien gainean ; bainan , ororen gainetic
erregina zazu gure bihotzetan. Izan zaite
gure contsolazionea gure penetan , gure
indarra gure flakezietan , gure dudetan
gure contseilua , gure esperantza gure
heriotzeco orenean.

III PHONDUA. « Zeruac eta Lurrac ,
« Maria guziz dohatsua , dio San Frant-
« sesc , ez dute ezagutzen izenic , zure
« Seme maitearen izenaren ondotic , zei-
« nae ardiesten baitiote gizonei grazia
« gehiago , emaiten esperantza gehiago ,
« eta gozotasun gehiago jasta arazten ,
« nola baita zure izena. Zori on , zure
« izena errespetatzen eta maitatzen due-
« nari , o Birjina Saindua , dio San Bo-
« nabenturac ; zure fagoreec sustengatuco
« dute bere nahi gabetan , eta erakhar-
« rico ditu hainaren baithan fruituric
« nasaienac eta baliosenac. » O Maria-
ren izen guziz gozoa , etzaitezke aipha
bihotzeco descantsua senditu gabe. Ala !
zure izena loriosa baita , ala miragarria
baita ! O Ama Dibinoa ! badu indarric
aski Ifernuaren tentazione guzien bent-
zutzeo eta sunsitzeco. Ah ! Maria ,
ochala ! Bethi oihu egin banatzu ene ten-
tazionetaco ordu guzietan , enintzen

hain bekhatu izigarrietan erorico. Hemendic harat ez dut huts eginen zuri socorri galdegitea irriscu guzietan, eta esperantza dut begiratuco nauzula ene arimaco etsai guzien guduken contra.

OTHOITZA.

O Maria guziz Saindu eta guziz maitagarria, ahoac ez dezake aipha zure izena, bihotz guzia sutan senditu gabe zuretateco amodioz; eta zu maite zaituzten guziec ezin zu gogorat erakhar zitzazkete, senditu gabe beren bihotzac sustatuac zu gehiago maitatzeco. O gure Andre soberanoa! Hazkar zazu gure flakazia; ardiets diezaguzu, nigarrezco desterru huntan, hain beharrac ditugun graziac. Ah! nor da zu baino gajagoric Jaincoari gure fagoretan mintzatzeco? Zu zeina hain hurbildanic gozaten baitzare haren beitharte dibinoaz. Mintza zrite guretzat, o gure Erregina! Mintza zaite, zeren zure Seme maiteac entzuten baitzaitu, eta zeren segurki ardietsico baituzu guretzat galdeginen duzun guzia. Bainan, ororen gainetic, zure Semeari gure fagoretan galdegin dezozun, arrekertzen zaitugun, grazia handia, grazia

bertze guzien gainecoa, da maita dezagun gure bihotz guziaz mundu huntan, izan dezagun amorea gatic zori ona haren maitatzeco Zeruan, bethiereco mendetan.

EXENPLUA.

Lehenago Mariaren izen Saindua hain errespetu handitan zen zenbeit lekhotan, non debecatua baitzangoten emaztekiei Mariaren izena ekhartzea. Beldur izanzen, casic, Jaincoaren Amaren izena profanatzea, eman izan balitz bertze norbeiti. Alfonsa IV. Castilaco Erregeac, moro gazte bat ezcontzaz hartzera zohalaric goraki adi arazi zioen etzuela emaztetzat hartuco, baizic ere condicioneekin, etzuen Bathajo Sainduan hartuco Mariaren izen sacratua. Casimir I. Poloniaco Erregeac, zeinac emaztetzat hartu baitzuen Maria, Rusiaco Dukearen alaba, nahi izan zuen printzesa harrec alda zezan Mariaren izena bertze izen batera; eta Erresuma hartan jarri zen usajaren arabera, emazteki batec ere etzezaken har, ez ekhar Mariaren izena, usaja berac ez du gehiago irauten, aitzitie debozionez Jaincoaren Amarentzat, eta manera berezi batez haren ararte-

cotasunaren azpian jartzeco, hainitzec
 hartzen dute orai Mariaren izena. Ocha-
 la! Baldin aski dela iduritu gabe Zeruco
 Erreginaren izena ekhartzea, egiten ba-
 liuzte bere ahalac haren berthuteen imi-
 tatzecotzat. San Esteben, Hongriaco Er-
 regeac, hain aiphatua Birjina Sain-
 duaren alderat zuen debozioneaz, nola
 Erregetasuneco calitate handi eta balio-
 sez, bazuen Mariaren izen sacratuarent-
 zat, errespetu bat hain handia, non ez
 baitzen ausartatzen ere haren aiphatzera.
 Deitzen zuen ordinaziozki *Andre handia*.
 Haren Erresumaco jendec, Errege debot
 haren exenplura, deithura bera emaiten
 zioten; eta baldin gerthatzen bazen hejen
 aintzinean aiphatzea Mariaren izen Sain-
 dua, guziac, istant berean, belhaunico
 jartzen ziren, eta Lurreraino ahuspez
 emaiten, eracusterat emaiteco izen gu-
 ziz Saindu eta guziz gora harentzat zuten
 errespetu handia.

Herman dohatsuac, Suriusen erranaren
 arabera, ardura aiphatzen zuen Maria-
 ren izen Saindua, eta haren aiphatzean,
 senditzen zituen efeturic miragarrienac.
 Bakharric zenean, ahuspez emaiten zen
 bere etcholan, ezpainac Lurrari contra;

eta molde hartan zagolaric, akhabantzari-
ric gabe, lakhet zuen erraitea, Maria...
Maria.... Maria..... Hunen adichkideta-
ric bat, hau bezala orobat osoki debota
Birjina Sainduaren alderat, aurkhitu zen
han, Saindu hunec bere Ama maitagar-
riaren ohoratzeco contsecratzen zituen
memento hetaric batean; espantitua izan
zen ikhustez hain luzeki eta hain erres-
petu handiarekin ahuspez emana zagola.
« Zer hari zare hor, erran zioen, eta zer
« sendimendu duzu zure bihotzean? »
Biltzen hari naiz, ihardesten dio Herma-
nec, bainan ezin sinhetsizco gozotasuna-
rekin, Mariaren izenaren fruitu eztiac.
Izen hori aiphatzen dudanean, iduritzen
zaut lore suerte guziac, usainic hobere-
nac oro, biltzen direla ene ingurunetara
airearen bethetzeco urrin onez, ezagut-
zen ez dudan berthute batec bihotza,
Zeruticaco bozcario ezti batez, goritzen
dautan denboran. Hemen descantsatzen
naiz ene lan eta nekhe guzietaric; ahantz-
ten ditut ene bizico khirestasunac oro;
nahi nuke, ahal balitzaut, seculan ez
hemendic altchatzea; behin ere ez barat-
zea bethi aiphatzetic Mariaren izen Sain-
dua. (*Urth. girich.*)

PRATICA.

Mariaren zerbitzari khartsu hejen exemplura, aipha zazu maiz Mariaren izen Saindua, amodioz bethericaco errespetu handi batekin.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

O Maria! sub quo nemini desperandum.

O Maria! o izen maitagarria, zeinaren arartecotasunaren azpian nihorc ez baitu desesperatzeco.

BORTZ GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren presentazionea.

1º Maria emaiten zajo, epheric gabe, Jaincoari;

2º Osoki emaiten zajo;

3º Emaiten zajo bethicotz.

I PHONDUA. Guziac misterio dire Birjina Sainduaren bizian, haren egintzaric mendrenac erakhaste salbagarriez betheac dire, eta emaiten dauzcute berthute guzietaco modelic ederrenac. Agertu othe da egundeino ikhusgarri bat gajagoric guri berthuteraco deja izan araztecotzat? zer izan daiteke edifica garriagoric eta

gure ederretstea gehiago merezi duenic? Hirur urthetaco haur bat doha Jaincoari bere tenploan presentatzera, eta haren aldareen zerbitzucó contsecratzera. Ez bere adinaren herbailtasunac, ez bere burbasoentzateco samurtasunac, ez hartzera dohan engajamenduec, ez besarcatzera dohan bizi gogor eta nekhagarriac; deusec ez dute lotsatzen ez gibelatzen, Jaincoari bere buruaren contsecratzeaz dohanean. Khar saindu batec darabila, harrec darama tenplora. Erretzen duen amodio dibinoac bentzuarazten diozca bere sacrificiotic gibela araz dezaketen traba guziac. O Maria Birjina zuhur eta khartsua, ala zure Jaincoari zure burua emaiteco izan duzun pruintasunac condenatzen baititu gure lachakeria eta gure ephe eta nagitasun deithoragarri guziac, gu ganic Jaincoac galdegiten dituen gauzetan! Ardiets diezaguzu escas dugun grazia, bentzutzeco, epherikgabe, harentzat izaitetic gibelatzen gaituzten traba guziac.

II PHONDUA. Mariac Jaincoari egin zioen contsecrazionea osoa izan zen eta perfeta. Bere burua Jaunari emaitcan, eman zioen zuen guzia; guziei ukho egin

zioten, deusic beretzat atchiki gabe. Errenontziatu zioten bere onthasunei, bere esperantzei, bere borondateari. Nahico zuen izan mila bihotz, oro contsecratzeco bere Jaincoari; guziac ofrituciozcan alegeraki Jaunari. Bat baizic etzuen; bainan hura zer sendimendutan, zer alegrantziarekin, zoin khartsuki etzioen ofritu! Zer exenplua guretzat! Ez othe da Jaincoari laido egitea, ez ofritzea, sobera maiz egiten dugun bezala, bihotz, haren eta creaturaren artean, phartitu bat baizen? Gure buruei bere ere ez othe diotegu hoben egiten, Jaincoarentzat eginaz ez den guzia, bethicotz, galdua denaz geroz?

III PRONDUA. Etzen Birjina guziz Sainduan ikhusi, gu baithan hain comunzki aurkhitzen diren constantzia escas eta sanjacortasun hetaric. Behin sarthuz geroz perfeccioneco bidean, etzen behin ere handic ilkhi; aitzitic aintzinamendu handiac egiten ikhusten zen; eta egun oroz khartsuagoa, lejalagoa bilhacatzen zen; arthatsuagoa Jaincoaren legea begiratuzco, suhartagoa haren maitatzeco. Ala urrun baicare Mariaren idurico izaitetic, haren constantzia imitatetic! Eta biski-

tartean, constantzia eta iraupen hartaric doha berthutean gure aintzinamendua. Gure bizia ez da agintzazco eta deslejaltasunezco segida bethiereco bat baizen; chede onezco eta haujen urratzeco segida lacho bat baizen. Badiruri ez diogula deusic agintzen Jaincoari, hitza hausteco baizen; eta egun berean, eta orobat, oren berean ere, erortzen gare higuintzetic heldu garen huts beretan. Ahalca gaiten noizbat bederen, gure khanbiacortasunaz eta gure hain ardurazco deslejaltasunez, eta dezogan erran Jaincoari egun emaiten gaizcola bethicotzat.

OTHOITZA.

Birjina guziz Saindua, o Maria Dibi-
noa, presentatu zinen tenploan, zure
hautasunetic Jaunari zure burua contse-
cratzecotzat. Onhets zazu naizen guziaz
egiten dautzudan contsecrazionea, bethi-
cotz zure zerbitzuan izaiteco dudan
egiazco lehiarekin. Bai, Birjina Sain-
dua, ezagutzen zaitut, Jaincoaren ondo-
tic, ene ihes lekchutzat, ene esperantza eta
erresurs bakharrarentzat; orai beretic
ofritzen natzaitzu eta bethicotz. Hautat-
zen zaitut ene Arartecotzat eta ene Amat-

zat. Zure escuetan ezartzen dut ene zorthea. Contsecratzen daizkitzut, deusic noretzat atchiki gabe, eta behin bethicotz, ene izpiritua, ene bihotza, ene borondatea, ene eginac, ene onthasunac, ene osasuna, ene libertatea, ene bizia, hitz batez, naizen guzia et munduan ditukedan guziac. Nahi nuken guziada, izan zaiten haujen ororen beguiratzaile, eta izan zaiten, Jesus zure Seme adoragarriaren ondotic, ene hihotzeco Erregina.

EXENPLUA.

Budon, Ebruco Artchidiacre handiac, haurretic erakhutsi zuen debozione samur eta bizi bat Jaincoaren Amaren alderat. Hamabi edo hamahirur urthetan, Ruango aphez berthutos baten etchean ezarria escolatzecotzat, haren lehenbizico artha izan zen escolieren artean ziren perestuenekin adichkidetzea, eta herjekin egitea batasun eta bilkhua saindu bat, elgarrekin zenbeit othoitz eta obra on berezien egitecotzat. Abiaduratic berretic, jarri ziren guziac, elgarren nahiarekin, Birjina Sainduaren arartecotasunaren azpian. Aphaindu zuten etheco lekhouric bilduenean aldare chume bat,

zeinaren oinetara biltzen baitziren oro, egun guzietz, Aingeruen Erreginari bihurtzeko bere homajac. Hejen hitzcatze inozent eta saindua zen, norc egin laudioric ederrenac Jaincoaren Amaren ohoretan. Beren errecreazionetaco denboretan, Maria Sainduaren loriaz eta handitasunez ziuzten bere solhasic ardurazcoenac. Bere burhasoetaric izaiten zuten dirutic pharte bat enplegatzen zuten Ama Birjinaren potreten aphaintzeko, eta hejen aintzinean erretzen zuten isentsuaren erosteco; hejec zuten axeginic gozocna zen bisitatzea, Amaren arartecotasunaren azpian, Seme Dibinoari contsecratuac diren capera edo Elizetaric zenbeit. Egun libroetan, zenbeit aldiz, oin huts jartzen ziren, khartsukiago joaiteco Birjina Mariaren imachinaren aintzineran, zeina baitzucaten bere ahalaz aphaindua zuten aldare chumearen gainean. Bertze aldi batzuez, airea errepican zucaten, haren ohoretan cantatzen zuten canticoez. Canpoco pratica horiec oro sustatuac zireu fede bizi eta amodio khartsu batez. Zeruco eta Lurreco Erregina haren besten zelebrazera preparatzen ziren, adin handiagoco batentzat ere hai-

nitz izanen ziren pratikez eta mortificazionez. Aintzinetik zenbeit egunez baurtzen ziren, eta barur hura, zenbeit aldiz, hain garratza zen, non ogi puchca batec burra pochibatekin egiten baitzuen hejen eguneco janhari guzia. Comunionek khartsu bat zen hejen debozionarioen lehen exerzizioetaric bat, egun saindu hetan. Suharki nahi zuketen, eta, bere othoitz khartsuez galdegiten ere zuten, Mariaren izena ezagutua izan zadin ordu artean ezagutzen etzuten nazionez, eta jadanic haren ezagutzeco zori onazutenez izan zadin hobeki eta lehiarekin ohoratua. Bazuten bere batasuneco liburu bat, zeintan guziec, eta batzuec bere odolaz beraz, izkiribatua baitzuten bere izena, ziotelarik, Jaincoaren Amaren zerbitzuc, bethicotz, contsecratzen zirela. Etzaiteken, biziki hunkitua izan gabe, ikhus gazteria maitagarri haren kharra Birjina Sainduaren alderat; eta aldi batzuez khar harrec soberanioki egin arazten ziotena, hanbatenaz miragarriago agertzen zen, zenbateuaz ere hobeki emaiten baitzen goardia, gauza hec oro hamabi urthetaco haur baten burutic heldu zirela. Bainan zer ez dezake egin

bihotz batec Maria Dibinoarentzat amodioz erretzen hari denean.

(*Bud. bizi. coll.*)

PRATICA.

Erreberri zaitzu zure bathajoco agintzac, eta Maria guziz Sainduarekin batasunean jarriz, contsecra zaizco berri berritan Jaincoari.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Illos tuos misericordes oculos ad nos
converte.*

O Maria! itzul zaitzu gure gainerat zure urricalmenduzco behatzeac.

SEIGARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren bizia tenploan.

- 1º Bizi ze Jainco choilarentzat;
- 2º Ocupatzen zen Jainco choilaz;
- 3º Trabailatzen zen Jainco choilarentzat.

I PHONDUA. Segi dezagun benediczio-
nezco haur hura sartzen den erretretera,
eta ederrets dezagun han daraman bizi
saindua. Bere burua consideratzen du
tenploan, Jaunaren zerbitzucó, bakhar-
ric, contsecratua den etche batean beza-
la; badaki lekhu saindu hartan ez dela

behar bizi Jainco choilarentzat baizen ,
 eta ez duela deus hertzeric gogoari eman
 behar, baizic ere haren begietan agra-
 dagarriago jartzea, berthute guzien prati-
 caz. Badiruri argi urratzea, zeina emen-
 datuz baidoha; Maria etzen baratzen
 saindutasunean eta perfeccionean aint-
 zinatze tic. Ikhusten ziren, egun guziez,
 haren baithan distiratzen, emendio ber-
 riekin, berthuteric gorenac, caritatea,
 modestia, humilitatea, mortificazionea,
 eztitasuna. Balia gaiten hoin exenplu mi-
 ragarriaz, eta ikhas dezagun Birjina Sain-
 duaren ganic zer kharrekin behar garen
 trabailatu gure sanctificazionearen egi-
 ten. Jaincoac ez du galdegiten, egia da,
 Girichtino guzietaric, Maria bezala, bo-
 tuz engaja ditzen haren zerbitzuc; hori
 zenbeit arima, gainetic dohatu batzuen,
 pribilio zori onezco bat da; haina hec
 atheratzen ditu mundupetic eta baztert-
 zen Jaunac, beretzat contsecratzeco ma-
 nera berezi batez. Bainan, edo zoin esta-
 tutan aurkhitzen garen, Jaincoac galde-
 giten du gutaric eramane dezagun bizi bat
 egiaski girichtinozcoa, bizi bat penitent-
 ziazcoa eta mortificatua, eta egin ditza-
 gun, egun guziez, entseju berriac salba-

menduco bidean aintzinatecotzat. Hori da Ebanjelioco erakhaspena, eta bathejo saindua errebitzean hartu ditugun engajamendu sacratuetaric heldu zaucun obligacione hertsia. Helas! nola bethe othe ditugu, orai artean, gure agintzac.

II PHONDUA. Maria Dibinoa, tenplora bildua, han bizi izan zen bethi Jaincoaren presentzian, bethi harekin bat egin izpirituco gogoetaz eta bihotzeco afeczioenez. Hainitz meditatzen zuen, dio San Ambrosioc, eta guti zen mintzaten; sutan zaucan amodio Dibinoac maita arazten zioen bere erretreta, eta etzuen gosturic aurkhitzen bere ongi maitearekin kontinoki zituen comunicacione minetan baizen. Mariaren exenplura, ez gaiten bizi baizic ere Jaincoarentzat; haren presentzia saindua gogoan gauden bethi, gure flakeziac zilhegi utzico deraucun bezen batean; ardura altcha ditzagun haren ganat gure izpiritua eta bihotza, eta egin ditzagun gure aczione guziac, hari gauza guzietan axegin egiteco chedetan.

III PHONDUA. Maria Jainco choilarentzat trabailatzen zen. Ez da behin ere ikhusi izan alferric zagola; othoitzac, escu

lanac, caritatezco obrec, liburu sain-
duen iracurtzeac hartzen zuten haren
denbora guzia. Istant oroz, merezimen-
duzco tresor berriac irabazten zituen
Jaincoaren begietan: ez da egundeino
ikhusi izan calitateric arraroenezco eta
berthuteric gorenezco bilduma bat hoin
miragarriric. Haren caritatea mugarriric
gabecoa izan da, haren garbitasuna
exenplu gabecoa, haren humililateac ez
du izan neurriric, ez haren debozioneac
mudantzaric; hitz batez, haren bizi osoa
izan da berthute guzietaco miral perfe-
ta. Imita ditzagun Birjina miragarri ha-
ren exenpluac, ez dezagun ahantz hor-
tan datzala phondu capitala, eta Maria-
ren alderat dugun debozionea guretzat
ezin progotchuzcoa izan daitekela, ha-
ren urhatsetan erabiltzera eginen dugu-
naren eredurara baizen.

OTHOITZA.

Haur Zerutarra, zeina ene Erostailea-
ren Amatzat dohatua baitzare, eta be-
khatoreen Arartecotzat, izazu nitaz urri-
calmendu. Ikhusten duzu zure oinetan
bekhatoros bat, Jaincoaren alderat osoki
deslejal izan dena, zeinac galdegiten bai-
tautzu zure arartecotasuna. Merezi nuke,

halada, ene esker gabetasunen gatic, zutaz utzia izaitea; bainan bethi entzun izan dut ez dituzula secular mespresatzen fidantziarekin zuri errecomendatzen direnac, eta nola nindauke hori sinhet-sigabe, dakidanean zoin handia den zure urricalmendua. Lagun zazu, o Maria, zu creaturetan den Sainduena, zu Sainduguzien Erregina eta modela, lagun zazu beraz bekhatoros zori gaitzezco bat, bere salbamenduco egitecoa sobera luzeki bazterrerat utzi duena, eta zeina aurkhitzen baita, bere faltaz, mila hutsetarat erorcor, berthutez gabetua eta cargatua mila hobenez eta bekhatuz. Badakit Jaincoari hain agradagarri zaizcola, non ez baitu deus zuri errefusatzecoric. Badakit orobat axegin duzula zuri oihu egiten dautzuten bekhatore urrical garrien entzutea eta laguntzea. Erakhuts zazu zoin handia den Jaincoaren aintzinean duzun credita; ardiets diezadazut grazia bat hain puchanta, non naizen bekhatorosetic eginen bainauzu Saindu bat, eta sustatuco bainauzu ene perfeczionearentzateco khar saindu batez. Egizu ontasunezco miraculu hori, O Maria! duzunaz geroz ahala; egizu Jaincoaren amoreaa gatic, zeinac egin baitzaitu hain

handi, hain caritatos, hain podoretsu eta hain urricalmendutsu.

EXENPLUA.

Arrasorioaren ethorkiaz.

Istorioac emaiten daucu Elizaco hama-hirur garren mendea denbora gaitz eta nahasi batentzat, zeintan Salbamenduco etsajac egin baitzituen bere egin ahal guziaz egiazko Erlichionea Lurretic dester-ratzeco eta ezestatzeco. Inorantziaren il-hunbeec eta bizioac casic suntsi arazi zituzten, Girichtinoen artean, Ebanjelioco urhatsen seinaleac. Zori gaitzic handienecotz, Albichoen heresia inpioa hedatu zen, ur hausin bat bezala, Frantziaco hainitz probentziatarat, eta bereziki hartu zituen Langedoco eta Dofineco bazterrac, zeintan desmasiaric handienac egin baitzituen. Elizaren eta debozionezco practica guzien etsai errebiatu, Heretico manduel hejec oro sutan eta odol sarraskitan ezartzen ziuzten; aurdikitzen ziuzten Aldareac eta Elizac, masacratzen Jaunaren ministroac, eta desolazionea zakharkaten iragaiten ziren toki guziatarat. Bainan Jaincoac, zeina bethi atzarria baitago bere Elizaren gainean, sustatu zuen gizon

bat eta jauntzi Apostoluen Izpirituaz. Hura jazarri zangon enganioari, eta biziozco tulubioari pharatu zangon. Heresia, harritua bezala, baratu zen eta gelditu aintzinatec. Dominicac, hau da gizon dohatsu haren izena, curritu zituen, ezin erranezco nekhearekin, heresiaz enganatuac eta galduac ziren probentziac; guzietan kharrekin adiarazten zuelaric Jaincoaren hitza, eta bere predicuac sustengatzen eta laguntzen zituelaric bere bizi sainduaz eta obratzen zituen miraculu handiez. Oroc pedericatzen zuten Jaincozco gizon hura baithan; haren hitz guziac su dibinoaren inharrac bezala ziren, zeintaz errea baitzagon haren bihotza. Birjina Sainduaren alderat zuen dehozione samur eta fidantziaz bethea izanda bethi, berac zioen bezala, Hereticoen eta bekhatoreen conbertsionearentzat baliatu izan zitzajon mojenic handiena eta premiazcoena. Etzituen behin ere hasten bere instruccionec, Jaincoaren Ama Sainduaren imachina baten aintzinean ahuspez eman ondoan baizic, othoitz hau egiteco : *Dignare me laudare te, Virgo sacrata; da mihi virtutem contra hostes tuos.* «Zilhegi izan beikit zure laudatzea,

« O Birjina sacratua ; emadazut indarra
« zure etsajen contra. »

San Dominicac izan zuen contsolazio-
nea bihurtzen ikhusteco Hereticoetaric
oste handi bat Elizaren galtzarrerat ; bai-
nan urrundu da haren kar biziaren ere-
durara erreusitu baitzuen. Nola humilki
plenitu baitzangon , Jaincoaren ondotic ,
bere confientzia guzia emaiten zioenari ;
misericordiazco Ama hura agertu zitza-
jon Andre-dena Mariaren Pronileco Ca-
peran, mila berrehun eta bian ; manatu
zioen pederica zezala Arrasorio saindua-
ren deboziona, agintzen zioelatic ardiet-
sico zituela efeturic hoberenac , populu
gogortu haren khabiamenduarentzat.
Sainduac obeditu zuen ; arrazoinca hartze
orde Hereticoen eta bekhatoros galduen
contra, eman zen guzia deboziona salba-
garri horren pratica pedericatzeari ; era-
khutsi zioen populari haren erraiteco
moldea , eta nolacoa zen haren Izpiri-
tua , explicatu ziozcan hartaco miste-
rioac. Othoitz horren medioz , irabazi
zioen Jaincoari arima gehehiago, ezen ez
ordu artean hartu zituen bertze nola na-
hico mojenez. Fruituac miraculuzcoac
izan ziren, denbora hartaco istorioa izki-

ribatu dutenen erranaren arabera. Ehun mila Heretico baino gehiago conbertituac, ezin sinhets bezenbat bekhatoros, bizioric izigarrienetaric atheratuac, izan ziren debozione berri horren lehenbizico efetuac. Laster hedatu zen debozione hori Europa guzian, eta egin zituen ongiric espantagarrienac eta ezin khondatuzcoac, eta, egun oroz, egiten ditu oraino, Exerzizio saildu hori, mende huntuaco barriamendu eta lazakeriaren contra, begiratua den tokietan. (*Godonar.*)

PRATICA.

Errazu egun, debozione berezi batekin Arrasoria edo haren herena.

BIHOTZ ALTCHIATZEA.

*Dignare me laudare te, Virgo sacrata;
da mihi virtutem contra hostes tuos.*

Egizu, Birjina sacratua, lauda zitzadan; emadazut indarra zure etsajen contra.



ZAZPI GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren anontziazionea.

1º Miraculuzco amodia Jaincoaren aldetic misterio hortan ;

2º Berbo eternalaren humiliazionea misterio hortan ;

3º Mariaren loria misterio hortan.

I PHONDUA. Contsidera dezagun Jaincoaren amodio ezin contzebituzcoa, haren ontasuna, misericordia eta zuhurtzia mugarri gabecoa, zeinac nahi izan baitu salbatu mundua mojenic espantagarrienaz, nola baita Berbo eternalaren incarnazionea. Dezagun ongi endelga bekhatua, zeintaric nahi baikinituen libratu, zerbeit ikharagarriric dela, behar izan duenaz geroz erremedio bat hoin espantagarria. Benedica dezagun Jaincoa bere misericordiaz, eta milaca bihur ditzogun eskerrac zeren hautatu duen Maria Dibinoa, gure Salbatzaile adoragarriaren mundura emaitecotzat. Erran dezogun *agur* Angeruarrekin Birjina dohatsu hari, eta bihur ditzogun Jaincoaren Amari dohazcon errespetuac.

II PHONDUA. Contsidera ditzagun Bir-

jina baten errajetan Jainco gizon egin baten humiliacioneac eta ezin endelgatuzeo aphaltzea. Pairatzeric ez hiltzeric ezin dukena, guziz puchanta, handitasunez mugarriz canpocoa, hilcor bilhacatzen da, dolorei pharatua; Eternal dena, haur bihurtzen da, Creatzailea creatura: eta hori, bere humiliacioneez erreparatzeco bekhatuac Jaincoari egin diozcan laidoac, eta guri erakhusteco maitatzen humiliacioneac, bere exenplu miragarriez. Zer gauza jasan gaitz eta espantagarria, Lurreco har bat urguilutan sar dadin, Jainco ezestatu baten aintzinean! O Maria guziz humila, nolacoac etziren izan zure sendimenduac zure Semearen humiliacioneen bichtan! Erakhuts diezaguzu gure buruen humiliatzen, zeroni haren aintzinean humiliatu zaren bezala.

III PHONDUA. Considera dezagun zoin dignitate gorara den altchatua Maria, misterio hortan. Egiazki Jaincoaren Ama bilhacatzen da, eta calitate gora hortaz Aingeruen eta gizonen gainetic jarria da. Jaincoac, nahiz den guziz puchanta, ez dezake altcha creatura choila hau beino dignitate gorago batera. Egin dezake, dio Elizaco Aita batec, mundu bat creatu

duen hau beino ederragoa eta baliosagoa, bainan ez dezake egin Ama bat Jaincoaren Ama baino handiagoa. Bozcaria gaiten Ama miragarria harekin, Jaincoac hura baithan handi egin dituen gauza guziez. Eman gaiten ahuspez haren oinetan; bihur ditzogun merezi dituen homajac; othoitz dezagun on hartzeaz, haren alde-rat debotac izaiteco, egin diotzigun agint-zac; eman gaiten, berri berritan, haren arartecotasunaren azpian.

OTHOITZA.

Zer erranen dautzut, o Birjina guzien gainecoa, altchatua, Jaunac zutaz egin duen hautzaz, dignitate guzien artean go-renera; eta nola ausartatuco naiz, neroni ere, mintzatzera creaturetan den Sain-duenari eta Puchantenari, Zeruco eta Lur-reco Erreginari, Jaincoaren Amari! Zure oinetan ahuspez emana, o Maria, ahal-getzen naiz agertzeaz zure aintzinean, zu hoin humila hanbertze calitate eder eta baliosekin, eta ni hoin urguilutsua hoin-bertze bekhatuekin. Bizkitartean, naizen bezalaco herbail eta urricalgarría, nahi daitzut, nic ere, bihurtu Gabriel Arkhan-jeluarekin ene homajac. Agur, o zu graziaz bethea; aberats zazu ene errumeske-

ria zure bethetasun eta nasaitasunetic. Jauna da zurekin; egizu izan dadin enekin ere bere urricalmenduaz; erregina dezan ene bihotzean bere amodioaz, eta zurekin Erregina araz nezan Zeruan, zori onezco mendeen mendetan.

EXENPLUA.

Rocheco Alen dohatsuac dio: Espainiaco Aphezpicu batec, bere Diosesaco desordreac ezin correituz, nahiz hortaracotz egin ahal guziac egiten zituen, hainitz penetan zelaric, hartu zuela chedea Arrasorio sainduaren debozionea pedericatzeco, San Dominicaren exenplura; Saindu harrec bezala artha zuelaric espicatzeco Arrasorioaren misterioac, eta hejen gainean meditatzen erakhusteco. Girichtino lejalec lehiarekin besarcatu zuten debozione hori, eta denbora laburric artean egin izan ziren osteco conbertsio-neac. Inorantziac, impietateac, desordreac, hitz batez bizio suerte guziec lekhu egin zioten orazioneari, penitentziari, sacramenduen hantatzeari eta berthute girichtinozco guzien praticari. Aphezpicu khartsu harrec ezin aski lauda zezaken Jaincoa, bera zagon hirian obratu zen khabiamenduaz; manatu zioten bere

Diosesaco Erretorei har zezaten mojen be-
 ra, zeinac izan baitzituen ondorioric mi-
 ragarrienac, hanbertzetaraino non, den-
 bora laburric artean, Diosesaren beithar-
 tea osoki erreberritu eta aldatu baitzen.

Alen dohatsu berac contserbatu daucu
 Erretor berthutos baten lekhuco tasuna,
 huna haren hitzac: « Hainitz urthez Er-
 « retor izan naiz eta Pedericatzaile; ma-
 « teria guzien gainean pedericatu dut,
 « ahal bezen ongi; ez dut deusic guphi-
 « detsi ez negliatu Erlichionea chekeki
 « irakhasteco balia zaiteken gauzetaric,
 « ez eta ere confiatuac zaindan arimen
 « hunkitzeco eta khanbiatzeco gai zene-
 « taric: bainan ikhusiric alferretan tra-
 « bailatzen nintzela, eta ene pena eta ene
 « nekheen fruituec etzutela ihardesten
 « hetaric idurikitzeo nituzken ondo-
 « rioei, hartu nuen phartitua ene sacrifi-
 « zioaren egiteco, ordu artean emaiten
 « nituen pedericuez, zeinac ahalaz ederki
 « arrimatuac beinaukitzan eta aphain-
 « duac. Hec oro bazterrerat utziric, espe-
 « rantzarekin hobeki erreusituco nuela
 « pedericatu Arrasorio sainduaren debo-
 « zionea, eman nintzen chinpleki espli-
 « catzeari Arrasorioco othoitzac eta haren

« funtsa egiten duten misterioac. Neglia-
« tua naucan pratica balios hau, ene
« contzientziaco harraren contra eta er-
« respetu humanoz bezala, beldurrez
« mundua nitaz burla zadin, eta pratica
« huni beha zezon gauza ez deus bati,
« eta pedericu alkhitic aiphatzeco ere gai
« ez den materia bati bezala. Bainan ait-
thortzen dut, urthe bat baino gutiagoz,
« conbertsione gehiago egin izan zela
« ene herrian, ezen ez, aintzineco hogoi
« eta hamar urthetan, zeintan ez bainuen
« pedericatzen ahal bezen pedericu eder
« eta aphainduric baizen. » Exenplu hau-
jen eta bertze hunelaco hainitzen ondo-
tic, Alen Dohatsuac atheratzen du cont-
sekentzia hau : ongi desiratzeco laitekela
Erretorec eta Pedericariec izan dezaten
artha berezi bat, fidelac erakhar arazteco
Iehia handi baten izaitera Exerzizio sain-
da horrentzat, zeina aurkitzen baita gu-
zien meinecoa, eta guziz gaja Girichtino-
ric chinpleenen instruitzeco Erlichioneac
dituen egia premiazcoenen gainean, me-
ditatzen direlaric atentzioneekin Exerzi-
zio hortaco Izpiritua egiten duten miste-
rioac.

Ezhar daitezke bertze hainitz exenplu

zeinec erakhusterat emaiten baitute, den-
 hora eta lekhu guzietan, efeturic mira-
 garrienac izan dituela debozione balios
 horrec. Zenbat emaztec ez dute ardietsi
 bere senharren eta bere haurren conbert-
 sionea, arthoski Arrasorioa erranez! Zen-
 bat bideant ez dire espacatu irrichcuric
 handienetaric! Zenbat eri etsitu senda-
 tuac! Zenbat bekhatoros ohitu ardietsi
 dutenac indarra guduatzeco eta bentzut-
 zeco pasioneric borthitzenac eta zaharki-
 tuenac, eta ihardukitzeco tentazioneric
 muthirienei, Birjina Sainduari oihu egi-
 nez eta erranez Arrasorioa! Ikhusi izan
 dire soldadoac, azken iragan gerletan,
 espacatzen, miraculuz bezala, lanjeric
 handienci; eta bere lagun gaziac erort-
 zen zaincoten denboran bere inguru-
 netan, berec ez errezibitzen colperic chu-
 meena. Zori on hori eratchitkitzen zio-
 ten, etchetic ilkhitzean, Birjina Saindua-
 ren alderaco debozione samurraz susta-
 tua zen Ama on edo Arreba maite batec
 eman zioten Arrasorioari.

PRATICA.

Eman zaite Birjina Sainduaren oinetan,
 eta khartsuki galdegiozu bekhatorosen
 conbertsionea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Vita, dulcedo et spes nostra, salve.

Agur, o Maria gure bizia, gure gozotasuna eta gure esperantza.

ZORTZI GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren loria incarnazioneco misterioan.

1º Zeru Lurren Erregina bilhacatzen da ;

2º Graziaren dohain guziez aberastua da ;

3º Altchatua da Jaincoaren Amaco dignitatera.

I PHONDUA. Consideza zazu Mariaren errajetan incarnatu Berboaren humiliacioneac miragarriki altchatzen dutela Birjina lorios hura, eta bertze gizouac bezen ongi, zerbitzari eta sujeta zena, zeru Lurretaco Erregina bilhacatzen dela; Zeren bere errai garbietan contzebitzen duen Semea baita Erregen Erregea, Munduco Nausi soberanoa, zeina jartzen baitzajo bere azpico eta obeditzen baitio, bertze haur guziec bere Amei obeditzen dioten bezala, eta hejei sumetitzen zaizcoten bezala. Alegera gaiten ikhustez gure Ama, altchatua bethicotz Zeruco

tronuric, Jaincoarenaz landan, gorenera, handic manatzeco ez choilki Aingeruei eta gizonei, bainan bai oraino Zeru Lurren Erregeari berari. Adora dezagun Berbo gizon egina, axeginekin obeditzen duela Mariari sumisioneric perfetenarekin. Eskerrac eman ditzogun zeren hain gora altchatu duen bere Ama Saindua, bere humiliacioneen bidez ; junta gaiten Aingeru eta Dohatsu guziei, Jaunaren laudatzeco finic gabe, Birjina miragarriari egun huntan egin dioen ohoreaz.

II PHONDUA. Maria, bere Semearen incarnationean, jarria da aberastasun guzien gozamenean. Ez Lurreco onthasunez aberatsago bilhacatzen delacoan ordutic, bainan zeren, egun hartan, Zeruco onthasun eta fagore guziez izan baitzen bethea. Nahiz grazia guziez birigindua zen incarnationearen aintzinean, etzituen oraino onthasun hec, gisa batez, bertzeenac eta prestamuz bezala baizen : bainan Jaincoaren Ama bilhacatuz, guziac errezibitzen ditu, hunela erran baditake, bere onthasun propioac balitu bezala, eta zeintaz nahi duena egin baitezake, bere borondatearen arabera. Orduan ezen, errezibitu zuen bere errajetan grazia gu-

zien Autarra, zeinac, bera haren Seme bilhacatzean, ezarri baitziozcan escuetan bere tresor guziac, gizonen hejen pbartizeco. Adreza gaizcon beraz fidantziarekin Ama Dibino hari; galdegin dezogun kharrekin heda ditzan gure gainerat behar ditugun salbamenduco grazia baliostac.

III PHONDUA. Maria, incarnationeco misterioan, Jesusen humiliacionean ariaz, iragaiten da Jaunaren neheatoaren calitatetic Jaincoaren Amaren dignitatera; calitatea gogorat erakhar daiteken handiena, calitatea zeinac alchatzen baitu Birjina dohatsua, Aingeru eta Sainduz gorago; calitatea zeinac dretcho emaiten baitio gure errespetuaren eta amodioaren gainean. O ezin erranezco Mariaren handitasuna! Nor da ausartatuco denic zure gainera bere begien alchatzera! Ezin contzebituscoac dire zuc Zerutic errezibitu dituzun fagoreac; Jaincoa da choilki ezagut dezakena zu zer zaren! Hain miragarriac dire zure handitasunac, non, baldin Izpiritu dohatsu guziac ez halire mint zatzen ere, eternitate guzian, zure Jaincoaren Amatasuneco dignitateaz baieen, ezin secular aski lauda beits.

zintzazkete ! Bainan hain handia zarenaz geroz zer errespetuzco homajac ez daitzugu, egun oroz, bihurtu behar ! Eman diozunaz geroz bizia Jainco bati, zer laguntza ez dugu idurihitzecco zure arartecotasun guziz puchantetic !

OTHOITZA.

Izan zaite eternitatecotz benedicatua emazte guzien artean, o Maria Dibinoa ! Ez dituzunaz geroz choilki grazia guziac zurekin, bainan bai oraino onthasun guzien Autorra bera. Seinalatzen dautzut ene axegina, Aingeru eta Saindu guziekin, zure Semeac zeren partalier ezarri zaituen bere tresor infinituetan. Bainan hoin aberats zarenaz geroz, o Birjina Saindua, eta Zeruco tresor guziac zure escuetan direnaz geroz, zer ez dut iduriki behar zure borondate onetic ! Nahi bezen erumes eta urricalgarrri naizen, ez dut deus gehiago beldurtzecoric, baldin zuri oihu egiten badatzut. Badituzu escas ditudan guziac, eta ezduzu falta ez podorea ez borondatea galdegiten dautzudan guziaren emaitecotzat. Gomendatzen dauzkitzut beraz, o ene Ama guziz maigarria, ene arima eta ene gorphutza, ene esperantza eta ene contsolazione gu-

ziac, ene beharrac eta nahigabeac, ene bizia eta biziaren akhabantza; finean, uzten natzaitzu zure escuetan naizen guzia, ditudan guziekin. Ene behar ordu guzietan, ihes eginen dut fidantzia oso batekin zure ontasunera; bai, Birjina Saindua, Jesusen ondotic, zu baithan ezartzen dut ene confientzia guzia.

EXENPLUA.

Efeseco Contzilioa.

Nestorius, Constantinopleco Patriar-
kha, zen gizon bat urguiluz hantua; modestiazco eta debozionezco itchuraren azpian, gordetzen zuen arima bat maliziaz eta maltzurkeriaz bethea. Urguiluzco Izpirituaz gidatua, eta bere caraterac eta dignitateac emaiten ziozcaten podoreaz gaizki baliatuz, eraman nahi izan zioen Birjina Sainduari bere tituluetaric ederrena eta ohoragarriena. Ausartatu zen publicoki pedericatzera Mariari etzajola eman behar Jaincoaren Amaren izena. Aditzale guziac harritu eta damus-
tatu ziren, aditzean horrelaco blasfemia. Nestoriusen doctrina faltsuac lastima hedatu zuen Constantinopleco hiri guzian; oro alarmatu ziren impietate hor-

ren aiphamenean. Orduan ikhusi izan ziren Comentuetaric eta Mortutic atheratzen Fraide eta Solitario zabar errespeta-garri hetaric, zeinac ez baitzuten beldurric izan agertzeco Hiri handi hartaco jende ostearen erdian, Jaincoaren Amaren ohorea sustengatzecotzat. Bizkitartean Elizac, nola ikhusten baitzuen Mariari errefusatzea calitate guziz gora hori, suntsitzea zela incarnationeco misterio guzia, hartu zuen phondu premiazco horren defendioa, bere zeloaren indar eta khar guziarekin. Bil arazi zuen Efeseco Contzilio aiphatua, zeina baita hirugarren Contzilio jenerala, eta zeintaco buruzagitasuna izan baitzuen Zirile, Alexandriaco Patriarkha Sainduac, Zeles-tin Aita Sainduaren izenean eta haren manuz. Nestorius Hereticoa, gogortua eta itsutua, etzen atheratu nahi izan bere enganiotic, hortacotz ere Contzilio hartan izan zen condenatua bere heresia-rekin.

Ezin errana laiteke zer alegrantzia, zer laudamen agertu zuen Efeseco Hiri guziac, errezibitu zuenean Elizaren jujamendu hori, hoin solanelki emana, hoin loriosa Birjina guziz Sainduarentzat.

Ethorri zenean eguna zeintan declaratu behar baitzen Maria egiazki Jaincoaren Ama dela, populu guzia osteca bildu zen Elizaco Aitec bere bilkhua zaucaten Elizaren ingurunetara, eta lehiarekin iduriki zuen goizetic arratseraino Contzilioaren jujamendua. Populu on eta debot harrec, ahantziric bere beharrac berac, etzuen gogoa hartua Birjina Sainduaren intresez baizen. Azkenecotz, Elizaco borthac ideki ziren, Zirile handia agertu zen bi ehun Aphezpicuen buruan, eta iracur arazi zuen Nestorius inpioaren contra eman zen condenazionearen sententzia. Bet betan Hiri guzia bozcariotan jarri zen; orotaric errepicatzen zuten alegrantziazco oihu eta cantikec. Alde guzietaric oihuca zauden: *Birjina Sainduaren etsaja lehertua da; loria eta ohore bethicotz Jaincoaren Ama guziz handi, guziz gora, guziz loriosari!* Jaun Aphezpicuac Elizatic ilkhitzean, benediczionez betheac izan ziren, eta ereman ziuzten, zoin beren etchetarat, ponpa eta trionfaric handienez. Hirico carrica guziac argitan ezarri ziuzten, eta Aitac iragan behar ziren bidean erretzen ziozten urrin onezco isentsu eta balsamoac.

Alegrantzia debot haren bestari deusic
etzitzajon faltatu, ez eta ere Jaincoaren
Amac bere etsajen gainean zaramau gar
haiziari. Iduri zuen bizi berri bat bihurtu
ziotela populu Erlichionez bethe hari,
hanbertzetaraino izan zen damustatua
Nestorius Heresiarkhac Mariari egin zioen
laidoaz. Uste comuna da Contzilio Sain-
du hartan egina dela Elizac Aingeruaren
agurrari eratchizitzen dioen othoitz hau:
*Maria Saindua, Jaincoaren Ama, egizu
othoitz gu bekhatorosentzat, orai eta gure
heriotzeco orenean. Hala biz.*


PRATICA.

Ofri zozu, egun oroz, zure bihotza
Jesusen bihotzari, here Ama Dibinoaren
escuz.

BIBOTZ ALTCHATZEA.

*Ora pro nobis, Sancta Dei genitrix; ut digni
efficiamur promissionibus Chriti.*

Egizu othoitz guretzat, Jaincoaren
Ama guziz Saindua, gai izan gaiten Je-
susen agintzen ardiesteco.



BEDERATZI GARREN EGUNA.

Mariac incarnationeco misterioan praticatzen dituen berthuteez.

1º Misterio hori bethe aintzinean ;

2º Aingeruac misterio horren berria emaiteco mementoan ;

3º Misterio hori conplitu ondoan.

I PHONDUA. Birjina Saindua, haur haurretic Jaincoari contsecratua, bizi zen berthute guzien pratican. Jaincoa loriatzen zen ikhustez Birjina maitagarri hura perfeczioneric gorenera altchatzen, eta istant guziez, grazia berriez bethetzen zuen, bere semeari zahocan Ama bat hartaric egitecotzat. Mariac ezagutu zue-nean Mesiasen ethortzeco denbora hurbildua zela, norc erran dezake nolacoac izan ziren haren arimaco alegrantziac; zer lehia biziarekin etzuen gutiziatzen memento zori onezco hura, ikhusteco bere Jaincoa lorificatua, eta gizonac libratuac Debraaren eta bekhatuaren esclabotasunetic, zeintan baitzauden ahenekin hanbertze mende hetan ! Zori onezco oren haren ondotic zabilan epheric gabe ; galdegiten zioen khar handirekin Jaincoari

igor zezan Lurrerat Erostate eta Libratzaile agindua ; hori zen haren nahi biziaren eta haren othoitz khartsuen mugaria eta begicoa. Badugu guc ere ardura zori ona errezibitzeco gure bihotzean, comunione Sainduaren bidez, Mariac bere errai garbietan contzebitu zuen Jainco bera ; bainan preparatzen othegare, hura bezala, haren errezibitzera, berthutezco pratikez eta gure biziaren Saindutasunaz? Gure athoitzetan eta gure debozinezco exercizioetan, senditzen othe ditugu sendimendu eder hec, gutizia eta nahi khartsu hec, zeinetaz sustatua baitzen Birjina Saindua ! Zonbat neglientzia, zonbat epheltasun, zonbat barriamendu gure othoitz guzietan, bai eta gure comunioetan beretan ere !

II PHONDUA. Ederrets ditzagun Mariac praticatzen dituen berthuteac, Gabriel Arkhanjelua, Jaincoaren phartez, incarnationeco misterioaren berri handia emaitera heldu zajon mementoan. Agertzen du denbora berean bere modestia handia, trublataz Aingeruaren bichtan, zeren duen hunec gizonaren iduria; bere fede bizia, sinhetsis, batere dudatu gabe, errana zajon misterio handia ; bere amo-

dioa Birjinitatearentzat, hautza emanaz berthute eder horri Jaincoaren Amaren calitate guziz goraren gainean; bere humiltate miragarria, ez hartuz bertze tituluric Jaunaren nescatoarena baizen; bere obedientzia perfeta, egonez osoki Jaincoaren nahira: *huna Jaunaren nescatoa, egin beikit zure hitzaren arabera.* Ikhas ditzagun berthute horiec oro gure Ama maitagarriaren ganic, eta ez dezagun ahantz bereziki, haren imitatzera entsejatuz, izanen dugula zori ona hari axegin egiteco eta haren laguntza ardies-teco.

III PHONDUA. Ongi gogoan har dezagun nolacoac izan ohi ziren Birjina Sainduaren sendimenduac, misterio ezin contzebituzco hori hura baithan conplitu zen ondoan, eta Izpiritu Sainduaren berthute miraculuzcoac Mesiasen gorphutz sacratua haren errai Birjinetan formatu zue-nean. Haren aintzinean humiliatu zen, adonatu zuen errespeturic handienarekin, maitatu zuen bere Jainco eta bere Seme bezala, ofritu zitzajon haren zerbitzuc, eta, gizon egiterat erakharri zuten bere chede guzietan, harekin partalier sart-zeco. Ala zori on handia baikinuke, bal-

din comunione aintzinean, comuniatze-
co denboran eta comuniatu ondoan,
baginazki praticatzen Birjina Sainduac
erakhatsi dauzcun berthuteac! Ez laiteke
behar bertze molderic ongi comuniatze-
co: eta baldin gure comunione guziac
ongi eginac balire, ez ginuke deus bert-
zeric behar, gu Saindu bilhacatzecotzat.

OTHOITZA.

Jesusen Ama guziz eztia, Maria Dibi-
noa, nolacoac ziren zure sendimenduac
zure errai garbietan errezibitu zinuenean
Berbo incarnatua! Zer amodiozco lehia-
rekin etzinioen ideki zure bihotza Sain-
dutasuna bera den Jainco, zure Seme
bilhacatu denari? Oh! nola loriatzen zen
Seme ongi maite hura, bere egoitza egi-
teaz zure arima ederrean! Bere gustu eta
lehia guzia zuen descantsatzea zure Ama-
co bihotzean, hain da ezen bihotz hori
garbia, humila, eztia, khartsua, carita-
tosa, maitagarria!..... Ene Ama guziz
Saindua, nic ere badut zori ona, ardura
errezibitzeco zure bihotzeco Jesus, ene
Salbatzaile adoragarria! Bainan, helas!
nola zurez ez bertzelacoac baitire ene dispo-
sizioneac! Nola ez du hastio izanen, Jainco
hain Saindnac, sartzea enea bezalaco bi-

hotz hain gaichto, hain esker gabe, hain galduan; bihotz huntan, (Ah! ezin gogorat ekhar dezaket ere, laztu eta harritu gabe), bihotz huntan zeina mila aldiz izan baita Debruaren egoitza? Birjina Saindua, zure Seme maitagarriaren amorea gatic, lagun nezazu hobeki preparatzen comunione Saindura, emazu ene bihotz gaichtoan zerbeit zure bihotza sustatzen duen caritate hortaric, zure garbitasun perfet, humiltasun ezti eta khar suhart horietaric; horrela eginen duzu ni baithan egoitza bat zure Seme maitearen gogoaracoa.

EXENPLUA.

Erreportchu progotchosa.

Thomas a Kenpis dohatsua, zeina baita, omenaren arabera, Jesu-Cristoren Imitacioneco liburu miragarriaren Autorra, bere haurtasunetic guziz debota izan zen Birjina Sainduaren alderat. Hartu zuen, bere baitharic, zenbeit othoitzberezi haren ohoretan egiteco usaja laudagarria, zeina egun oroz, arthoski atchikitzen baitzuen. Bere escolac egiteco denboran, izan zuen zori gaitza bere deboziona hoztera uzteco: negliatu

zituen emeki emeki bere coztumazco
 exerzizioac , utzi zituen egun batez , bi
 egunez , hirur egunez , gero aste oso ba-
 tez. Azkenecotz , lachakeria deithora-
 garri batez , zeina sobera maiz baizic
 ez baita zori gaitzetan gertatzen , guziac
 utzi zituen. Hortan zen , noiz eta ere
 izan baitzuen amets bat , zeinari ezin
 beha baititake amets misterios bati be-
 zala baizen , uste zuen bere lagunekin
 zela escolaco salhan ; iduritu zangon Ze-
 ruco Erregina ikhusten zuela jausten he-
 doi baten gainean , aire arrai eta bisai
 distirant batekin , bestitna arropa churi
 batez , zeinac begiac ere liburatzen bait-
 zituen. Ikhusten zuen Cloatreco itzulia
 egiten zuela ; baratzen zela , gazteriaren
 escolatzeaz cargatuac ziren Fraide ba-
 khotcharen aldean , mintzatzen zitzaio-
 telaric amultsuki eta emaiten ziotelaric
 samurtasunekin bere ezagutzaren sein-
 leric gozoenac , eskerrac bihurtzeco be-
 zala zeren , bere lectioneez , trabailat-
 zen ziren haren Semeac , bere odol ba-
 liosasaren gostuz , erosi zituen arima
 gazte hejen salbamenducotzat. Thomas ,
 bere phartetic , goaiten zagon noiz
 ethorrico zitzaion Maria , Fraide Saindu

hejei bezala, bere caresen egitera. Lehiarekin idurikitzen zuen noiz hartaz pentsatuco zuen Birjina Sainduac; aurdikitzen ere zituen haren gainerat begi colpe batzu zeinec ezagutzerat emaiten baitzuten haren bihotzeco gutizia bizia. Bazarasan bere buruarekin, iduric dezagun oraino istant bat; esperantza dut, gure Ama maite eta Sainduac, bertze guziei here amodioa seinalatu ondoan, eginen dautala, ene aldian, fagore bera; egia da ez naizela gai fagore horren izaiteco, bainan bizkitartean, ene ahalaz maitatu dut egin nezaken bezen ongi. Esperantza zuen, dio tretu hau ekhartzen duen Autorrac; bainan helas! Gizonac enganatuac dire ardura bere esperantzetan. Thomasec zerbeit samurtasuneco marca idurikitzen zuen denboran misericordiazco Ama ganic, etzuen erreportchuric baizen errezibitu. Ethorri zenean Birjina Saindua haren lekhura, iduritu zitzaion Ama on harrec begi zorrotzez behatzen zioela, erraiten ziozcalaric hitz hauc: « Alferretan idurikitzen duzu « ene ganic amodiozco seinale bat, zuec « zeinac, lazakeria hastiagarri batez, eta « contseilari gaichto eta maltzur baten

« enganioz , gelditu baitzare zure othoitz
« khartsuen homajac , aspaldi danic egi-
« ten zintuen bezala , bihurtzetic. Non
« dire ezen zure leheneco exercizio de-
« botac ? Zer bilhacatu dire orazione su-
« hart hec ? Zer egin duzu Arrosario he-
« taz ? Zer egin dire ofizio hain khart-
« suki eta hanbertze hats beherapenekin
« erran hec ? Zure amodioa ez othe da
« arras iraungi ? Zure debozionea ez othe
« da hoztu , zure leheneco kharra sunt-
« situ ? Eta orai , ez bazinu bezala deus
« erreportchatzekoric , idurikitzen duzu
« eman dezazudan ene amodioaren zer-
« beit seinale , lehenago merezitzen du-
« zun denboran erakhuts diezazudan no-
« lacoac diren ene erresuminac zure al-
« derat. » Horrela iduritu zitzajon adit-
zen zuela Maria mintzaten , Ama baten
pare , zeinac erreportchu egiten baitio
bere haurrari hunen ona gatic ; eta hon-
bertzenarekin ikusi zuen bertze alderat
itzultzten bere beithartea , aire hasarratu
batekin , hitz hauc ziozcalarie : « Zohaz
zohaz urrun ene ganic , etzare gai ene
« caresen eta samurtasunaren izaiteco ,
« hoin lachoki huts egiten duzunaz geroz
« ofritzea , lehen hain maite zinuenari ,

« hoin errechac ziren sacrificioac eta
« practicac. » Hitz hautan, itsaasi zen
Birjina Saindua, uzten zuelaric contzient-
ziaco harrac jana, erregret eta damu
guzien erdian.

Thomas iratzartu zenean, zundatu eta
examinatu zuen bere contzientzia, bere
hutsa ezagutu zuen humilki eta agindu
zuen correitzea. Etzezan gehiago merezi
Aingeruen Erreginaren hoztasuna, abiatu
zituen leheneco exerzizioac; lothu zen
berriz Birjina Sainduaren alderaco pra-
tica debot berei, hanbertze kharrekin
eta hain constanki non ez baitzen ausar-
tatu, bere biziaren asken mementeraino,
egun batez ere, hetaric den mendrena-
ren huts egitera. O erreportchu zori
onezcoa! Bide onerat erakharri zuen
arima bat, baztertzen abiatua zena, eta
haratu zuen, behar bada, lezearen he-
gian, harat erortzera zohana. (*Thom.
bizia.*)

PRATICA.

Humilia zaite osoki Jaincoaren Ama-
ren aintzinean, eta barkhamendu galde-
gioza zure hutsez eta lazaheriez hareu
zerbitzuan.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*O Clemens, o Pia, o dulcis Virgo
Maria!*

O Maria, o Birjina amultsua, urricalmenduz eta eztitasunez bethea!

HAMAR GARREN EGUNA.

Premiazco opserbationea.

Huna non garen Mariaren ilhabetheco hamar garren egunean. Ochala! Baldin lejal izan bagare Ama on harri, egun oroz, bihurtzeco gure homajac, chede hori hartu ginuen bezala! Zoin hunkitua ez da behar izan haren bihotz samurra, egun hautan, hoin ardura eman diotzigun gure amodioaren seinaleez! Zer graziazco tresor ez dugu idurikitzeo Ama Dibino haren aldetic, baldin ilhabethe huntan guzian continatzen badugu aintzina haren ohoratzea eta hari adrezatzea khar bethi berri batekin! Entseja gaiten beraz egun, berri berritan, gure bihotzetan susta arazterat Birjina Sainduaren alderaco confientziaren eta debozionearen sendimenduac. Zerbitza gaitzke hortaracotzat segidaco pratikez.

1º Examinatzea eja nola iragan ditugun Mariaren ilhabetheco lehen hamar egun hauc, eta faltaduru aurkhitzen garen neglientziez humiliatzea.

2º Chede hartzea lejalkiago zerbitzatzeco Jaincoaren Ama bertze heldu diren hamar egunetan, eta ikhustea aintzinetic zer egin dezakegun haren ohoratzeco eta hari plazer egiteco.

3º Maxima izpiritualac berriz phartitza, eta khartsukiago aplicatzea chortean erori zaucun berthutearen praticatzerat.

4º Egun egitea zerbeit obra on berezi Mariaren ohoretan, hala nola amuina bat bertze egunetan baino handiagoa, edo caritatezco aczione bat, edo humilitatezco edo mortificazionezco pratica bat naturalezarentzat gaitzagoa eta pena garriagoa.

5º Erraitea debozione gehiagorekin Mariaren bihotz sacratuaren ofizio chumea, edo Arrosarioa; edo bertze zerbeit edo zoin othoitz egitea khar gehiagorekin.

6º Comuniatzea egun huntan, edo bederen iganderic hurbilenean; cofesoraren abisuen arabera, susta gaitezentzat Jesusen eta Mariaren amodioan.

Pratica Saindu hauc berac balia daitezke ilhabethearen hogoi garren eguncotzat, zeina izan behar baita orobatgure kharraren erreberritzeco eguna.

Aingeruac Mariari egin agurraren gainean.

Gabriel Aingeruac seinalatzen dio bere axegina Mariari, 1º Izan dituen pribilio handiez; 2º Jaincoarekin egiten duen batasun perfetaz; 3º Creatura guzien gainetic duen goratasunaz.

I PHONDUA. Mariac Jaincoaren ganic errezibitu dituen pribilio handiez bere axegina seinalatzen du Aingeruac, Dioelatic: *Ave gratiá plená; agur graziaz bethea*. Hitz hautaz egiten dio bere agurra Birjina guziz Sainduari Izpiritu Zerutarrac, igorria Trinitate adoragarriaz Enbachadore bezala, huni emaiteco egundeino izan den berric premiazoena eta urusena, erran nahi da Berbo eternalaren Incarnazioneco misterioen berri handia. Jadanic errespetuz bethea bere Andre Soberanotzat hartzen duenaren alderat, ez du bere izenaz deitzen; bainan deitzen du *graziaz bethea*: hitz hautan zerratzen du laudorioric conpliena,

eta Mariaren ohoretan erran daiteken gauzaric loriosena. Hala da ezen, Birjina miragarri hura bethea zen graziaz molde guzietara, bere izpirituan, here bihotzean, here memorioan, here sendimenduetan, here hitzetan, here obretan. Bazituen gradoric gorenean grazia saindutzen duena, grazia actualac, berthute surnaturalac, Izpiritu Sainduaren dohainac, eta hauc oro hain zituen gaindizca, non bethedura hunec ichitzen baitzituen egundeino Aingeru eta Saindu guzietan izan diren Zeruco grazia eta dohain guziaz. Junta gaiten Zerutic igorria den Aingeruari, eta haren sendimendu bere-tan sarthuric, marca dezogun guc ere gure axegina Ama Dibinoari, zeren Creatzailearen escu sacratuac aberastu duen hainbertze tresor izpiritualez. Othoitz dezagun izan dezan urricalmendu gure miseria handiaz, eta egin gaitzan partalier bera bethea dagon grazia baliosetan, zeinen phartitzale ezarri baitu Jaincoac gizonen on eta fagoretan.

II PHONDUA. Aingeruac bere plazera marcatzen dio Mariari bere Jaincoarekilaco batasun perfetaz. *Jauna da zurekin*, erraiten dio, *Dominus tecum*. Zure-

kin da ez choilki bere presentziaz eta bere probidentziaz, bertze creaturekin den bezala, edo bere graziaz eta bere amodioaz, den bezala justu guziekin; bainan zurekin da manera bereziago batez eta batasun perfetago batean, samurtasun bertzeentzat ez bezalaco batekin. Nahiz oraino gehiago tincatu hari lothua zaucaten lokharri sacratuac, zure bihotza, jadic contsecratua haren presentzia sainduaz, bilhacatuco du tenplu bizi bat, zeintan Sainduen Sainduac berac eginen baitu bere egoitza. Han egonen da bere gorphutzarekin, han izanen dire denbora berean zerratuac haren Jaincotasuna eta gizontasuna. Erran daiteke gisa batez gu ere partalier garela Birjina Sainduaren zori on hortan, graziazco estatuan garenean; Jaincoa loriatzen da gure ariman bere egoitzaren egiten; berac erraiten ere deraucu gu baithan izaiteaz duela bere loria. Bainan lohitzen dugunean gure arima bekhatu mortalaz, Jaincoac abandonatzen du eta largatzen Debruari. Zer zori gaitz izigarria! Ah! Othoitz dezagun Maria Dibinoa zori gaitz hortaric begira gaitzan bethicotz.

III PUONDUA. Aingeruac bere axegina

guzietan den garbiena, creatura guzien artean perfetena, eta jenerazione guziec deitzen zaituzte urusa guzien gainetic. Egizu junta dezadan ene boz flacoa zuretzat orotaric altchatzen diren cantica lorigarriei; publica ditzadan, ahal dukedan bezen batean, zure handitasunac, maita zaitzadan, maita ahal bezenbat; othoitz zaitzadan, othoitz zitzazkedan bezen batean; entseja nadin zuri ohore eman arazterat ene indarrec, ene kharrac, ene amodioac egin dezaketen bezen batean. Nahi nuke mundu guzia ikhusi zure oinetan ahuspez emana, bihotz guziac erreac zure amodioaz, guziac izan gaitzentzat estatutan zure Seme Dibinoaren maitatzeco, zeronec maitatu duzun bezala mundu huntan, eta maitatuco duzun bezala Zeruan eternitate guzian. O ene Ama guziz maitagarria! Galdegiten dautzut grazia hori bihotzaren erditic, nahi bezen guti naizen gai horren ardiesteco.

EXENPLUA.

Agur Mariaren *esplicazionea*:

Gorago erran izan dugu nola Thomas a Kenpis debotac izan zuen zori gaitza hozterat uzteco haurtasunetic bere bi-

hotzean Birjina guziz Sainduaren alderat hartu zituen sendimendu samurrac, eta zer manieraz berriz erakhar arazi zuen Ama on harrec haur prodigo hura exercizio debot hejen besarcatzerat. Guzia ezagutzaz bethea, erori zen epheltasun deithoragarritic athera arazi zuen ongi egilearen alderat, deus etzuen guphidetsi gero ondoan bere hutsaren erreparatze-co, eta bere kharraz ahantz arazteco Ama Dibino hari aintzineco hoben eta neglientzia guziac. Bazuen debozione berezi bat Aingeruac Mariari egin zioen agurrarentzat; ardura ahoan zituen hitz hec, eta huna nola esplicatu zuen othoitz eder hura.

« Hurbilduco naiz zu ganat, o Maria,
 « errespeturekin, debozioneekin eta con-
 « fienzia humil batekin, zuri ofrit-
 « zeaz dohanaz bezen batean Ainge-
 « ruaren agurra. Ofritzen dautzut beraz
 « agur hura, burua aphaldua errespetuz
 « zure presuna sacratuarentzat; besoac
 « hedatuac debozionezco sendimendu
 « samurrez, eta nahi nuke Izpiritu do-
 « hatsu guziec ehun mila aldiz erraiten
 « balatzute ene orde *agur Maria*, Bai
 « eta gehiago aldiz ere oraino. Ez dut

« ezagutzen deus loriagarriagoric zu-
« retzat, ez guretzat contsolagarriago-
« ric. Entzun bezate eta goardia egin
« zure izen Saindua maite dutenec; Ze-
« ruac alegrantzietan jartzen dire, eta
« Lur guzia espantitua behar da izan er-
« raiten dudanean : *agur Maria*. Debrua
« ihesi doha, eta Ifernua ikharatzen da
« berriz diodanean : *agur Maria*. Tris-
« tezia suntsitzen zaut, eta bozcario go-
« zo batec bethetzen daut arima, errai-
« ten dudanean : *agur Maria*. Ene amo-
« dio iraungia sustatzen da, eta ene ari-
« ma oso osoa erreberritzen, berriz ere
« diodanean : *agur Maria*. Ene debozio-
« nea emendatzen da, ene baithan bi-
« hotza urrikiz guritzen eta zaurtzen ;
« ene esperantza borthizten da, contso-
« lazioe berriac senditzen ditut, errai-
« tean : *agur Maria*. Hunelacoa da *agur*
« haren gozotasuna, non ez baita lengoa-
« jetan hitzcuntzaric gai denic hori sendi
« arazteco ; sobera barna da gure bihot-
« zetan sarthua, handic hitzez canporat
« ager araztecotzat. Ahuspez ezartzen
« naiz beraz berriz ere zure oinetan, o
« Birjinetan den Sainduena ! Zuri errai-
« teco : *agur Maria*, *graziaz bethea*.

« Norc emanen daut ahala ene arimaren
« puchantzia guziez zure ohoratzeco du-
« dan nahiaren bethetzeco ? Ochala ! bal-
« din ene gorphutzeco membro guziac
« mihi bilhaca balite, zuri mila gisetara
« ene agurraren egiteco. O baldin ene
« hitz guziac izaiten balire suzco hitz-
« zac, zure lorificatzeco epheric gabe
« o ene Jaincoaren Ama Saindua ! Zure
« aintzinean abuspez emana, bihotzeco
« debozione zin batez hartua, eta guzia
« bethea zure izen Sainduaren gozotasun
« ezin erranezcoaz; presentatzen daizkit-
« zut Gabriel Arkhanjeluaren agurracegin
« zauntzun axegina eta eman zautzun
« bozcarioa. Ah ! emana balitzaut urrea
« bezen garbi laiteken ahoaz, eta bethi
« amodioz sutan dagon bihotz batekin,
« miletan erraitea : *agur Maria, graziaz*
« *bethea.* »

Zer sendimendu miragarriac ! O ! Zen-
bat grazia ez ginitzazke ardiets gure Ama
Dibinoaren arartecotasunez, baldin ar-
tha baginu othoitz eder hori erraiteco,
egun oroz, hoinbertze debozioneekin,
eta gure bihotzac confientziaz eta amo-
diaz betheac direlaric.

PRATICA.

Har zazu costuma saindua erraiteco agur *Maria*, bederen goizean, eguerditan eta arratsean. Hainitz presuna debotec erraiten dute orenac joiten entzuten duten aldi guziez.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Ave Maria gratia plena.

O zu, zeina graziaz bethea baitzare, errezibi zazu ene agur humila.

HAMEICA GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren bisitazionea.

Mariac agertzen du misterio huntan, 1^o khar miragarri bat;

2^o Humilitate oso bat;

3^o Mugarri gabeco caritate bat.

I PHONDUA. Birjina dohatsuac ez du hain laster contzebitu bere errai garbietan Berbo eternala, non, hau Lurraren gainean phiztera helduden su Sacratuaz sustatua, laster egiten baitu mendi herri batera, zeintan baitzagon Elisabet haren Cusi saindua. Ikhus zazu zer amultsutasunekin, zer kharrekin obeditzen duen Birjina miragarri harrec graziaren ins-

pirazionei, eta haren biotza sutan daucan amodio Dibinoaren impresionei. Ez lekhuaeren urruntasunac, ez bideco akhiac, ez irrichcuen beldurrac, deusec ez dute baratzen; trebesiec gehiago bazic ez diote alimu emaiten baren kharrari eta curajari. Ezagutu duen bezen laster Jaincoaren borondatea, bideari emaiten zajo; ez dio bere gogoari emaiten bertzeric, baizen ere obeditzea deitzen duen bozari, eta bethetzea caritatezco egin bidebat Jaun Doni Joaniren Amarenalderat. Horra arima khartsu baten egiazco imachina Jaunaren zerbitzuan, arima bate-na zeinaren baithan baitago Jaincoaren Izpiritua. Osoki ekharria graziaren inspirazionei obeditzera, zerbitzutzen du Jaun soberanoa bozcario saindu batekin; lehia handirekin dabila Justiziaco bidechketan; arima ephelac, contrarat, ez du herrestatzea baizic egiten Zeruco bidean, eta ez doha hurritasun deithoragarri batekin baizen, Jaincoaren zerbitzuac galdegiten dituen gauzetarat. Examina gaiten nola-coa othe den gure estatua Jaincoaren begietan; eta ikhara gaiten baldin gure baithan aurkhitzen baditugu epheltasuneco seinale ondicozcoac: deus ere ez da lanjerosagoric salbamenduarentzat.

II PHONDUA. Zeru Lurren Erregina bil-
hacatua Jaincoaren Ama calitateaz, Ma-
riac bazuen dretchoa idurikitzeo ez
choilki Elisabet Sainduaren errespetuac
eta homajac, bainan bai oraino gizon eta
Aingeru guzienac ere; bizkitartean aint-
zintzen zajo bere abaideari, eta berac
egiten dio lehenic agurra, zerbitzuric
aphalenac bihurtzen diozca humilitate
miragarrienarekin. Badiruri ez dela bil-
hacatu emazte guzienartean lehena, crea-
tura guziez beherago jartzeco eta aphalt-
zeco baizen. Zer diferentzia Mariaren
eta gure conduitaren artean! Ala haren
humilitateac condenatzen baititu gure
urguilua eta gure minberatasuna ohorez-
co phonduen gainean! Nahiz bethea den
dohainic baliosenec, eta alchatua crea-
tura bat hel daiteken gradoric gorenera,
balaric ere, ez du bere buruaz sendimen-
du' aphalic baizen; ez du bilhatzen
aphaltzea baizic gizonen begietan. Eta gu
creatura herbailac, zeinec ez baititugu
errumeskeria eta bekhatua baizic pharta-
jatzat, banitatez betheac gare, eta ez du-
gu bertzeric bilhatzen baizen ere estima-
tuac izaitea; bethi abantailekin nahi gare
orotan agertu.

III PHONDUA. Norc erran ditzazke Mariac etche hartan praticatu zituen berthuteac eta bere Cusi maitez izan zituen arthac? Dugun eman gogoari caritate samur batec asma araz ditzazken guziac; Elisabeten laguntzea kharrekin, haren zerbitzatzea lehiatuki, haren gutiziac berac aintzinatzea, holacoa izan zen Zeruco Erreginaren egun guzietaco ocupazio-nea, harekin egon izan zen hirur ilhabetetan. Mariaren exenplura, izan dezagun lagun proximoarentzat egiazco caritate bat haren behar ordu guzietan; caritate bat orotara heltzen dena eta nihor ere berechten ez duena; caritate bat, zeina ez baita contentatzen hitz hutsez, bainan bere obrez eta efetuez agertzen baita; caritate bat garbia eta intresatua ez dena, zeinac, ahantziz bere burua, ez baitu ikhusten lagun proximoan Jaincoaren idarira egin creatura baizen; finean caritate bat constanta, zeina ez baita behin ere gezurstatzen, eta irauten baitu azken artino.

OTHOITZA.

Birjina miragarria, Elisabet Saindua bisitatu zinuenean, ahaide debot harrec, alegrantziazeo boltater batean, oihuz er-

ran zuen : zure bozera bozcariotan jarri zitzajola haurra bere errajetan. O ene Ama Saindua ! Esperantza dut adituco dudala egun batez Zeruan boz hura hain eztia , hain samurra ; hainan izan dezhedan artean zori on hura, ene bihotza sustatzen da eta alegeratzen desterruco lekhu huntan, aiphatzen dudanean zure izen gozo eta puchanta , *Maria*. O Mariaren izena ! Izan zaite bethi ene bihotzean eta ene ezpainetan ; izan zaite ene contsolazionea , ene indarra, ene loria , ene zori ona. O Maria, o izen maitagarria zeinaren arrartecotasunaren azpian nihorc ez baitu deseparatzeco ! *O Maria, o nomen sub quo nemini desperandum !*

EXENPLUA.

Nobiza khartsua.

Santa Beronica Milanecoac , Birjina guziz Sainduaren arrartecotasunez , izan zuen zori ona bentzutzeco seroratasuneco bocazionetic gibelatzen zuten traba guziac. Bere haurtasunetic osoki hartua Jaincoaren Amaren alderaco debozione samurraz , nescatcha saindu hura entsejatzen zen , haren berthuteac imitatuz , haren gogoaraco izaitera. Othoitzean aur-

khitzen zuen bere gosturic handiena ; bainan horren gatic , bere debozioneco exerzizioec etzioten hobenic chumeena ekhartzen haren estatuco eginbidei. Trabailatzen zen ezin akhitzuzco kharrarezin, eta obeditzen zioten bere Burhasoei eta bere Nausiei gauzaric den mendre- enetarainocoetan. Mila manera eztiz bazohan bere Nescatcha lagun guzien gutizia eta nahien aintzina, eta bere buruari hejen artean azhenari bezala behatzen zioen. Hejen alderat hain handia zen haren amultsutasuna, non erran baitzitaken berac etzuela batere borondate propiric. Bizkitartean dei bat eta jaudura bat hainitz biziac senditzen zituen seroratasunerat. Seguratua Jaincoac estatu hartara galdegiten zuela, hartu zuen chedea Mileneco Santa Marthaco Augustinen Comentuan sartzeco. Ordena hartan segitzen zen erregela bat hainitz garratza. Zori gaitzetan etzakien ez iracurtzen ez izkiribatzen; hain pobreac zituen ezen bere Burhasoac, non ezin ibil arazi baitzuten escolarat. Bizkitartean etzuen horren gatic curaja galdu. Nola egun guzia lanari lothua eramaiten baitzuen , hartzen zuen gauzaren gainean behar zuen

denbora iracurtzen eta izkiribatzen ikhas-
teko, eta ongi erreusitu zuen Nausi baten
ere laguntzaric gabe. Pentsa bedi nolaco
dificultateac izan ahal zituen bentzutzeco,
hortaratzecotzat. Egun batez, nola ne-
khez eta luzeki ikhasteac aurdiki baitzuen
descuraja handi batera, beldurrez etze-
zan erreusi, Birjina Sainduac contsolatu
nahi izan zuen. « Hartzazu alimu, ene
« haurra, erraiten dio, eta etzaitezcla
« khecha, aski da jakin ditzatzun hirur le-
« tra : *lehena da*, bihotzeco garbitasuna,
« zeina baitatza Jaincoa ororen gainetic
« maitatzean, eta creaturac ez maitatzean
« hura baithan eta harentzat baizen. *Bi-*
« *garrena da*, seculan ez errencuratzea
« ez eta ere khechatzea lagun proximoa-
» ren hutsen eta hobenen bichtan, bai-
« nan haren jasaitea pazientziarekin,
« eta othoitz egitea harentzat. *Hirur*
« *garrena da*, izaitea egun oroz den-
« bora hartu bat, Jesu Cristoren pa-
« sionearen gainean meditatzeo. » Hitz
contsolagarri haujec alimatu zuten Bero-
nicaren curaja ; khar berri batekin eman
zen othoitzari, istudiatzeari eta berthute
suerte guzien praticatzeari. Orogen gai-
netic entsejatu zen ardiestera Birjina

Sainduac bereziki errecomendatu ziozcan berthuteac : *Jaincoaren amodioa guzien gainetic, lagun proximoaren jasaita, eta Jesu Cristoren pasionearen alderaco debozione Samurra.* Azkenecotz, hirur urtheen preparazionearen ondoan, harthu izan zen Santa Marthaco Comentuan. Han, laster izan zen ezagutua eta berezia bertze Serora guzien artean, *Exercicio guzietarat ekhartzen zuen kharraz, eta erregelamenduco phondu guzien begiratzeco zuen artha handiaz.* Haren lejaltasunac besarhatzen zituen gauzaric chumeenac, handienac eta premiazcoenac bezen ongi. Bere Buruzagien borondatea zuen gauza guzietan bere bizi eta bere egin moldearen erregela bakharra; zeren segur baitzen obedientzia dela Jaincoari ofri daiteken sacrificioric agrada-garriena, eta nahi baitzuen imitatu Jesu Cristo, zeinac ekharri baitu obedientzia bere bizia emaiteraino, bere Aitaren borondatea osoki bethetzecotzat. Oh! ala jakintsun bihur baikinitezke, baldin, Santa Beronica bezala, haliatzen bagine, Maria, gure Zeruco Amaren lectioneez !
(Sain. bizi. godes.)

PRATICA.

Ofri zoitzu Mariari zure eguneco go-goeta, hitz eta obra guziaz iratzartzen zaren phondutic, eta erreberri zazu gero ofrenda hori zenbeit aldiz egunean.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Fac ut ardeat cor meum in amando
Christum Deum.*

O Maria, egizu ene bihotza sutan jar dadin amodioz Jesu Cristo ene Jaincoarentzat.

HAMABI GARREN EGUNA.

Jesu Cristo gure jaunac obratzen dituen miraculuac Birjina Sainduaren bisitazionean.

- 1º Bere Ama Sainduaren fagoretan ;
- 2º Jaun Doni Joani Batistaren fagoretan ;
- 3º Hunen Burhasoen fagoretan.

I PHONDUA. Salbatzailea bere Ama guziz Sainduaz baliatzen da Jaun Doni Joani Batistaren atheratzeco bekhatuco estatutic, zeintan contzebitua baitzen bertze gizon guziaz bezala, eta haren bethetzeko graziaz eta benediczionez. Ama maita-

garri hura nahi du izan dadin, bera mundurat ethortzean, obratzen duen lehen Saindutzeco miraculuaren errementatza. Ordu beretic Mariac egiten du egiazco Arartecoaren ofizioa, zeina gero ondoan eginen baitu hainbertze Ioriarekin beretzat, eta guretzat, hainbertze abantaitihin. Hortic nahi izan daucu erakhatsi Jesu Cristoc, Birjina Sainduaren escue-tarat direla emanac graziac atchikitza; Ama on hura dela bekhatosen Arartecoa, justuen laguntzailea, Girichtino guzien ihes lekhua. Zer daiteke gajagoric guri misericordiazco Ama haren alderat inspiratzeco confientziaric fermuena!

II PHONDUA. Salbatzaileac garbitzen du Joanes Batista bekhatu originalaren notatic, emaiten diozca graziaric extraordinarioenac, argitzen du haren Izpiritua bere argi dibinoez, erretzen dio bibotza amodio sainduaren su sacratuaz, bethetzen du haren arima bozcario ezin erranezco batez. Jaun Doni Joanic, oraino Amaren errajetan delaric, aditzen du Salbatzailearen Amaren boza; ezagutzen du bere Jaincoa, adorutzen du eta haren aintzinean alegrantzietan jartzen da. Gu ganat heldu denean Jesu Cristo gure

Jauna communionen sainduaren bidez, edo bertze egiten dauzcun barneco bisitez, eta aukhritzen dituenen gure bihotzac ongi pharatuac behar diren disposicioneekin, han egiten ohitu efetu bertsuac; argitzen gaitu, sustatzen, erakhartzen berthute guzietaco pratiketara, eta inspiratzen dauzcu perfeczioneratco gutizia khartsuac. Baldin, comunionearen ondoan, ez baditugu ezagutzen gure baitan debozionezco eta kharrezco sendimendu hec, baldin bethi ephel bagare, lacho eta ongiarentzat kharric gabe, heldur izan gaiten herieco oro, gure bihotzeco disposicione gaichtoen efetuac ez badire ere, bederen disposicione onen escasetic heldu zaizcula, eta othoitz dezagun Birjina guziz Saindua ardiets diezagun hemendic harat bethi disposicione sainduekin comeniatzeco grazia.

III PHONDUA. Considera ditzagun Jesu Cristoc Zacarias Sainduari eta Elisabet dohatsuari egiten diozcaten grazia bereziac: Salbatzaile Dibino harrec ohoratzen ditu bere presentziaz; etchera ekhartzen diote benediczionea; emaiten diozcate begien aintzina humilitatezco, obedientziazco, caritatezco eta debozionezco

exenpluric ederrenac , Maria baithan ,
Birjina Saindu harrec hejekin iragaten
duen denbora guzian. Ala dohatsu bai-
tire etcheac eta Comentuac zeintan bere
egoitza egiten baitu Jesusec bere Ama
Sainduarekin ! Han sartzen dire on gu-
ziaz harekin batean ; han nasaiki hedat-
zen ditu grazia , bozcarioa , Saindutasu-
na , benediczione suerte guziaz denbora
berean. Begira gaiten Jesus eta Maria
bortchatzetic gutaric urruntzera ; con-
trarar obligat ditzagun gurekin egoitera,
gure kharrar , gure debozioneaz , gure
bildutasunaz eta biziaren Saindutasunaz.

OTHOITZA.

O ene Ama eta ene Patroina, ene Jain-
coaren Ama guziaz miragarria ! Ene be-
khatuac indigno bilhacatzen naute zu ga-
nat hurbiltzeco , eta ez nuke zu ganic
iduriki behar gaztiguric baizen ; baina
mesprechatzen baninduzu ere , ez nin-
deke zuri oihu egiteti bara , ez zuri la-
guntza galdegiteti , dudan esperantza
fermuarekin hunkitzera utzico zarela ene
othoitez. Baldin ez banauzu entzur na-
hi , zeronec erran diezadazu noren bai-
than behar dudan izan confientzia gehia-
go zu baithan baino , eta nori behar nai-

zen adrezatu zure baithan baino urricalmendu gehiago aurkhitzeco. Bai, ene Ama maitagarria, zure baithan ezartzen dut Jaincoaren ondotic ene fidantzia guzia; eta baldin izaiten badut zori ona zure potret baten aintzinean hiltzeco, othoizten dudalaric zure misericordia, esperantzetan den fermuena dut Zeruetarat heldueo naizela, han zure laudatzeco zure nombre gabeco zerbitzarien ostearekin, zeinac salbatu izan baitire zure arartecotasun puchantaren hidez.

EXENPLUA.

Emazte bekhatoros conbertitua.

Ligori Dohatsuackhondatzen du Emazte bekhatoros handi bat, Helena deitzen zena, sarthu zelaric, egun batez, Eliza batean, Probidentziac, zeinac oro arri-matzen haititu bere hautetsien onetan, nahi izan zuen adi zezan pedericu bat arrosarioaren debozioneaz. Hankitua pedericariac erran zituen guziez pratica saindu horren ontasunaren eta efetu miragarrien gainean, gutiziatu zen arrosario baten izaitera, eta erostera joan zen pedericua akhabatu zen bezen laster. Bainan hainitz denboraz, artha hartu zuen

gorderic atchikitzeco, beldurrez ikhus
 zezoten eta irhi egin zezaten haren debo-
 zioneaz. Abiatu zen gero arrosarioa er-
 raiten, eta nahiz lehenbizian atentzione-
 ric gabe erraiten zuen, Birjina Sainduac
 hanbertzetaraino gustu har arazi zioen
 othoitz hartan, non azkenecotz ezin bara
 baitziken haren erraitetic. Pratica
 saindu hartaratco jarrikitasunaz eta lejal-
 tasunaz, merezitu zuen, arrazoinekin
 bekhatorosen ihes lekhuia deitzen den
 Ama on harrec, aurdic zitzan hunen gai-
 nerat bere misericordiazco behatzeac.
 Bere bizi iraganaz halaco higuintza cont-
 zebi arazi zioen, non bere contzientziac
 ez baitzioen uzten memento baten ere
 errepausic. Egunaz ala gabaz, barneco
 harrac jana, ezin ihardoki zuen penitent-
 ziac Sacramendurat, haren arimaco
 gaitzen erremedio bakharrerat bezala,
 ihes egitera hertchatzen zuen bozaren
 contra. Badoha beraz bere buruaren
 aurdikitzera Jaunaren ministroaren oine-
 tara, eta hari bere crimen aithormena
 egitera; bainan hanbertze contrizionezco
 seinaleehin, eta nigarrezco hain abon-
 dantzia handirekin, non cofesora guzia
 miretsia baitzagon, eta ezin aski Jaincoa

benedica haitzezaken ardi errebelatu haren alderat izan zuen urricalmendu handiaz. Cofesioa akhabatu bezen laster, Helena joan zen Mariaren aldareen oinetara, eta ezagutzazco sendimenduric bizienaz hartua : *Ah! Birjina guziz Saindua*, erraiten dio : *egia da munstro bat izan naizela orai artean ; bainan zuc, zeinaren podorea hain handia baita Jaincoaren aintzinean, lagun nezazu biziz aldatzen ; ezen zuri osoki emaiten naitzaitzu, eta nahi ditut ene azken egunac eramane penitentzia egiten.* Helena etzen deslejal izan bere agintzetan ; akhabatu ondoan bere othoitzaz, etchean sarthuzen, urratu zituen bethicotz bekhatuari estecatua zaucaten lokharri deithoragarriac, phartitu zituen pobrei zituenac oro, eta besarcatu zuen bizi molde bat hainitz garratza eta dorphea. Tentazioneric izigarrienez atacatua zen ardura, bainan Mariaren laguntzarekin batean bethi bitorios atheratzen zen orotaric. Hainitz grazia surnaturalez izan zen fagoratua, bai eta ere profeziaco dohainaz. Bere azken orenetan agertu zaingon Jesus eta Maria, eta izan zuen zori ona Sainduen heriotzeaz hiltzeco, aiphatzen

zuelaric, azken hatsetan, bere ongi egi-
learen izen sacratua, Maria.

(*Salv. Reg. explic.*)

PRATICA.

Eman zaite humilki ahuspez Mariaren
oinetan; eta othoitz zazu khartsuki ar-
diets diezagun zure bekhatuen contrizio-
nea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*O Domina nostra, advocata nostra, tuo
filio nos commenda.*

O gure Andre Soberanoa, gure Abo-
cata, gomenda gaitzatzu zure Semeari.

HAMAHIRU GARREN EGUNA.

Josepe Sainduaren dudaz.

1º Josepe Sainduaren prudentzia eta carita-
tea;

2º Birjina Sainduaren humilitatea eta pa-
zientzia;

3º Jaincoaren conduita Mariaren eta Josepen
alderat.

I PHONDUA. Jaincoac, zeinaren chedeac
ezin zundatuac baitire, etzuen nahi izan
erakhatsi Mariaren Espos sainduari ha-
ren baithan conplitzetic heldu zen mis-

terio handia. Elisabeten etchetic Birjina Saindua bihurtu ondoan baizen etzen ohartu Josepe haren estatuaz, zeinac ezin gehiago affiitu baitzuen; bainan nola justua baitzen, eta ez baitzuen desohoratu nahi osoki maite zuen Esposa, zeinaren berthuteaz baitzuen idearie gorenena, segretuki baren uzteco chedea hartu zuen. Zer ez titasunezco, prudentziazco, moderazionezco, caritatezco exenplu miragarria! Bere Espos garbiren Saindutasunaz duen idea handiac ez du uzten haren gainean suspitcharic mendrenaren izaitera: Maria baithan gerthazten den gauzan jujamenduric egin gabe baratzen da. Begiratzen du haren omenona; baitu harentzat aintzineco borondate on guziac, caritate bera, errespetu bera. Bainan ez jakinez hura baithan zer iragaten den, guziac uzten ditu probidentzia Dibinoaren escuetara. Zonbat suspitcha injuriagarrietaric, zonbat jujamendu temerarioetaric, zonbat bekhatuetaric ez ginitazke begira, baldin baginu prudentzia bera, erreserbu bera, caritate bera, uste dugunean ikhusten dugula zerbeit huts, edo zerbeit behar ez laitekenic lagun proximoaren bizi

moldean, eta tentatuac garenean haren
jujatzera eta haren condenatzera!

II PHONDUA. Zer situazionea Birjinen
Erreginarentzat, ohartzen denean bere
senhar garbiaren penari! Horrec biziki
hunkitzen du; baina batere plenu gabe
eta deus justifica zezakenic agertu
gabe, begiratzen da ichiltasuna, humi-
liatzen da, Jaunaren borondateari dago
osoki eta pazientzia hartzen du, Jaincoa
baithan ezartzen du bere fidantzia guzia,
consolatzen da othoitzean, eta probi-
dentziari uzten dio artha, berac nahi
duenean, akhabatzeco bere eta bere Es-
posaren penac. Baldin gure pazientzia
frogatzeco probidentzia Dibino harrec
uzten bagaitu gaizki suspitchatuac, acu-
satuac eta humiliatuac izaitera, imita deza-
gun gure Ama Sainduac emaiten daucun
exenplua, eta errencuratu behar bidean
eta utzi gabe gure buruac alimu galtzera,
ichil gaiten, har dezagun pazientzia,
egin dezagun othoitz khartsuki eta Jain-
coa baithan ezar dezagun gure confient-
zia guzia.

III PHONDUA. Baldin Jaincoac eman ba-
zituen bi Saindu handi hec hain froga
borthitzean, etzuen hori egin hejen ber-

thutea hobeki ager arazteco baizen. Josepe Mariaren ganic berechteco gogoe-
 tez guzia hartua zelaric, ethorri zitzajon
 Aingeru bat bere penatic atheratzera;
 hortaracotz ezagut arazi zioen ordu ar-
 tean etzakien misterioa. Aingeruaren
 erranera, Josepec atchiki zuen bere Es-
 pos Saindua, zeina infinituki maitagar-
 riago eta errespetagarriago bihurtu bait-
 zioten hainbertze calitate loriosec. Ma-
 riaren exenplura, utz dezagun guc ere
 probidentziaren escuetara gure justifica-
 zionearen eta gure descantsuaren artha,
 seguratuac jakinen duela Jaincoac eza-
 gut arazten gure inozentzia, bai eta ere
 ezestatzen hau hits edo beltz araz ditza-
 keten gauza guziac. Jaincoac lehenago
 egin litzazke miraculuac, abandona lit-
 zazken baino bere zerbitzari lejalac, bere
 behar orduetan. Emaiten ditu zenbeit
 aldiz frogaric borthitzenetan, hejen ber-
 thutearen ezagut arazteco; bainan, utzi
 ondoan zenbeit denboraz penetan, ha-
 daki ordainez hejen ongi saristatzen, eta
 contsolatzen ditu sofritu dutenaren ara-
 bera.

OTHOITZA.

Ene Salbatzailearen Ama lorioza, nabi

zare oraino izan gure Ama ere, gure Arartecoa gure Abocata haren aintzinean. Jesusen Ama bezala, baituzu haren bihotzaren gainean podore guziac; gure Ama khonduan, ez duzu giretzat samurtasunezco sendimenduric baizen, eta bihotz bat caritatez eta urricalmenduz betha haizen. Ala dohatsu baitire beraz, o Ama maitagarria! zuri emaiten zaitzun guziac, perfekiago Jaincoarentzat izaiteco chedetan! Dohatsu zure arartecotasun puchantera ihes egiten duen bekhatorea, Bere errebelamenduetaric bihurtzecotzat eta zure Seme Jaincoarekin grazietan sartzecotzat! Birjina Saindua, zure ontasunac alimu emaiten daut, eta heldu naiz zure oinetara, nigarrez nagolaric ene bekhatuen azpian lehertua, urrical bekizu ene arima gaichoa; libra nezazu ene bizioen lokharrietaric; zebazaitzu ene pasione muthiriac eta ene habitura gaichtoac; ardiets diezadazkitzubaiz eta ez bada behar ditudan berthuteac, Zeruetarat ethor nadin amoreac gatic, hor zure presentzia maitagarriaz gozatzecotzat.

EXENPLUA.

Salbamenduco etsajac arimen gal araz-

teco enplegatzen duen artifizioric lanje-
rosena da bekhatoresei inspiratzea ahal-
guisun bat, zeinac gorde arazten baitioz-
cate bekhatuac penitentziaco tribunal sa-
cratuan, eta horrela gibelatzen ditu,
etsai cruel harrec, agertzetic barneco
zauriac miricu izpiritualari. Gizon batec
zeinac ordu artean ereman baitzuen bizi
bat aski ona eta erregelatua, izan zuen
zori gaitza erortzeco huts handi batean.
Gero bere baithan sarthu zenean, eza-
gutu zuen bere crimaren beltztasun gu-
zia, eta haren pentsamendua izan zen
penitentziaco erremedio salbagarrira ihes
egitea; baina hainbertze ahalge contze-
bitu zuen bere bekhatuaz, non ezin ero-
ri baitzen haren cofesatzera. Contzient-
ziaco harraz jana hanbertzetaraino, non
ez baitzuen memento baten ere pausu-
ric, eman zioen bere buruari ithotzera
joatea, pena hetaric atheratzeco espe-
rantzan; baina uraren hegira ethorri
zenean, lotsatu eta harritu zen erortzera
zohan leze eternalaren bichtan; itzuli
zen gibelerat, nigarrez zagolaric eta
othoizten zuelaric Jaincoa bere bekha-
tua barkha zezon, haren cofesatzera obli-
gatua izan gabe. Uste izan zuen ardietsi

arimaco bakea hainitz Eliza bisitatuz, eta hainitz othoitz eta hainitz penitentziazco obra eginez; bainan oro alferretan izan ziren. Birjina Sainduaren arartecotasunaz nahi zioen Jaincoac eman bere barkhamendua. Gau batez, tristezia izigarri batean hondatua zagolarie, betetan borthizki inspiratua senditu zen cofesatzera joitecotzat; hainitz goiz jaiki zen eta ethorri Elizara; bainan cofesionalera sartzeco phonduan, behin ere baino tormentatuagoa aurkhitu zen bere ahalge zori gaitzezcoaz, eta etzuen izan alimurie, graziaac inspiratzen zioenaren egitecotzat. Handic zenbeit denboraren buruan gauza bera gerthatu zitzajon: Eliza berera joan zen, bainan gibelatua izan zen cofesatzetic ahalge beraz, eta oraino gehiago dena, hartu zuen erresoluzioea lehenago hiltzecotzat, ezin ez erranen baitzuen secular bere bethatua cofesor bati. Bizkitartean gogorat ethorri zitzajon bere buruaren gomendatzea Birjina Sainduari, etcherat bihurtu baino lehen. Badoha beraz Jaincoaren Amari contsecratua den aldare baten oinetara, han ahuspez emaitenda, eta erraiten dio Birjina Saindua-

ri, haren laguntzaren zoin behar handia duen, eta arrekeritzen du ez dezan abandona. Ala, othoitzaren efetu miragarria! Misericordiazco Ama hunkitua izan zen bekhatoros dohacabe huren nigarrez, eta ardietsi zioen bere Semea ganic garhaizia hanbertzetaraino hertsitzen zuen tentazionearen gainean. Etzen hain laster belhaunica jarri, non senditu baitzuen bere bihotza guzia khabiatua; alchatu zen curajaz bethea, joan zen bere cofesoraren aurkhitzera, eta declaratu ziozcan bere bekhatu guziac, nigarretan urtzen zelaric. Iduritu zitzaion carga izigarri bat khentze ziotela contzientziaren gainetic, eta, gero ondoan, agoatu zuen absoluzioea errebitzeco mementoan, senditu zuela bozcario eta contentamendu gehiago, ezin ez irabazi izan halitu munduco urre eta zilhar guziac. (*Ligori. doh. Maz*).

PRATICA.

Examina zaite eja cofesio guzietar bethi egiaz mintzatu zaeen, eta lañoki diren bezala, aithortu dituzun zure hutsac; baldin izan badazu zori gaitza zerbeit hoben handiren gordetzeco edo chumetzeco, othoitz zazu Birjina Saindoan

lagun zaitzan hejen cofesatzen, batere
luzatu gabe, eta etzaitezela memento ba
ere egon, salbamenduarentzat hain lant
jerosa den estatuan.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Refugium Peccatorum; ora pro nobis.

Othoitz egizu guretzat, o zu zeina bait-
zare bekhatorosen ihes lekhoa.

HAMALAU GARREN EGUNA.

Nazarenetic Betelemeraco piaja.

1º Mariaren eta Josepen obeditze humila En-
peradorearen manuari;

2º Piajan praticatzen dituzten berthuteac;

3º Betelemen jasaiten dituzten laidoac eta
arbujoac.

IPHONDUA. Ala Jaincoaren pentsamen-
duac urrun baitire gizonen pentsamen-
duetaric, eta Zeruco Erregearen chedeac
Lurreco handien chedeez goragocoac
baitire! Auguste Enperadoreac emaiten
du arrasta bat, zeintaz manatua baita
haren Erresumaco jende guzien nonbrea-
ren hartzea: harrec ez du hortan bertze
motioric baizen ere bere anbizionearen
eta urguiluzco sendimenduen contentat-
zea, bainan probidentziac baitu bertze

chede ongi bertzelakoric, eta gauza guziaz arrimatzen ditu, Mesiaz Betelemen sorthu behar dela dioten profezien bethetzeco moldera. Mariac eta Josepec ez dute ikhusten Printze hilcor baten manuan Jaincoaren borondatea baizen, adoraten dituzte hunen chede ezin zundatuzcoac; badaude osoki hunen probidentziara, eta batere lotsatu gabe bideco nekhe eta escasiez. Ez dute pentsatzen baizic ere pruinki obeditzea Betelemera deitzen dituen manuari. Oh! ala errech eta agradagarri bilhaca beilakegu obedientzia, baldin, Mariaren eta Josepen exenplura, Jaincoaren borondatea ikhusten baginu bethi gure aintzindarien manuetan!

II PHONDUA. Segi ditzagun izpirituz bi Espos Saindu hec, eta ditzagun mirets hejen berthuteac zeinez santificatzen baitute bere piaja. Badohazi lehiarekin Jau naren borondatearen conplitzeco chedetan; pazientziarekin eta bozcariorekin jasaiten dituzte bide luze batetaco nekhardura eta hertze asko pena suerte, neguco sasoinaren grarraztasunac eta bere pobreziza handiac sofri arazten diozcatenac. Ez dire mintzo baizic ere bere Sal-

batzailearen laster ikhusteco zori onaz. Hejen izpiritua guzia hartua da misterio handi haren meditazioneaz, eta hejen bihotza guzia sutan dago amodioz munduaren salbamenducotz sortu nahi den Jainco harentzat. Ocasionetan, gure conduita erregela dezagun gure Ama Sainduaren eta haren Espos garbiaren conduitaren gainean. Aplica gaiten santificatzera gure urhats guziac, gure aczione, gure solhas guziac othoitzaz, caritateaz, pazientziaz, Jaincoaren borondate guziz saindura osoki eroriac egoiteaz.

III PHONDUA. Bide luze bateco akhiduraren ondotic, Mariac eta Josepec etzuten Betelemeco hirian errebitu, hango jenden aldetic, mesprezioric eta humiliacioneric baizen; ez dute nihor aurkhitzen atherpea eman nahi diotenic, eta hortaracotz bortchatuac dire gaueco malda bilhatzera harroco baten azpian, zeina hejatzat arimalei zerbitzatzan baitzen. Han da Palazioa zeintan sartzen baita Zeru Lurren Erregina, han nahi izan da sortu Jaincoaren Semea. O Berbo incarnatua! Ala goiz danic abiatzen baitzare sofritzen enetzat! Ikhusi ondoan zuc, munduan ziren bi presuna sainduenekin eta zure

bihotzari gehienic maitagarri zirenekin jasan dituzun mesprezioac, errefusac, pobrezia, humiliacioneac, ausartatuco othe naiz errencuralzera eta murmuratzera izaiten dudanean zerbeit sofritzecoric zure ohoretan? O Maria eta Josepe! ardiets diezadazuet pazientzia eta erresinacionea Jaincoac igorrico daizkidan nahi gabe eta froga guzietan.

OTHOITZA.

O Maria, ene Ama guziz Saindua, confientzia handi eta ongi gozo bat senditzen dut ene baithan, errefleczione egiten dudanean Jesus ene Abocata dela bere Aita Zerucoaren aintzinean, eta zuc, o ene Ararteco maitagarria, enetzat othoizten duzula zure Semea. Ene aldetic, ez naiz harataco zure Semearen eta zure othoiztetie. Helas! sobera baizen ez dut negliatu othoitzera ihes egitea, eta horra zertacotzat den ene arima hoin flaco, hoin eri, eta hoinbertze zauriz estalia. Ah! Baldin othoiztu izan bazinitut hainbertze ocasionetan, zeintan senditzen bainuen zure laguntzaren beharra, ez nuen ene Jaincoa ofentsatuco, ez eta ere galduco haren grazia saindua. O ene ihes lekhu baxharra, ardiets diezadazut egun

grazia bat ongi baliosa eta bihotz guziaz nahi nukena, zeren ezagutzen baitut, behin ere baino hobeki, zoin nesesarioa dudan; hura da othoitzeco eta meditacioneco izpiritua, bethi atentzionerekin eta khartsuhi othoitz egiteco grazia, ene behar ordu guzietan othoitzaren bidez zu ganat ihes egiteco grazia, eta hitz batez erraitecotzat, bizitzeo eta hiltzeo zure othoizten nagolaric. O ene Ama Dibino baldin lejalki eta constantziarekin othoizten bazaitut, ene salbamendua seguratua dut.

EXENPLUA.

Arrosarioa.

Mariaren egiazco zerbitzari batec ez du uzten iragaitera egun bat, Ama on hari zerbeit othoitz adrezatu gabe, eta eman gabe bere errespetuaren eta bere amodioaren zerbeit lekhukotasun. Bada, Debozitioneac Birjina Sainduaren loricotz contsecratu duen pratica sainduen artean ardurazcoenetaric eta hedatuenetaric bat, da arrosarioa. Othoitz hura hain da chinplea, hain humila, debozitionezco sendimenduric ederrenez hain betha, eta hortic beretic, hain da loriosa Mariarentzat, hain ikharagarria Ifernua-

rentzat, eta arima khartsu guzientzat hain maitagarria. Ezin erran daitekena da zonbat agradatzen zajon othoitz hori Jaincoaren Amari, eta zonbat Saindutasuneco fruitu erakharri duen, eta era-khartzen ere duen oraino, egun oroz, pratica horri lejalki jarrikitzen zaizcote-nen fagoretan, denbora guzietan ikhusi izan dire presunatic sainduenac eta handienac egin bide eta ohore phondu bati bezala behatzen haren erraiteari, egun guziez, artha edificagarri batekin.

Luis hamalau garrenac, zeina izan baita Frantzia gobernatu dutenrr Eege guzien artean handienetic bat, bazuen costuma saindua egun oroz arrosarioaren erraiteco. Aita Rue, jesuistac dio : egun batez Printze haren aintzina deithua zelaric, aurkbitu zuela arrosarioaren erraiten hari zela. Nola estonatua agertu baitzen, eta edificazionezco sendimenduz bethea : *etzaitzela estona erranzioen Erregec, ohore zaut arrosarioaren erraitea; ene Ama Erreginaren ganic daucadan pratica bat dut hau, eta ongi damu nuke egun batez ere choilki huni huts egitea.*

San Charles Borromec, san Frantses

Salesecoac, Jaun Doni Bichintcho Paulo-
 coac, San Frantses Xabierec, eta bertze
 hainitz nonbre gabeco Sainduc, zeinec
 ohoratu baitute Eliza bere thalenduez
 eta bere herthuteez, etzuten egun batez
 ere huts egiten othoitz eder horren er-
 raitea khar miragarri batekin. Hainitzac
 izan ere dire botuz hortara obligatu di-
 renac. Bercman dohatsua hanbertz eta-
 raino seguratua zen pratica saindu hor-
 ren baliostasunaz, non, othuruntza baten
 hartzera zohan aldi guziez, errespature-
 zin musu emaiten baitzioen bere arrosa-
 rioari, eta lephotic ezartzen baitzuen,
 edo zenbeit aldiz bere besoan ingurat-
 zen, etzezan amore gatic behin ere
 bichtatic gal; bethi berekin zabilan er-
 leki balios bat bezala, eta zioen bazi-
 tuela hirur tresor ongi maite zituenac,
 eta zeinekin gogotic eta beldurric gabe
 hilen baitzen: bere Curutzefica, bere
 arrosarioa, eta bere erregelen liburua.
 Hala izan zuen ere contsolazionea hilt-
 zecotzat, bere debozioneco gauza mai-
 teekin, eta bere arrosarioa escuan zauca-
 laric.

Birjina Sainduac erakhusterat eman
 du zenbeit aldiz, ongi seinale den be-

zala, zoin agradagarri zajon othoitz hori. Huna exenplu bat ekharria Aita Debusi jesuistaz, bere *Mariaren ilhabetheaz* egin duen liburuan. Gizon gazte batec, zeina osoki baitzen debota Jaincoaren Amaren alderat, bazaucan bere khanbaran Ama Birjinaren potret bat, eta bazuen costuma egun guziez haren buruaren gainean lorezco khoro baten ezartzecotzat. Birjina Sainduac, haren ganicizaiten zuen homaja saristatzecotzat, ardietsi zioen fraidetzeco bocazioncaren grazia; utzi zuen mundua eta sarthu zen San Frantsesen ordenan; Bainan zenbeit ilhabethe Comentuan iragan zitueneco borthizki tentatua izan zen handic ilkhitzecotzat, zeren etzezaken gehiago lehen bezala, egun guziez, ofri bere Ama onari bere lorezco khoroa. Phartitzera zohan, noiz eta ere Ama ontasunez betha hura ethorri baizitzajon gibelatzerahain tentazione lanjerosean erortzetic; erakhatsi ere zioen berac mojena bere debozionearen bethetzeco bere gutziaren arabera. *Ofri diezadazut egun oroz, erran zioen, khoro bat sei gure Aitaz eta berrogoi eta hamar Agur Mariaz egina; eta segurutzen zaitut etzautala hau*

guliago agradagarri izanen, nola bertze orduz ofritzen zinautan lorezco khoroa, eta ez dela zure arimarentzat ere guliago izanen probetchosa. Nobize gazteac segitu zuen contseilu hori eta iraun zuen bere hocazionean.

PRATIGA.

Hartzazu usaja Saindua egun baten ere ez uzteco iragaitera, erran gabe bederen, zure arrosarioaren pharte bat. Ez balitz hamarreco bat baizic ere, ez falta haren erraitea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Illos tuos misericordes oculos ad nos
converte.*

O Maria, heda zazu gure gainerat zure misericordiazco behaize bat.

HAMABORTZ GARREN EGUNA.

Jesu-Cristoren sortzea.

- 1º Jesusen sortzeco zirconstantziac;
- 2º Haren ezin gehiagoco pobrezia;
- 3º Mariaren eta Josepen sendimenduac.

I PHONDUA. Sar gaiten izpirituaz Betelemeco establia pobrean, eta fedearen begiekin considera ditzagun gure Sal-

batzaile adoragarriaren sortzeco zircons-
tantziac. Contenplazioneric gorenera
bere baithan altchatua, eta sustatua Jain-
coaren amodio khartsu batez eta bere
Semearen ikhusteco nahiric lehiatuenaz ;
sofritu gabe doloreric chumeena, eta
Birjinetan den garbiena izaitetic gelditu
gabe, Maria Dibinoac establia hartan
eman zuen mundora Zeru Lurreu Erre-
gea, Mesias agindua eta idurikia lau mila
urthe hetan. Eman gaiten ahuspez erres-
peturic handienarekin haur Dibino ha-
ren oinetan ; adora dezagun gure Creat-
zaile, gure Erostate, gure Nausi sobera-
no, gure Jainco bezala. Hari gure homajac
bihurtu ondoan, fedeac, erlichioneac,
amodioac, ezagutzac inspira ahal detzaz-
keguten sendimendu guziekin, ohora deza-
gun haren Ama samurra; seinala dezogun
gure axegina Jaincoaren Ama izaiteco duen
zori on ezin erranezcoaz ; calitate hortan
bihur ditzogun ohoreac, eta hura baithan
ezar dezagun gure fidantzia guzia.

II PHONDUA. Ezin conprenitua da nola-
coac izan ziren Ama dohatsu haren boz-
cariozco, errespetuzco eta samurtasu-
nezco sendimenduac. Bere besoetan zau-
calaric, lehen aldicotz, Haur Dibino

hura zeina adoratzten baitzuen bere Jainco bezala, eta bere Seme baxharra bezala maitatzen, mandiletan inguratzen du, torochatua, etzaten du othe lacoaren gainean, eta han, haren aintzinean ahuspez emana, adozatzen du. O Ama Dibinoa! Ongi dolore bizia senditu ahal izan duzu, ikhusiz bortchatua zinela pausatzera othe laco pobre batean, lasto hotz eta latz baten gainean, Jesus Haurtcho sorthuaren gorphutz samur eta minbera. Errechki sinhets nezake, ene Ama Saindua, Lurreco izaite guzientzat duzun estecamendu gutiarekin ere, orduan erregretatu ahal zinuela ez izaitea zerbeit hobeagoric zure Seme Dibinoarentzat. Bainan baldin ezin ofri ahal badezokezu Lurreco onthasunic eta comoditateric, zerbeit haliosagoric ofritzen diozu; emaiten eta contsecratzen diozkitzu zure artha, zure lanac, zure bizia, zure bihotza, guzia amodioz sutan datzana. Oh! emana halitzaut ofrenda bat hoin agradagarria egitea!

III PHONDUA. Contsidera ditzagun Maria eta Josepe othe lacoaren aldean; ezin izan dezakegu orazionearen model perferagoric. Mundua osoki alderat utzia eta

khendua hejen orhoitzapenetic, bakbar-
ric ocupatuac dire bere aintzinean du-
ten Berbo casic ezestatuaz. Ez diozcate
ez hitzez ez cantikez emaiten ezagutze-
rat bere bihotzeco sendimenduac, bai-
nan bai ichilicaco mireste batez, uzten
direlaric borondezki, bere baithan sen-
ditzen dituzten eta Haur adoragarri ha-
ren ikhusteac hejen barnean sor arazten
diozcaten amodiozco mugidura gozo
eta debotetarat. O Maria, o Josepe ema-
dazuet pharte zuen sendimenduetan,
egizue, zuen exenplura, ez dezadan izan
gosturic Jesusentzat baizen, eta maita
dezadan; ahal bada, zuen maite duzen
bezenbat.

OTHOITZA.

Zaudezco beha, o ene arima, Ainge-
ruen eta gizonen begiei ofri daiteken
ikhusgarriric charmagarrienari, eta ongi
contsidera zazu; hura da Maria, Zeru
Lurren Erregina, bere galtzarrean da-
kharkelaric Jesus adoragarria, gizonen
haurren artean ederrena. O Ama Do-
hatsua, ikhusteu dudanean ene Jaincoa
zure besoetan, ez dut gehiago amodio-
ric harentzat eta zuretzat baizen, eta ez
dut gehiago ez beldurric ez ikhararic

senditzen. Eta zer beldartzekoric geldi dakiaket oraino, mandiletan torochatzera utzi denetic hunat zure escu benedictuez Haur Dibino hori, eta, gisa hortan, jarri denaz geroz ene gaztigatzeco besoa ezin altcha dezaken molde suerte batean! O Maria, hainbertze aldiz mandilez esteatu duzu Jesus bere haurtasunean; Ah! esteca zazu orobat, haren amodiozco lo-kharriez, zure oinetan ikhusten duzun bekhatoros errumes eta urricalgarrri hau. Egizu bizi nadin, hil nadin Jesusi eta zuri bat egina ezin sepharatu zco moldean, ethor nadin artean Erresuma dohatsu hortara, zeintan ez bainaiz gehiago irrichcuan izanen zuetaric secular sepharatua izaitcotzat.

EXENPLUA.

Cleman, azken mendetaco pedericarietan aiphatuenetaric bat, deithua izan zen farlesian erori gizon gazte baten cofesatzera: laster egin zuen, bainan halaric ere causitu zuen eria ezagutza gabe. Bihurtu zen gibelarat haren chedetara erraiteco meza bat Birjina Sainduaren ohoretan. Mezaren akhabantzan, ethorri zitzaitcon abertitzera eriac cobratu zuela bere ezagutza. Heldu da lasterca, eta

aurkhitzen du eria urrikizco eta penitentziazco sendimenduric bizienetan sarthua, jeneroski ofritzen dioelari bere bizia Jaincoari bere hekhatuen barkhamendutan. Cofesatzen da disposizione urus hetan, eta errezibitzen ditu azken sacramenduac debozioneric handienarekin. Cofesora, guzia espantitua eta hunkitua conbertsione miragarri huntaz, etzakien zeri eratchic Jaincoac egin zuen misericordiazco miraculu handia gizon gazte haren fagoretan, zeinaren desordreac sobera baizic ez baitziren oroz ezagutuac. Gauza horren gainean cherkhatzen du eria, eta hunc ihardesten dio, nigarretan urtzen hari delaric: « Ah! « ene Aita, grazia hau ezin eratchic dezoket Jaincoaren misericordia bereziari baizic, zeina huukitzera utzi baita, dudaric gabe, zure othoitzez eta « ene Ama zenarenez. Heriotzeco orenean zelaric, ekhar arazi ninduen bere ohearen aintzina, eta ezagut arazi ondoan zituen beldurra, hura hilez geroz, izaitera nindohan irrichcuen gainean, erran zaundan. Ene contsolazione guzia da, ene haurra, uzten baitzaitut Birjina Sainduaren ararteco-

« tasunaren azpian ; hitz eman diezada-
« zut, ene maitea, eginen duzula gauza
« bat zeina galdegiten baitatzut enetzat
« dituzun amodiozco sendimenduen fro-
« gatzat bezala, guti gostaco zaitzuna
« da, hura da egun oroz arrosarioaren
« erraitea. Agindu nioen galdatzen zau-
« dana, dio eriac, eta egun guziez ar-
« tharekin erran izandut arrosarioa ;
« bainan aithortu behar dut, ene ahal-
« getan, hori dela choilki egin dudan
« erlichionezco acta bakharra, azken
« hamar urthe hautan. » Cofesorac et-
zuen dudaric chumeena izan Jaincoaren
Amaren arartecotasuna baliatu zela pe-
nitent haren gainerat jauts arazteco Jau-
naren misericordia espantagarria ; etzen
ilkhi gizon gazte haren khanbazatic,
harrec azken hatsa aurdiki arteraino,
zeina bihurtu baitzuen penitentziazco
sendimenduric ederrenetan. Memento
hartaric beretic hartu zuen Clemanec
berac chedea secular ez huts egiteco
egun guziez arrosarioaren erraitea ; hala
egin ere zuen, artharekin erran zuen bere
bizi guzian. Zer daiteke gajagoric, eta
zer behar da gehiago gutaric bakhot-
chari debozione beraren inspiratzecotzat.

PRATICA.

Ohoitzazu bethi Birjina Saindua, ap-
diets dietzatzun zure salbamenduaren
obratzeco behar dituzun grazia guziaz.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Hæc tota fiducia mea.

O Maria, zu baitan ezartzen dut
Jaincoaren ondotic, eue confientzia gu-
zia.

HAMASEI GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren Purificazionea.

- 1º Mariaren obedientzia;
- 2º Haren humilitatea;
- 3º Haren caritatea.

I PRONDUA. Jaincoaren Amac emaiten
derauca misterio huntan obedientziaren
exenpla miragarri bat, bertze emazte-
kiac bezala jartzen delarie Purificazione-
co legearen azpian, zeinari obeditzera
ez baitzen obligatua, Jaincoaren Ama
calitatean eta Birjinetan zen garbiena
bezala, etzuenaz geroz garbitze beharric.

Artha handirekin eta osoki begiratzen ditu legeco zeremonia guziaz, bertze bezen aintzina, batere dispentsatzerie ez berechtasunic iduriki gabe. Behar baino gehiago ere egiten du oraino: eta guc, urrun da behar ginuken baino gehiago egiten baitugu, ez dugu ardura egiten zorrozki egiterat obligatuac garena ere. Obeditzen dugunean, ez dugu gehienetan bortchaz baizic egiten, bihotzaren contra, uzcurtasunekin, ahal bezen berant, eta beraz merezimenduric gabe Jaincoaren aintzinean. Ikhas dezagun gure Ama Dibinoa ganic obeditzen, eta ahal bezenbatean, imita dezagun hoin maite duen berthutearen pratican.

II PHONDUA. Maria Dibinoa jartzen da nahasteca bertze ordinarioco emaztekiekin; gordetzen ditu Birjinaren eta Jaincoaren Amaren bere bi calitate miragarri hauc, zeinec merezitzen baitiote mundu guziaren erresetua, eta uzten da agertzera ez den bezalacoa; cosentitzen ere du gizonec ez dezaten hunen baitan ikhus munduaren begietan aphaltaz eta mesprecha araz dezaketenic baizen. Nahiz den Judeaco Erregen Alaba, eta Zeruco eta Lurreco Erregina, ez

du emaiten pobren ofrenda baizen, eta urruntzen ditu gizonen aintzinean berechteric egin dezoketen gauza guztiac. Eta gu, Lurreco harrac, ez gare agertu nahi egiazki garenac, bekhatoros eta errumesac, bainan nahi gare ez garenentzat agertu, erran nahi da justutzat eta Saindutzat. Lazdura dugu, eta uzcur eta lotsa gare humilia gaitzaketen gauza guzientzat, ez dugu lehiaric berechkunde ohora garrientzat baizen, nahi ginituzke bethi izan eta atchiki lehen plazac, eta bertze guzien gainetic nahi ginitazke agertu. Nola Maria humilac ezagut ditazake bere haurtzat urguiluz eta banitatez hoin betheac diren creatura herbaif eta errumesac?

III PHONDUA. Birjina Sainduac emaiten deraucu egun guretzat duen Amodio samurraren frogaric bereziena, berac ofritzean gu erosi behar gaituen bitima, eta heriotzerat largatzean bere Seme maitea. Zer sacrificioa Ama samur baten bihotzarentzat! Bainan ezagutzen ditu Jaincoaren chedeac; badaki mundua ez daitekela erositia izan Seme adoragarri haren odolaz baizen; uzten du beraz bere Aitareren borondatera, libratzen du, osoki eta

erreserburic gabe, haren justizia garratzaren colpedorphetara. Errefusa othe ditakegu beraz gure bihotzac Ama samur hari? Ez othe ginitazke esker gabezco munstro batzu, ez baginu ihardesten hoinbertze amodiori ez acholatasun hor-magarri batez baizen, eta ez baginu haren zerbitzuan neglientzia eta gogo hurritasun bat baizic agertzen?

OTHOITZA.

Ala Contsolazione baitut, o Birjina Saindu, Maria guziz on eta guziz dohat-sua, aditzeaz aiphatzen zure zerbitzari lejalec, eta zure haur maiteec emaiten dautzuten izen gozo hau, *Mater Amabilis*, Ama guziz maitagarria; bai ene Andre soberanoa, guzia maitagarria zare. Zure ontasunac eta edertasunac harra-patu dute Erregen Erregearen bihotza, Jaincoaren beraren bihotza, zeinac bere conplesentzia emaiten baitu zure baithan. Hoin maitatua zarenaz geroz Jaincoaz, nola nagoke zu maitatu gabe, ni zeina bethe bainauzu gaindica zure dohainez? Maite zaitut beraz, o Maria guziz maitagarria! Edo bederen zure maitatzea desiratzen dut, eta izaitea zu gehienic eta khartsukienic maite zaituz-

ten zerbitzarietaric bat. Ene erregret guzia da ez zure maitatzea behar nuken eta merezi zinuken bezenbat; bainan huna ene bihotza zeina ofritzen baitautzut, huntaz nahi duzuna egin dezazun amore gatic, eta ezar dezazuntzat sutan zure amodioaren khar sacratuaz.

EXENPLUA.

Mariarentzateco Amodioa.

Errana da Alfonse Rodrigues dohatsuaz, arrats batez Mariaren potret baten aintzinean abuspez emana zagolaric, oihuz abiatu zela bihotzcarazco samurtasun baten boltaterrean, *ene Ama guziz maitagarria, badakit maite nauzula; bainan ez nauzu maite nic zu maite zaitudan bezenbat.* Orduan Birjina Sainduac, ofentsatua izan balitz bezala: *Zeren erraitera ausartatzen haiz, Alfonse, ihardetsi zioen. Oh! zombatez ene Amodioa ez da hireaz gehiagocoa! Gutiago duc Zerua-
ren eta Lurraren artean distantzia.*

Ez, dio Ligori dohatsuac, secular Ama miragarri hura ez da amodioan bentzutzeraz uzten. Maita dezagun nahi dugun bezenbat, bethi ichituco gaitu samurtasunean.

Maita dezagun Estanislás kostkac bezala, zeina ez baitzitzen mintza bere Mariaren alderaco amodioaz, non etzuen iragan arazten aditzale guzietarat amodio beraren kharra; zeinac asmatzen baitzuten izen eta hitzcuntza berriac haren ohoratzecotzat; zeinac galdegiten baitzioen bere benediczionea bere aczione baxhotcharen hastean; zeinac othoizten baitzuen bekhoz bekho mintzaten izan balaco bezala; zeina bere baitharic atheratzen baitzen bozcarioz, entzuten zue-nean cantatzen *Salve Regina*; zeinac, galdegiten ziotenean eja maite zuen Maria, ihardesten baitzuen: *Ene Ama da, zer dioket gehiago? Ziozcalaric hitz horiec, halaco bihotz mugidurekin, non iduri baitzuen Aingeru bat Zerotic jautsia, Mariaren alderaco amodioaren pedericatzecotzat. Maita dezagun herman dohat-suac bezenbat, zeinac, bere Mariaren alderaco samurtasuna gatic, izan baitzuen Josepe deithuratzat; san Filipe Nericoac bezenbat, zeinac deitzen baitzuen Maria, bere bihotzeco golardo gozoa; san Bernartec bezenbat, zeinac baitzioen Birjina Saindua zela bihotzen harrapatzailea, «*raptrik cordium*»; edo San Luis Gon-*

zagocoac bezenbat, zeinari bihotza altchatzen baitzioen, eta mathelac gorri arazten Mariaren izena aiphatze choilac. Maita dezagun Diego Martinez, jesuistac bezenbat, zeinac baitzioen : nahi nituzke izan Aingeru eta Saindu guzien bihotzac, Mariaren maitatzeco, hejec oroc maite duten bezenbat. Nahi nituzke ene escuco izan gizon guzien biziac, guziac Mariaren zerbitzucoc contsecratzeczotzat. Dugun maita Santa Birchitaren semeac bezenbat, zeinac costuma baitzuen erraitecocodeusec munduan etziotela bozcario gehiagoc emaiten nola jakiteac Maria zombat maitatua zen Jaincoaz ; eta ez dela tormentaric, zeinaren jasaitecoco irrichcuan ez bailitake jar, Zerucoc Erregina hura bere handitasunaren gradoric chumeena galtzetic gibelatzeczotzat.

Zer erranen dut oraino ! Gogorat erakhar dezagun amodioac asma dezaken guzia Maria maitagarriari bere samurtasun guzia marcatzeczotzat. Desira bagineza ere gure biziaren emaita gure amodioaren lekhucotasuntzat, gutiziatzen zuen bezala Alfonse Rodrigesec ; ezartzen baginu ere gure bulharren gainean marcaturic Mariaren izen maita-

garria, Santa Radegonderen exenplura ; azkenaz goiti, egiten baginitu ere amodioac asma araz ditzazken guziac, secular ezin helduco gare Mariaren maitatzera , berac maite gaituen bezenbat ; eta bethi erran beharco diogu Damianeco Piarres Sainduarekin : *Badakit Amodioan ezin bentzutua zarela. (Ligori. Salve.)*

PRATICA.

Egiozu goiz guziet zure bihotzaren ofrenda Maria maitagarriari.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Mater amabilis , ora pro nobis.

O Ametan den maitagarriena , othoitz egizu guretzat.

HAMAZAZPI GARREN EGUNA.

Familia Sainduaren bizi gordea Nazareten.

- 1º Bizi da pobrezian ;
- 2º Badarama bizi ilhun eta gorde bat ;
- 3º Bizi da caritatearen pratiketan.

I PHONDUA. Considera dezagun familia Saindua, Jesus, Maria eta Josepe. Familia Saindu harrec etzuen Jainco choila baizic onthasuntzat ; bizi ilhun bat zara-

man, sofricarioen erdian, behar bada mesprezioetan, eta bederen segur dena pobrezian. Bainan ala ongi aberatsa baitzen grazian eta berthutean! Egundeino ez da izan familia sainduagoric, errespetagarriagoric, dohatsuagoric, ez eta ere Aingeruen eta gizonen homajac izaiteco gajagoric. Egiazco zori ona egiten duen gauza, ez da mundu huntaco onthasunen eta ohoreen izaitea; bainan bai izaitea Jaincoaren grazia, berthutea eta Saindutasuna. Oh! ala aberats baita, ala dohatsu baita, Jaincoa maite denean, hartaz choilki gozatzen denean!

II PHONDUA. Jesusec egin zitzazken miraculuac, pederica zezaken, mirets araz zezaken bere burua mundu guziaz; bainan gure instruitzecotzat, ihes egiten diote ohorei eta bere burua ager araz dezoketen gauza guziei. Hautatzen du eramaitea bizi bat gordea, ilhuna eta gizon ezagutua izan gabecoa. Zer hari othe da erretiramendu hartan? Obeditzen du humiltasunekin Mariari eta Josepi; hejekin lanean hari da, laguntzen eta soleitzen ditu bere penetan, bihurtzen diozcate Semeric hoberenaren eginbideac. Oh! nolacoac etziren behar izan Maria

humilaren sendimenduac, ikhustean Zeru Lurren jabe soberanoa haren borondatera eroria! Mirets dezagun Birjina Saindua- rekin Jainco gizonaren obedientzia mira- eulazcoa eta ezin contzebitua; eta cont- sideratu ondoan nor den obeditzen du- ena, eta nori obeditzen dioen, hortie on- gi gogoari emanen diozcagu bi gauza: lehena, obeditu behar diotegula, Jain- coac bere plazan gure gidatzeco eman dauzkigun Buruzagiei; bigarrena, oho- ratu behar dugula errespeturic handiena- rekin Maria Saindua, zeinari salbatzai- leac nahi izan baitu egon sumetitua.

III PHONDUA. Mirets ditzagun familia Sainduan Erreginatzen duten bakea, ba- tasuna eta Deboziona; egiazki Zeruan berean aurkhitzen denaren iduria da. Errechago da imachinatzea erraitea bai- no zer miragarriric, misteriosic eta ezin erranezcoric iragan zen Nazareten, Je- sus, Maria eta Josepen etchean, Salbat- zaile adoragarria erretiramenduan bizi izan zen hogoi eta hamar urthe hetan. Zer caritatea, zer elgarrentzateco amult- sutasuna, ala Ametan den Sainduenaren, samurrenaren eta lehiatuenaren pharte- tic, nola Semetan den maitagarrienaren

eta errespeta garrienaren aldetic! Egin ahal guzia egin dezagun berthute haujec erregina dezaten gu aurkhitzen garen lekhu guzietan. Artha izan dezagun, gure eztitasunaren eta amultsutasunaren bidez, bethi bakean izaiteco gure lagun proximoarekin. Izurrite batetarie bezala begira gaiten elgarrentzateco urruntasunetic, jelosietarie, baidorretarie, hizcuntza gordinetarie, eta hitz batez erraiteco, caritatea colpa dezaketen gauza guzietarie.

OTHOITZA.

Salbatzaile adoragarriaren Ama guziz Saindua, zeinac eman baitiozu zure Semeari Jesusen izena, izen gora, aingerruac Zerutic ekharria, zer errespaturekin eta zer gosturekin etzinuen zeronec aiphatzen izen maitagarri hori! Ah! nola ikhusten zinuen eta endelgatzen izen horren misterio gordea eta horrec zer ratzen duen hedadura guzia! Ah! emadazut, Birjina Saindua, izen Saindu horrec zeroneri inspiratzen zaintzun pentsamendu debot, afeczione samur eta amodiozco golardo horietarie zerbeit. Eta zu, o ene Jesus ona, arrekeritzen zaitut zure Ama Debinonrentzat duzun amo-

dioaz, erakhats diezadazut aiphatzen, zeronec egiten zinuen bezala, Mariaren izen gozoa; bi izen sacratu horiec, Jesusenac eta Mariarenac, orhoit araz nezatentzat zonbat gosta zaitzuen ene arima eta zonbat maitatu nauzuen, eta horiec, maiz aiphatuz ene bizian fede eta amodio khartsu batekin, izan ditene indarra, ene contsolazionea, ene esperantza ene heriotzeco orenean, egin dezatentzat ene bozcarioa eta zori ona mendeen mendetan.

EXENPLUA.

Congregazioneac.

Erraitera nohan arima Jaincotiarren bilkhua saindu edo sozietate debotac, Jaincoari gehienic loria erakharri behar dioten bertze hainitzec bezala, etzuen deus erremarcagarriric eta eclatic zuenic izan bere hastapenean. Bere ethorkia eta abiadura zor dio fraide gazte bati, zeina, ocupatua zelaric Errumaco Colegioan gramaticaco printzipioen erakhas- ten, oraino hobeki aplicatzen baitzen, jesuisten izpirituaren arabera, bere dizipuluen izpirituac baino bihotzac formatzen, eta erakhasten zioztelaric jakitate

humanoac, emaiten baitzioten denbora berean salbamenduco jakitatea. Chede hortan, hautatu zituen bere iduriz gazte erregelatuena eta berthuteraeo jaundurari gehiena erakhasten zutena. Biltzen zituen arrats gehienez, hertzeac zoin beren etchetarat bihurtzen zirenean, eta egin arazten zioten zenbeit othoitz iracurtze izpiritual batekin, zeinaren ondotic eginen baitzioten zenbeit errefleczone on, gazteriarik kohazconac. Besta egunetan, biltzen ziren goizetan exercizio particular batzuentzat, eta arratsaldetan elgarrekin erraiten zizuten besperac eta arrosarioa. Laster bere buruac erremarcarazi zizuten bere bizi moldearen ontasunaz, eta horrec erakharri zituen hejen lagunetarik hainitzac hejekin bat egiterat. Hirur hogoi eta hamaretara alchatu zenean hejen nonbrea, egin izan zuten erregelamendu bat, ordre on eta batasun baten establitzecotzat sacramenduen hantatzearen, eta congreganist baxhotchac egun oroz egiteco zituen othoitz eta bertze exercizioen gainean. Erregelamendu hura aprobatua izan zen, zenbeit urtheen buruan, Gregorio hamahirur garren, Aita Saindu jakitate handitacoaz.

Ezin erran daitekena da congregazione horien bidez obratu den on guzia. Debozionezco bilkhua horietan abiatu ziusten San Frantses Salesecoac, Piarres Furrie dohatsuac, San Luis Gonzagocoac eta San Estanilac gero ondoan alchatu zireu Saindutasun gora hartaco zimentuac, zeintara heldu izan baitire Maria-ren arartecotasunaren azpian. Congregazione horietan hartzen du gazteriac, zioen Ligori Sainduac, debozionearen gostua eta erlichionearentzat estecamentuac, zeinec begiratzen baitute munduco lanjeretarie, edo berthuterat bihur arazten baitute, baldin izan badute zori gaitza ongitic baztertzeozat eta urruntzeozat. Han hazcartzen dire berthutean lagunen exenplu onez, eta eramaiten dute garhaizia errespetu humanoaren eta munduco bertze escandalen gainean. Hortaracotz ere gomentatzen dute Sainduric handienec congregazioneen hedatzea adin guzietaco presunetarat; bainan bereziki gazteriaren erakhar araztera hetan sartzerat. Hortic Aita Sainduac congregazioneen gainerat hedata dituzten pribilio handiac, hetaz egin dituzten laudario bereziac, congre-

ganistei acordatu diozcaten induljentzia nonbre gabecoac. Hortic oraino Erretor khartsuen artha eta lehia bere Elize-tan congregazionen altchatzeco, hejen arthatzeco, congreganisten nonbrea egu-netic egunera emenda arazteco. Asozia-zione saindu horiei behar diozcate es-kerrac hainitz herrietaco Erretorec, bal-din aurkhitzen baituzte contsolazioneric handienac bere populuen erdian; bil-khua Saindu horien bidez bereziki, dute emana bere herrietan berthuteraco khar-ra, debozioneraco gostua, sacramenduen ardura hantatzeco lehia laudagarria. Ex-perientziac erakhusterat eman diote, congregazioneac ongi prezatzen eta ar-thatzen dituzten Eliza gizonei, haujen bidez adin guzietaco presunetan hainit-zac berthute gora batera altchatzen di-rela, gazteria arrimatzen dela berthute-raco bidera, utziric, bethicotz, adin lan-jeros hura liluratzen eta enganatzen du-ten banitate, plazer faltsu, libertizione profano eta galgarriac. Ororen gainetic congreganisten heriotzeco orenean agert-zen dire congregazione baten fruitu ba-liosac, Erretor batentzat guziz fruitu contsolagrrriac. Hortaracotz ere ikhusten

dire bere salbamenduari intres egiten dioten arimac lehiatzen direla hetan sartzera; eta presuna herronca gorene-coetarie badire ohoratuac aurkhitzen direnac Sozietate Saindu horietan izaiteaz, eta horietaco pratikei jarrikitzen direnac artha eta fidelitate handienarekin. Haujen guzien ondotic, ez othe da estonatzeco ikhustez Girichtino batzu nola altchatzen diren congregazioneen contra, ezagutu gabetarie ere zer diren, eta nola egin ahalac egiten dituzten hejen laidostatze-cotzat? Bainan ezagutua da Jaincoari agradatzen zaizcon obren zorthea dela contrariatua izaitea; eta ez da estonatu behar baldin salbamenduco etsajac bere ahalac egiten baditu gibelatzeco eta ezestatzeco hoin ongi handiac dakharsketen eta egiten dituzen bilkhua Sainduac. (*Mar. ilh. Turn.*)

PRATICA.

Gomenda zozu zure burua egun guzietz goizetan eta arratsetan, Familia Sainduari.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Sumat per te preces qui pro nobis natus tulit esse tuus.

Egizu, o Ama ona, zutaric, gure

salbatzeco, sortu nahi izan denac, entzun ditzan, zure amoreagatic, gure othoitz humilac.

HEMEZORTZI GARREN EGUNA.

Mariaren bozcarioac Jesusen presentzian.

- 1º Seme Dibinoari beha dagonean;
- 2º Harekin solhastatzen denean;
- 3º Haren ondotic dabilanean, Ebanjelioa harrec pedericatzean.

I PHONDUA. Contsidera dezagun Maria, Ametan den samurrena eta bihotzic guriena duena, bere besoetan dakharkela Semetan den Sainduena, maitagarriena, gizonen haurren artean ederrena. Zer sendimendu gozoetan Ama haren bihotzietzen behar izan hondatua! Haur adorgarri hartan ikhusten zituen bilduac graziazco eta Saindutasunezco tresor guziaz, Jaincoaren perfezcionec oro. Aintzinetic ikhusten zuen Seme Dibino hura egun batez izanen zela Munduaren Salbatzailea eta gizonen Errostalea, oro errecontziliatuco zituela Jaincoarekin, idetikozuela Zerua, Munduaren hastapenetic bekhatuaz hertsia zagona, eta Dohat-

suz betheco zuela ; izanen zela Lurreco Nazione guzientzat adorazionezco opche-
ta. Zer loria Ama dohatsu harentzat,
Mundura emana izaitea halaco Seme bat,
eta egun oroz bere begien aintzinean
izaitea, bere escus zerbitzatzea, marcat-
zea bere amodioa; eta ordainez, haren ga-
nic errezibitzea hainbertze errespetuzco
eta samurtasunezco seinale eta lekhuco-
tasun ! Salbatzaile gaziz maitagarri hur-
mintzatzen eta comunicatzen zaucu, ora-
zionatean garenean, guri ere orobat, eta
emaiten zaucu comunione Sainduan ;
ikhas dezagun haren Ama Dibinoa ganic,
nola behar garen harekin mintzatu eta
zer solhas behar dugun erabili, zer de-
bozionateekin othoiztu behar dugun, zer
samurtasunekin behar dugun maitatu.

II PHONDUA. Maria dohatsuac ezin er-
ran bezenbat bozcario bazuen bere Seme
Dibinoarekin mintzatzeaz, eta ikhasteaz
haren ganic obratzera zohatu misterio
handiac Elizaren establitzean. Zonbat
argi, zonbat grazia, zonbat consolazione
etzituen aurkhitzen solhas saindu hetan !
Biltzen zituen errespeturic handienarekin
haren hitz guziac, goardia zagon haren
azione guziei eta continoki ororen me-

ditatzen hari zen. Ala ocupazione hori ongi baitzohacon Jainco baten Amari! Horrec berac egin izan du bethi danic Saindu guzien axegina Lurraren gainean. Hejen exenplura, behar ditugu guc ere mediatu gure Jaun soberanoaren bizico misterioac, miretsi eman daizcun exenplu ederrac, bethi atchiki begiac Model Dibino haren gainean, haren berthuteen imitatzecotzat. Galdegin dezogun Birjina Sainduari othoitzeco izpiritua, fedea, kharra, Jesusen alderaco amodioa, gure perfeczionearentzateco zeloa.

III PHONDUA. Mariae senditzen zuen ezin erranezco bozcario bat ikhustez haren Semeac obratzen zituen miraculuac, hari desertuan barna jarrikitzen zitzaion populuzco ostea, haren ganic Zeruticaco doctrinaren entzutecotzat; osasunaren cobratzeco haren ganat heldu ziren eriac, alde guzietaric emaiten ziozcaten laudorioac; Jaincoaren Seme bezala, hari bihurtzen zitzaizcon homajac eta adorazio-neac: horiec oroc Ama samur haren bihotza loriatzen zuten. Jesusen Dizipuluec eta populuec, oro charmatuac haren ahotic atheratzen ziren biziaren hitzez, sendatu zituen eriec, biztu zituen hilec, guziec feli-

zitatzen zuten haren Ama Dibinoa , ezagutzerat emaiten ziozcaten bere errespetua eta ezagutza , deitzen zuten ongi dohatsua , mila benediczione emaiten ziozcaten. Junta ditzagan gure bozac eta gure bihotzac , Salbatzaile adoragarriaren eta haren Ama miragarriaren ohoretan, alde guzietaric, alchatzen diren laudorioekin.

OTHOITZA.

Ene arima, bozcaria hadi ikhusiz zer erresurts puchanta eman daujan Salbatzaileac , bere Amaren arartecotasunean. O Zeruco Erregina ! Zonbat irrichcutaric athera nauzun ! Zonbat argi eta grazia ardietsi dautazudan Jaincoa ganic ! Non dic eta nola merezitu duket zure aldetic hoinbertze khar eta lehia ene arimaren salbamenducotz ? Ah ! Zure bihotzaren ontasuna mintzatu da ene fagoretan. Eman banitza ere , ordainez , ene odola eta ene bizia hoinbertze ongi eginentzat , guti laiteke , eta ezin marca ahal neza-kezu , behar laiteken bekala , ene ezagutza ; bainan ezin bertzeric egin dezaket zuretzat, baizen ere zuri ofritzea ene laudorioen eta amodioaren homajac. Ene Ama guziz Saindua , onhets zaitzu dire-

nac, eta agrada beizkitzu. Maria urricatmendutsua, escuetan dituzunaz geroz misericordia Dibinoaren gakhoac, etzaitzela bara hartzetic tresor ezin agortuzco hartaric, eta heda zaitzu hartaricaco aberastasunac bekhatoros errumes hunen gainerat, hunen behar handiei dohacoten jenerostasunarekin.

EXENPLUA.

Debruaren aithorra.

San Dominica hari zelaric misione baten emaiten Carcasoneco Hirian, Albi choen heresiaren contra. Othoiztu zuten Debruz poseitu baten ganic Etsai cruel hura casa zezan : egin zituen Elizac hortaracotz manatzen dituen othoitzac, eta occasione bartan, atheratu zen, Debruaren beraren aithormenetic, poseituaren ahoz, egia bat secular ezin sobera fincatura Girichtino guzien izpirituan, hejen baithan sustatzeco eta borthitzeco Birjina Sainduaren alderaco confientzia. Ilhumbetaco Izpiritu gaichtoac, Bortchatua gizon Apostolico haren manuaz eta Saindutasunaz, hala nola Debruen casatzeco othoitzen indarraz, agoatu zuen, borthizki eta luzeki contra egin ondoan,

ikhusgarri lazteco hartara alde guzietaric
curiostasunez bildu zen populu nonbre
gabecoaren aintzinean: *Maria, Jaincoa-
ren Ama, zela haren etsai capitala; bere
chede guzietan trabatzen zuela, eta
hartzen zituen neurri guziac porroscatzen
eta ezestatzen ziozcala; hura izan ez ba-
litz, mila aldiz nahasico zuela Eliza he-
resiaz eta chismaz; oren guziez khent-
zen eta joaiter ziozcala, bere ustez ongi
seguratuac zauzcan arimac; hainitzec,
bere heriotzeco orenean, ardiesten zu-
tela bere salbamendua haren ararteco-
tasunaz; eta ororen buruan, egundeino
nihor etzela galdu, haren alderaco de-
bozionatean lejalki iraun zuenic. Huel
hortchatu zuen egiaren indarrac gezur-
raren Aita bera mintzatzera gure instruit-
zeczotzat eta gure contsolatzeczotzat.*

(Egiazco deb.)

PRÁTICA.

Zure irrichcu guzietan zohaz confient-
ziarekin misericordiazco Amaren besoe-
tarat.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Mala nostra pelle, bona cuncta posce.

O Maria! urrun zaitzu gu ganic gaitz
guziac, eta on guziac ardiets diezagutzu.

HEMERETZI GARREN EGUNA.

*Hiru sujet afliczionezcoac Jesusen
Amarentzat.*

- 1º Bere Semearen pasionea aintzinetic ikhustea ;
- 2º Haren Ebanjelioco hiziaren penac eta lanac ;
- 3º Haren sofricarioac alferretan izaitea bekhatoros gehientzat.

I PHONDUA. Afliczionezco lehen sujeta Ama Dibino harentzat, zen profeziazco izpiritua zeinaz fagoratua baitzen. Consideratzen zuenean bere Seme adoragarria, aintzinetic erakhartzen zuen bere izpirituan, egun batez, nola izanen zen arrantzez khorotua, azote colpez larrutua, itzez zilhatua eta guzia odoletan ezarria. Haurtcho zenean, mandilez inguratzen eta torochatzen zuenean, ohacoan etzaten zuenean, berehala presentatzen zaingon izpiritura laidozco bestimenda hec zeintaz behar baitzen izan estalia, gurutzea zeinari estecatua izan behar baitzen. Aurkhitzen zenean legeco Sacrifizioetan, ikhusten zuen aintzinetic bere Semea imolatua, eta bere odola ichurt-

zen zuela azken chortarainocoan gizonen salbatzecotzat. Zer ikhusgarri erdiratze-coa Ama baten bihotzarentzat! Bainan guzietarat erortzen zen, zeren baitzakien horiec guziac nesesario zirela gure Ifernutic erosteco. O Maria Dibinoa! Zonbat maitatu gaituzun! Zonbat sacrificio egin dituzun gure arimen salbamentuarentzat! Ah! ez gaitzatzula utz galtzera, egizu ez ditzagun alferretarat bihur araz, zure Semeac eta zuc, gure salbatzeco, egin dituzuen guziac.

II PHONDUA. Afliczionezco bigarren sujeta Mariarentzat zen ikhustea haren Seme ongi maiteac jasaiten zituen nekheac eta sofricarioac, haren pobrezia handia, eta gauza guzietazco escasia; egiten ziozcaten mespresioac, haren contra erraiten ziuzten caloniac; bere etsajen phartetic izaiteco irrichcutan zen tratamendu gaichtoac. Horiec oroc sendi arazten ziozcaten doloreric saminenac; bainan nola baitzakien Zeruticaco manna zela, eta haren Semea erresinazioneric perfetenarekin eroria zagola guzietarat, bera ere orobat erortzen zen Jaincoaren borondatera, eta guziac pairatzen zituen pazientzia miragarri batekin. Dugun

imita gure Ama Sainduaren jenerostasuna, eta ikhas dezagun sofritzen, erresinazione berarekin, Jaincoac igorri nahico daizcun froga guziac.

III PHONDUA. Mariaren dolore handia heldu zen Juduen buru gogortasunetic Mesiaz baithan ez sinhesteco, harrec presentatzen ziozcaten argiac ez errezi-bitzeco, haren graziac mespretchatzeco. Afliczioneric handienez zen ikhustiaz hainbertze eskergabetasun, hainbertze gaichtakeria, hainbertze crima haren Semearen contra egun oroz egiten zirenac. Haren bihotza zaurtzen zen pentsatzean hainbertze lan eta sofricario alferretan izanen zirela bekhatosen nonbreric handienarentzat. Aintzinetic ikhusten zuen dolore khiretsekin zer zori gaitzetarat erortzerat zohan Juduen Nazione guzia, eta hori bere buru gogortasunez. Bazakien haren Semeac, populu gogortu hura punitzecotzat, arras abandonatuco zuela, khenduco zioela bere Erlichionea; Juduac Jaincoaz madaricatuac izanen zirela, eta bertze Nazione obedientagoec eta lejalagoec hatzamanen ziotela bere plaza, eta hejen orde, Jaincoaren populu maite eta berezi bilhacatuco zirela. He-

las! Erreberritzen dugu, gisa batez, Ama on haren doloreen sujeta; zaurtzen dugu Birjina Dibino haren bihotza, galtzerat uzten ditugunean haren Semeari hanbat gusta zaizcon graziac. Izan gaiten beldur gure gainerat eror araz ditzagun, gure eskergabetasunez eta deslejaltasunez, Jueduen gaztigu berac, eta othoitz dezagun Maria guziz Saindua, begira gaitzan hain zori gaitz handitic.

OTHOITZA.

O creaturetan den garbiena eta sainduena! Zer darabilazu gogoan, ikhusten duzunean zure oinetan esker gabe bat; aspaldion harmatua bere Creatzailearen eta bere Salbatzailearen contra? Bai, ene Ama Dibinoa, huna zure aintzinean bekhatoros handi bat, zeinac bere crimez eman baitio zure Semeari herio colpea. Nola nezakezu jasan zure presentzian? Ah! ikharatzen naiz ene nonbre gabeco inikitateen bichtan, eta aithortzen dut ez dudala merezi barkhamenduric izaittea; bainan badakit zu zarela bekhatorosic handienen erresurtsa eta esperantza, eta lakhet duzula hejen gaincan zure misericordiaren agertzea. Heldu naiz beraz, o Maria, o ene Juje soberanoa-

ren Ama! Zuri ene arimaren salbamendua errecomendatzera. Hainbertze bekhatu egin ondoan, agertu behareo naiz Jainco handi haren tribunal ikharagarriaren aintzinean. Norc apazegatu ahal izanen du haren justizia garratza, harmatua ene contra, zuc ez egitecotz? Abandonatzen banauzu, bethicotz galdua naiz; bainan baldin nitaz intresatzen bazare, ah! Badakit, ene salbamendua segurean da. Mintza zaite beraz, o Jesusen Ama! mintza zaite ene fagoretan, zeren bethi entzuna baitzare zure Semeaz, eta ez baitu deus errefusatzecoric zure othoitzei.

EXEMPLUA.

Esperantza bihurtua.

Birjina Sainduaren imachina baten aintzinean, eta haren arartecotasun puchantaren bidez ardietsi zuen San Frantzes Salesecoac barneco pena, munduan izan daiteken handienetic libratua izaita. Istudioen akhabatzera zohalaric, Parisan, jesuisten colechioan, tormentatua izan zen pentsamendu desesperagarri huntaz, *damnatua zela eta bethicotz Jaincoaren bichtatic casatua izanen zela.* Il-

hunberic lodienac hedatu ziren haren ari-
 maren gainerat; bihotzaz jabetu zitzajon
 trublea, ordu artean gozaten zen bake
 gozoac, betbetan, lekhu egin zioen
 khechaguna jasan gaitz bati. Etzioten ge-
 hiago aurkhitzen gosturic Jaincozco gau-
 zei, eta sendimenduric gabe zela iduri
 zuen, iracur ala adi zitzazken gauzaric
 hunkigarrienetan beretan. Salbamenduco
 etsaja etzitzajon baratzen ideara emaitetic
 Jaincoarentzat egiten zituenac oro alfer-
 retan zirela, eta haren zori gaitz eterna-
 laren arrasta, ezin gehiago gibela zaite-
 ken bezala, emana zela. San Frantses
 gaztea hartua izan zen lazdua batez,
 zeina damnazionearen segurantzaz choilac
 sor araz baitzezaken Jaincoaren beldur
 zen arima batean, zeinac ordu artean
 bethi baitzaucan esperantzaz ezi-
 egun batez hartaz gozatzeco. Nola bait-
 zuen Jaincoarentzat amodio bat samur-
 tasunez bethea, chagrinac eta doloreac
 hila bezala ezartzen zuten, pentsatzen
 zuen aldi guzietz dohatua zela eternitate
 guzian haren higuintzera eta hartaz blas-
 fematzera. Ifernuaren beldurrac, izpiri-
 tuco khechagunac eta bihotzeco nahas-
 duree aurdiki zuten azkenecotz malen-

conia handi baterat, zeintaric deus ez baitzen gai haren athera arazteco. Iragaiten zituen egun osoac hatsbeherapene-
tan, eta gabaz, bere ohea hustitzen eta arregatzen zuen bere nigarrez. Haren gorphutzac, nahiz berenaz hazcarra zen, ezin iraun zuen hain froga dorpheareu contra; guzia iraungia, itchurac joan zainzeon, horitu zitzajon larrua, bet betan galdu zituen jana, erana eta loa; haren beithartean ageri ziren tristezia ilhun baten marca guziac, zeinarentzat beldurtzeco arrazoinac baitziren; eta membro guziataric senditzen zituen dolore minec casic desesperatzerat emaiten zuten haren biziaz. Ez duenac frogatu zer dezaken, Jaincoa maite duen bihotz batean, haren ganic bethicotz sepharata izaiteco pentsamendu izigarri bezen desolagarriac, sobraniotzat eta khondera batentzat hartuco du istorio hau; bizkitartean ez da dens egiagoric; eta San Frantsesen bizia izkiribatu duten hainbertze Autorretaric, ez da bat khondatzen ez duenic, nic orai hemen egiten dudan bezala, tentazione lotsagarri horren efectuac zoin izigarriac izan ziren. Haren escolaco Nausiac etzakien zer pent-

sa, ikhusiz haren estatu urricagarria. Alferretan zabilan bilha zer zaiteken hunen causa, eta berari ere orobat zuen deus ez galdegitea; bere estatuaz zuen ahalgeac gibelatzen zuen Frantses hartaz nihori mintzazetic, zeren ez baitzitzajon deus izigarriagoric nola aithortzea doha-cabe bat zela. Hortaracotz ere egon zen ilhabethe oso bat beino gehiago situazioneric cruelenari largatua. Bainan Jaincoac, zeinac ez baitzioen utzi tentazione hori, baizic ere haren frogatze-co, bere iudar propien gainean fidantzia guti hartzeco eta humilitatean haren borthizteco, berac athera zuen hortaric gizonen laguntzaric gabe. Inspiratu zioen chedea joaitecotzat Greseco Jaun Doni Esteberen Elizara, zeintan egina baitzuen castitatearen begiratzeco botua. Begien aintzina agertu zitzajon lehen gauza izan zen Birjina Sainduaren erretaula bat. Haren ikhustiaz biztu zangon, bethi danic haren arartecotasunean zuen confientzia handia. Ezarri zen ahuspez lurrari contra, eta bere burua indigno ezagaturic misericordien Aitari berari graziaric escatzeco, othoiztu zuen Ama on hura ardiesteaz

Jaincoaren ontasunetic, baldin aski zori gaitzezcoa bazen condenatua izaiteco, hil ondoan, eternitate guzian haren higuintzera, maita ahal zezan bederen bere bihotz guziaz, hemen Lurrean, bere bizian. Galde horren ondotic erran zuen othoitz hau : *memorare* etc., nigarretan urtzen zelaric. Othoitz hori, dohacabe baten sendimenduetaric ongi bertzelacoa, entzuna izan zen istant berean. San Frantsesec agoatu du hori akhabatu zuen bezen laster, iduritu zitzajola bihotzaren gainetic khentzen ziotela carga bat lehertua zaucana. Senditu zuen arimara jausten confientzia gozo bat, eta esperantzaren gainean hain ongi borthiztu zen, non bihurtua izan zangon barneco bakea ez baitzitzajon nihoiz ere nahasi gero ondoan, eta ordutic gozatu baitzen Birjina Sainduac ardietsi zioen zori oneco descantsuaz. *(San Fran. Bizi.)*

PRATICA.

Eman zaite ahuspez Mariaren potret baten aintzinean, eta errazu confientzia handi batekin othoitz hau : *Memorare. Orhoitz zaite, etc. (43 plaman.)*

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Auxilium Christianorum, consolatrix
afflictorum, ora pro nobis.*

O zu zeina baitzare Girichtinoen socor-
ria eta afliituen consolazionea, othoitz
egizu guretzat.

HOGOI GAREN EGUNA (1).

Birjina Sainduaren compasionea.

- 1º Mariaren doloreac gurutzearen oinetan ;
- 2º Dolore hejen causac ;
- 3º Nola pairatzen dituen.

I PHONDUA. Dugun contsidera nolacoa
izan ahal zen Ama Dibinoaren dolorea,
bere Seme maiteac azken adioa egin izan
zioenean ; ikhusi zuenean laido handire-
kin herrestatua Jerusalemeco carriketan,
azote colpez zaurthua, burlatua, behar-
riondocoz joa, kherrustatua, arrantzez
khorokatua, itzatua gurutzearen gainean,
eta bi ohoinen erdian hiltzen hari zela.
Orduan izan zen, Simeon zahar Saindua-
ren prediczionearen arabera, Ama samur
haren bihotza dolorezco ezpatez pasatua.

(1) Ikhus zazu gorago egina den opserbazionea,
hamar garren egunean. (148 garren plaman.)

Martir guzietz sofritu dituzten tormentac, oro elgarrekin, ez dire hurbiltzen Ametan den samurrenac memento izigarri hartan jasan zituen dolorei eta tormentei. Helas! gure bekhatuac direla causa izan ditu pairatzeco Ama Saindu harrec dolore ezin gehiagoco horietz guziac, hejec hil arazi dutenaz geroz haren Seme maitea. Higuin ditzagun beraz gure bihotz guziaz; goazin gurutzearen oinetara, gure nigarrac Mariarenekin nahastecazerat; arrekeri dezagun ardiesteaz gure bekhatu guzientzateco contrizione bizi bat, eta hetarat ez gehiago lerratzeco grazia.

II PHONDUA. Contsidera dezagun eja zertaco nahi izan duen Jaincoac Jesusen Amac sofri zitzan hain dolore handiac. Huna zertacotzat: izan zezan amorea gatic iduri gehiago bere Semearekin, zeina baitzen gizonetan zen affliituena; hari merezi arazteco khoro berriac. Ez dezagun ahantz gurutzeac direla Zeruco bidea eta Hautetsien phartaja; eta Creaturetan den garbiena eta sainduena izan denaz geroz hondatua khirestasunezco itsaso batean, gu bezalaco bekhatoreac ansartatucoco othe dire errencuratzera Zerucac affli-

tuco dituen penez? Gure sofricarioetan, dugun pentsa nolacoac izan ahal ziren Mariaren penac gurutzearen oinetan, eta laster contsolatuac izanen gare. Junta ditzagun gure penac eta nahi gabeac harenekin, hortic merezimenduzcoa-goac bihurtuco ditugu.

III PHONDUA. Ditzagun ongi contsidera Birjina Sainduac gurutzearen oinetan praticatzen dituen berthuteac; pazientzia handi bat, sumisione perfet bat Zeruco manuentzat, bere Jaincoarentzateco amodio samur bat, arimen salbamenducotz zelo eta khar berezi bat, sacrificatzen duelaric hejen salbatzeco Seme bat, bere bizia beino miletan maiteago zuena. Girichtinoac, gurutzeco haurrac, Mariaren haur bereziac, mirets ditzagun Martir guzien Erreginaren berthute guziz gorra hauc; othoitz dezagun ardiesteaz bere Seme maitea ganic nesesario ditugun graziac, haren exenpluez baliatzeco, eta haren pazientzia eta haren erresinazionea imitatzeco; eta plazer izanen zajoenean salbatzaileari bere humiliacionetan, bere doloreetan, bere gurutzean gu partalier ezartzea, goazin contsolazione bilha gure Ama on eta samurraren bihotz desolacionez bethea ganat.

OTHOITZA.

O Maria, dolorezco Ama, utz nezazu zurekin biltzera Jesus hiltzera dohanaren azken hitzac. Bai, entzun dut, errandatu, egiten duelaric ene gainerat amodioz bethericaco behatze bat: *Horra zure semea*; erran daut gero, nihoroneri: *Horra zure Ama*. Sofri zazu beraz hala deit zitzadan: nahi baninduzu ere zu ganic urrundu, eta ez ezagutu zure haurtzat, ezin egina zinuke, zurea naizenaz geroz, eta Jesus zure Semeac emana nauzunaz geroz; eta gehiago dena, errecomendatu dautzunaz geroz izaiteaz enetzat Ama baten sendimenduac. Helas! sobera baizen ez da egia ez dudala merezi holaco fagorea; bainan baldin haur indigno bat banaiz, etzare horren gatic gutiago Ametan den samurrena eta urricalmendut-suena. Ez dezazula ahantz Jesusen hitz hori, eta haren azken borondatea bethe dadintzat, sofri zazu ene Ametan deit zitzadan: Amaren izen horrec contsolatzen nau, erredoblatzen du ene zure alderaco samurtasuna eta confientzia, orhoit ararten nauelaric zure maitatzeco dudan obligazioneaz. Utz nezazu beraz ene Ametan zure deitzera, eta egizu ene azken hatsa.

eman dezadan izen gozo hori ezpainetan
dudalaric.

EXENPLUA.

Botua.

Presuna Jaincotiar batec , adituric san
Frantses Salesecoac botu egin zuela bere
gaztetasunean , egun oroz arrosarioaren
erraiteco, nahi izan zuen egin gauza bera;
bizkitartean etzuen nahi izan egin lehe-
nic herari galdatu gabe bere abisua. *Be-
gira zaitte hortaric*, erran zioen Sainduac.
Presuna harrec, guzia estonatua arrapos-
tu hortaz, galdegin zioen zertaco etzuen
nahi egin zezan berac bere gaztetasunean
egin zuena. « Gaztetasunaren aiphame-
« nac erraiten du guzia, ihardesten dio
« San Frantsesec, zeren denbora hartan
« egin bainuen botu hori errefleczone
« gutiagorekin; bainan orai, nola adi-
« netan abantzatuagoa bainaiz, erraiten
« dautzut: ez boturic egin. Ez dautzut
« erraiten ez erraiteco zure arrosarioa;
« contrarat, ahal guziaz contseilatzen
« dautzut, eta exortatzen zaitut ez egu-
« nic uzteco iragaitera hura erran gabe,
« zeren hori baita othoitz bat hainitz
« agradatzen zajotena Jaincoari eta Birji-
« na Sainduari; bainan izan bedi lehe-

« nago chede zin eta borondate on ba-
 « tez, ezin ez botuz, huts egitera ger-
 « thatzen zautzunean, etzaitezentzat ir-
 « richcuan jar Jaincoaren ofentsatzeco.
 « Ezen, ez da guzia, botu egitea, behar
 « da oraino botua conplitu, eta hori be-
 « khatuaren penan, eta hau ez da gauza
 « ez deus bat. »

Aphezpicu Saindu hura hain lejalki jarrikitzen zitzajon pratica debozionezco horri, non, nahiz cargatua zen diosesa handi batetaco egitecoez, eta hainitz aplicatzen zen pedericatzeari eta Eliza aberastu duten obra ederren izkiribatzeari, ez baita, horien guzien gatic ere, aldi bat baratu arrosarioaren erraitetic. Nola egun batez aurkhitu baitzen bertzetan baino ocupatugoa, uste gabetan bezala gerthatu zainzcon egiteco ordinarioz canpoco batzuen gatic, bortchatua izan zen gauerat igortzera arrosarioaren erraitea. Bere omonierac, ikhusiz hastera zohala arrosarioa nahiz jadanic arras berant zen, nahi izan zuen othoiztu bihar ramunerat uzteaz othoitz hura, zioelanic zohala oherat hain beharra zuen pausnaren hartzera, non etzuen nahi galdu bere osasuna. *Ikhas zazu, ihardetsi zioen,*

Mariaren zerbitzari fidelac ez duela secular biharamunerat igorri behar bere denboran egin daitekena. Eta continuatu zuen bere othoitza akhabantzaraino.

(San. fran. izpi.)

PRATICA.

Erabilazu bethi zurekin arrosario bat, zure Jaincoaren Amaren alderaco debotionearen seinaleztat bezala.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Tu Regina misericordiæ, et ego miserrimus peccator.

Zu urricalmenduzco Erregina zare, eta ni naiz bekhatorosetan den urricalgarriena.

HOGOI ETA BAT GARREN EGUNA.

Salbatzaile biztuaren agertzeaz bere Amaguziz Sainduari.

1º Mariaren bozcarioa ikhustean bere Semea biztua ;

2º Ikhustean loriaz eta imortalitateaz jauntzia ;

3º Ikhustean inguratua abandonatu zuten dizipuluez.

I. PHONDUA. Considera dezagun gure arimen Salbatzailea, hobitic atheratzean,

bentzuturic herioa eta Ifernua. Nahiz Ebanjelioac ez deraucun erraiten zoin zen lehen presuna zeinari agertu baitzitzajon estatu lorios hartan, errechki sinhets daitekena da bere Ama saindua ohoratu zuela fagore berezi hortaz. Ama guziez goragoco harentzat zuen errespetuac, hari ekhartzen zioen amodioac, Maria-ren beraren samurtasunac bere Seme Dibinoarentzat, iduriz horiec oroc galdegiten zuten atentzione eta berehcunde ohoragarri hori. Nihorc beino pharte gehiago hartu zuen haren pasioneco doretan; justu zen beraz lehena izan zadin haren trionfaco bozcarioan parthe izaitecotzat. Hunela emaiten ditu bethi Jaincoac bere fagoreac eta bere contsolazioneac harentzat sofritzen dugunaren arahera. Dugun maita Salbatzailea, compasione izan dezagun haren penez, dugun kharraja haren gurutzea, segi dezagun Calbarioco mendira, eta Birjina saindua-reakin batean partalier izanen gare haren bozcarioan eta haren trionfan.

II PHONDUA. Considera ditzagun Maria dobatsuaren arimaco bozcarioa eta haren ezin erranezco golardoac, zeinetan hondatua bezala baitzen bere Semearen

bizte loriosean. Nasaiki izan zen saris-
tatua aintzinean senditu zituen chagri-
nez eta doloreez; ikhusi zuen ezin erra-
nezco axeginekin bere Seme maitea ingu-
ratua loriaz, imortalitateaz eta gorphutz
lorios baten calitate guziez. Adoratu zuen
errespetu handi batekin, besarcatu zioz-
can bere zauri sacratuac, zeinac contser-
batu nahi izan baititu, herioaren gainean
ereman duen bitorioaren lekhucotasunt-
zat bezala. Erran daiteke ordutic abiatu
zela Ama Dibino hura gozaten Dohat-
suec Zeruan dituzten bozcario eta golar-
doez; eta nahiz oraino Lurrean zen eta
desterruco lekhu huntan, halaric ere
gaindizca bezala izaiten zituen Zeruco go-
zotasunac. Seinala dezogun gure axegina
gure Ama Sainduari, duen ezin erranez-
co alegrantzia hortaz. Othoitz dezagun
partalier ezar gaitzan bere zori onean,
eta desamarra ditzan gure bihotzac Lur-
reco afeczione guziataric.

III PHONDUA. Nolacoa etzen izan Birji-
na Sainduaren bozcarioa ikhusi zituenean
Apostoluac eta Dizipuluac Jesu-Cristo-
ren bizte loriosaren ondoan! Bere Pasio-
neco denboran guziec abandonatu zuten;
Jaun Doni Joani Apostoluac choilki izan

zuen Calbarioraino laguntzeco curaja ; bertze guziac ikharatuac izan ziren bere Nausiaren heriotzean, Artzaina hil dioten arthalde errebelatua bezala. Jesu-Cristo biztu ondoan, Mariac, Salbatzailearen eta haren Dizipuluen Ama samurrac, badu plazer gozoa ardi errebelatu hec oro hejarat bilduac ikhusteco. Helas ! hain ardura afluutu dut ene Ama Dibi-noaren bihotza, lachoki abandonaturic haren Seme adoragarria, bekhatuari eta Debruari ene buruaren largatzeco ! Noiz bada emanen othe diot contsolazionea ene ikhusteco haren ganat bihurtzen eta hari bethicotz estecatzen ? Birjina Saindua, ez dezaket deus ene baitharic ; bairnan esperantza dut hedatuco dautazudala zure escu urricalmendutsua, bilduco nauzula ene barriamenduetaric, eta azkenecotz errecontziliatuco nauzula Jesus zure Seme maitagarriarekin.

OTHOITZA.

O ene Jaincoaren Ama dohatsua ! Zure Seme biztua agertu zauntzunean, hobitic altchatu ondoan, zer corte manificoac etzuen inguratzen loriaco Errege hura ! Lau mila urthe hetan santificatu ziren justuen arima guziac, gure lehen Burha-

soac, Patriarkha eta Profeta Sainduac ethorri zaintzun homaja bihurtzerat bere Erreginari bezala, eskerrac emaiterat bere libratzailearen Amari bezala, bere gutizia zuri marcatzerat egun batez zurekin izaiteco Zeruco Erresuman. Nola-coac etziren izan orduan hejen zuretza-teco amodioaren eta ezagutzaren lehiac! Norc erran dezake bereziki zer iragan zen Jaun Doni Joani Batistaren bihotzean eta Josepe zure Espos garbiarenean! O Maria Dibinoa! Juntatzen naiz Arima Saindu hejen sendimendu guziei; hainitz daut-zut zor, eta esperantza dut oraino egun batez zor izanen dautzudala ene zori on eternala.

EXENPLUA.

Aphez pobrea.

Hamazazpi garren mendearen hastean bizi zen Parisan Aphez Saindu bat, Bernat deitzen zena. Familia handi batetarric zen ethorkiz munduaren arabera, bainan ukho egin zioten munduco esperantza guziei, Jesu-Cristoren po-bezia saindua besarcatzea gatic, eta etzuen nahi izan bertze izenic ere bai-zen Aphez pobrearena. Emaiteco da Ma-

riaren zerbitzariric debotenen eta lejalenen nonbrean. Uste zuen berac Ama on hari zioela zor bere conbertsionea eta apheztasuneco bocazionea. Hori zarasan orotan, eta etzuen deus guphides-ten haren alderaco errespetuaren eta confientziaren sendimenduac bertzeri ere inspira zezoketenic. Bere Ama ona deitzen zuen bethi. Imprima arazi zuen lengoaja suerte guzietan othoitz bat atheratua San Bernaten sendimenduetaric, zeina bere Aita ganic ikhasia baitzuen, eta zeina hitz hautaric hasten baita: *memorare, o piissima virgo Maria* (1). Berduratu zituen bere bizian, emanaz, bi ehunmila exenplario beino gehiago othoitz imprimatuhortaric, eta horren bidez, obratu zituen hainitz gauza miragarri. Zohalaric egun batez. Chatelet chumeco presundegira, presunieren exortatzera, buruz buru egin zuen bi Fraide ordena garratz batetacoekin, eta laster eginic gazteenaren gainera, besarcatu zuen, erraiten zioelaric: *Ene aneja maitea, bozcaria zaite, zor izanen diozu ezen zure salbamendua Birjina Sainduari*. Fraide gazteac, nola

(1) Othoitz hori aurkhitzen da Escuaraz, eta latinez liburuaren hastean, Irakhaspenaren aintzinean.

ez baitzuen ezagutzen, hartu zuen erho-
 batentzat; bainan bere Fraide lagunac
 erran zioen : *hori da gizon Saindu bat*
Bernat deitzen dena ; loriatu behar zare
erran dautzunaz, ezin ez da segurki ar-
razoinic gabe mintzatu. Continatu zuten
 zoinec bere bidea, eta Bernat sarthu zen
 Chateleco presundegian. Handic hainitz
 urtheen buruan, sartzen zelaric Gizon
 Saindu hura presundegi berean, erran
 zioten causituco zuela zephoetan gizon
 bat, condenatua izaitetic heldu zena bi-
 ziric arrudetan phorroscatua izaitera, eta
 zeinac ez baitzuen aditu ere nahi cofe-
 satzeric. Bernat doblezca affliitua berri
 hortaz, ereman arazten du bere burua
 zephoetarat : agur, erraiten dio presunie-
 rari, eta besarcutzen du ; exortatzen du
 Jauna ganaco confientziara, mehatchat-
 zen du Jaincoaren coleraz, bainan oro
 dire alferretan, criminelac ez dio ihar-
 desten ere. Bernatec arrekeritzen du er-
 ran dezan bederen harekin othoitz bat
 arras laburra Birjina Sainduari; presu-
 nierac errefusatcen dio ; Bernatec berac
 erraiten du hastetic akhabantzaraino,
 bainan ikhusiric bekhatoros gogortu har-
 rec etzuela choilki espainic ere ideki na-

hi izan harekin othoitz hura erraiteco, caritateac sar arazten du colera saindu batean, inspiratzen du bere zeloac, eta ekhartzen du bekhatoros izigarri haren ahora, bera erraitetic heldu zen othoitzaz, zeintaric baitzaucan bethi bere sakelan hainitz exenplario inprimatu, bortchaz ahoan sartzera entsejatzen zajo, erraiten dioelaric : *ez ducanas geroz erran nahi, jannen duc bederen.* Criminelac, nola bere burdinez trabatua, ez baitzezaken defendatza bere burua Gizon Saindu haren contra, agindu zioen obeditueo zuela. Orduan Bernat belhaunica ezarri zen harekin, eta abiatu zuen othoitzaz *memorare* etc. Presunierac etzitzen hain laster aiphatu lehen hitzac, non causitu baitzen behar betan guzia sanjatua. Nigarrez urtzen da, eta bere bekhatuen erregretac aurdio arazten diozca bihotza erdira dezaketer hatsbeherapenac. Bernat bozcarioetar jartzen da, erraiten dio, besarcatzen dioelaric : *Birjina Sainduaren arartecotasunari izanen diozu zor, ene aneja maitea, zure salbamendua.* Bai, egia da ene Aita, ihardesten dio presunierac, hitzaberac bere nigarrez ithotzen dituela, *aspaldi du erran zinaundala; ochala e*

*banu egundeino ahantzi! ikhusi zaitut bada nihon ere, ene haurra, erraiten dio Bernatec? Ezen, ez choilki etzuen ezagutzen, bainan etzen oraino orhoit ere egundeino nihori erranic, presunierari bertze orduz erran ziozcan hitzac. Criminelac khondatu zioen nola, sarthu ondoan batere bocazioneric gabe Comentuan, arnegatu zuen bere erlichioneaz, eta abandonatu zen crima suerte guzietarat, zeinec azkenecotz erakharri baitzuten justiziaren bidez condenatua izaitera heriotzeric cruelenera. Hemen haren nigarrac eta hatsbeherapenac abiatu ziren hainbertze biolentziarekin, non Bernat guzia hunkitua baitzen. *Contsola zaitte, ene haurra, erran zioen, Birjina Sainduac ardietsi dautzunaz geroz Jaincoa ganic penitentziaren grazia, ez egin dudaric ardietsico dautzula pertseberentzia eta salbamendua. Prepara zaitte choilki cofesio on baten egitera. Helas! etzuen beharric izan; ezen hunkitua bere bekhatuen eta Jaincoac harentzat zaucan misericordiaren bichtan, penitent egiazcoa dolorez eta contrizionez hiltzen.**

(Bern. Bizia.)

PRATICA.

Eman zaitc egun Mariaren potret baten oinetan, eta gomenda zozu zure arima, erraiten duzularic: *memorare*, etc. irrichcu guzietan zohaz othoitz hortara, zeinac hainbertze efetu miragarri obratu baitu.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Unica spes mea Jesus, et post Jesum
Virgo Maria.*

Jesus da ene esperantza guzia, eta Jesusen ondotic zu zare, o Maria Dibino!a!

HOGOI ETA BIGARREN EGUNA.

*Birjina guziz Sainduaren bizia Jesu-
Cristo Zeruetarat igan ondoan.*

- 1º Etzuen Zerua baizic desiratzen;
- 2º Etzen Zernaz baizic ocupatzen;
- 3º Etzen Zeruz baizic mintzatzen.

I PHONDUA. Goazin egun Olibetaco mendira Birjina Sainduarekin eta Jesusen dizipuluekin. Consideza dezagun fedezco begieznola Salbatzaile adoragarri hura, eman ondoan bere azken benediczionea hilkhua Saindu hari, eta erakhutsi ondoan bere Ama Dibinoori bere samur-

tasun guzia, altchatzen den Zeruetan gora, loriaz bestitua, eta inguratua Aingeruez, eta Linboetic atheratu zituen nonbre gabeco Sainduen osteaz. Hedadura gutiegi du gure izpirituac contzebitzeco nolacoac izan ziren Semearen eta Amaren sendimenduac elgarren ganic sepharatzeco mementoan. Erran daiteken guzia da, baldin Mariaren gorphutza Lurrean gaelditu bazen, bere Jaincoaren horondatea bethetzeco, haren izpiritua eta haren bihotza igan zirela zeruetarat Jesu-Cristorekin. Sar gaiten geroni ere gure Ama Sainduaren sendimenduetan; haren exenplura, Lurrari beha dezogun gure desterruco lekhuari bezala; ez gaiten bara gure nahi eta gutizien zeruetarat altchatzetic beha dezoguten fede bizi batekin han preparatuac zaizcun khoro imortalei, eta hejen merezitzerat trabaila gaiten, eta hortaracotz erabil gaiten Mariaren urhatsetan.

II PHONDUA. Considera dezagun nolacoa zen Birjina Sainduaren ocupazionea bere Semea zeruetarat igan ondoan. Haren gogo, haren afeczione, haren gutizia guziac zerucotzat ziren, zeintarat ikhusi baitzuen igaiten bere Seme Dibino

hura, eta non baitzakien preparatu zioela berari zori on finic gabeco bat. Haren bihotza osoki desamarratua zen lurreco izaitetari, zeren ez baitzuen gehiagohan aurkhitzen bere amodioaren opcheta, hortaracotz ere etzuen lehiari zeruco Erresumacotzat baizen, non idurikitzen baitzuen izaitea bethicotz bere Seme mai-tearekin. Imitatu behar bidean gure Ama Dibinoa, eta harrec bezala erakharri orde zeruetarat gure izpirituac eta gure bihotzac, herrestan derabiltzagu tristeki nigarrezco haran huntan, bizi miseriazco huni estecatuac, nekhatzen gare, *helas!* ongi alferretan, urus bilhacatu nahiz behere huntan, eta ez dugu deusic egiten bethiereco zori onaren gozamena seguratzecotzat.

III PHONDUA. Birjina Saindua etzen mintzatzen zeruaz baizen. Hura zen haren conbertsazionearen sujet guzia Apostoluekin eta lehenbizico fidelekin. Alimu emaiten zioten guziei, eta susta arazten zituen guziac esperantza hortaz; consolatzen zituen bere penetan, bere lan eta pertsecuzione guzietan; guziac ekhartzen zituen zeruari behatzera hejen egiazco Erresumari, Premuntzari, Lur-

reco erabiltze guzien azken mugari bezala. Etzen zerucotz baizic trabailatzen; haren aczione guziac hainbertze urhats ziren egiten. zituenac bere Erresuma maitera hurbiltzeco, hainbertze titulu berri haren khoroa edertzeco. Guc ere merezi dezakegu zerua. Hortaracotz behar gare epheric gabe trabailatu constantziarekin ez garenaz geroz deusbertzetaco Lurrean. Bainan helas! Zer egiten dugu zeruaren ardiesteco? Ez dezagun ahantz secular, zerucotzat egiten ez dugun guzia galdua dela guretzat, eta galdua bethicotz.

OTHOITZA.

Ala gozoa eta contsolagarria baitzen, o Maria Dibinoa! Salbatzailearen agintza, zioenean samurtasunekin bere dizipuluei: *memento huntan, egia da, tristezia sendituco duzuela; bainan berriz ikhusico zaituztet eta zuen bihotzac alegeratuco dire, eta nihorc ezin khenduco dautzue zuen bozcarioa.* O ene Ama Saindua! Esperantza gozo horrec alegrantzietan emaiten nau; zer zori ona, frogazco memento labur hau iragana izaiten den bezen laster, sartzen naizenean Dohatsuen egoitza sainduan, ikhusten naizenean zure oinetan, secular galtzeco irrichcu-

ric gabe, mugarri gabeco zori onaren gozamen segurean ! Baldin hain gozo eta contsolagarri bada behere huntan zure zerbitzatzea, zure maitatzea, zure izen Sainduaren aiphatzea, zer alegrantzietan ez da ene bihotza jarrico ikhusten ahal zituanean ene begiz, zu baithan contsideratuco ahal izanendudanean hainbertze gauza miragarri hemen fedez baizic ezagutzen ez ditudanac; izaiten dudanean ahala bekhoz bekho zuri mintzatzeco; zure boz eztia aditzeco, eta zure maitatzeco batere phartajaric gabe ! Sustenga nezazu, Birjina Saindua, memento dohatsu huradino; eta ez nezazula abandona ikhusico nauzun artean segurantzarekin ene salbamenduco portuan.

EXENPLUA.

Graziaren trionfa.

Huna Bernat aphez pobrearen caritatezco bertze tretu bat, zeina ez baita aintzinecoa beino gutiago erremarcagarria, eta zeinac erakhasten baitaucu orobat zoin den puchanta Mariaren arartecotasuna, bekhatorosic gogortuenen conbertsionea ardiesteco. Suplizioco lekhorat zaramaten urkhatzera condenatu

gizon bat, zeinac enhea arazi baitzuen exortatu nahi izan zuten guzien pazientzia, eta zeinac bertze crima guziei eratchikitzen baitziozcan oraino Jaincoaren contraco blasfemioric izigarrienac. Bernat, abertitua izan bezen laster, badoha eta deusi casuric egin gabe, igaiten da criminelarekin zurubietan gora, mintzaten zajo amultsutasun handi batekin, hertchatzen du ahal duen kharrarekin itzul dadin Jaincoa ganat, eta nola besarcatzera baitohaco, izigarri harrec botatzen du gibelarat, eta ostico batez bere errebiamentuan aurdikitzen du zurubietaric galtzara harriaren gainera. Beha zauden guziec egin zuten hudiozco oihu bat, Bernat choila dago batere mugitu gabe; eta nahiz hainitz min hartuaden, altchatzeco efortac egiten ditu, belhaunica jartzen da, adrezatzen da bere ararteco puchantera, egiten du bere ordenarioco othoitza: *memorare, o piissima*. Ala miragarria baita othoitzaren efetua, fede bizi batez sustatua denean! Ez du hain laster akhabatzen, non behatzera ethorriac ziren jende guziec ikhusi baitzuten manduel gogortu eta izigarri hura nigarretan urtzen, emaiten

egiazco penitentziaren marca guziac, eta oro edificatzen bere urrikiaz, aintzinean bere gogortasunaz escandalisatu zituen bezenbat.

Bekhatorosic handienen conbertitzeac iduri zuen zela Aphez Saindu harrec gehienic maitatzen zuen obra. Etzuen bat causitzen hain gogorturic, non ez baitzen berehala haren Jaincoa ganat itzul araztera abiatzen, Mariaren laguntzarekin batean, zeinari ez baitzangon egundeino alferretan adrezatu. Etzuen secular desesperatzen hejen salbameduaz, eta etzen behin ere aurkhitucosituen trabez penetan jartzen; ezin erranlaiteke zer inspiratzen zioten kharrac eta caritateac Birjina Sainduaren zerbitzari humil hari, irabazteco dohacabe hejen confientzia, eta sor arazteco urrikia eta conbertsionea, aspalditic crimari largatuac ziren arimetan. Hortaracotz ere haren escuetara ematen ziuzten gaichtagin gogortu guziac, zeinen gainean deusic ezin irabaz baitzezaketen bere ahal guziekin ere bertze cofesorec; eta gauza bat da ongi ezagutua, ez dela nihor hilkhanbiatu gabe haren escuetan.

PRATICA.

Errazu egun guzietz *memorare* heriotze on baten ardiesteco.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Quando corpus morietur, fac ut animæ donetur Paradisi gloria.

Egizu, o Maria! heriotzeco orenean, ene arima izan dadin errezibitua Zerucolorian.

HOGOI ETA HIRU GARREN EGUNA.

Lehenbizico Girichtinoec Birjina Sainduaren presentziatic zituzten laguntzez.

- 1º Hejen contseilua zen;
- 2º Hejen modela zen;
- 3º Hejen ihes lekhua zen.

I PHONDUA. Gure Salbatzaile adoragarriac, Lurretic altchatzean, nahi izan zuen bere ondotic hemen utzi bere Ama Saindua, contseilutzat balia zadin amoreatic oraino sortzea baizen egiten etzuen Elizari, eta lehenbizico Girichtinoac haren ganat zohazintzat bere dudetan, hala nola haren ganic ikhas zezaten Ebanjelioco berthute guzien praticac. Fidelec contsultatzen zuten bere

Andre Soberanoa bezala eta Elizaren oracle bizia bezala. Ama Dibino hura, bere aldetic, lehiatzen zen hejen duden itsa arasterat, hejen instruitzera, hejei comunicatzera bere Semearekilaco conbertsazionetaric hartu zituen zuhurtziazco eta jakitatezco tresorac. Gure dudetan eta gure beldurcundetan, adreza gaizkon Mariari confientzia bizi batekin; othoitz dezagun argi gaitzan, gida eta lagun; ardietsico daizcu segurki escas ditugun argiac eta graziac.

II PHONDUA. Modestia, humilitatea, caritatea, deboziona, kharra, berthute guziac distiradura handitan agertzen ziren Jaincoaren Ama baithan. Haren bizi guzia Saindutasunezco model perfet bat zen, orotaco leczione bat adin eta estatu guzietaco presunentzat. Lehenbizico fidelac ezin bara zitazken mirestetic haren baithan aurkhitzen zen berthute eta calitate maitagarrien bilduma hura, eta entsejatzen ziren bere bizi moldearen erregelatzera harenaren gainean occasione guzietan. Balia gaiten gu ere gisa berean gure Ama Sainduaren exenpluez, imita ditzagun haren berthuteae, ibil gaiten haren urhats beretan. Baldin

constanki emaiten badiotegu goardia haren biziari eta haren sendimenduei, ikhasico dugu Jaincoari lejal izaiten, caritatos izaiten lagun proximoaren alde-
rat, maitatzen garbitasuna, inozentzia handi batean bizitzen; ikhasico dugu bereziki Jaincoa maitatzen ororen gainetic, gure buruen higuintzen sainduki, izaiten humil, modest, debot, khartsu, lejal gure eginbide guzietan.

III PHONDUA. Birjina Saindua lehenbizi-
zico Girichtinoen ihes lekhua zen. Bere affliczione particularretan, bere pertse-
cuzione publicoetan, bere behar ordu guzietan, fidelac bethi bere Jaincoaren Ama ganat zohazin ihes; bazakiten guziz puchanta zela bere Semearen aintzinean, eta bere ontasunac erakhartzen zuela bere podorearen enplegatzera hejen laguntzecotzat. Zerbitza gaiten motio berez gure confientziaren sustatzeko. Gure behar ala izpiritualeco nola temporaleco guzietan, adreza gaizcon gure Ama samurrari; othoizten badugu khartsuki eta fidantziarekin, lehenhizico Girichtinoec bezala, seguratuac izan behar gare entzunen dituela gure galdeac. Baldin ez badugu bethi senditzen gure othoitzen

efetua , ez gaitezela loth baizen . ere gure buruei eta gure othoitzetarat ekhartzen ditugun disposizione gaichtoei.

OTHOITZA.

O Maria , ene ihes lekhua ! Zonbat aldiz ez naiz ikhusi , ene faltaz , Ifernua-
ren esclabo bilhacatua ! Phorroscatu dituzu ene gatheac , atheratu nauzu ene etsajen aztaparretaric ; bainan ikharan nago berriz eror beldurrez , badakit ezen hejen errebiamentuac ez duela descanturic ni berriz harrapatu arteraino , eta idurikian daudela bihurtuco naizela oraino hejen esclabo jartzera . Birjina Saindua izan zaite ene sustengua eta ene begiratzailea ! Segur naiz zure laguntzarekin batean guziac bentzutuco ditudala ; bainan egizu ez dezadan seculan ahantz zure othoiztea tentazione eta froga suerte guzietan , eta bereziki azken jasaiteco izanen dudan guducan , dudaric gabe orotaric izigarrienean , zeinetara preparatzen hari baita debrua bere errebiamentu eta maltzurkeria guziarekin . Eman diezadazut zeronec ordu hartan zure izena ene ezpainenetan eta ene bihotzean , eta egizu ene azken hatsa aurdic dezadan izen hoin gozo hori aiphatzen dudalaric ,

hel nadintzat horren errepicatzera zerruan hautetsien oste maitagarriarekin, zeinac ez baitire baratzen zure laudorioen cantatzetic Erresuma lorios hortan.

EXENPLUA.

Conbertsione edificagarria.

Huna exenplu bat berriki gerthatua, zeinac erakhusterat emaiten baiteraueu zoin progotchu handitacoa den Birjina Sainduaren arartecotasuna bere estatu deithoragarritic atheratu nahi dirén bekhatorosentzat. Gizon gazte bat zen bere Burhasoetarie errezibitu zuena educatione bat ezin gehiago ona eta girichtinozcoa; ihan zuen zori gaitza habitura criminel bat hartzeco, zeina izan baitzen harentzat bekhatuzco tulubio baten ithurburua. Nola baitzuen oraino Jaincoaren heldurtasuna, nahi zukejen ukho egin bere desordrei, eta noizetic noizera egiten ere zituen zenbeit efort urratzeco bizioaren gathe zori gaitzezkoac, zeinez baitzaucan Debruac amarratua. Bainan bere habitura gaichtoaren indarrac bazaraman bethi herrestan eta laster erortzen zen idariz ongi higuintzen zituen bekhatuetan. Askenecotz, utzi zen alimu galt.

zera, eta pentsatuz ezin seculan correituco ahal zela, hartu zuen buruan ez gehiago joaitea cofesatzera. Cofesorac ikhustiz etzitzajola bihurtzen denbora marcatuan, nahi izan zuen egin entseju berri bat ardi errebelatu haren irabaztecotzat. Badohako bibitan harrapatzera, bakharrie bere lanean ocupatua zagon memento batean. Gazte bekhatorosac ez du hain laster ikhusten Jaunaren ministroa, non orroz eta nigarrez oihuca abiatzen baita. *Zer duzu bada ene haurra, erraiten dio cofesorac? Ah! ene Aita, damnatua naiz; ikhusten dut ongi ezin correi naitekela, eta gogoari eman diot guzien abandonatzea. Zer diozu, ene haurra? Contrarat, seguratzzen zaitut, nahi baduzu egin nic erraiten dautzudana, bentzutuco dituzu Debruaren atacadac eta zure pasione guziac, eta zori ona izanen duzu zure Jaincoarekin errecontziliatzecotzat. Zohas istant berean Elizara, han eman zaite Birjina Sainduaren oinetan zure conbertsionearen galdegiteko, eta bihur zaite gero ene causitzera. Gizon gasteac obeditu zuen, Badoha ahuspez emaitera Jaincoaren Amaren oinetan, eta nigarrez dagolarie, arrekeritzen du urricalmen-*

du izan dezala haren arimaz, zeina gusta baita Jesu-Cristoren odol guzia, eta zeina Ifernurat nahi baitu eraman Debruac. Othoitz harren ondoan, altchatzen da handie, confientziaz bethea Birjina Sainduaren arartecotasun puchantean; badoha cofesora gana, eta ezagut arazten dio bere contzientziaren estatu deithoragarria; azkenecotz, lejalki segituz hunen abisu zuhurac, izan zuen zori ona zinki Jaincoa ganat itzultzeco, eta debozio-nezco eta kharrezco model bat bilhacatu zen.


PRATICA.

Othoitz zazu egun oroz Birjina Saindua, ardiets dezazun zure hutsetarie carreitzeco grazia.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Virgo virginum præclara, fac me tecum plangere.

O Birjina Birjinetan den perfetena, ardiets diezadazut ene bekhatuez nigar egiteco grazia!



HOGOI ETA LAU GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren Heriotzeaz.

1^o Zertaco da heriotzeari sujet Birjina Saindua ;

2^o Nola hiltzen da ;

3^o Hiltzen hari direnen ararteco egina da.

I PHONDUA. Nahiz Jaincoac bekhatu originaletic begiratu zuen Maria, etzuen horren gatic nahi izan begiratu gorphutzeco heriotzetic, zeina baita bekhatuaren gaztigua ; nahi izan du contrarat heriotzea sofriz ezan, Adamen bertze haurrec bezala, erakhusterat emaiteco : 1^o Herioaren arrasta, emana gizon guzien contra, jenerala dela eta gibela ez daitekena ; bertze alde ; 2^o izan zadin bere Seme Dibinoaren iduricoagoa, zeina, nahiz biziaren Autarra zen, nahi izan baita, halaric ere, heriotzeari sumetitu ; 3^o eman zezagun, finean, azkeneco mementoan praticatu behar ditugun berthuteen exenplua. Nahi bezen humiliagarria den heriotzerat condenatzen gaituen legea, Maria sumetitzen zajo humilitate handi batekin, erresinazioneric perfetenarekin, bere Jaincoaren gaineco fidantzia osoarekin, gutizia eta nahi khartsu batekin bere amodia

guziaren opchetari juntatzekotzat. Alagure heriotzea ongi baliosa izanen baita, baldin hartzen badugu humilitatezco, obedientziazco, confientziazco eta amodiozco sendimendu berekin !

II PHONDUA. Birjina Sainduaren heriotzea conparatua da Elizaco aitez lo ezti bati, emaiteco erakhusterat etzuela deus biolentic izan ez eta ere dolorezcoric, eta Ama Dibinoa iragan zela bizitze hilcor huntaric bethiereco zori onera, descantsu handi eta lorios batera pasatzen den bezala. Hala da ezen, etziren ez adin handia, ez eritasunaren biolentzia, ez eta ere naturalezaren flacatzea, urratu ziuztenac arima gorphutzarekin bat zaucaten lokharriac; amodio Dibinoaren su garbiac obratu zuen sepharazione dohatsu hura. Su sacratu hartaz guzia lametan emana, beldurric gabe, bakeric gozoenean, haren arima ederra, bere baitharic, sepharatu zen haren gorphutz saindotic, eta eramana izan zen zerueta rat trionfa guzietan. Bozcaria gaitengure Ama sainduarekin, haren heriotzearen eztitasun ezin erranezcoaren gainean. Othoitz dezagun ardiets dezagula hura bera bezala hiltzeco grazia, Jauna-

ren bakean ; bainan orhoit gaiten heriotze urus bat egitecotz, bizi saindu bat eraman behar dela.

III PHONDUA. Birjina Saindua ezarria da , bere Semeaz , hiltzerat dohazinen arartecotzat eta modeltzat. Laguntzen ditu , begiratzuz Debruaren atacaden contra, ardietsiz ongi hiltzeco grazia, ezituz pasaja latzgarri hura. Erakhusten diote dispostzen heriotze on batera aingeruzco garbitasun baten bidez , creaturetaric lacha araziz, caritate samur batez, girichtinozco berthute guzien praticaz. Trabaila gaiten disposizione saindu haujen ardiestera , eta merezitzera izan dezagun, gure azken orenean, gure Ama Dibinoaren arartecotasuna. Erran dezogun egun guziez khar hainitzekin eta fidantzia oso batekin : *Egizū othoitz gu bekhatoreenzat, orai eta gure heriotzeco orenean.*

OTHOITZA.

O ene Ama samurra ! nolacoa izanen othe da zure oinetan ahuspez dagon bekhatoros urricalgarriaren akhabantza ? Memento lotsagarri hartara pentsatzen dudanean, zeintan khondu beharco baitut bihurtu ene bizi deithoratzecoaz , eta

orhoitzen naizenean zenbat aldiz izkiri-
 batu dudan neronec ene condenazionea-
 ren sententzia, beldurrez eta ikharaz las-
 tua aurkhitzen naiz. O afliituen contso-
 latzailea, izazu nitaz urricalmendu ene
 azken mementoetan; Ifernua ene heriot-
 zearen goaitan dago, Juje soberanoaren
 aintzinean ene acusatzecotzat. Helas! zer
 bilhacatu behar naiz, eta nolacoa behar
 da izan ene zortha eternala? Zu gabe
 galdua naiz; bainan zure laguntzarekin
 batean esperantza dut Ifernuari espaca-
 tuc naizela. Ardiets diezadazut Jaincoa
 ganic ene bekhatuentzateco dolu min
 bat, eta Jaunaren legeari lejal izaiteco
 indarra, bizitzeco gelditzen zaiztan egun
 labur hautan, bainan bereziki heriotzeco
 tormentan aurkhitzen naizenean. Maria
 ene esperantza, nihoiz beino gehiago, ez
 nezazula abandona ordu hartan, eta sus-
 tenga zazu ene confientzia, ene bekha-
 tuen ikhuspenac ez nezantzat aurdic de-
 sesparazionerat.

EXENPLUA.

*Bekhatoros gogortu baten heriotze
 deithoragarria.*

Elizaco Dotor sainduen artean sendi-

mendu comuna da, Birjina Mariaren alderaco deboziona salbamenduco bahi casic segura dela; eta Jaincoaren Amaren zerbitzari egiazco baten galtzea ezin daiteken gauza dela, baldin deboziona balios hartan irauten badu pertseberentziarekin, eta baldin haren laguntzarekin batean entsejatzan bada bekhatuari ihes egitera, eta Constanki bertutearen praticatzera. Bainan enganioric handiena laiteke uzte izaitea Jaincoaren Amac, gure gure aldetic deus egin gabe, salbatuco gaituela; eta zeren zenbeit othoitz adrezatuco diozkigun, artha hartuco duela gure arimaz, gure gure phartetic galtzeco behar dugun guzia egiten hari garen denboran. Huna justizia Dibinoaren tretu bat ongi ikharagarria, zeinac erakhatsico baiteraucu, nahi bezen puchanta den Birjina Sainduaren arartecotasuna, bizkitartean hartaz ere abusa daitekela, eta alfer bilhaca araz daitekela hain socorri handia. Aita Mafei Jesuistaz khondatua da, Autor hunec merezi du gure sinheste guzia.

Bazen gizon gazte bat, familia Jaincotiar batetacoa, eta zeinaren Burhasoac munduan zaucaten herruncaz beino orai-

no bere Erlichioneaz ohoragarriago baitziren; segitzen zituen bere escolac colegio batean, zeintan higualki arthatuac baitziren bai istudioac bai debozionea. Bazituen hala berthuteraco nola jakita-teraco disposizioneric hoberenac. Disposizione urus hec, escu abil eta erlichio-nezcoez arthatuac, egun oroz zabaltzen hari ziren, lorearen pare, arima eder hartan, halaco moldez non bere Burhasoen eta Nausien zori ona eta bozcarioa egi-ten baitzuen. Birjina Sainduaren alderat-zen debozione samurrac erakharri zuen gutiziatzera eta galdegitera, Jaincoaren Ama guziz goraren ohoretan, colegio hartan alchatua zen Congregazionean sartzeco pribilioa. Han aurkhitzen ziren, zeruco Erreginaren arartecotasunaren azpian, bere salbamendua segurean ezarri nahi zuten, eta debozionean aintzinatu nahi ziren gizon gaste guziac. Errezibitua izan zen Congregazionean, eta den-bora laburic artean, model perfet bat bilhacatu zen. Tentatua izaiteco laiteke, zenbeit aldiz, sinhesterat badirela arima pribiliatu batzu, batere pharteric izan ez dutenac Adamen malediczionean; bai-nan athera gaiten enganio hortaric;

gizon guziac dire Zeruco Erresuma biolentzia eginez eraman behar dutenac, eta frogasco desterra huntan aurkhitzen deno, ez da deus segurantzaz oso bat eman dezakenic, eta azken mementorainocoan, beldurrekin eta ikhararekin obratu behar da salbamendua. Mintzo garen gizon gasteac, bere zori gaitzetan, aurkhitu zuen hainbertze calitate ederren hits arazteco segretu ondicozcoa, bai eta ere oraino, Ama misericordiosaren arartecotasun guziz puchanta beretzat alfer eta ez deus bilhacatzecoa. Bazuen bere Aita Amen etchean Nausi berezi bat, zeinac baitzaraman egun oroz colegiora, eta zeinac bere manera gaichtoez eta solhas pozuatuez galdu baitzioen bihotza. Gizon gazteac ihardoki zuen zelbeit denboraz hain tentazione lanjerosaren contra; bainan prudentzia escastu zitzajon eta lejaltasuna phonduric premiazcoenaren gainean. Eman behar zuen segurantzaz bere inozentzia, bere galtzailea agertzen zuelaric; bainan errespetu humanoac atchiki zuen, khondatu zuen sobera bere buruaren gainean eta galdu zen. Jaincoaren Ama Saindua bekhatoreen ihes lekhu da, bainan ez arima urguilosan sustengua, zeinac,

fidatuz bere indarren eta iragan lejalta-
sunaren gainean, baitaude borondezki ir-
richuari pharatuac. Gizon gazte doha ca-
beac ikhasi zuen, ordu artean uruski et-
zakien gaizkia eta arras desordreari eman
zen. Arima eder hari, aintzinean hain
garbi zena, etzangon, iduriz, gehiago la-
khet Girichtinoen artean aiphatzea ere
Apostoluac debecatzen duen bizio ahal-
kegarriaren lizunkerietan baizen. Lehe-
nago zituen debozinezco sendimenduac
laster arindu ziren haren bihotzean. Et-
zuen gehiago aurkhitzen desgusturic eta
enhejatzeric haizen bere exercizio izpi-
ritualetan, eta emeki emeki abandonatu
zituen Maria Sainduaren alderaco pratica
debozinezcoac, zeinentzat hainbertze le-
hia agertzen baitzuen ordu artean. Bere
desordreen segida luzeaz iraungia bezala,
aldaratua, ohartu gabe, salbamenduco
bidetic, hiratzen eta galtzen hari zen;
eta Jaincoaren pazientzia enhea arazi
bortchaz, preparatzen zioen bere buru-
ari seculaco bere zori gaitzaren azken
colpea. Gau batez, lokhartu beino le-
hen, gogorat ethorri zaingon bere Nausi
galduaren solhasac; oraino gelditzen zit-
zajon berthuteraco habitura hondar ba-

tez bezala, haren bihotzeco lehen mobimendua izan zen idea lohi hejen urruntzea; ethorri zitzaizcon berriz, Debruac bere indarrac erredoblatsu zituen, eta dohacabea erori zen tentazionean. Jainco handiaren justizia! han idurikitzen zinnuen: agindu diozu arima penitentari barkhamendua, baina ez biharamunic bekhatosari. Zori gaitzezco gizon gaztea! Heriotze suphituac harrapatzen du, izan gabe bere baithan sartzeco mementoric, Mariaren izena aiphatzeco ere denbora izan gabe. Jujatzeco da nolacoa izan ahal zen biharamun goizean, haren Burhaso berthutosen desolazionea, zeinac ohartuac baitziren jadanic haren debozionearen flacatzeari, baina hunen causa zer zaiteken suspitchatu ere gabe. Etzuten luzatu jakitea: Aphez Saindu batec, zeinac amodio berezi bat ekhartzen baitzioen gizon gaztehari, bazohalaric haren arimaren descantsuarentzat Meza Sainduaren emaitera, hainitz aldiz senditu zuen bere burua gibelerat pusatua ikhusten etzuen indar batez, eta aditu zuen dolamenezco boz bat, erraiten zioena: *Ni naiz joan den gauean hil gizon gaztea; ez enetzat ofri, berdin deusenzat*

*baliatuco etzautan sacrificioa, damnatua
niz; eta khondatu ondoan laburski be-
re istorio deithoragarria, itsaasi zen, uz-
ten zuelaric Fraide saindu hura dolu mi-
nie handienez.*

(Aita Mafeiren erretreta).

PRATICA.

Eman zaite ahuspez Mariaren portret
baten aintzinean, eta errazu *memo-
rare*, etc. *orhoit zaite*, etc., ongian az-
kenerainoco iraupena galdegitecotzat.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Maria, Mater gratiæ, Mater misericor-
diæ, tu nos ab hoste protege, et in
horâ mortis suscipe.*

Maria, graziaren Ama, misericordia-
ren Ama, begira gaitzatu salbamenduco
etsajaren contra, eta lagun gaitzatu
heriotzeco orenean.

HOGOI ETA BORTZ GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren bizteaz.

- 1º Maria begiratna da hobian usteltzetic;
- 2º Bizten da hirur garren egunean;
- 3º Haren bizteac eman behar daucun fidant-
zia.

I PHONDUA. Jaincoac begiratu ondoan

Mariaren arima bekhatuaren nothatic, nahi izan du orobat begiratu haren gorphutza lurpean usteltzetic; halaco moldez non, fagore berezi batez, Birjina dohatsu harrec ez baitu pharteric izan gizon guzien contra ekharria izan den madarizione jeneralean: *herrautsa haiz, eta herrautserat bihurtuco haiz*. Jaincoac nahi izan dio acordatu pribilio lorios hori, saristatzeco haren garbitasun ezin colpatua, zeina begiratu baitu nothagabe heriotzerainocoan; ohoratzeco gorphutz sacratu hura, bere escuco obretan perfetenetic duena, Jaincotasunaren tenplu eta graziaren egoitza saindu bilhacatua Berbo eternalaren incarnationean. Comunione Sainduan badugu gure ere zori ona errezibitzeco Jainco bera, gizon eгина; gu ganat ethortzen da, gurekin bat egiten da molderic perfetenean, eta bere presentziaz contsecratzen, santificatzen ditu gure gorphutzac, eta haujen bethiereco bizitze loriosaren bahi eta herme jartzen da bera. Zer errespetua ez deraucu eman behar orhoitzapen hunec gure gorphutzentzat! Zer beldurtasun ez dugu izan behar haujen garbitasuna den gutiena ere colpa dezaketen gauza guzientzat!

II PHONDUA. Gizon guziac biztuko dire mendeen akhabantzán, bainan Maria, bizia bera denaren Ama, pribilio berezi batez bizten da heriotzetic hiru garren egunean. Haren arima ederra bihurtzen da zerutic, berriz bere gorphutz sacratuarekin juntatzeco, eta hau bere lorian eta bere dohatsutasunean partalier ezartzeco. Gorphutz sacratu hura atheratzen da hobitic iruzkia bera beino argiago, ilhargia beino distirantago, jauntzia gorphutz loriosen calitate guziez. libratua da bethicotz bizi huntaco miseria guzietaric, eta abiatzen du bizi berri bat secular akhabatuko etzajoena. Bozcaria gaiten gure Ama maitagarriarekin izaiten duen fagore berezi hortaz. Dezogun eman ardura gogoari geroni ere biztuko garela azken jujamenduco egunean; bainan zerucotzat izanen othe da ala Ifernucotzat?

III PHONDUA. Birjina Sainduaren biztea confientziazco sujet handi bat da guretzat. Igaiten da zeruetarat gorphutz eta arima, han loria imortalaz gozatzeco; eta alchatua den ohorezco grado guziz gora hartaric, gure Abocatzatdeclaratzen da, gure Arartecotzat eta gure Amatzat.

Baldin dohacabe bagare, gure falta behar da; adreza gaizcon confientziarekin Mariari, guziz puchanta da Jaincoaren aintzinean, ardietsico dauzcu escas ditugun grazia guziac.

OTHOITZA.

Zeru Lurren Erregina, Maria Dibi-
noa, heldu gare zure oinetara zuri gure
axeginaren seinalatzerat izan duzun ezin
erran bezalaco zori onaz, noiz eta ere
zure arima saindua juntatu baitzen zure
gorphutz sacratuari, hunen partalier
ezartzeco zeruco loria eta golardoetan.
O gure Ama samurra, salbamenduco
portu dohatsura heldua, jarria Jaincoa-
ren tronuaren aldean, ahantzico othe
dituzu zure haur afliituac, zeinac bai-
taude oraino bizitze triste eta urrical-
garri huntaco tenpestei pharatuac; zei-
nec nigar egiten baitute desterruco ha-
ran huntan; zeinec galdegiten baitarot-
zute zure arartecotasuna Jainco zure Se-
mearen aintzinean! Ez, Ama samurra,
ez gaituzu ahantzico, gure gaitzez hun-
kitua izanen zare, entzunen dituzu gure
othoitzac chukhatuco dituzu gure nigar-
rac, izan arazico daizcutzu salbamenduco
graziac, deithuco gaituzu zeroni gozat-
zen zaren loriaco partaliertasunera.

EXEMPLUA.

San Luis.

San Luis, Frantziaco Erregearen sort-
 zea Maria Jaincoaren Amari da zor eta
 Arrosario Sainduaren debozioneari. Cas-
 tilaco Blantcha, Erregina debotac khart-
 suki desiratzen zuen Frantziaco Tronua-
 ri emaita premu bat Jaincoaren bihot-
 zaren araberacoa. San Dominicac, zeina
 bizi baitzen haren denboran, contseilu
 eman izan zioen errecuts izaitez Birjina
 guziz Saindua ganat eta Arrosarioaren
 debozionera, hunen erraitez ardura,
 eta Erresuman ezagutzen zituen presuna-
 ric debotenac erakhartzeaz, bere izenean
 Maria Sainduari bihurtzera homaja bera;
 eta eman zioen esperantza ardietsico
 zuela desiratzen zuen benediczionezco
 fruitua, misericordiazco Amaren arar-
 tecotasunez. Erregina Blantchac segitu
 zuen contseilu hori lejaltasun bezenbat
 zori onekin. Arrosario Sainduaren ber-
 thuteac eta Printzesa Jaincotiarraren de-
 bozioneac ardietsi zuten hainbertze lehia-
 rekin idurikia zen efetua. Izan zuen
 seme bat, eta bere semea Errege bat
 zeinac ezarri baitzuen Tronuaren gai-

nean Saindutasuna, zeinac contsecratu baitzuen bere khoroa girichtinozco berthute guziez, zeinac ohoratu baitzuen bere bizi guzia egintzaric gorenez eta aiphatuscoenez, hitz batez, zeinac ereman baitzuen hobirat bathejoco inozentziaren arropa notharic gabe, eta aberastua Sainduac egiten dituzten merezimendu guziez.

Printze handi harrec bazuen Birjina Sainduaren alderat debozione bat hain samurra eta hain bizia, hainbertze amodio haren humilitatearentzat, non haren ohoratzeco eta haren imitatzeco bil arazten baitzuen lagunbat guziez, Mariari contsecratua den egunean, pobrezco oste handi bat here Palaziora, bai eta ere here khanbarara berera. Han, Salbatzailearen exenplura, chahutzen ziozcaten oinac untzi batean, eta chukhatzen bere escuz; horren ondotic, musu emaiten zioten oin hekiei berei, eta hori hainbertze errespaturekin, non erakhasten baitzuen pobre hejen baithan ezagutzen zituela Jesu-Cristoren menbroac. Gero, caritatea eratchikitze cotzat humilitateari bazcal arazten zituen eta berac zerbitzaten mahainean, mila aldiz contentago

horrela lorificatzeaz Jesu-Cristo eta haren Ama Saindua, ezin ez berac Cortetic errezibitzen zituen errespetuzco marca eta homaja guziez. Finean, hoin zere-
monia edificagarria akhabatzen huen he-
taric bakhotchari emaiten zioelarik nasai-
ki amuina, eta bethi zeruco eta Lurreco
Erreginaren ohoretan. Bere nahi guzia
zuen hiltzea lagunbat egunarekin, bere
azken hatsaren homajaz contsecratzea
gatic, egun harekin, bere bizico aste
guzietan, Ama on hari bihurtu ziozcan
ohore suerte guziac. Entzuna izan zen
bere desirean; Mariac nahi izan zuen
beretzat ohorezco zuen eguna bera izan
hadin haren zerbitzari lejalarentzat, hu-
nen zeruco lorian sartzeco egun zori
onezcoa.

PRATICA.

Egizu egun edo pobrei amuina bat, edo
zerbeit bertze caritatezco obra on lagun
proximoaren fagoretan, Mariaren oho-
ratzekotzat.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Quam bene nobis erit sub præsidio tantæ
Matris.*

Ala zori on handia baita guretzat hu-

nelaco Amaren arartecotasunaren azpian
izaitea!

HOGOI ETA SEI GARREN EGUNA.

*Birjina guziz Sainduaren Zeruetarat
altchatzea.*

1º Mariaren Zeruetan sartze trionfazcoa ;

2º Zeruetan gozaten den loria ;

3º Zeruetan duen podorea.

I PHONDVA. Zerutarren herronca eta corte guziac, zein gehiagoca, lehiatzen dire Jaincoaren Ama zeruetarat altchatzeco trionfa ohoratzecotzat; Izpiritu dohatsu guziac heldu zaizco bere homajen bihurtzerat, eta cantatzen diozcate haren loriacotz bozcariozco canticac; zeru guziac iduri du berri berritan jartzen dela bere Andre Soberanoaren errezibitzeco. Jesu-Cristo bera heldu da bere Ama Dibinoaren aintzina, harentzat duen samurtasunac eta amodioac inspiratzen dioten lehiarekin; sartzen da zeruco lorian, Parabisuco Corte guziaren alegrantziazco cantuen erdian. Jainco Aitac errezibitzen du amultsutasunekin bere Alaba ongi maitea; jar arazten du bere Semearen escuinean preparatua zajon Tronuan;

emaiten dio buruaren gainean imortalitateco khoroa, egiten du zero Lurren Erregina, emaiten diozca graziazco tresor guziac escuetara; creatura guziei manatzen diote ohora dezaten Jaincoaren Ama eta Munduaren Andre Soberanoa bezala. Sar gaiten bozcarioekin zero Corte guziaren sendimenduetan, Mariarentzat hoin lorios den egun handian; marca dezogun gure axegina duen zori onaz. Entseja gaiten sor araztera gure bihotzetan gutizia bizi bat, lehen bai lehen gure Ama dohatsuaren ganat heltzeco zero Erresumara; arrakeri dezagun grazia hori ardiesteaz bere Seme Dibinoazenganic.

II PHONDUA. Considera dezagun Birjina Sainduac zeruan duen loriaren handitasuna. Loria hura Jaincoaren Amacalitate guziz gorari dohacona da, aberastua izan den graziazco tresoren araberacoa, berthuteric gorenetao praktketan bizi luze bat osoa eremanaren me rezimenduec galdegiten duten bezalacoa, eta hitz batez guziac erraiteco, bere Semeari bihurtu diozcan zerbitzu premiazcoei eta bere ezin gehiagoco Saindutasunari dohacoten bezalacoa. Hortaracotz

ere, bertze Dohatsu guziac beino gorago altchatua da lorian; ezarria Aingeru eta bertze zerutaz guzien gainetic. Jaincoa bera beino choilki aphasago, berac egiten du ordre eta herrunca bat berezia, eta bere azpian ikhusten du Jainco ez den guzia, izan diren, orai diren eta izanen diren creaturac oro. Ahuspez eman gaiten beraz errespeturic handienekin Erregina handi haren oinetan, eta ofri ditzogun gure arimaco khar guziarekin ahal ditzokegun homaja guziac.

III PHONDUA. Maria, altchatua creatura choila hel ditaken loriaco herruncaric gorenera; Maria zeru guziaren amirazionezco, benediczionezco, laudoriozco optcheta, bethi orhoitzen da bere Lurre-ro haurrez; Elizaren eta Girichtino guzien arartecoa da, Erregina eta Ama; Justu eta Bekhatoros Jaincoa ganat itzuli nahi diren guzien confientziaco opcheta; ez da baratzen gure fagoretan mintzatic; ardiesten diozcate hari adrezaten diren guziei graziaric baliosenac eta salbagarrienac. Dugularic Ama Saindu harentzat errespeturic handiena, confientziaric biziena, amodioric samurrena, eman gaiten osoki haren zerbitzat-

zeari eta haren constanki ohoratzeari; othoitz dezagun lagun gaitzala gure bizian, eta sar araz gaitzala zeruan gure heriotzeco mementoan.

OTHOITZA.

Jesusen Ama guziz Saindua, horra beraz Lurra uzten duzun mementoa, zeruetarat igaiteco. Ez, Lurra ezda gai gehiago zutaz gozatzecotzat; ordu da zohazin egoitza dohatsuago eta zure izaiteco gaiago den baterat. Zohaz beraz, Maria maitagarria, zohaz errezibitzerat ongi irabazia duzun loriazco khoroa; zohaz merezitu duzun sariaz gozatzerat, sar zaite zuretzat dagon Tronuaren gozameanean. Bainan bederen, zure haur eta zerbitzarietarie sepharatu aintzinean, errezibi zaitzu hejen adio tristeac, eta emozute zure arartecotasunaren eta zure amodioaren bahia. O Ametan den hobereña! Maria guziz eztia, utz diezaguzu zure bihotza, bihotz hori hoin ona, hoin samurra, hoin jenerosa, hoin maitagarria. Nigarrezco haran huntan gu garen bezalaco ume churtchentzat izanen da gure ihes lekhua, gure laguntza; baliatuco zaucu Arkha Saindutzat, zeinaren gerizera ihes eginen baitugu costa joitetic

begiratzeco, zure arartecotasun puchantaren bidez, zurekin zeruetarat bilduac izaiteco zori ona izanen dugun artean.

EXENPLUA.

Serora Saindua.

Maria Eme Blonaicoa, Bisitazioneco lehen Seroretarie bat, zeina hainitz Comen-tuetaco. Buruzagi izan baitzen aldizca. Haurretic izan zen fagoratua Birjina Sainduaren alderaco debozionearen efeturic miragarrienez. Ohacoan zen oraino, noiz eta ere bere Ama debotac, hiltzeracoan, ezarri baitzuen Birjina Sainduaren eta Santa Anaren arartecotasun bereziaren azpian. Benediczionezco haur harrec aditu zuen bezen laster haren Amac zer egin zuen, aphaindu zuen berekhanbaran aldare chume bat mahainaren gainean, eta han, ezarri zituen bi Saindu hejen potretac. Haren plazer guzia zen hara, eguncan bi edo hiru aldiz, joaitea, han egiteco bere othoitzac eta bere lan chumeac; here Ama onaren begien aintzinean izan balitz bezala. Artha hori haur haren aldetic hain agradagarri izan zitzajon Birjina guziz Sainduari, non nahi izan baitzangon bera Amatzat zerbitzatu eta Gi-

daritzat, bai eta ere berac erakhatsi gero ondoan haren baithan hainbertze eclatekin agertu izan diren berthuteen praticac. Hamabortz urthetaco inguruan, Maria Emec, bezperen erraiten hari zelaric bere herrico Elizan, tristezia handi bat senditu zuen ikhustez bere burua obligatua lehen urhatsaren uztera bere aintzineco zaharrac Nausi izanac zituen lur batetaco Andre bati; eta haren ondotic ez ibiltzea gatic, hartu zuen chedea Elizatic azkena ilkhitzeco. Nola hainitz denbora iduriki behar izan baitzuen, lokhartu zen eta ametsetaric ikhusi zuen nescatcha gaztezco oste handi bat zohala Elizarat, Birjina Sainduaren ondotic, haren segi. Juntatu nahi izan zen gazteriazco bilkhuja hari; bainan iduritu zitzajon Birjina Sainduac urruntzen zuela, erraiten zioelaric aire zorrotzarekin: *Etzare aski humila enetzat, zeinac hautatu baitut aphaldua izaitea eta izaitea azkena ene Jaincoaren Etchean.* Hitz horien ondotic, Birjinen Erregina igan zen hamabortz pausu, eta hetaric bakhotcharen gainean, haren zangoec uzten zuten berthute bat izkiribatua urrezco letra handitan, segidaco ordre huntan: lehen pausuan, hu-

militatea; bi garrenean, *modestia*; hiru garrenean, *pobrezia*; lau garrenean, *obedientzia*; bortz garrenean, *garbitasuna*; sei garrenean, *Jaincoaren beldurtasuna*; zazpi garrenean, *Debozionea*; zortzi garrenean, *jakitatea*; bederatzi garrenean, *indarra*; hamar garrenean, *contseilua*; hameica garrenean; *endelgua*; hamabi garrenean, *zuhurtzia*; hamahiru garrenean, *fedea*; hamalau garrenean, *esperantza*; hamabortz garrenean, *caritatea*. Azkeneco pausu huntan, Birjina Saindua itsaasi zen; eta Maria Eme iratzartzean, bere banitateaz hanbertzetaraino ahalgetu zen, non hitz eman baitzioen bere buruari etzuela handic harat ez bertze ethorkiric, ez bertze sortzeric estimatuco, baizen ere Jaincoaren haurrena. Ordutic, Saindutasunera heltzecotzat, etzen segitzetic baratu Jaincoaren Amaren oinen azpian, urhats bakhotchcan, sortzen ikhusi zituen berthuteen bidea, abiatuz humilitatetic, zeina baita perfeccionearen zimendua. Birjina Sainduac ezagutzerat eman zioen oraino bere bocazionea seroratzecoa zuela. Hamazazpi urthetan, Eguerri bezperan, othoitzean zagolaric Andre-Dena

Mariaren eta Santa Anaren potreten aintzinean, eta meditatzen zuelaric Artzainec Betelemeco establian Jesus haurraren adoratzeco izan zuten zorianaz, bet betan argitua izan zen barneco argi batez, zeinac ikhusi arazi bezala baitzioen Birjina Saindua, eta adi arazi haren ganic hitz hauc; *ene haurra, huna ene Semea, zeina guzia amodioz sustatua, heldu baita Espos lejal baten bilha; ofri zaizco eta onhetsico zaitu.* Maria Emec obeditu zuen, eta ahuspez emana othe lacoaren aintzinean, ukho egin zioten munduco banitate guziei, ofritu zangon eta eman osoki eta erreserburic gabe Jesu-Cristori. Memento beretic guzia seroratzeco pentsamenduaz hartua, pharte eman zioen San Frantses Salesecoari bere chedeaz; Saindu hunec, arthoski examinatu ondoan gauza, borthiztu zuen bere erresoluzione onean, eta errezibitu zuen bere Congregazione berrian, bere bocazionetic gibelatzeco munduac alchatu ziozcan traba eta contradiczione guzien contra.

(Blonaico Amaren Bizia).

PRATICA.

Orhoit zaite Zerucotzat egina zarela,

eta othoitz zazu Maria lagun zaitzan harat heltzen.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Vitam præsta puram; iter para tutum.

Ama Dibinoa, egizu gure bizia garbi izan dadin eta saindu, eta gida gaitzatzu Zeruco bidean.

HOGOI ETA ZAZPI GARREN EGUNA.

Mariaren bihotz Saindua.

- 1º Bihotzetan den perfetena;
- 2º Bihotzetan den Sainduena;
- 3º Bihotzetan den maitagarriena, Jesusenaren ondotic.

I PHONDUA. Mariaren Bihotza, Creatzailearen escuetaric atheratu den bihotzie perfetena da, eta gure errespetuen eta homajen izaiteco gajena, Jesu-Cristo gure Jaunaren Bihotz Sacratuaren ondotic. Trinitate guziz Sainduco hiru presunac baliatu dire obra miragarri horren formatzean; bakhotcha lehiatu da Bihotz Saindu horren aberastera dohainic gorenez, graziaric baliosenez eta nasajenez. Aita eternalac agertu du bere puchantzia, formatzean, Maria baithan, bere Creatzailearen alderat errespetuz eta obe-

dientziaz bethericaco Alaba baten Bihotza; Semeac eman zioen Mariariamazco Bihotz bat, zeintan nahi baitzuen egin bere egoitza; Izpiritu Sainduac eman zioen Espoz Bihotz bat, guzia sutan zagona amodioric garbienaz eta khartsuenaz. Gizonaren izpirituac ezin conprenitua da Bihotz sacratu hartan zer handitasun, zer aberastasun, zer perfezione diren zerratuac. Junta gaizcoten Izpiritu dohatsuei zeinac ez baitire baratzen haren laudorioen cantatzetic Zeruan. Ohora dezagun debozione samur hatekin, merezi dezagun amorea gatic Zerurat joaitea, han, haren loria eta haren handitasun ezin erranezcoac zelebrazeco.

II PHONDUA. Mariaren Bihotza Creatzailearen escuac creatura choil batean formatu duen Bihotzie Sainduenada, berthuteric garbienen model miragarria, Jesusen Bihotzaren iduri perfeta. Ama Dibino haren Bihotza sutan izan da bethi caritateric suhartenaz; maitatu du Jaincoa, berac bakharric, Serafin guziec, oroc elgarrekin beino gehiago; berac eman izan dio Jaincoari loria gehiago bere afeczioneric mendreenaz, ezen ez bertze creatura guziec bere aczione sain-

duez. O Jaincoaren Amaren Bihotz guziz garbia, graziazco eta Saindutasunezco tresora, berthute guzien egoitza saindua, ene modeltzat hartueo zaitut hemendic harat. Ethorrico naiz zu ganic ikhastera humilitatea, garbitasuna, ez-titasuna, pazientzia, munduarentzateco mesprezioa, eta bereziki Jesusen alderaco amodioa.

III PHONDUA. Mariaren Bihotza da, Jesusenaren ondotic, Bihotzic maitagarriena. Gehienic dena gai gure samurtasunaren eta gure ezagutzaren izaiteco, bere baithan zerratzen dituen maitagarritasun ezin conparatuzcoengatic, eta guretzat dituen amultsutasuna, ontasuna eta caritatea direla causa. Bethi atzarria gure beharren gainean, Ama Dibino harrec ofritzen daucu bere Bihotza gure ihes lekhutzat, gure pena guzietan gure consolazionetzat. Dezogun beraz bihur amodioa amodioarentzat; marca dezogun gure ezagutza eta samurtasuna gure lejal-tasunaz haren zerbitzuan, gure lehiaz eta kharraz imitatzean haren berthute miragarriac.

OTHOITZA.

O Mariaren Bihotza! zeina baitzare

caritatearen, misericordiaren eta bakearen tronua, Bihotz guziz maitagarria, Trinitate adoragarriaren conplesentzien opcheta, gai zarena Aingeruen eta gizonen homajac errezibitzeco; Bihotz guziz Saindua, berthute guzien modela, Jesusen Bihotzaren iduri perfeta; amazco Bihotza, zeinac hain minki senditu baitituzu gure miseriac, zeinac hainbertze sofritu baituzu gure salbamenducotz, zeinac maitatu baicaituzu hainbertze samurtasunekin, eta zeinac horiez oroz merezi baituzu gizon guzien errespetua, amodioa, ezagutza eta confientzia, onhets zaitzu gure homajac; entzun zaitzu gure desirac adi gure othoitzac, gure bihotzac conberti, bethe zaitzu zure berthuteen amodioaz, 'susta zaitzu zeroni erretzen zaituen Zeruco su sacratuaz. Izan zaite gure laguntza gure behar guzietan, gure solemendua gure afliczionetan, gure indarra gure tentazionetan, gure socorria gure lanjeretan, gure ihes lekua heriotzeco orenean, gure zori ona eternitatean.

EXENPLUA.

Misionest Saindua.

Jaun Doni Bichintcho Ferriez, hain omen handitan izan dena Eliza guzian,

bekhatosen conbertitzeco zuen kharraz,
 hainitz debozione erakhatsi zuen, casic
 bere ohacotic, Birjina guziz sainduaren
 alderat. Entsejaten zen bereziki plazer
 egitera Zeruco Erreginari haren berthu-
 teen imitatzeco zuen lehiaz eta bihotzeco
 garbitasun handi batez. Debruac, ikhusiz
 zonbat arimen conbertitzera zohan Maria-
 ren zerbitzari khartsu hura, egin ahal
 guziac egin zituen haren eror arazteco.
 Bainan Sainduac jakin zuen etsajaren
 ataca guziei contra egiten, bere Patroin
 sainduaren arartecotasunez eta haren
 laguntzarekin batean. Egun batez, ira-
 curtzen zuelarik bere etcholan San Je-
 romec Birjina guziz sainduaren bethie-
 reco birjinitateaz egin izan zuen tratatua,
 amodioz guzia hartua berthute balios eta
 maitagarri harentzat, utzi zuen iracurt-
 zea, eta Lurrari contra ahuzpez emanic,
 arrekeritu zuen Birjinen Erregina ardiets
 zezon grazia berthute eder hura seculan ez
 bere haithan histerat uzteco. Etzuen hain
 laster akhabatu bere othoitza non aditu
 baitzituen hitz hauc : *Birjinitatea berthute
 bat da arraroa, dohain hori ez da gutiri
 baizen acordatua, eta etzare flatatu behar
 izanen zarela nonbre chume hartacoa,*

*baldin oren huntaraino Birjina izan bazare, ezin sofrituco dut luzekiago merezi dezazun izen eder horren ekhartzea. Ez daiteke erran nolacoa izan zen Jaincoaren Zerbitzariaren estonamendua hitz horiec aditzean; ezin sinhets zezaken garbitasunaren Amac errefusa zezakela secular bere arartecotasun puchanta Jaincoaren aintzinean, berac hain maitezuen berthutea galdegiten ziotenei. Continatzen zuelaric beraz bere othoitzara oraino khar gehiagorekin, Birjina Saindua agertu zitzajon zeruticaco argiz distiratzan zuela, eta erran zioen: *Etzaitzela trubla, ene haurra; entzutetic heldu zarena gezurraren Aitaren maltzurkeria da, zeinac ez baitu bilhatzen baizic ere zure izitzea eta descurajatzea. Hartzazu alimu, -ene haurra, pertsebera zazu hartu duzun erresoluzionean eta egin duzun engajamenduan. Emazu zure confientzia guzia ene Seme Dibinoaren ontasunean eta ene arartecotasunaren gainean. Debruac hedatuco daitzu arteac eta libratuco atacada hainitz; bainan graziaz hazcartua, bethi garhait atheratuco zare guducatic. Hori erran bezen laster itsaasi zangon Birjina Saindua, uzten zuelaric**

Saindu hau contsolazionez bethea eta curaja berri batez sustatua. Bisione contsolagarri hortaz geroztic, Bichintcho Ferrer, dio haren biziaren istorioa Egileac, bizi izan zen gizon bezala beino Aingeru gisa hobeki, egun guziez abantzu berriac egiten zituelaric perfeccioneco bidean.

Arimen salbamenduarentzat zuen zeloac curri arazi ziozcan Espainia, Italia, Alemania, Frantzia, salbamenduco egien pedericatzeco. Jaincoaren Amaren arartecotasunaz lagundua, orotan hainbertze progotchurekin pedericatu zuen eta behatoretzco hain oste handia conbertitu, non ez baitzuten deitzen gehiago *Europaco Apostolua* baizen. Alde guzietaric laster egiten zuten haren entzutera: populuzco ostea Elizec ezin atchikiz! obligatua aurkhitzen zen ardura plaza publicoetan eta canpoetan pedericatzera. Bargeco hiriac ere izan zuen zori ona aditzeco misionario khartsu, Mariaren zerbitzari lejal hura, eta contserbatzen du oraino pedericu alkhi bat zeintaric pedericatu baitzuen merkhatua egiten zen tokian.

(*Saind. haren bizia, Ronzanoz*).

PRATICA.

Egitzu zure aczione guziac Mariaren Bihotz sacratuaren sendimendu beretan.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Cor. Mariæ, cordi, Jesu simillimum, ora pro nobis.

Mariaren Bihotza, Jesusen bihotzaren guziz iduricoa, egizu guretzat othoitz.

HOGOI ETA ZORTZI GARREN EGUNA.

Birjina Sainduaren imitazionea.

- 1º Ez da deus Mariari agradagarriagoric ;
- 2º Ez da deus Mariarentzat loriosagoric ;
- 3º Ez da deus guretzat abantailosagoric.

I PHONDUA. Mariari bihur dezokegun ohoreric agradagarriena, da haren berthuteen imitatzea ; hortara ez dohakentia deusec ez dezoke plazer egin. Nola ezen, berthuteen Erreginac onhets ditazake zenbeit othoitz ezpainez choilki hari adrezatuac, zenbeit pratica usantzaz baizic ez eginac haren ohoretan, berac higuintzen dituen pasionei largatzen den eta haren Semearen disgrazian borondezki dagon denboran ? Bainan contrarat, baldin ahalaz begiratzera egiten badugu ; berac aborritzen duen bekhatua

baldin hari bagare ardiestera, berac exenplua eman daucun bezala, haren berthuteac; baldin constanki ibiltzen bagare haren urhatsetan, gure lejalatasunac axegin eginen dio, eta onhetsico ditu amultsuki, gu, gure aldetic, bihurtzera entsejatuco gaizcon homajac.

II PHONDUA. Haurren conduita onac eta berthuteec egiten dutenaz geroz Burhasoen loria eta ohorea, zer loriazco sujeta ez da beharizan Mariarentzat ikhustea bere haurrac aplicatzen zaizcola khar handirekin berac exenplutzat eman daizcun berthuteen imitatzera! Ez ginakike haren hobeki lorificatzen nola eginez efortac haren imitazaile lejal izaiteco. Deusec ez dio emaiten hainbertze ohore nola haren alderat debotac diren Girichtinoen berthuteec eta bizi edificagarriac, deus ez da hainbertze baliatzen denic haren zerbitzarien nombrea emenda arazteco. Mariaren loria hori ez da hemen baratzen Lurraren gainean, hedatzen da halaber Zeruetaraino. Hala da ezen, zer laudorio ez du izaiten Aingeru eta Sainduetaric, noiz eta ere sar arazten baititu Jerusaleme dohatsuan arima fidelac, zeinei berac erakhatsi baitiote Zeruco bidea

eta zeinac salbatu baitire constanki erabiliz haren urhatsetan ! aplica gaiten beraz imitatzera berthute guzien model miragarri hura , medita ditzagun bere bizi guzian eman izan daizeun exenplu ederrac , eta entseja gaiten ocasionetan gure conduitaren erregelatzera Mariaren bizi sainduaren gainean.

III PHONDUA. Deus ez da progotchosagoric guretzat nola gure buruei Maria modeltzat emaita; deus gajagoric susta arazteco gure bihotzetan perfeczioneraco lehia bizi bat. Denean zerbeit amodiozco sendimendu Ama Dibino harentzat, pentsamendu choil hau : *Mariac praticatu du hunelaco berthutea..... Mariac hunela eginen zuen orai ni aurkhitzen naizen casuan* ; pentsamendu hau , diot , azki da ariman sor arazteco haren imitatzeco gutizia noble bat , inspiratzen du berthutearen amodioa , eta emaiten indarrac haren pratican ezartzeco. Bere aldetic Sainduen Erreginac ez ditu abandonatzen maite dituen haurrac , nahi lituzke ikhusi Hautetsien nonbreco; escua hedatzen diote , curajastatzen ditu , gidatzen ditu hejen urhatsac Zeruco bidean, garhaizia eraman arazten diote bere etsajen

gainean, ez da baratzen hejen laguntzetic eternitate zori onezcoan sar arazi dituzken artean. O zoin dohacabeac ginitzken baldin negliatzen baginu salbamenduco mojen bat hoin puchanta eta hoin errecha!

OTHOITZA.

O Sainduen Erregina! ene baitharic atheratzen naiz amirazionez consideratzen dudanean hoinbertzeberthute eder, zeinen exenpluac eman beitauzkigutzu. Zenbatenaz gehiago meditatzen baititut zure aczioneac eta zure conduita guzia, hanbatenaz seguratuagoa gelditzen naiz, Jesus zure Seme Dibinoaren ondotic, zu zarela imitatua izaiteco presenta daiteken modelic perfetena. Birjina Saindua, ezin helduco naiz seculan zu altchatua zaren perfeczionera; bainan bederen, eginen ditut ene ahal guziac hartara hurbiltzeco, ene flakeziac cilhegi utzico dautan bezenbatean. Esperantza dut lagunduco nauzula, eta zure socorriarekin batean ardietsico ditudala hain maite dituzun berthuteac, humilitea, caritatea, obedientzia, bizitze barnecorraren amodioa, penitentziaratco izpiritua, behere huntaco gauza guzientzat bihotza Iacho

eta estecamendu gabe izaitea. Bai, ene Ama guziz Saindua, ezarrico dut hementic harat zure alderaco deboziona be- reziki zure berthuten imitatzean; hori da zuri bihur dezakezudan homajarie perfetena; zuri eman dezakezudan amodiozco marcarie handiena eta segurena.

EXENPLUA.

Aphez Saindu baten heriotze edificagarria.

Cretenet, Lionan San Josepeco misio- neren escolatzailea, izan da Jaincoaren Amaren zerbitzari khartsuenetarie bat. Birjina miragarri haren alderat zuen debozionaec ihardesten zuen haren dignitate guziz goraz egiten zuen ideari eta estimuari. Nola ez baitzaucan Jaincoaz landan deus hartaz goragoric, Jaincoaren eta Jesu-Cristoren ondotic, etzuen uste bazela deus gajagoric haren homajen eta errespetuaren izaiteco, nola ezin comparatuzco Maria. Ohoratzen zuen bere Andre Soberanoa bezala, eta bere ama bezala maitatzen zuen; lehiatzen zen sartzera Maria molde berezi batez zerbitzatzeco altchatuac diren confrarioetan; egun oroz erraiten zuen arthoski arrosarioa ha-

ren ohoretan; eta here ocupacioneac et-
 ziotenean uzten egunaz haren erraiteco
 denbora, gabaz bederen erraiten zuen,
 eta etzen bezin ere etzaten laudoriozco
 homaja hori bere Ama onari bihurtu gabe.
 Bisitatzen zituen aste guzietz Mariaren ize-
 nean Jaincoari contsecratuac diren Elize-
 tariczonbeit; egiten zituen denboratic den-
 borara zenbeit beila chume haren ohore-
 tan, eta egun hetan emaiten zioten amui-
 na bidean aurkhitzen zituen pobre guziei.
 Bazuen khar bat hain handia haren loria-
 cotz, non nahico baitziozcan irabazi bi-
 hotz guziac. Ezin gehiagocoa zuen gostua
 haren laudatzeco, haren pribilioez eta
 haren berthuteez mintzatzeco, nahiz hor-
 tic inspiratu entzuten zuten guziei haren
 baithan behar zuten confientzia osoa.
 Deitzen zuen Erregina miragarrihura Ze-
 ruco Tresoriera eta grazien canala, zein-
 taz Jesu-Cristoc pasa arazten baititu be-
 re fagoreac gizon guzien bihotzetarat.
 Zioen zenbeit aldiz, ezagutzazco eta amo-
 diozco sendimendu handi batekin, haren
 laguntza gabe, Girichtinoen pharteric
 handiena damnatua laitekela, eta me-
 mento guzietz ikhus laitezcela justizia Di-
 binoaren ozpinac erortzen bekhatoros do-

hacabeen gainerat. Nola baitzakien Mariaren zerbitzari ona izaitecotz, Jesu-Cristoren zerbitzari lejal izan behar dela, artha berezi bat hartzen zuen, bera eta bertzeac erakhar arazteco debozione zin eta solido batera, berthute guzien praticaz. Segituz San Bernaten contseilua, Mariaren ganat oihu egiten zuen here behar ordu guzietan; haren escuetara emaiten zituen bere othoitz guziac, harrec Jaincoari presentatzecotzat; eta hain segur zen Amaren creditaz Seme Dibinoaren aintzinean, non here buruari hitz emaiten baitzioen ezin faltatu gabe ardietsico zuela haren arartecotasunaz galdeginen zuen guzia.

Cretenet Jadanic adinean abantzatua zen senditu zenean bet betan borthizki inspiratua Eliza gizon egiteco. Ikharatua dignitate guziz gora haren aintzinean, luzeki examinatu zuen bere bocazionea, eta ezaguturic Jaincoaren borondatea zela, erori zen probidentziaren nabira eta Aphez egin zen. Liongo Jaun Aphezpicua canpoan gerthaturic, Cretenet Joan zen Belleira, han ordena sacratuac errezibit-zeco, ordenatua izan zen aphez, Audre-Dena Mariaren Zerurat igaiteco bestan,

berac desiratzen zuen bezala. Zeremoniaren ondoan, ez jakinez nola marca Jaincoari bere ezagutza, adrezatu zen Birjina Sainduari, eta othoiztu zuen haren phartez bihur zetzon eskerrac bere Semeari, zioelatic haur baten chinpleziarekin: *Birjina Saindua, ene Ama ona, ez dakit zer erran gehiago; emoitzu enetzat eskerrac zure Semeari, plazer baduzu, eta erranen dut, Amen. Hala-biz.*

Lionerat bihurtzen zelaric, baratu zen Broseco caperan, zeina altchatua baita Loreteco Andre-Dena Mariaren izenean, eta han berri berritan contsecratu zitzaion Birjina guziz Sainduari, bera zen eta zituen guziez egin zioen ofrenda jeneralaz. Haren sacrificioa onhetsia izan zen, ezen bihamunetic beretic eritu zen, eta hil zen zenbeit egunen buruan, Montluelen, erlichionezco sendimenduric ederrenetan. Eritasunaren hastetic galdegin zuen bere arrosarioa zeina escuetan atchiki baitzuen hil arteraino. Musu emaiten zioten ardura arrosarioari eratchikiac ziren medalei, debozione samur batekin, eta maiz khartsuki aiphatzen zuen bere Abocatzat eta Amatzat hartu zuenaren izen sacratua. *(Creten bizi).*

PRATICA.

Emozu egun oroz gogoari Mariaren berthuteen imitatzea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Regina Sanctorum omnium, ora pro nobis.

Ozu, zeina baitzare Saindu guzien Erregina eta modela, othoitz egizu guretzat.

HOGOI ETA BEDERATZI GARREN EGUNA.

*Birjina Sainduaren alderaco
confientziaren motioac.*

- 1º Gure escasez eta beharrez duen ezagutza;
- 2º Jaincoaren aintzinean duen podorea;
- 3º Gizoneutzat duen amodio samurra.

I PHONDUA. Maria Dobatsu, Jaincoaren Amac, altchatua zeruco loriaren erdira, ez ditu ahanzten bere haurrac desterruco eta miseriazco Lur huntan. Ama ona eta urricalmendutsua, ez du guphidesten bere behatzen itzultzea gure gainerat; ezagutzen ditu gure beharrac eta gure herbailtasuna; ikhusten ditu gure salbamenduco etsajec libratzen daizcuten atacadac; aditzen ditu gure oihuac, entzuten ditu gure othoitzac eta gure desirac, eta oro errezibitzen ditu amultsuki eta

ontasunic handienarekin. Ama Dibino hura pasatua izan da gu bezala nigarrezco haran huntan ; gu bezalaco frogetaric iragan izan da ; tribulazione berac jasan ditu eta haren bihotz samurrari urricaltzen gaizco gure miserien erdian , eta bethi ekharria dago gure laguntzerat. Zer daiteke gajagoric guri inspiratzeco confientziaric fermuena , ontasuna bera den Ama haren alderat ? Adreza gaiten hari gure Arartecoari bezala ; oihu egin dezogun misericordiazco Erreginari bezala , beha dezogun bethi gure ihes lekhuari , gure contsolazioneari , gure esperantzari bezala.

II PIONDUA. Fedecac erakhasten daucu Zeruan Sainduen podorea Lurrean praticatu dituzten berthuteen nonbrearen eta goratasunaren araberacoa dela. Bada , Maria izan da berthute guzien modela , eta oro ekharri ditu perfeczioneraco gradoric gorenera. Nolacoa ez da beraz izan behar Jaincoaren aiutzinean haren podorearen hedadura ! Jesu-Cristo , diote Elizaco Aitec , da grazia guzien ithurburua , eta Maria da canala zeintaric ichurtzen baitire grazia hec gure gainerat. Seme Dibino harrec Ama ongi

maitatu harentzat duen amodio samur-
 rac ez dio zilhegi uzten deusic errefusat-
 zera haren othoitzei. Hortaracotz ere,
 Damiengo Piarres dohatsuac ez du bel-
 durric erraiteco puchantzia guzia emana
 zajola Mariari Zeruan eta Lurrean, eta
 ez dela hainbertze, arrekeritzale Calita-
 tean, hurbitzen salbatzailearen Tronura,
 nola Andre Soberano bezala: *Domina,*
non ancilla. Dezogun erran agur Eliza-
 rekin misericordiazco Ama hari, gu gu-
 zien esperantzari bezala: *spes nostra,*
Salve, eta othoitz dezagun har gaitzan
 bere arartecotasunaren azpian.

III PHONDUA. Birjina dohatsuac bere
 errai garbi eta sacratuetan contzebitu
 zuen mementotic Munduaren Salbatzai-
 lea, pharte hartu zuen haren gizonen
 alderaco amodioan, eta lothu zen gure
 intresei bere propiei bezala. Guretzat
 bethi sustatua izan den amodio samur
 harrec hartu zuen oraino khar eta emen-
 dio berri bat gorutzearen oinetan, Jesus
 hiltzera zohanac Amatzat eman izan zaun-
 gun mementoan. Norc erran nolacoac
 izan ziren orduan haren bihotzeco seu-
 dimenduac? Gutti erraitea laiteke cont-
 zebitu zuela bere haurrentzat Ametan

den hoberenaren amodio guzia; eratchiki behar da oraino ez dela egundeino Lurraren gainean agertu. Amario hain urricalmendutsuric, hain samurric, ontasunez eta misericordiaz hain betheric. Bada, orai Zeruan den denboran, caritatearen egoitza dohatsuan, zenbatez haren amodioa bere haurrentzat ez da behar izan biziagoa, samurragoa eta khartsuagoa! Bai, Maria Dibinoa, zuzare amodiozco Ama, eta zure bihotza idekia dago bethi zure haur guzientzat. Ez gaitzatzula abandona miseriazco Lurhontan, eta ardiets dietzagutzu behar ditugun laguntza guziac eternitate dohatsura helizecotzat.

OTHOITZA.

Zeru Lurren jabearen Ama, Maria, creaturaguzien artean Sainduena eta maitagarriena, sobera baizen ez da egia badirela Lurraren gainean hainitz bihotz esker gabeco eta sendimenduric ere ez dutenac, zeinec bere zori gaitzetan egiten baitautzute ez ezagutuarena, edo ez baitute zuretzat ez errespeturic ez debozionezco sendimenduric; bainan ordainez badire Zeruan miliunca Aingeruac eta Dohatsuac zure maitatzetic eta laudatze-

tic baratzen ez direnac; eta Lurrean be-
 rean ere zenbat arima lejal ez dire aur-
 khitzen zuretzateco amodio sainduaz er-
 retzen hari direnac, eta zure ohoratze-
 co eta zure laudorioen zelebrazeco du-
 tenac bere lehia guzia Ah! emana ba-
 litzaut su lama beraz, garretan izaitea,
 eta zu ganat tiratzea gizon guzien bihot-
 zac! zu zare Jaincoaren amodioaren eta
 haren conplesentsia samurren opcheta;
 eta nic, Lurreco bar herbail eta ez deu-
 sac, ezin maitatuco zaitut bada! Ah!
 urrun bedi ene ganic horrelaco sendi-
 mendu escasa eta eskergabetasuna! Bai,
 ene Ama maitagarria, maite zaitut, eta
 desiratzen dut zu bethi eta gehiago
 maitatzea. Egizu pertsebera dezadan az-
 ken mementoraino zure amodioan, con-
 tina dezadantzat zure benedicatzen eta
 maitatzen Dohatsu guziekin Zeruco Er-
 resuman.

EXEMPLUA.

Murde Olieren debozinezco praticac.

Ez da deus edificagarriagoric nola
 baitire Murde Olier, Parisan San Sulpi-
 zeco Seminarioaren fundatzaileac, Bir-
 jina guziz Sainduaren ohoratzeco egiten

zituen practica debotac. Nahiz ez diren guziac imita daitezkenac, bederen erakhusterat emaiten dute zoin zen bizia eta chinplea aphez Saindu haren fedea, eta zoin debozione samurraz sustatua zen Aingeruen Erreginaren alderat. Nola bere desira baitzuen Mariari contsecratzea osoki, botu egin zuen bethicotz haren esclabo jartzecotzat; hortaracotz, bere bizi guzian ekharri zuen lephotic gathe ttipi bat, eta hartu zuen erresoluzioea hari ofritzeco zituzken gauzaric baliosenac oro, eta deusen ez errefuzatzeco haren izenean zerbeit galdeginen zioenari. Nola bere ahaide hurbiletaric batec, Carmeliten ordenan sartzean, dohain eman baitziozcan hainitz diamant eta bertze asco prezio handitacourreria, memento beretic guziac eman zituen Birjina Sainduaren izenean contsecratuac ziren hainitz Elizen ornatzeco. Izaiten zuen bezen laster zerbeit gauza eder, etzaukejen berehala hartaz Birjina Sainduari homaja egin gabe, eta zioen: nahi izan balu ere bere barnecolehia hari contra egin, iduritzen zitajola ezin eginen zuela, hain zen ezen bizia eta borthitza. *Ez dakit, zioen, nola*

Errefusa daiteken zerbeit Erregina handi hari; hainitz pena hartzen dut ezin deusic eman dezakedanean pobre bati, aitzen diodanean aiphatzen Birjina Sainduaren izena. Horren gatic ere, hil aintzinean, bazuen hogoi urthe beino gehiago egina zuela patu bere buruarekin, seculan ez deusen errefusatzeco Mariaren izenean galdeginen zioten guziei. Mariaren alderaco obedientzia oso baten izpirituz, hartua zuen halaber bere gattetasunetic habitura Saindua ez deusez zerbitzatzeco, hari galdegin gabe bere cosentimendua. Jaunzten zuenean arropa berri bat, bazohan Elizara Birjina Sainduari presentatzera, othoizten zuelaric etzezau sofri arropa hura ekharrico zuen denbora guzian zori gaitzic izan zezan haren Semearen ofentsatzeco.

Murde Olierec zituen bezala bere praticac Birjina Sainduaren ohoratzeco, zerbitzari eta esclabo calitatean, bazituen oraino bertze batzu, haur calitatean, haren ohoratzecotzat. Ordinarioena zen seculan ez atheratzea hiritic, etchetic, edo bere khanbaratic, ez eta ere hetan sartzea galdatu gabe haren benediczionea. Haren piaja guziac abiat-

zen Ama Birjinari contseeratua zen Eliza edo capera baten bisitatzetic, edo hartan akhabatzen ziren. Aithortu zioen egun batez bere confientziaco adichkide bati, bazonanean arthoski Birjina Saindua ganic benediczionearen errezibitzera, phartitu beino lehen zenbeit piajetara, laster aurkhitzen zela saristatua laguntza herezi batez, eta etzitzajola secular gerthatzen damurric chumeena; bainan, baldin huts egiten bazuen eginbide horren bethetzea, laster punitua zela zerbeit gerthacariz.

Birjina Sainduari behatzen zitzaizcon gauza guziac contsolazionezco sujet batzuz ziren harentzat, eta bozcariotan ezartzen zuten haren arima. Entsejatzen zen ahalaz bethi begien aintzinean atchikitza Birjina Sainduaren imachina bat, eta ala bakharric izan zadin ala conpainian, etzuen secular faltatzen bere agurra- ren egitea errecontratzen zituen Ama Birjinaren potret guziei. Erremarcatua izanda hautatzen zuela, nahiagoz, pasatzea carica batzuetan, zeintan aurkhitzen baitzen Birjina Sainduaren zenbeit potret, ocasionea izaitea gatic Ama on hari here komajac maizago bihurtzecotzat. Misio-

neco lanen ondotic, gelditzen zangon denbora libro guzia santificatzen zuen haren ohoretan egiten zuen zenbeit beila debotez. Erraiten zuen egun oroz arrosarioa, bainan hainbertze khar eta gosturakin, non aurkhitzen baitzuen hartan bere penetaco soleimenduric handiena eta behar zituen grazia suerte guzien ithurburu ezin agortuzcoa.

Murde Olieric etzuen casic behin ere ez pedericu bat, ez debozionezco exorta bat egiten, non etzuen zerbeit erraiten Mariaren laudoriotan, haren arima zabaltzen bezala zen eta bere baitharic atheratzen bozcarioz, hartaz mintzatzeco ocasionea aurkhitzen zuen aldi guziez, hortaracotz ere, ezin bara zaiteken hartaz mintzatzetic. *Mintzo naizenan materia horren gainean*, zioen, *ez naiz hortaric errechki atheratzen, hainbertze heldu zaut ezen erraiteco*: Aphez Saindu harrec, seguratua etzela aczioneric hain loriosic Jaincoarentzat, ez eta ere Mariari hain agradagarri zajonic nola baita Mezaco sacrificioa, ofritzen zioen ardura Jaincoari, Ama Dibino haren ohoretara eta intentzionetara. Hortaz bertze alde, erran arazten zituen

hiru meza egun oroz bere Comentuco Aphezez. *Lehena*, Birjina Sainduaren ohoratzeco zerutarren Erregina eta bozcarioa bezala; *bigarrena*, haren ohoratzeco Lurreco Elizaren Erregina eta Abocata bezala; *hiru garrena*, haren ohoratzeco Purgatorioetaco arimen Erregina eta contsolatzailea bezala.

Bainan Birjina guziz Sainduaren ohoratzeco eta hari plazer egiteco enplegatzeten zituen pratica guzietan, etzangon iduritzen bazela bat conpara zaitekenic haren berthuteen imitatzeari. Haren idurico izaitecotzat zuen desirean, continoki aplicatua zen haren aczionei goardia emaiten eta haren misterioen meditatzen. « Baldin maite baginu Maria behar
« laiteken bezala, zioen, egin ahalac
« egin ginitzazke haren gogoaracoac
« izaiteco. Eta nola haren nahi guzia
« baita bere Semea ohoratua, eta Bihotz
« guzietan Erreginatzen duela ikhus-
« tea, ez ginuke gisa berean guc ere
« behar praticaric hobekiago atchiki nahi
« ginukenic, nola haren Seme maitagar-
« riaren maitatzea. »

(Murde Olieren Bizia).

PRATICA.

Goiz guzietz zohaz Mariaren besoetara,
eta galdegiozu bere benediczionea.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

*Numquid oblivisci potest mulier infantem
suum?*

Izan othe daiteke, Ama batec ahants
dezan bere haurra?

HOGOI ETA HAMAR GARREN EGUNA.

*Birjina Sainduaren alderaco debozioneeran
pertseberatzeaz.*

- 1º Pertseberatzearen nesesitateaz;
- 2º Pertseberentziaren contraco trabez;
- 3º Pertseberatzeco mojenez.

I PHONDUA. Jaincoaren Amaren aldera-
co debozioneerari aplica daiteke sentsu ba-
tean Izpiritu Sainduaren erran hau: *Az-
keneraino pertseberatzen duena, izanen
da salbatua.* « Bai, Birjina Saindua, er-
« ran dezakegu Alfonse Ligori Dohatsua-
« rekin pertseberatzen badut zure zerbit-
« zatzen, zure maitatzen, zure othoizten,
« ene khoroz seguraturua naiz; baina
« beldurtzen naizena da, o ene Ama ona,
« ez zuc abandona nezazun zeronec le-
« henic, baina nerone izan nadin aski

« zori gaitzezcoa eta esker gabea, emeki
« emeki zure zerbitzuari ukho egitera
« ethorrico naizena. » Mariaren zerbitza-
rietaric zonbat ez da gibelerat egin du-
tenic! Zonbat, bertze orduz, Ama on hura
ongi maite zutenac, eta orai hartaz casu-
ric egiten ez dutenac! Zonbatec etzioten
egun oroz adrezatzen kbartsuki bere
othoitzac, eta zeinec ez baitiote gehiago
galde bat ere egiten! Zonbat etzen co-
muniatzen zutenic haren besta guzietan,
eta orai behin ere communiatzen ez du-
tenic! ezacholakeria eta inconstantzia
deithoratzecoac, zeinac izan baitire asco
arimen galtzeco causac! Salbatuco ziren
Mariaren arartecotasunaren laguntzare-
kin batean pertseberatu izan balute ha-
ren zerbitzuan; bainan bere zori gaitze-
tan, epheldu eta lachatu ziren, gabetu
ziren lejaltasun handiago batekin ardiet-
sico ziuzten grazia nasajez, eta azkene-
cotz, erori dire bekhatuan eta damnazio-
ne eternalean. Ah! hoin zori gaitz ikha-
ragarriaren beldur izan gaiten, eta hor-
taric begiratzeco, izan gaiten lejal gure
Ama Dibingaren alderat; dugun zerbitza
constanki, maita samurtasunekin, eta
confientziarekin adreza gaizoon egun
oroz.

II PHONDUA. Mariaren alderaco debozitonean pertseberatzeco lehen traba aurkhitzen duguna da gure inconstantzia lachoa. Zenbeit kharrezco mementoetan, badiruri su eta lama garela Ama maitagarri harentzat ; ez duga aurkhitzen deus gozoagoric nola haren othoiztea eta haren aintzinean gure bihotzen zabaltzea ; bainan laster da iraungitzen gure kharra, enheatzen gare jenatzen gaituzten debozitionezco exerzizioez eta pratikez ; ez gusturic, ez debozioneric gabe egiten dire, negliatzen dire, eta azkenecotz abandonatzen dire oro. Helas ez othe da hori, ardua gerthatu zaucun gauza eta ez othe da hortic heldu hainbertze denbora hontan iraungiac bezala gauzcan epheltasun deithoragarria ! Pertseberatzeco dugun bigarren traba da Debruaren fulia eta errebiamentua Birjina Sainduaren alderaco debozitonearen contra. Maria da gure salbamenduaren bahia ; haren medioz dire bethetzen zeruac dohatsuz, gabetzen Ifernua bere bitimen esperantzaz, Lurra santificatzen, salbatzen gizonac, abundantziarekin hedatzen grazia Dibinoac gure gainerat. Estonatzeco othe da gero Sata nec ekhar dezon herra bat ezin erre-

contziliatuzcoa, eta egin ahalac egin dit-
zan haren alderaco debozionea arimetan
ezestatzecotzat? Bainan Ifernaaren erre-
biamendu hori behar da guretzat izan
motio bat puchantagoa debozione salba-
garri hortan pertseberatzeco.

III PHONDUA. Jaincoaren Amaren debo-
zioanean constanki pertseberatzeco, ardu-
ra orhoit gaiten haren ohoratzer a eta
zerbitzatzera erakharri behar gaituzten
motioez; haren ezin erranezco handi-
tasunac, Jaincoaren Ama calitatea, gu-
retzateco ontasun amultsua, bere haur
guzien gainerat bedatzetic baratzen ez
den grazia. Ez othe ginitazke ongi es-
ker gabeac eta gure buruen etsairic han-
dienac, baldin negliatzen baginu hari bi-
hurtzea gure ezagutzaren gure amodio eta
errespetuaren homajac? har dezagun gure
eginbidetzat egun oroz hari gure othoit-
zen adrezatzea, eta aplica gaiten guzien
gainetic imitatzera, egun bakhotchuan,
haren berthutetaric zenbeit, zeinen exen-
plu hain ederrac berac eman beitaizkigu.

OTHOITZA.

O misericordiazco eta graziazco Ama,
zeronec ezagutzen duzu ene arintasun eta
inconstantzia guzia, ez hanitzautzu urri-

caltzen ; herriz ere oraino , hain maiz izan naizen bezala , deslejal izanen naitzaitzu. Borthitz eta sustenga nezazu beraz , eta ez dezazula seculan sofri abandona dezadan zure zerbitzua , atchic nezazu zure arartecotasunaren azpian , eta zure familiar zure haurren nonbreco conserba nezazu ; erortzen banaiz , altcha nezazu ; errebelatzen banaiz , bide juzenera bihur nezazu ; guducaitzen banaiz , begira nezazu ; flaco banaiz hazkar nezazu ; costa joiten badut , salba nezazu ; eri banaiz , senda nezazu ; finean , heriotzeco orenean errezibi zazu ene arima zure escuetara , eta presenta zozu zure Semeari eternitate zori onecoan.

EXENPLUA.

Indietaco eta Japoneco Apostolua.

San Frantses Xabierrec bere bizi guzian ohoratu izan du Jaincoaren Ama , errespetuzco eta amodiozco sendimenduric bizienekin. Montmartreco Elizan , zeina consecratua baita Zeruco Erreginari , egin izan zituen bere lehen botuac , aboztucó Andre-Dena Maria egunean. Loreteco caperau izan zuen lehen inspirazionea , eta han berean hartu zuen

chedea Indietarat joaiteco. Etzuen deus galdegiten Jesu-Cristo Jaunari bere Amaren arartecotasunez baizen, eta girichino doctrinaz egiten zuen explicazioan, adrezatu ondoan Jesu-Cristori fede bizi eta constant baten grazia galdegiteco, gauza berarentzat adrezatzen zen Maria Sainduari, eta bere instruccionez guziac akhabatzen zituen *Salve Regina* othoitzaz. Etzuen deusic abiatzen behin ere Birjina Sainduaren arartecotasunaren azpian emanen baizen, eta hain maiz aurkhitu dituen irrichuetan bethi haren ganat zohan ihesi, bere Patroinaren ganat bezala. Erakhusterat emaiteco haren zertbitzari zela, eta hala izaiteaz ohore zitzajola, ekhartzen zuen ordinariozkilephotic emana arrosario bat; eta Girichtinoei emaitea gatic arrosarioaren erraiteco gostua eta deboziona, hartaz zertbitzatzen zen egiten zituen miraculuac obratzeco. Meliaporreco marchant battec, Malacara phartitzeco mementoan, galdegin zioen Apostolu Saindu hari eman zezon bere adichkidetasunaren bahitzat zerbeit marca; Xabierrec eman izan zioen bere arrosarioa, erraiten zioelatic: *Etzatzu segurki guti baliatuco, bal-*

din izaiten baduzu confientzia Maria baithan. Etzuten hain laster bela alchatu, non erauntsia izigarri batec aurdiki baitzuen untzia harroca baten gainerat eta phorroscatu baitzuen. Marchanta, confientziaz bethea Birjina Saindua baithan, zaucalaric escuan Xabierren arrasorioa, bet betan aurkhitzen miraculuzki, berac etzakielaric nola, itsas bazterrerat ekharria leihorrera.

Sainduac bazuen debozione berezi bat Birjina Mariaren contzebitze notha gabecoarentzat, eta botua egina zuen ahal guziaz egia horren sustengatzeco. Arduraz adrezatzen zangon Mariari bekhatosic handienen conbertsionea galdegiteco, bai eta ere bere bekhatuen barkhamendua haren arartecotasunez ardieste-co. *Hartu dut, zioen, bere letretaric batean, Zeruco Erregina ene Patrointzat, ardiets diezadan amore gatic ene nonbre gabeco bekhatuen barkhamendua.* Bere instruccionetan, ordinariozki mintzatzen zen Jaincoaren amaren handitasunez, eta guziaz nahi zituzken erakharri haren zerbitzuan contsecratzera. Azkenecotz, hiltzeraco mementoan samurtasunic bizienarekin oihu egiten zioen Mariari, eta

ezin erran bezenbat contsolazione aur-
khitzen zuen hitz hautan, zeinac mihian
baitzituen continoki: *Monstra te esse*
Matrem; erakhuts zazu ene ama zarela.
(*San Xab. bizia*).

PRATICA.

Eman zaite ahuspez Birjina Saindua-
ren potret baten aintzinean, eta galde-
giozu grazia azkeneraino haren zerbit-
zuan pertseberatzeco.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Quis invocavit eam, et non est exauditus
ab ipsa?

Norc egin dio oihu Mariari, eta ez da
hartaz entzuna izan?

HOGOI ETA HAMEICA GARREN EGUNA.

Gure buruez Birjina Sainduari egiteco
contsecrazioneaz.

1º Gure contsecrazioneac behar dituen cali-
tateac,

2º Zertarat obligatzen gaituen;

3º Emaiten daizcun abantailac.

I PHONDUA. Contsidera dezagun zer cali-
tate behar duen Jaincoaren Amari gure bu-
ruez egin behar diogun contsecrazioneac,

harentzat agradagarri eta guretzat probetchos izaitecotz. Behar da izan 1º Bihotzeticoa eta egiazcoa, erran nahi da, ez dela choilki hitzetan baratu behar, ez eta ere amodiozco eta lejaltasunezco agintza banoetan, bainan behar dela phartitu bihotz errespetuz eta samurtasunez bethe batetarie Ama miragarri haren alderat; 2º Behar da izan osoa eta perfeta, erran nahi da, behar ditugula ofritu eta contsecratu Mariaren loricotz gure izpiritua, gure gorphutza, gure ahal guziac, ditugunac oro, garen guzia; desiratzen dugularie bertze alde gauza guzietan haren azpico izaitea, gure Andre Soberanoaren eta Ama maitearen azpico bezala; finean, 3º behar da izan bethicotz, behin Mariari contsecratuz geroz, behar diotegu gure buruei behatu ez gehiago gureac bagina bezala, bainan bai, egiazki ordu beretic garenac bezala, Erregina guziz gora haren haurrac, zerbitzariac, sujetac, esclaboac, zeinen bihotzen gainean erreginatuco baitu eternitate guzian. O Maria! Zer zori ona guretzat zureac izaitea eta zure Seme Dibinoarenac, ez gehiago bizitzea Jesusentzat eta zuretzat baizen!

II PHONDUA. Contsidèra ditzagun consecrazione horri eratchikiac diren abantailac. « Jaincoaren Ama miragarriaren « alderaco debozioneac, dio autor debot « batec berekin dakharske hainbertze be- « nediczione, non eternitate guzia ez « baita sobera luzea izanen hartaric hel- « du diren onthasunen ezagutzeco..... « Pobrec hartan aurkhitzen dute « aberastasuna, bere beharretan solei- « tuac izaiteco; eriec erremedioa bere « gaitzetan; iñorantec jakitatea, fla- « coec indarra; afliituec consolazio- « nea; penetan direnec han causitzen « dute descantsua; khechu direnec ba- « kea eta sosegua; bekhatorosec han izai- « ten dute grazia; justuec santificazio- « nea; purgatorioetaco arimec bere li- « bertatea. Azkenecotz, ez da condizio- « neric haren jenerostasunean pharte ez « duenic, batere Nazioneric, batere her- « riric, batere Erresumaric frogatzen ez « duenic haren arartecotasuna: Lur gu- « zia bethea da haren misericordiez. Ha- « ren bihotzac, bihotz balios harrec « zeina baita, Jesusenaren ondotic, gar- « biena, eztienea, caritatosena, badu be- « rac bakharric amodio eta perfeccione

« gehiago, Aingeru eta Saindu guziet,
 « oroc elgarrekin beino; eta hadu be-
 « raz guretzat ezin comparatuzki samur-
 « tasun, urricalmendu eta laguntzeco
 « nahi eta jaudura gehiago ezin ez
 « Saindu guziet, oroc elgarrekin batean.
 « Bihotz misericordios hartaric da,
 « ezin agortuzco ithuri batetaric be-
 « zala, ichurtzen creatura guzien gaine-
 « rat grazia eta onthasun suerte guzieta-
 « co abundantzia bat casic infinitua (1). »

Baldin Ama Dibino hura hain khartsuki
 intresatzen bada gizon guzientzat, zer ez
 du eginen maite datenen fagoretan, bere
 bihotzeco afeczione guziac haren oho-
 ratzeco eta zerbitzatzeco contsecratzen
 diozcatenen onetan!

OTHOITZA.

O, amodio Sainduaren Ama, badakizu
 zure Seme Dibinoac, ez content bere
 Aitaren aintzinean gure Abocat jartzeaz,
 zeroni ezarri zaituela haren ondoan gure
 Ararteco, eta berac eman diotela zure
 othoitzei hainbertze indar, non ez baitza-
 cote deusic errefusatzen. Zu ganat heldu
 naiz beraz, o zu creatura herbailen es-
 perantza; zure alderaco esperantza ene

(1) Budon.

baithan hunelacoa da, non gehiago khondatzen baitut zure proteccionearen eta zure misericordiaren gainean, ezin ez ene obra on guzietan. Zutaz lagundua dena ez daiteke gal, hori badakite Zeru Lurrec. Hortic ere, nahiz creatura guziec ahants nezaten, nahiz Mundu guziaz abandona nezan, ez banauzu ahanzten eta ez banaiz zutaz abandonatua, hori aski zaut, hori da choilki nic desiratzen dudan guzia. O Maria! Zure baithan dut ene confientzia; esperantza hortan naiz bizi, esperantza horrekin nahi nuke hil, diodalaric bihotzez eta mihiz: *Jesus da ene esperantza, eta haren ondotic zu zare, o Birjina Maria.*

EXENPLUA.

*Birjina Mariaren alderaco bihotz
ichuriaz.*

Huna Jaincoaren Ama ganaco bihotz ichuriaren zenbeit exenplu, zeinec erakhatsico baitaucute zer sendimenduetan egin behar dugun Birjina Sainduari gure buruen contsecrazionea, zeinac behar baititu khoroatu graziazco eta benedictionezco ilhabethe huntaco praticac eta exerzizioac.

Ligori Sainduac khondatzen du art-

zain zagon nescatcha pobre baten istorioa, zeinac baitzuen Birjina dohatsua-
rentzat afeczione bat hain samurra, non
haren zori on guzia baitzen joaitea men-
di baten gainean aurkhitzen zen Andre-
Dena Mariaren capera chume batera,
han pasatzen zituen oren osoac bere Ama
Dibinoarekin conbertsatzen. Aflitua
ikhustez Birjina Sainduaren potreta or-
namentic eta apheinduratic gabe, egin
zioen capa bat aurkhitu ahal zuen oiha-
lic ederrenetic. Bertze aldi batez bildu
zituen landa batean lore batzu zeintaz
egin baitzuen girlanda bat; eta gero,
aldare gainera iganic, ezarri zioen
girlanda potretari buruaren gainean,
erraiten zioelarie Mariari: *ene Ama,*
nahi nuke zure buruaren gainean ezarri
khoro bat urrezcoa eta diamantezcoa;
bainan nola ez bainaiz nescatcha artzain
pobre bat baizen, ezin eman dezakezut
lorezco khoro bat baizic; errezibi zazu
hau bederen ene amodioaren bahitzat be-
zala. Bihotzeco homaja laño eta chinple
hura bain agradagarriizan zangon Birjina
Sainduari, non fagoratu baitzuen nescat-
cha debot hura izpiritualeco grazia oste
händi batez, eta agertu baitzitzajon heriot.

tzeco orenean, zeina handic laster izan baitzen, escuan zaucalaric khoro bat zeina ezarri baitzioen buruan, eta berac gidatu zuen Parabisurat.

Herman dohatsua zeinari eman baitzioten Josepen deithura, Mariarentzat zuen debozione miragarria zelacoth, oraino haurra zelaric, usten zituen bere adineco josteta inozentae, eta bazohan oren osoac iragaitera Birjina Sainduarekin eta haren Seme Dibinoarekin, potret baten aintzinean, zeinac errepresentatzen baitzuen Ama on hura Jesus zaucala bere besoetan. Han, imachina haren oinetan ahuspez emana humiltasunic handienean, entzuten zen adrezatzen zela, batean Amari, bertzean Semeari, Jaincoac choilki arima inozent bati inspira zezoken lañotasun eta chinplezia Saindu batekin. Chinplezia debot harrec erakhartzen zuen ardura Birjina Sainduari presentatzera zonbeit lore, eta batzuetan emaiten ere baziozcan zonbeit fruitu, hertchatzen zuelaric afeczione lehiatu batekin errezibitzeaz present chume hec, eta hec berac onhets arazteaz bere Semeari. Chinplezia inozent horrec plazer egin zioten bai Amari, bai Semeari, eta

hortic haur Saindu harrec merezitu zuen hejen presentziaz ardura gozatzea, hejekin solhastatzea, eta hejen laguntzarekin batean berthuteric gorenera altchatu zen.

San Bernardin Sieneoac, orobat hartu zuen haur haurretic costuma Saindua goiz guziez joiteco bere agurraren egitera Birjina Sainduaren potret bati, zeina baitzagon hirico borthetarie baten gainean; han, bi belhaunez lurrari josia, contsecratzen zitzajon haren zerbitzuc. Haren kharra eta haren debozio-nea hainbertzetaraino agradagarri izan zainzcon Jaincoaren Amari, non ardietsi baitzioen fraidetasuneco bocazio-nearen grazia, bekhatosen conbertit-zeco dohaina, eta miraculuen egiteco botherea. Ezen, San Bernardin pedericari aiphatua izan da, eta bethe izan du Eliza bere doctrinaren argiaz eta bere berthuteen exenpluez.

Santa Theresa ere, bere lehen urthetarie, osoki eman zen Birjina Sainduaren amodioari. Ama Dibino haren alde-raco debozioaneac inspiratzen zioen mila artificio chume haren ohoratzeco. Egin zuen bere kharbaran aldare ttipi bat zeintan ezarri baitzuen haren potreta; bazohan ardura haren bizitatzera, ofrit-

zen ziozcan loreac edo bertze zerbeit present chume, zeinei eratchikitzen baitzioten bethi zonbeit othoitz khartsu. Mariaren alderaco sendimendu samur hec inspiratuac izan zaingon Theresa gazteari Beatrix bere Ama debotaz (1). Hamabi urthetan galdu zuen Ama on eta maite hura ; egin zuen caltearen handitasuna biziki senditu zuen , eta memento berean laster egin zuen ahuspez emaitera Birjina Sainduaren potret baten oinetan, haren arrakeritzeco har zezan bere haurtzat eta Ama orde balia zitzacon. Hainbertzetaraino agradatu zangon ofrenda hori Jaincoaren Amari, non oren berectic hartu baitzuen bere arartecotasun bereziaren azpian , eta gidatu baitzuen ordutic harat bere urhats eta eginbide guzietan. Saindu harrec segurutzen du, berac, Mariari errecomendatu zacon

(1) Amec ez dezakete har secular artha sobera hurrei, adimendua ideki ere zajoten beino lehen, elheketa abiatzen direnaren phondutic, inspiratzeco Ama Birjinaren alderaco amodia, confientzia eta debozionea. Horrelaco sendimenduetan inozentziatic altchatuac diren haurrac, manera berezi batez benedicatuac eta lagunduac direla bere bizico urhats guzietan, eta particularki heriotzeco orenean, bethi danic erakhasten du experientziac.

circonstantzia guzietan , etzajola faltatu haren arartecotasun puchantaren efetuac senditzea. Horren gatic ere zuen misericordiazco Ama haren baithan hain confientzia handia , non ofritzen baitziozcan establitzen zituen Comentu guzietaco gakhoac, eta egiten baitzuen hetaco orotaco lehen Buruzagia hunelaco exenpluen ondotic , zer lehia ez ginuke erakhatsi behar Maria Dibinoari gure buruen contsecratzeco ! Nahi badugu gure ofrenda agradagarri izan dakion , presenta diotzogun bihotz batzu betheac errespetuz , betheac confientziaz eta samurtasunez , Bihotz batzu birringiduac eta santificatuac berthutezco pratikez , zeinen exenplu hain miragarriac eman beitaizkigu berac.

PRATICA.

Egin dezogun Mariari gure contsecrazionea, debozioneric samurrenaren sendimendu guziekin, eta har dezagun chedea hunen erreberritzeco zenbeit aldiz, denboratic denborara , gero ondoan.

BIHOTZ ALTCHATZEA.

Tuus sum ego , saluum me fac.

O Maria Dibinoa , guzia zurea naiz, artha izan zazu ene salbamenduaz.

CONTSECRAZIONEA.

Birjina guziz Sainduari.

MARIA, Birjina guziz Saindua, Jaincoaren Ama eta ene Ama, Zeru Lurren Erregina, guziz puchantaren escuco obra miragarria, Trinitate adoragarriaren conplesentziazco opcheta, berthute guzien miraila, sofri zazu, graziazco eta salbamenduzco ilhabete hunen akhabantzán, ethor nadin zure oinetan abuspez emaitera, zuri ofritzeco ene ezagutzaren eta ene bertze zure alderaco sendimendu suerte guzien homaja. Nahi nituzke, o ene Ama ona! izan gizon guzien bihotzac, oro zuri presentatzecotzat; nahi naitzuzke bihurtu memento guziez Aingeruec eta Sainduec bihurtzen eta bethi Zeruetan bihurtuco daitzuten ohore guziac. Bainan, ezin bethe dezakedanaz geroz ene nabia, bederen, ahal dezakedan guzia eginen dut Abuspez emana zure Tronuaren oinetan errespetuzco eta amodiozco sendimenduric bizienekin, ene Aingeru begiralearen eta zeruco corte guziaren presentzian, hautatzen zaitut ene Erreginatzat,

ene Andre soberanotzat , ene Arartecotzat eta ene Amatzat ; eta calitate hortan contsecratzen daitzut , borondate oso eta libro batez , eta bethicotz , ene onthasunac , ene gorphutza , ene arima , ene sentsuac , ene ahalac , ene presuna eta eue bizia. Hartzen dut erresoluzione fermua seculan ez ahalgetzeco zure debozioneaz , defendatzeco zure ohorea ene aintzinean atacatu nahico zaituztenen contra eta bethi lorificatzeco zure zerbitzari eta zure haur lejal izaiteaz. Ez dut utzico egunic iragaitera zuri bihurtu gabe ene homajac , eta zuri adrezatu gabe ene othoitzac. Eta nola ! O ene Ama maitagarria ! Ahantz zitzazket , egun baxhar batez ere , egun guziez nitaz pentsatzen duzunaz geroz zerorrec , eta etzarenaz geroz baratzen ene zori onaz ocupazetic ?

O Birjina Saindua ! huna beraz non naitzen memento huntaric guzia contsecratua zure zerbitzuc. Zurea uaiz , eta guzia zurea erreserburic gabe. Zer da nic ez dezakedana , zure erreinu maitagarriaren azpian , eta zer esperantza ez dut beharizan ! onhetsazazu , ene zori onac emaiten dautan bozcarioan , abia nadin pratican emaiten ze-

ronec inspiratzen dautazadan confientzia gozoa. Nigarrezco haran huntan, galdegiten dautzut zure lagantza; zeronec ikhusten dituzu inguratzen nauten irrichcuac; ikhusten duzu atacatzen nauten etsajen fulia; zu zare grazien phartitzailea; baituketzu nahi dituzun guziac zure Seme Jaincoa ganic, zu zare ene Ama eta Amentan den hoberena eta samurrena. Izan othe daiteke, o Maria! zuc khar gutiago izan dezazun ene salbamenduarentzat, ezin ez Ifernuac ene gal arazteco? O Ama on eta amultsua, misericordiazco eta amodiozco Ama! izan zazu urricalmendu arima batentzat, zeinac bere loria ezartzen baitu osoki zuretzat izaitean. Urrun zaitzu ene ganic aldaketan ditudan irrichcu guziac; suntsi zaitzu ene etsai cruelac, sustenga zazu ene flakezia, lagun nezazu ene bizico memento guzietan, gida nezazu ene azken orenerainocoan, Mundu huntaco itsaso calernatsuan, eta eramán nezazu bethiereco zori onaren portura, han, esperantza dudán bezala, benedicatuco zaitut, laudatuco, maitatuco dohatsu guziekin bethicotz eta phartajariac gabe. Hala-biz.

MARIAREN ILHABETWEAREN AKHABANTZA







